

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2007, 2
52. liburukia (2. aldia)
BILBO

«LETURIAREN egunkari ezkutua» eleberriaren ekarpena XX. mendeko euskal narratibaren testuinguruan

In: Euskera. – 52. libk. (2007, 2). – ISSN 0210-1564

Zenbaki monografikoa

Donostian, 2007ko uztailaren 16, 17, 18an, Txillardegiren eleberriaren argitalpenaren 50. urteurrena dela eta, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak antolatu Jardunaldietan egindakoak

1. Txillardegi (1929-). Leturiaren egunkari ezkutua I. Euskaltzaindia II. Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Telefonoa: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44

e.posta: info@euskaltzaindia.net • web gunea: www.euskaltzaindia.net

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

Burua: Andres Maria Urrutia Badiola

Kideak: Beñat Oihartzabal, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Henrike Knörr, Andres Iñigo, Adolfo Arejita eta Pello Salaburu

Eragile eta idazkaria: Ricardo Badiola Uriarte

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, apaimenatarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Lege-gordailua BI-1.244-58

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimategia: Emfasis
Gorbeia, 1 - 48004 Etxebarri (Bizkaia)

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.

Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.

Rogamos dirigirse al Director.

AURKIBIDEA / INDEX

I

LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA ELEBERRIAREN EKARPENA XX. MENDEKO EUSKAL NARRATIBAREN TESTUINGURUAN

Aitzin solas, <i>Jean Haritschelhar</i>	545
<i>Leturiak</i> berrogei eta hamar urte bete dituela eta, <i>Ana Toledo</i>	547
Antton eta Leturia (edo literaturtasunarekin kuku-gordeka denbora historikoaren oihanean), <i>Ur Apalategi</i>	559
Ekaitzpean: Jose Eizagirre (1881-1949), <i>Jon Kortazar</i>	567
Yon Etxaideren Eleberrri historikoak: <i>Alos-torrea</i> (1950) eta <i>Joanak joan</i> (1955), <i>Javier Rojo</i>	579
<i>Amabost egun Urgain</i> 'en (1955) eta eleberrigintza poliziakoaren hastapenak, <i>Javi Cillero</i>	599
<i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> (1957) haustura bat euskal narratiban?, <i>Jon Casenave</i>	617
Txillardegi: <i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> , <i>Iñaki Aldekoa</i>	627
<i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> . Liburuaren harrera garaikideen artean, <i>Patri Urkizu</i>	635
<i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> : gizon eta emakume irudiak, <i>Iratxe Retolaza</i> . . .	671
Txillardegi eta (kristau?) erlijioa, <i>Sebastian Gartzia Trujillo</i>	691
<i>Leturiaren uda ezkutua</i> . «Uda» atalari buruzko iruzkinak, <i>Karlos Otegi</i> . .	731

ERANSKINAK

<i>Nerekin yaio nun. Txillardegi omenaldia. Liburuaren aurkezpenean, Henrike Knörr</i>	761
<i>Txillardegi omenaldi-liburua, Pilartxo Etxeberria</i>	765
<i>À mon ami Txillardegi, André Breton</i>	767

II

IKERKETA-ARTIKULUAK

<i>Materren 1623ko Doctrina Christiana, Patxi Salaberri Muñoa</i>	773
---	-----

III

LIBURU-AIPAMENAK

<i>Sprachpolitik und gesellschaftliche alphabetisierung, Jakin-iturri eta bide-erakusle, Mikel Zalbide</i>	789
<i>Recuperación del Euskera en Navarra: euskararen berreskuratze itxaropentsua Nafarroan, Andres Iñigo</i>	813
<i>Euskararen berreskuratzea Nafarroan, Patxi Juaristi</i>	817

* * *

IV

EUSKERA AGERKARIAREN EDUKIAK

<i>Euskera Agerkariaren edukiak: testuak aurkezteko eta argitaratzeko irizpideak</i>	823
--	-----

I

LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA
ELEBERRIAREN EKARPENA
XX. MENDEKO EUSKAL NARRATIBAREN
TESTUINGURUAN

Donostia, 2007-VII-16, 17, 18

EGITARUA / PROGRAMA

IKASTAROAREN IZENBURUA:

LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA ELEBERRIAREN EKARPENA
XX. MENDEKO EUSKAL NARRATIBAREN TESTUINGURUAN

ZUZENDARITZA:

ZUZENDARIAREN IZENA: **LOURDES OTAEGI IMAZ** And.,
EUSKALTZAINDIAREN Literatura Ikerketa Batzordearen idazkaria

EGITARUA

2007ko uztailaren 16a: *Leturiaren* aurreko euskal eleberrigintza (1945-1957):

– **9,15-9,30:**

Sarrera eta aurkezpena. Literatura Ikerketa Batzordeak antolaturiko Jardunaldion arrazoiketa: **Ana Toledo Lezeta**, euskaltzain osoa, Literatura Ikerketa batzordekidea eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea.

– **9,30-10,45:**

IZENBURUA: Guda ondoko lehen eleberrietako bi: *Antton*, J. P. Iratxet (1946) eta *Ekaitzpean*. J. Izagirre (1948).

IRAKASLEAREN IZENA: **Ur Apalategi Idirin**, euskaltzain urgazlea, Literatura Ikerketa batzordekidea eta Paue-ko UPPAko irakaslea; eta, **Jon Kortazar**, euskaltzain urgazlea, Literatura Ikerketa batzordekidea eta EHUKo irakaslea.

– **11,15-12,30:**

IZENBURUA: Jon Etxaideren eleberri historikoak: *Alos-torrea* (1950) eta *Joanak joan* (1955).

IRAKASLEAREN IZENA **Jabi Rojo**, EHUKo irakaslea.

– **12,30-13,45:**

IZENBURUA: *Amabost egun Urgain*'en (1955) eta eleberrigintza poliziakoaren hastapenak.

IRAKASLEAREN IZENA: **Jabi Cillero**, Basques Studies Institute. Reno.

* * *

2007ko uztailaren 17a: *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957).

Testuingurua eta eraginak:

– **9,15-10,30:**

IZENBURUA: *Leturiaren egunkari ezkutua*: haustura bat gerra ondoko euskal narratiban?

IRAKASLEAREN IZENA: **Jon Casenave**, euskaltzain urgazlea, Literatura Ikerketa batzordekidea eta Bordele-3 Unibertsitateko irakaslea.

– **10,30-11,00:** Atsedenaldia.– **11,00-12,15:**

IZENBURUA: *Leturiaren egunkari ezkutuaren* irakurketa gaur egungo ikuspegitik.

IRAKASLEAREN IZENA: **Iñaki Aldekoa Beitia**, Literatura Ikerketa batzordekidea eta EHUko irakaslea.

– **12,15-13,30:**

IZENBURUA: Liburuaren harrera garaikideen artean

IRAKASLEAREN IZENA: **Patri Urkizu**, euskaltzain urgazlea, Literatura Ikerketa batzordekidea eta UNEDeko irakaslea.

* * *

2007ko uztailaren 18a: *Leturiaren egunkari ezkutua*-ren zenbait alderdi ikertu gabeko:– **9,15-10,30:**

IZENBURUA: *Leturiaren egunkari ezkutua*: gizon eta emakume irudiak.

IRAKASLEAREN IZENA: **Iratxe Retolaza Gutierrez**, Literatura Ikerketa batzordekidea eta EHUko irakaslea.

– **11,00-12,15:**

IZENBURUA: gizartea krisialdian: *Leturia* ikuspuntu erlijiosotik hartuta.

IRAKASLEAREN IZENA: **Sebastian García Trujillo**, euskaltzain urgazlea eta Literatura Ikerketa batzordekidea.

– **12,15-13,30:**

IZENBURUA: *Leturiaren* uda ezkutua.

IRAKASLEAREN IZENA: **Karlos Otegi Lakuntza**, euskaltzain urgazlea, Literatura Ikerketa batzordekidea eta EHUKo irakaslea.

– **13,30:**

Ikastaroaren laburpena eta amaiera.

AITZIN SOLAS

*Jean Haritschelhar,
Literatura Ikerketaren batzordeburua*

1957: badu hogei urte suntsitua izana dela Gernika, hogei urte luze frankistak nagusi direla Euskadin haien legeak, lege bortitzak hertsatzen duela euskaldun jendea. Non dira atzoko ametsak? Euskal Gobernuak erbestean segitzen du bere lehendakari gaztearekin. Gerlaren ondorioz gudarietan batzu hilak, bertzeak presondegiatan, familiak sakabanatuak Europan eta Hego Ameriketan. Zer egin orduan? Nola berriz lot biziari? Nola berriz has egunero harremanak? Egin zitekeen gauza bakarra zen: jasan eta iraun.

Jasan lehenik ez baitzitekeen bertzerik egin, halakoa zelakotz orduko giroa. Osoki baztertua zen Herriaren hizkuntza, ama hizkuntza, euskara. Espainiaren batasuna aldarrikatzen zutenentzat gaztelania zen mintzaira bakarra, kristauen mintzaira, omen. Kale-izenak, ontzi-izenak, jendeen izenak debekatu zituzten, begiek ez dezaten irakur euskal idazkirik, belarriek ez dezaten entzun euskal hotsik. Gau beltza, egiazko katakunbak euskaldunentzat bizi behar zutelarik mespretxuen pean, ixilik egon, pairatuz gerlako galtzaleak izanez. Zer egin? Jasan.

Iraun halere. Osoki sakabanatuak bi mundutan bizi dira euskaldunak, Espainiakoan batzu, askatasun munduan bertzeak, bereziki bukatzen delarik bigarren mundu gerratea. Baina jadanik, gerla denboran Buenos Airesetan sortzen da Egin argitaletxea 1940an, agertuko da geroago *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*. Mexikon, Guatemalan bilduak diren euskaldunek bizirik atxikitzen dute euskal kulturaren argia.

Iparraldean *Herria* astekaria sortzen da 1944ean Lafitte apezaren zuzendaritzapean. *Eusko Jakintza* aldizkariak, Jose Migel Barandiarenek bultzaturik, biltzen ditu euskal ikerlariak. Lehenbiziko urratsa, urrats handia, bere segida baitu jadanik 1948an Baiona eta Miarritzeko euskal kulturaren kongresuarekin, bigarren bat bilduko delarik Parisen 1954ean.

Egiazko berpizte bat nabari da bai Iparraldean eta bai Ertameriketean. Iparraldean *Gure Herria* aldizkaria, 1939ean ixildu zena, berriz sortzen da 1950an. Han idatziko dute gerla aitzinekoek, hala nola Lafittek edo Oxobik, baina agertzen da bertze belaunaldi bat Iratzeder olerkariarekin eta Larzabal antzerki idazlearekin, honek Monzonekin berritzen duela osoki euskal antzer-

koa. Ertameriketatik heldu zaigu aldizkari berri bat *Euzko Gogo*a deritzana. Zaitegiren ardurapean, hats berri batekin Orixek eta Ibinagabeitiak lehenik eta gero Iratzeder, Mirande, Peillen eta Salvatore Mitxelenak erakusten dute euskal literaturaren iraupena.

Hegoaldean, mundu aparte horretan, urteak iragaiten dira gau ilunean, han behar baitzen jasan, denbora berean iraun. Euskara ez baldinbazen haizu leku publikoetan, halere gelditzen zen toki berezia, etxea, etxearen baitan gurasoek, anai-arrebek, aitona-amonek euskarari atxikiak, ez baitzuten haustera uzten be-laualdien arteko lokarria, ama hizkuntza. Hala nola supazterretan hautsez es-taltzen zen azken itxindia iraun zezan biharamun goiza arte, su hazia bilakaturik, eta sua berriz piztuz, halaber euskal etxea, xori ohantze idurikoa, beroa, maita-sunez betea, euskal ametsez hornitua, beti zutik zegoen berpizteari itzulia.

Lehenbiziko argi-zirrinta 1948an aurkitzen da *Egan* kaleratzen delarik, *Real Sociedad de los Amigos del País* aldizkariaren gehigarri gisa, osoki euskaraz, Mitxelena, Irigarai eta Arrueren ardurapean. Horrekin, egiazki, euskara agertzen da publikoki, beste arnasa hartzen du idazle berri batzuekin, Aresti edo Txillardegirekin. Laster ere Itxaropena argialetxeak sortzen du Zarautzen *Kulixka* sorta deritzan bilduma euskal literaturari osoki idekia.

Bizkaiak ez du atzetik egon nahi. Hortarako, zenbait urte berantago, 1953an hain zuzen, Aita Imanol Berriatua frantziskotarraren inguruan biltzen dira bizkaitar idazle gazteak, *Anaitasuna* deritzan hilabetekaria sortuz Euskal-tzaindiaren gerizapean. Ez da dudarik iratzartzen ari dela Hegoaldea, bereziki Gipuzkoa eta Bizkaia.

Nola ez aipa frantziskotarrek euskal kultura eta literaturari eman dieten bultzada berrogeita hamarreko hamarkadan! Arantzazuko komentua izan da beharrezko aterbea, toki egokia euskal pentsaerarentzat, teologian, filosofian, soziologian. *Jakin* aldizkariak bildu ditu, 1956an hasiz, euskal intelektuaren gogoetak, aurrerapen bat erakutsiz giza-zientzietan bereziki. Denbora berean Aita Onaindiari esker karmeldarrek argitaratu zuten *Mila euskal olerki eder* bilduma zoragarria, ni bezalako ikasle edo ikerleek xurgatu dutena, bereganatuz arbasoek utzi ziguten altxorra. 1956an ere Euskaltzaindiak biltzen ditu bere lehenbiziko kongresuan hizkuntzaren inguruan lanean diharduten ikerleak. Haize berri batek jotzen du Euskal Herri osoa.

Haize berriaren lekuko hor dago, 1957an agertua, Txillardegiren elebe-rria, *Leturiaren egunkari ezkutua*. Orduan euskal narratibak bertze aurpegi bat erakusten du Europatik datozen pentsaerez hornitua. Dirudenez, aro berri bat sortzen ari da eleberriarentzat. Hala pentsatu du Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa Batzordeak (L.I.B.) Jardunaldi batzu eskainiz Donostian Txillardegiren eleberriaren kaleratzearen berrogeita hamar urteren buruan.

LETURIAK BERROGEI ETA HAMAR URTE BETE DITUELA ETA

*Euskaltzaindia.
Deustuko Unibertsitatea*

Ana Toledo Lezeta

Euskaltzaindiak urtean zehar antolatzen dituen jardueretan bere tarteak izan ohi du urteurrenak; izan ere, urteurrenaren ospakizunak idazlea eta bere obra gogoratzeko aukera aproposa eskaintzen du. Aitzakia honetaz baliatuz, idazlea eta bere obra arreta gune bihurtzen da, zeinahi idazlek gustukoak lukeen moduan, bihurtu ere: bere obra berraztertuz. Berraztertuz, bai, denbora ez baita igarotzen alferrik. Eta denboraren joan horretan obra ikusteko modua, obrara hurbiltzeko modua, obra irakurtzeko modua alda daiteke, zeren eta literaturaren sisteman termino bat, obra, idazlana, aldaketarik gabea da, iraunkorra da; ez horrela, bestea, idazlanetik kanpo dagoen mundua. Osagai aldakorra irakurlearen erantzuna da, irakurle honek bere historia propioa, bere hizkuntza, bere askatasuna baitakar idazlanera. Irakurle bakoitzak bere formaziotik, bere garaitik irakurtzen du.

Urteurrenaren ospakizunak, betiere, abagune egokia eskaintzen du sorlana beste garai batetik irakurtzeko. Hala egingo da orain eta hemen, aurten berrogei eta hamar urte betetzen dituen Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutuarekin* (1957).

Topiko hutsa da, baina, zinez, berrogei eta hamar urte hauetan gizartea asko aldatu da. Jakina, baita euskal gizartea ere. *Leturiaren egunkari ezkutuak*, berriz, duela berrogei eta hamar urte bezalaxe dirau. Idazlanaren hartzailea, ordea, aldatuz joan da. Horregatik, urteurrenak *Leturiaren egunkari ezkutua* berrirakurtzeko parada aproposa eskaintzen zuela uste izan du Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak eta horretarako Euskal Herriko Unibertsitatearen 2007ko Uda Ikastaroen barnean honako biltzar hau antolatu du.

Gauza ezaguna da estrukturalismo txekiarrean Jan Mukarovskyk literatur kritika eta literatur historia elkarrengandik berezirik atzematen zituela. Kritikak, gauzatuta dagoen egitura iraunkor legez ikusten du literatur obra; historiak, bere aldetik, egitura hori bera mugimenduan atzematen du, elementuen truketze etengabea. Mukarovskyrentzat literatur historiak honako irizpide honetan oinarritu behar du: berrikuntza-maila.

Leturiaren egunkari ezkutua berrirakurtzeko Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak eratu duen biltzar honetarako egitaraua osatzean, literatur ikaskuntzen bi ikuspuntuotatik aztertzea bilatu du, azterketa sinkronikoari azterketa diakronikoa batuz. Lehen-lehenik azterketa diakronikoari heltzen zaio; izan ere, *Leturiaren egunkari ezkutua* plazaratu aurretiko eleberrigintza izango da aztergai, helburu jakin batekin: mende erdia bete duen eleberriak euskal eleberrigintzara egindako ekarria arakatu. Arestian Mukarovskyren hitzetan esaten zenez, idazlan batek dakarren berrikuntza-maila neurtzea da literaturaren historiaren eginkizuna. Berrikuntza-maila hori neurtzeko ardatz diakronikoan kokatu behar da *Leturiaren egunkari ezkutua*. Euskal eleberrigintzaren historiara egin duen ekarriaz jabetzeko, ezinbestez, bere lehen aldiko eleberrigintzaren argitan atzeman behar da.

Leturiaren egunkari ezkutua argitaratu aurretiko euskal eleberrigintzaren tradizioa laburra den arren, tradizio hori mamitu duten eleberri guztiei tartea egiteak, abantailak baino gehiago desabantailak zituen. Batetik, biltzar honetako aztergunea nagusiak, *Leturiaren egunkari ezkutua*k, nagusi izan gabe gelditzeko arriskua zuen; hau da, bere aurreko eleberrii tarte zabala eskaintzeak, aztergunea behar beste nabarmendu gabe uzteko arriskua zuen. Bestetik, gerraurreko euskal eleberrigintzak emandako uzta homogeno samarra da. Guzti horregatik euskal eleberrigintzara zuzendutako begirada *Leturiaren egunkari ezkutua*ren lehen aldi hurbilaren azterketara mugatzea egokiagoztat jo da; hots, 1946-1957 urteen artean garatutakora.

Hala, Leturiak agerrera egin aurretiko euskal eleberrigintzaren azterketak osatzen du egitarauaren lehen atala, asmo jakin bat gogoan: bere lehen aldi hurbileko eleberrigintzaren ezaugarriak azaldu, *Leturiaren egunkari ezkutua* giniko ekarria deskribatu eta neurtu ahal izateko. Alegia, bere lehen aldi hurbila aztertuko da, mende erdia betetzen duen idazlanak dakarren berrikuntza-maila zedarritzeko.

Leturiaren egunkari ezkutua da egunotako arreta gunea. Honenbestez, bere lehen aldi hurbileko eleberrigintza arakatu ostean, urteak betetzen dituen idazlanera bilduko da biltzarreko jarduna. Berez, bere lehen aldi hurbileko eleberrigintzaren azterketak, orain eta hemen, ez du interesa bere baitan, bi-tarteko moduan baino: *Leturiaren egunkari ezkutua* euskal eleberrigintzaren historian kokatzeko bitarteko gisa, hain zuzen ere. Arreta gunea den eleberria historian kokatu ostean, bere baitan eta hartzailearekin harremanean aztertuko da. Azterketa inmanenteek egitura horren barneko zenbait alderdi arakatu dituzte: alderdi zehatz batzuetan erreparatuko dute xehe-xehe miatzeko asmoarekin. Idazlana-irakurlea harremanari dagokionez, nola argitaratu zenean eragin zituen irakurketa-moduak, hala egungo egunetik begiratuta eragin ditzakeenak jorratuko dira. Bestela esanda, *Leturiaren egunkari ezkutua* euskal eleberrigintzan egin zuen agerrera nola hartu zuten orduan aztertuko da batetik, eta berrogei eta hamar urteren ostean, zein irakurketetara irekirik jarrai dezakeen, bestetik.

Honela bada, biltzarrerako prestatutako egitarauak *Leturiaren egunkari ezkutua*ren barne-azterketa egiteaz gain, idazlanetik at dauden elementuekin ere jarriko du harremanetan, bai orduko eta gaurko hartzaillearekin, bai bere lehenaldi hurbileko eleberriekin. Beraz, idazlanak berak eratzen duen sistema aztergai izateaz gainera, sistema hori beste sistema batzuekin jarriko da harremanetan, dela euskal eleberrigintzaren sistemarekin dakartzan berrikuntzak nabarmentzeko, dela hartzaillea den osagai aldakorarekin, harrera-modu desberdinak atzemateko.

Euskal literaturari buruzko kritikari ez zaio, horregatik, iruzkinik gabe igaro *Leturiaren egunkari ezkutua*. Ezin izan zitekeen beste modu batean. Nola ez erreparatu euskal eleberrigintzan ezezagunak ziren ezaugarriak jantzita zetorren idazlanean? Nola ez ohartu ordu arteko eleberrigintzak euskarri izandako mundu-ikuskerarekin hausten zuen eleberria aurrean izanda? Arreta erakartzeko modukoa zen.

Ziurtasun-izpirik gabeko pertsonaiak egiten zuen agerrera, ordu arte ziurtasun tinkoen gain bizi izan zirenean, fikzioan bizitza hartu zuten pertsonaia guztiak. Zoru irmo baten gainean jarri dituzte oinak euskal eleberria bizileku izan duten pertsonaia nagusiek: zalantzaren harrak harrapatuta bizi da, berriz, Leturia. Egunkari ezkutuan idazten ditu bere istorioa eta gogoetak, bera heldu baino lehen idatzitako istorio guztiak kontalari orjakileak kontatu dituenean. Leturiaren egunkari ezkutu bezala aurkezten da eleberria, nahiz eta gero egunkariaren konbentzioak behintzat ez jarraitu, ez zentzu hertsian, ezta zabalean ere; izan ere, egunkaririk ezer gutxi du egutegiak markatzen ez duen denbora batean bizi den Leturiak papereratzen duenak: egutegiari eta ordulariari ihes egiten dion denbora batean bizi da. Bere egunkariak barne-denbora baten berri ematen du, bizi duen prozesuaren berri, prozesu honek eragin dion bilakaera agerian jarritz. Bere lehen aldiko eleberritako pertsonaiekin ez du partekatzen ez bizilekurik, ezta kultura-mailarik ere: Leturia kaletarra da eta, bere gogoetek eta ezaguerek aditzera ematen dutenez, gizon jantzia da. Eta, nola ez, Leturia da euskal eleberrigintzako lehen heroia gatazkatsua.

Horra hor euskal kritikak Leturiarengan atzeman dituen berrikuntza nabarmenariakoak. Biltzarrari hasiera emateko uneak hitza hartzeko eman didan aukera baliatu nahi nuke, berrikuntza nabarmen horietako batera biltzeko ondorengo jarduna: Leturia euskal eleberrigintzako lehen heroia gatazkatsua izatearen gaira, hain juxtu.

Lehen heroia gatazkatsua

Jakina denez, gerra egunetan beraietan azken eleberria argitaratu ostean, zehazki 1937an, bederatzirtertakoa isilaldia igaroko du, harik eta, 1946an jarraipena berreskuratzen duen arte.

Gerraurreko eleberrigintzan (1898-1937) nekez aurki daiteke heroia gatazkatsurik. Bederatzi urteko isilaldiaren ondoren berriro plazaratzen denean eleberria 1946an, heroia gatazkatsuak agerrierarik egin gabe jarraituko du.

Gatazkatsuak esan nahi badu norbere buruarekin, norbere erraiekin edo munduarekin konformagaiztasunen bat bizi delako, desoreka hori gaintzeko moduren baten bilaketari ekiten zaiola, bistakoa da Leturia heroia gatazkatsua dela. Arazo edo gatazka pertsonal bat dauka eta gatazka horri irtenbidea bilatu nahian dabil. Bere burua da arazoa sorrarazten diona: zoriona eskuratu nahi du, baina egiten dituen saioek frakasoan amaitzen dute, harik eta bere bilaketaren giltzaren kokalekua aurkitu duela uste duenean, Imiriozko leizean gorpu gelditzen den arte. Ezin izan du jaso bere egunkarian nola heldu zitzaion heriotza: istripu baten ala bere buruaz beste egitearen ondorio izan zen. Leturiaren egunkaria ezagutzera ematen duen biltzaileak ere ez du argitzen heriotzaren kausa.

Lehen heroia gatazkatsua omen Leturia. Ez dira asko gatazkaren bat bizi izan duten euskal eleberrietako pertsonaia nagusiak *Leturiaren egunkari ezkutu*ko Leturia heldu arte. Pertsonaiaren kristau sinesmenak eta sinesmen honeatik eratorritako eroapenak gatazka posiblea gaintzeko ahalmena zuen. Eroapena, berriz, ez dago Leturiaren hiztegian. Leturiak ez daki zer den eroapena eta frakaso bakoitzaren ondotik bilaketa berri bat hasten du.

Izan bada gatazkan bizi den pertsonaiarik, baita gatazkaren aurrean eroapenik ez duen pertsonaiarik ere, Leturia iritsi aurretik. Halako pertsonaiak aurkeztera heldu arren, bizi duten gatazkaren oinarrien eta gatazka horri aurre egiteko ibilitako bidearen berri ez da xehe-xehe adierazten. Gainera, gatazkari emandako irtenbidean kristau sinesmenaren legeak urratzen badituzte pertsonaiok, istorioaren amaieran onbideratuko dira eta bete beharreko penitentziak betetzeko prest agertuko.

Gerra ondoko euskal eleberrigintzan oraindik tarte handia du eroapenak. Izan badute arazorik Leturiaren aurretik euskal eleberriak bizileku izan dituzten pertsonaia nagusiek, baina, modu batean ala bestean, arazoa modu arazo-tsuan bizi izatea saihestuko dute.

Esan bezala, urte batzuetako isilaldiari amaiera jartzen dio euskal eleberrigintzak 1946an. Bidasoaz honantz Gerra Zibilak (1936-1939) ekarri zuen euskal adierazpenaren debekua. Bidasoaz harantz horrelako debekurik jasan ez arren, urtealdi hauetan ez zen landu eleberria. Mugaz bi aldeetako egileen eskutik datoz 1946an argitaratutako bi eleberririk, nahiz eta alderik badagoen argitalpen-lekuari dagokionez. Iparraldeko Jean Pierre Iratxet-en *Antton, Herra* aldizkariak eman zuen atalka-atalka; Joseba Andoni Irazusta tolosarraren *Joañixio*, berriz, Buenos Aireseko Ekin argitaletxeak. Erbesteratu batengandik datorren eleberria da eta erbestean argitaratua.

Iratxet-ek sortutako Anttonen bizimodua ez da erraza: lehenik, sorlekua utzi eta, Ameriketara joan beharra du; hurrengo, bigarren mundu-gerrako

egunetan, Frantziako soldaduekin batera alemaniarren aurkako gerrara... Zailtasun horiek gutxi ez direla, Maixanek emana zion ezkontzeko hitza hautsi egiten dio, baina Antton ez da jarkiko, ez da errebelatuko, ez da ernegatuko... Zailtasun horiek ez ditu gatazka-iturri izango Anttonek. Egoera latz hauek bizi izatea suertatu zaio, besterik gabe. Bizi izandako zirkunstantzia gogorrek ez dute inolako eraginik berarengan.

Irazustaren eskutik datorren *Joñixioko* Joñixiok badu arazorik; izan ere, batetik, soldadutzara joateko ordua heldu zaio eta saihestu nahi du; bestetik, bere baserriko lanetik ateratako irabaziarekin ez du bizimodua aurrera ateratzerik: gurasoen esana entzunaz Ameriketara joango da. Arazo bihurtu gabe hartzen duen erabakia da. Halaber, ez du arazo bihurtuko Panpan eraman behar duen bizimodu latza, ezta bere barnean daraman herrimina ere. Ez bata, ez bestea, izango ditu narrazio-iturri kontalariak. Helburuak eskuratu ostean itzultzen denean nabarmentzen ditu bidaiak utzi dizkion ajeak: makal dabil osasunez eta damuturik dago Ameriketara joan izanaz. Baina, lanak eta lanbideak ekarritako isulamenduak eragindako bakardadeak gobernatzen dituzten Panpako urte luzeak ez ditu gatazka-sortzaile: eroapenarekin erantzuten dio bizimodu gogorrari.

J. Eizagirreraren *Ekaitzpean* (1948) eleberrira datozen Aritzondo baserriko bizilagunek badute jarkitzeko, errebelatzeko motiborik: lehenik, semerik zaharrenaren heriotza gerran, jarraian, gerran zauritutako Xabier babestea eta segidan, zauritua salatu dutelako, Aritzondoko bizilagun batzuen ihesa. Etsipenez betetako pertsonaia horiek, negar handirik gabe, jasan egiten dute. Errebeldiak, madarikazioak, ernegazioak eta berauen adierazpenak ez du tarterik.

Eleberriotan bada pertsonaia asaldatzeko besteko gertaerarik. Gerrak, bizimodua aurrera ateratzeko emigratu beharrak... sorrarazitako bizitza-baldintza oso zailak, pertsonaiaren nortasunean nahiz beronen balore-sisteman berebiziko eragina izan zezaketen. Pertsonaion eroapenak, ordea, esperientzia latzok gatazka-iturri bihurtzea deuseztatzen du.

Joseba Andoni Irazustaren bigarren eleberrian, *Bizia garratza da* (1950) eleberrian, izan bada arazorik: Andoni Uriaurrek eta Ander Zubiburuk gerra dela bitarteko, erbesteratu egin behar izan dute. Guda madarikatu baten ondorioak bidali ditu Kolonbiara. Beharrak eraman ditu Ameriketara eta asetzen ez dituen bizitzara kondenatu. Bordeleko portutik Kolonbiarantz ateratzen diren egunetik ez dute une batez ere ezagutuko ongi izatea, zoriona. Beti gogoan daramate izan zitekeena eta, gerrak eragotzi duelako, izan ez dena.

Atzerrian bizitza berrantolatzea erabakitzen dute. Gerrak beren ibilbidea moztu duenez, orain beste bat hasi beharrean daude. Bizitza berregiteko, isilean, beren sentimenduak adierazi gabe, maite zituzten neskez oroitzen dira. Baina, hauengan ere eragin du gerrak eta denborak: Anderrek isilean maite zuen Miren Orreaga lekaiume sartu da, arrebak idazten dion eskutitzak dioenez; Bixentak, Andonik isilean maite zuen neskak, alaba izan du kapitain batekin.

Isilean maite zituzten neskekin ezkontzea zen bizi zuten arazoari (aberrina, bizitza etenda) aurre egiteko aurreikusitako irtenbidea. Anderrek «onartu» egiten du Mirenen egoera berria. Miren behar bazuen zoriona berreskuratzeko ez du bilatzen Mirenekin harremanetan jarri eta egoera aldatzea. Etsi egiten du. Eta gerraren zauriari zauri berri hau gehitzean, Miren galduta dena galdutzat joaz, basamortura abiatuko da urre-bilaketara. Zorrak, gaitza eta heriotza ekarriko dizkio urre-bilaketak.

Maite zuen Bixentarekin ezkonduko den arren, ez du zorionik eskuratuko Andonik. Bixentak kapitain batekin izandako alaba da kausa: burutik ezin ken dezakeen gertaera da. Azkenean, zailtasuna gainditu eta, Andoni Bixentaz bermaitemintzera helduko da, baina zorionaz gozaten hasi aurretik istripu batek heriotza dakarkio.

Ander eta Andoni ez dira pertsonaia gatazkatsuak, problematikoak, baizik eta gerrak bizitza moztu eta atzerrira jaurti dituenak. Gerrarik izan ez balitz, sorterrian egingo zuten bizitza dute gogoan atzerrian: isilean, maite zituztela esan gabe zeuzkaten neskekin ezkondu. Anderrek eragozpenen aurrean etsi egiten du. Andonik eragozpena eta guzti –Bixentak kapitainarekin izandako alaba du– frogaren emaitza frakaso da. Gero, nola ez dakigula, ez baita inolako prozesuren berri ematen, sentimendu-aldaketa ezagutzen du Andonik. Sentimendu-aldaketak zorionerako bidean jartzten duen arren, zorionaz gozaten hasi aurretik helduko da gorpu utziko duen istripua.

Irazustak ez ditu aurkezten pertsonaia gatazkatsuak, baizik eta dena gaizki atera zaien pertsonaiak. Gerrak elbarritu ditu, gerrak atzerrira bidali ditu eta aurrerantzean ezingo dute beren bizitza berrantolatu. Gerraren kondenatuak dira, bizitza berri bat hasteko aukerak ezabatzeak adierazten duenez. Hain da hala, non zoriona eskuratzeko atarian istripu batek, ez-usteko batek, heriotza dakarkion Andoniri.

Bi euskaldun zintzo dira Ander eta Andoni. Ordu arteko euskal eleberrigintzak ez du gorde hain bukaera garrantzik euskaldun zintzoentzat. Euskaldun zintzoek merezi ez bezalako amaiera duten lehenbiziko pertsonaiak dira euskal eleberrigintzan. Horrela irudikatu nahi izan du Irazustak gerrak dakartzan galerak: gerrak galarazi egiten du bizitza berregitea. Alabaina, gerra eta bere ondorioen garrantzasuna irudikatzeke ez du jo beren egoera problematizatzen duten eta irtenbide bila dabiltzan pertsonaia batzuen ibilbidearen berri ematera. Besterik da leku narratibora daramana: beren arazoarentzat aurreikusitako irtenbideak huts egiten dieten pertsonaiak. Hitz batean, ezbeharren metaketa bide eta, ez irtenbide bila dabilen heroiaren bidez, adierazten ditu gerrak eragindako kalteak. Kontalariak ez ditu mamitzen Ander eta Andoni beren egonezinari irtenbidea bilatzen ari diren pertsonaia moduan, baizik eta egonezina gainditzeko hartutako erabakiak bete ezinik. Bete ezinik, eragozpenen bat dagoelako eta eragozpenaren aurrean etsi egiten delako –Anderrek etsi egiten du maite zuen Miren Orreaga moja sartu dela jakitean– edo eragozpena

gainditzera iritsita ere, –Andoni Bixentaz bermaitemintzen da– ez-ustekoren batek (istripu batean hilotz gelditu) galarazi egiten diolako heroari lorpenaz gozatzea. Erabakiak betetzea eragotzi egin zaie pertsonaia hauei. Ez daude eraturta xede baten bilaketan etsipenik gabe diharduten pertsonaia moduan, baizik eta xede bat bete ezin izan duten pertsonaia moduan.

Eroapenak gobernatutako eleberrigintza baztertzen duena Jon Etxaide da. Langintza literariorako gertaera historikoak, ustez historikoak edo legendazkoak izan zitezkeenak erakarri duten Etxaide, hain zuzen ere. *Leturiaren egunkari ezkutua* argitaratu aurretik ezagutzera eman zituenak atzematen badira, lehen-lehenik plazaratu zuen *Alos-torrea* (1950) eta honen ondoko *Joanak-joan* (1955), bistakoa da Euskal Herriaren lehen aldira egiten duen bidaian, pertsonaia grinatsuak topatu zituela. Beren grinak asetzea jomuga soil zuten euskaldunak aurkitu zituen iragandako denbora horietan: Otxanda, Piarres, Engrazi... Grinatsuak ez ezik, bekatu larrien egileak: Jaungoikoaren Hamar Aginduak betetzen ez dituztenak, kristau zintzo-zintzoa zen ustea eraikita zegoenean euskaldunari buruz. Gisa honetan agerian uzten du hain zintzoak ez ziren euskaldunak ere egon zirela. Arauak urratu zituzten euskaldunak ere egon zirela, alegia. Baina, arau-urratzaile hauek ezin izan ditu kondenatu: egindako gaiztakeriez damutzen dira arau-urratzaileok, kaltetuaren barkazioa jasotzen dute... Pertsonaia zintzo eta zintzotuekin osatzen du istorioaren amaieran erakusten duen erretratua.

Dena den, bada alderik *Alos-torreako* eta *Joanak-joaneko* pertsonaia grinatsuen artean. Luzeraz gain, –*Alos-torrea* eleberri laburra da–, pertsonaia grinatsu eta bekatu larrien egile horiek istorioaren harian hartzen duten lekuak bereizten ditu Etxaideren bi eleberriak. Pertsonaia nagusia da *Joanak-joanen*, ez horrela, *Alos-torrean*.

Pertsonaia grinatsu eta bekataririk bazen gerraurreko eleberrigintzan ere. Haatik, beti bigarren mailako pertsonaia izatera mugatua. Aitzakia hutsa zen pertsonaia nagusiaren egote-moduak eta bertuteak gehiago distira zezaten. Zinez, bigarren mailako pertsonaia honi oso tarte narratibo txikia ematen zion kontalariak: grinena eta bekatuen azalpenak leku gutxi hartzen zuen narrazioan. Badaezpada kontalariak xehetasun gutxi ematen zuen eredugarriak ez ziren pertsonaia horien bizitza eta pentsamenduaz. Hala, eredugarria ez dena erakustea saihesten zuen eta eredugarria dena azpimarratzeko bitarteko bihurtzen. Alderdi honetatik begiratuta, bada alderik gerraurreko eleberrigintzaren eta Etxaideren *Alos-torrearen* artean. Etxaidek leku narratibo zabalagoa eskaintzen dio grinena eta bekatu larrien azalpenari. Baina, *Alos-torrean* oraindik grinen ez dute harrapatu pertsonaia nagusia. Grinen azalpenak bigarren mailako pertsonaiengan jarraitzen du eta grinok eragindako bidegabekeriak jasaten segitzen du pertsonaia nagusiak. *Alos-torreako* Usoa pertsonaia nagusiak badu arazorik: Otxanda ama-ordearen gorroto, difamazio eta zigorpean bizi da. Eroapenarekin erantzungo du. Beraz, eroapenak jarraitzen du pertsonaia nagusiaren jarrera mugatzen.

Ez da horrela gertatzen Etxaideren bigarren eleberrian, *Joanak-joan* izenburuean argitaratutakoan, alegia. Izan ere, Piarres pertsonaia nagusi grinatsuak ez daki zer den eroapena. Konformidadea zer den ezagutzen ez duen Piarres bere kanpo aldearekin etengabeko gatazkan bizi da eta ez dago prest bere aurkako erasotzat jotzen dituen ekintzak erantzunik gabe pairatzeko. Pertsonaia nagusi konformistez elikatu den ordu arteko eleberrigintzatik urruntzen bada ere, ez ditu hausten lokarri guztiak *Joanak-joanek*: euskaldun bekataria berreskuratzu jarraitzen du. Txomin Agirrek *Auñemendiko Lorean* (1898) berreskuratu zuen bezala. Txomin Agirrek Portun jentila, Adalbaldo frankotar dukearen hiltzailea, kristautu eta, herririk herri Jesukristoren legea zabalduz eta bere bekatuak aitortuz zebilela utzi zuen «guena» deitu zuen epilogoan. Etxaidek ere, Piarresen emazte Engraziri heriotzako ordua heltzen zaionean, nahiago izan du ezkondu zirenez gero kupida gabe elkarren etsai izan direnak adiskidetu eta Etxahuniako ateak zabaldu Piarresi. Ez da berreskurapen makala: Etxahuniako oinordeko zenari bere etxeko ateak irekitzen dizkiote azkenean, bizitzaren aldi luze batean aterperik ere eman ez diotenean.

Etxaidek ezin izan du etsi eleberriaren amaieran ordena berrezarri gabe: emaztearekin adiskidetu, elkarri barkazioa eskatu, etxea berreskuratu... Etxeko oinordekotza eskuratzeko eragozpenekin hasi direnean Piarresen etengabeko arazoak.

Honela bada, bekatu larriak egin dituztenei, dela adulterioa, dela hilketa... ez die salbaziorako bidea ixten Etxaidek: *Alos-torreako* Usoa zintzoaren epaia barkamena da eta zeharo gaiztoa zen ama-orde Otxanda damutu eta, lekaike sartuko da eragindako kalte guztiak ordaintzen joateko. Elkar zigortzen urteak eta urteak igaro ostean barkamena eskatuz amaituko dute *Joanak-joaneko* Piarres eta Engrazik. Eleberriaren amaieran ordena berrezartzen du. Grinek eragindako hondamendien eragileek barkazioa jasotzen dute: gaiztoak onbidetzen dira. Horregatik Etxaidek ordena zuzena berrezartzen du.

Ordena zuzenari eusteak eragina izan daiteke, halaber, J. A. Loidik bere *Amabost egun Urgaiñ'en* (1955) eleberrian kontatzen duen istorioari emandako bukaera. Etxaidek *Joanak-joan* argitaratu zuen urte berean kaleratua, euskal eleberrigintzako lehen polizi eleberria da. Polizi eleberri berezia, ordea; izan ere, Garaidi ikerlariaren ikerketek hilketarik ez zela egon argitzen dute: istripu baten ondorioa besterik ez da izan hilketaren susmoa sorrarazi duen zantzua. Hala, lehen polizi eleberria hiltzailerik eta hilketarik gabekoa da. Larria, oso larria izango ote zen Urgaiñ bezalako euskal herrixka batean hiltzaile bat egotea?

Etxaidek *Joanak-joanen* kontatzen duen istorioaren amaieran ordena berrezartzen badu ere, istorioaren garapenean lokarriren bat hausten du lehen aldia-rekiko: lehenbiziko aldiz pertsonaia nagusia grinatsua da euskal eleberrigintzan. Pertsonaia grinatsurik baldin bada euskal eleberrigintzan *Joanak-joaneko* Piarres da hori. Pertsonaia grinatsua izan baitzen Piarres Topet «Etxahun» pertsona

historikoa ere. Pertsona historiko hau abiapuntu hartzen duen eleberrian pertsonaia grinatsua irudikatuz behartua ere bazegoela esan daiteke.

Arazoa arazoaren atzetik duen pertsonaia aurkezten du Etxaidek. Arazo horien aurrean eroapenik edo etsipenik ezagutzen ez duen pertsonaia, gainera. Haatik, Piarresek ez du arazo bihurtzen arazoa; izan ere, buruhaustetan murgildu gabe, unean-unean sortutako gatazkari erantzun egingo dio: gogoko ez duen arren, gurasoek hautatutako Engrazirekin ezkondu egingo da; emazteak maitalea duela jakitean azkar asko erreakzionatuko du ustezko maitaleari tiro eginaz, gero, pertsonaz erratzearen ondorioz, beste norbait izan bazen ere, hilotz gelditu zena...

Euskal eleberrigintzaren sorreratik *Leturiaren egunkari ezkutua* kaleratu arteko tartean argia ikusi zuten eleberrietako pertsonaia nagusiak aztertuz gero, Joxeba Leturia eta *Joanak-joaneko* Piarres dira eroapena eta etsipena ezagutzen ez duten bakarrak: biak dira pertsonaia grinatsuak, apasionatuak, jarduleak –bata, gogamena bide, bestea, ekintza bide–, beren burua besterik gogoan ez duten pertsonaia.

Nahiz Piarresek, nahiz Leturiak eragozpenak dituzte beren xedeak eskuartzeko. Kanpo-munduak jartzen dizkio oztupoak Piarresi, bere barne-munduak, berriz, Leturiari. Helburuen lorpenerako oztupoak ipintzen dituztenen kokalekua desberdina den arren, biak dira oztupoak aurre egiten dietenak. Alderdi honetatik begiratuta Piarres litzateke Leturiaren antzik handiena erakusten duen pertsonaia.

Alabaina, bere kezka filosofikoetan galdurik dabilen Leturiaren eta bere grinaren menpe bizi den Piarresen artean bada alderik. Leturiak modu gatazkatsuan bizi du bere gatazka: une bakoitzean bizi duen arazoak oinazetu egiten du. Ez horrela, Piarres; izan ere, bere arazoek sorrarazi diezaioketen sentimenduek ez dute eragiten kontajariorik.

Bere arazoari irtenbidea bilatzen ari den pertsonaia bezala mamitzen da Leturia egunkariaren orrialdeetan barrena. *Joanak-joaneko* kontalariak, berriz, ez du aurkezten bere arazoei irtenbidea bilatzen ari den pertsonaia. Batak eta besteak arazoaren aurrean hartzen duten jokabidea gisa honetan laburbil daiteke: bata irtenbide bila dabil; bestea, ez dator testura irtenbide bila, baizik eta sorrarazi dioten arazoari erantzunaz. Leturia irtenbidea bilatuz dabilen pertsonaia bezala itxuratzen da. Piarres, berriz, ez dator testura irtenbidea bilatuz, erabakiak gauzatuz baino. Honela, Leturia nola doan eginaz erakutsi egiten da testuan, ez horrela, Piarres.

Leturiak eginiko ibilbidea egunkariaren orrialdeetan adierazia dago. Aitzitik, *Joanak-joaneko* kontalariak ez du erakusten Piarresen ibilbidea. Kontatzen ditu, jakina, Piarresek egindako eta jasandako gertaerak, baina ez ditu ikertzen kausak: kausa esatera hel daitekeen arren, –aitaren antzik ez izatea oinordekotza kendu nahiaren arrazoi bezala, adibidez–, inoiz ez da xehetasu-

nez azaltzen. Ez dago ekintzen justifikaziorik: pertsonaiaren izaera odol beroak justifikatzen du guztia. Bestela esanda, gatazka nola doan sortuz, egoerei erantzunak nola doazen egosiz ... ez da hitz bihurtzen: ez da ekintzen azterketa zorrotza egiten. Nola doa haziz gurasoen gorrotoa Piarresekiko? Aitaren antzik ez izateak justifikatzen du guztia? Nola doaz Engrazi eta Piarres ezkonberrien arteko harremanak gaiztotzen? Nola ernetzen zaio Piarresi kartzelan dagoela erromesaldiak egitera daraman sentimendu erlijiosoa?... Sentimendu desberdinek eragindako ekintzen berri ematen da, ez ordea, sentimendu horien ernetze eta hazte prozesuaren berri. Prozesurik ez dago, prozesurik ez da testuratzten: testuan emaitzak daude, emaitzaren justifikazioa usteren batera edo labur labur emandako berrira mugatuz. Horregatik ez dago ibilbiderik. Ekintza batetik besterako bidea nola egiten den ez da narrazio-iturri.

Aldiz, Leturiaren egunkariak bere barne-prozesua jasotzen du, nola erdiesten duen zoriona eta nola galtzen duen, nola doan pilatuz frakasoak. Hone-la egunkarian barrena bere bilakaera jarrai daiteke. Udaleneko Leturia eginaz doa, bizi izandakoaren eraginpean haziz doa. Esperientzia, eskarmentua moldatuz doa bere nortasuna. *Joanak-joane*ko kontalariak ez du adierazten nola doazen ernez eta haziz sentimendu desberdinak Piarresengan, nola doazen egosiz sentimendu horiek, ezta berarekin gatazkan dauden pertsonaien sentimenduak nola doazen garatuz ere.

Biak dira gatazkatsuak eskuratu nahi dutenaren aurrean amore emateko prest ez daudelako, nahi dutenari uko egiteko prest ez daudelako, eroapena eta etsipena ezagutzen ez dutelako, baina, batean, justifikatu egiten da gatazkaren garapena, bestean, ez.

Honela bada, modu batean edo bestean, gerra osteko euskal eleberrigintzan pertsonaiak arazoa ez du modu arazotsuan bizi izan. Ia eleberri guztiak pertsonaia jasankorrez elikatu direlako eta, hala izan ez denean, arazoari modu arazotsuan aurre egiten dion pertsonaia mamitzeari uko egin diolako kontalariak. Bestela esanda, pertsonaia ez problematikoa –eroapenez jasaten dituztenak bizi beharra suertatu zaizkien zailtasunak– ala kasuren batean problematikoa (*Joanak-joane*ko Piarres) aurkez dezakete *Leturiaren egunkari ezkutua* baino lehen idatzitako eleberriek. Baina, pertsonaia problematikoa honek ez du problematizatzen bere problema, kontaketa ez baita itxuratzen bere problemarekin jira eta bira dabilen pertsonaia, problemaren alderdi desberdinak aztertzen eta irtenbideren bat bilatzen. Arazoa arazo bihurtzen ez duenez, kontalariak ez du xehetasunez azaltzen nola bizi duen pertsonaiak desoreka eta nola bilatzen duen oreka berreskuratzeko modua. Hau da, kontalariak ez du moldatzen gatazka modu gatazkatsuan bizi duen pertsonaia. Horregatik, Leturia da euskal eleberrigintzako lehen pertsonaia problematikoa, gatazkatsua: gatazka modu gatazkatsuan bizi duen lehenbiziko pertsonaia. Leturiak arazoa arazo bihurtzen du eta, berez, unean uneko arazoa eta berau gaınditzeko egindako bilaketa jasotzen du bere egunkariak. Hainbestearino du egunkaria arazoak eta arazoentzako irtenbide-bilaketak adierazteko leku, non arazorik

gabe bizi izan zen sasoiari, Udan, ez zuela ezertxo ere idatzi egunkarian. Problematikotasuna eta problematikotasuna bakarrik da Leturiaren hitz-jarioa bultzatzen duena. *Joanak-joaneko* istorioa kontatzen duen kontalaria Piarresek nola bizi duen problema azaltzen ez da «gelditzen»: problemak eragindako hausnarketak eta problema gainditzeko joateko emandako urratsak ez ditu narrazio-iturri.

Leturiak bere xedea eskuratzeko egiten duen bidea urratsez urrats adierazia dago: bere «ekintza» bakoitzaren justifikazioa bere egunkariaren orrialdeetan dago. Bestela jokatzeko du *Joanak-joaneko* istorioa kontatzen duen kontalaria; izan ere, Piarresek bere helburuak lortzeko zein ekintza burutzen duen esan arren, ez du adierazten ekintza horretara heltzeko jarraitu duen bidea eta, ondorioz, ekintza justifikaziorik gabe gelditzen da. Horregatik, batean bilaketa dago, bestean, ez. Batean arazoa nola jaio den, arazoak sorrarazten dion egonezina eta egonezin hori gainditzeko abian jarritako asmoak testuan daude, bestean, arazoari emandako erantzunak soil-soilik.

Euskal eleberririk bere sorreraz gero pertsonaia ez problematikoak aurkeztu ditu. Etxaidek berak *Joanak-joaneko* Piarresek pertsonaia problematiko baldin badakar ere, ez dakar bere arazoak modu problematikoan bizi dituen pertsonaia. Nola doazen arazoak sortuz, nola doazen bilatuz arazo horientzako irtenbideak ... ez du kontatu. «Nola» hori kontatzen du lehenbiziko aldiz *Leturiaren egunkari ezkutuak*.

Honenbestez, bere nahia betetzeko etsipenik gabe ekin egiten duen euskal eleberrigintzako lehen pertsonaia nagusia Leturia ez izanagatik, bada bere xedearen lorpenaren bila dabilen lehen heroia euskalduna.

Bila dabilen lehen heroia izatean ez da agortzen bere ekarria. Bada besterik ere. Horregatik, Leturiak euskal eleberrigintzan agerrera egin zuenetik mende erdia igaro denean, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak 2007ko Uda Ikastaroek eskainitako gune akademikoa leku aproposa izan zitekeela uste izan du Txillardegiren lehen eleberria berrirakurtzeko. Aberasgarri suerta dakigula biltzarra.

ANTTON ETA LETURIA (EDO LITERATURTASUNAREKIN KUKU-GORDEKA DENBORA HISTORIKOAREN OIHANEAN)

Ur Apalategi,
UPPA

1946ean gaude, urtarrilaren 24ean zehazki esateko, eta errautsez estalita dagoen arren munduko gerlaren txingarra ez da oraindik erabat itzali: emakumei ilea mozten zaie herriko plazetan alemanekin oheratzeagatik, gerlatik bizirik itzuli diren presoak poliki-poliki moldatzen hasi dira bizitza normalera (hori posible baldin bada), kontzentrazio eremuak denon begien aurrean daude, orain, zinemako aktualitateen bitartez, Espainiako gerlako errefuxiatuak andanaka jarri dira Iparraldean bizitzen, erbesteratutako jeltxide zenbait CIArekin kolaboratzen hasiak dira, Iparraldeko elizaren sektore euskalduna vichysta eta erresistenteen artean zatituta geratu zen eta orbaina oraindik itxi gabe dago, laster hasiko da Mirande izeneko zuberotar paristarra euskara ikasten, gerla hotza hastear dago bi superpotentzia handi berrien artean, Hiroshima eta Nagasaki bomba atomikoez suntsitu dituzte joan den abuztuan, *Eskualduna* aldizkaria kolaborazio susmoagatik itxi dute... eta haren ordeztatu den *Herria* aldizkaria eleberri bat kaleratzen hasi da atalka, hain zuzen 1946eko urtarrilaren 24eko zenbakian. Jean-Pierre Iratxeten *Antton* da eleberri hori.

Eta zertaz hitz egingo du Jean-Pierre Iratxetek gerla osteko lehen euskarazko eleberria den *Antton* obran? Bada, betikoaz. Mundua errotik itxuraldatu ez balitz bezala, ezertxo ere gertatu ez balitz bezala Txomin Agirrek bere diptiko ohiturazalea idatzi zuenetik.

Gutziz zuzena izan nahi badugu obrarekin, aitortu behar da bigarren gerla mundiala agertu agertzen dela eleberriak kontatzen digun istorioan. Antton protagonista soldadu gisa frentean ikusten dugu. Haatik, etxera itzultzen denean bere mundu ikuskerak ez du aldaketa nimiñoena ere jasan. Eleberri ohiturazalea deritzon gure generoan gertatu ohi denez, pertsonaiek ez dute barne-bilakaerarik ezagutzen, ez psikologikorik, ezta ideologikorik ere.

Baina eleberria ez denez ezagunegia, laburbildu dezagun diegesia azterketa kritikoarekin aurrera jo baino lehen. Patri Urkizuk paratutako edizioan (1) ematen zaigun laburpena laburtuko dugu kari horretara: Antton,

(1) Jean-Pierre Iratxet, *Antton*, Donostia, Etor, 1990 (Patri Urkizuk paraturiko argitalpena).

Etxebazterreko premia, *Airemendi* baserriko Marixanez maiteminduta dago, baina sute izugarri batek suntsitzen du familiaren baserria eta Ameriketara alde egiten du Anttonek diru egitera. Andregaia herrian utzirik han urrutian aberastu egiten da. Baina itzuli beharrean aurkitzen da 1939ko «sute» mundiala pizten denean, desertore ez izatearren. Bitartean, Marixan hiritartzen da, Baionan. Gerla denboran elkarri idazten diote (Anttonek euskaraz, Marixanek, berriz, frantses irringarrian). Baina Antton azkenean baserrira itzultzen denerako Marixanek senarra hartua du hirian. Anttonek beste herritar bat aurkituko du, Kattalina. Gerraondoan gosea nagusitzen da eta elizaren gomendioz baserrietan hiriko haur behartsuak hartzen dituzte hazteko, Anttonek Etxebazterren hartuko duena hain zuzen Marixanen haurra izango da. Hori jakitean Anttonek ez du erresuminik erakutsiko eta eskuzabal jokatu du Marixanekin, baserrira gonbidatuz. Eleberriaren azken eszenan Marixanek hiriko neskame gela ziztrinean negarrari emango dio «bere haurkeriez» gogoratuz eta egindako aukerengatik saminki damutuz.

PatriUrkizuk nobelatxo honi darion prediku aireñoa aipatzen du eta ez zaio arrazoirik falta. Herriko baloreak –euskararekiko atxekimendua eta girstinotasuna, baina baita lurrarekiko harreman ideala– utzi eta hiriko balore eta moda berrien deiari erresistitu ezin izan dien emakume kaskarinak gaizki bukatu behar zuen, noski. Eta, gehituko nuke, emakumea izan behar zuen, jakina, pertsonaia ahula, baloreei eusten ez dakiena.

Orain gure buruari planteatu diezaiokegun benetako eta funtsezko galdera honako hau dela iruditzen zait: zerk bultzatu gintzake, gu, 2007ko euskal irakurle literaturan jantziok, *Antton* irakurtzera? Zerk justifikatu dezake halako denbora «xahutzea»? Zer ematen digu, zerbait eskaintzen al digu *Antton*-ek? Merezki al du obra honek *gure* arreta?

Nik uste erantzunaren zati handi bat dagoela «gu» horren definizioan. «Gu» filologoa baldin bada, merezki du, baiki, pentsatzen dut, arreta zinetifikorik, halako obra batek. Baina «gu» literaturzalea baldin bada, eta soilik literaturzalea?

Erantzuna ezin da bat-batekoa eta sinplea izan, baina saiaturik naiz erakusten baduela interesik obra honek guretzat, izan gaitezen filologo, euskal literaturaren historiaegile, ala literaturzale soil.

Itzul gaitezen, bada, obraren definiziora. Kontatzen duen istorioa ezagutzen duzue orain, eta ez zaizue zaila izango sailkatzea gure literaturaren historiari eman dituen genero apurren artean: eleberri ohiturazaleen zakuan sartu behar dugu, noski. Mehatxuka ari den mundu modernoari bizkar eman eta betikotasun kutsua duen euskal mundu tradizionala goraiatzeko duen eleberria dugu *Antton*, duarik gabe, Txomin Agirrek asmatutako pertsonaiaren arketipolari erantzuten dion pertsonaia delarik Antton protagonista. Eta Txomin Agirre-ren mundu ikuskera anakroniko samarra baldin bazen bere denboran jadanik, zer esan berrogei bat urte beranduago argitaratutako eleberri honetaz? Jon

Kortazarrek bere *Diglosia eta euskal literatura* saiakeran (2) zioenez, literatur tradizioa eskasa den garaietara jotzen duenean literatura diglosikoetako historiaegileak literatura bihurtzen ditu aurkitzen dituen testu guztiak. Bada, esan genezake *Antton*-ek kronologikoki *Leturiaren egunkari ezkutua* baino lehenago argitaratua izateari zor diola, neurri handi batean, bere estatus literarioa. Hots, gaur egun halako testu bat argitaratuko balitz ez litzateke literariotzat joko, infraliterariotzat baino. Euskaltzaindiaren Txomin Agirre sarira aurkeztuko luke adin bateko bere autoreak eta bertan ere finalista izatera ez litzateke iritsiko. *Leturiaren* aurrekari modura baizik da, izan ere, literarioa *Antton* bezalako obra bat ikuspegi historiko batetik, *in abstracto* bere balio literarioa hutsaren parekoa dateke-eta, izan gaitezen zintzoak geure buruarekin. Baina, artean *Leturia* oraindik idatzita ez zegoenez, eta maila literario handiagoko beste testurik ez daukagunez garai hartan, bada, gure literaturaren historian toki xume baina egiazkoa daukan nobelatxoa da *Antton*. Izan ere, *Leturiak* argitaratu orduko histu edo ihartu baitzuen, ez esateko ehortzi zuela, ordurarte erdi bizirik edo erdi hilik zegoen prosa ohiturazalea bere modernotasunarekin.

Ez da nahikoa, halere, *Antton* definitzeko, eleberri ohiturazalea dela esatea. Izan ere, gure prosaren historia aztertuz gero, eta historia diodanean ez naiz kronologiaz ari baizik eta idazmoldeen bilakaeraz, esan al daiteke *Antton Leturiaren* aurrekaria dela? Hau da, *Leturia* hartzen bada gure eleberri modernoaren zero unetzat edo abiapuntutzat, esan al daiteke *Antton* proto-*Leturia* bat dela, edo -1 unea? Eboluzionismo literarioa egitekotan, esan al daiteke *Antton Leturiaren* arbasoa dela? Erantzuna ezezkoa izango da. Izatekotan, ikuspegi kronologikotik bakarrik da aurrekari *Antton*, ez ordea ikuspegi literariotik. *Anttonek* ez du ezertan prestatzen edo aurreentiarazten -itxura batean, behintzat- *Leturiarekin* datorren aldaketa erabatekoa.

Izan ere, iraganari begira idatzitako obra da *Antton*. Iragan historikoari, neurri batean, baina batez ere iragan literarioari. Stendhalek bazioen eleberria munduan zehar darabilgun ispilu bat dela, esan beharko genuke Iratxetek ispilua ez baina erretrobisorea zerabilela *Antton* idazterakoan.

Gaiarengatik, lehen-lehenik. Anttonek iraganeko gertakizunak kontatzen ditu (iragan hurbilekoekin amaitzen bada ere trama erromaneskoa). Jakina denez, literatura diglosikoen beste joera naturaletako bat da iraganera jotzea erreferentzia bila (ikus Kortazar *op.cit.*). Bestalde, eta bi gauzak lotuta daude, zer esanik ez, iraganari loturiko baloreak gorai patzen ditu modernitateak eskaintzen dituen balore gaiztoei kontrajarriz. Eta hori gutxi balitz, iraganaldian kontatzen ditu gertakizunak (*Leturiak* dakarren berrikuntza handienetakoak, gogora bedi, orainaldiaren erabilpena da). Beraz, forma literarioari dagokionez ere, iraganari begira dagoen obra da Iratxetena (geroago komentatuko ditugun ñabardura batzuekin, halere). *Feuilleton* ohiturazalearen eskema eta idazkera erabiltzen ditu naturaltasun osoz, hau da, formari buruzko gogoeta edo kezka-

(2) Jon Kortazar, *Diglosia eta euskal literatura*, Donostia, Utriusque Vasconiae, 2002.

rik gabe. Ez ahantzi Txomin Agirrek ere atalka eta *feuilleton* gisa argitaratu zituela lehenik *Kresala* eta *Garoa* (ez da kasualitate hutsa argitarapen moldearen errepikapena). Darabilen idazmoldearen gaurkotasuna ez da kezka iturri Iratxetentzat. Kontzientzia txarrik gabe idazten du. *Leturiak* euskal eleberrigintzara ekarriko duen superni modernistaren begiradatik aske ari da. Modernotasuneranzko lasterketa-leihaketa amaigabearen kezka aurreko idazlea da, dudarik gabe.

Leturiaren benetako aurrekariak, apika, Etxaide eta besteren batzuk dira. Ez, ordea, Ireatxet. Badago Etxaide batengan zerbait berritzeko gogoia, xedea, eta ahalegina. Errealismoaren soka ordurarte baino gehiago estutzeko nahikeria. Siki-era apur bat min egin arte estutzeko borondate eskergarria. Pertsonaiak gaizto bihurtzeraino eramanez, adibidez. Hezur-haragizko pertsonaiak taxutzen ditu Etxaidek, giza-pasioz beteak (oroit bedi Etxahun Barkoxekoaren portreta 1955ko *Joanak joan* nobelan). Loditasun psikologiko pixka bat bederen, edo loditasun erromaneskoa behintzat ematen saiatu zen Etxaide bere pertsonaiei. Bestalde, bere obren egitura dramatiko dokumentazio lan historiko zehatz bezain astunaz hornituz (1964eko *Gorrotola lege* obran oin oharretako paratestuaren bitartez, kasurako) Etxaidek beste berme bat, hau ere berria, eskaintzen dio errealismoari.

Noski, Etxaideren ahaleginak baditu zenbait muga ez dituenak inoiz gaindituko. Hala nola, obren konklusio moralizatzailea, edota iraganera jotzeko joera, pudorez edo. Baina Etxaide, gutxienez, etapa bat da gure eleberrigintzaren garapenean. Bide bat urratzen du, ez behar bada *Leturiak* irekiko duen autobidea bezalakoa, baina bai bide bat ohiturazaletasunaren etxetik urruntzen gaituena. Bidean jartzen gaitu etxetik atera gabe geundenean. Iratxeten *Antton* ez da etapa izatera iristen, ezta nahi ere. Euskal eleberriz azpigaratu eta ohiturazalearen etxeko baratzean, etxearen atzekaldeko baratzean zehatzagoa izateko, egindako ibilaldira zirkularra da. Etxearen atzekaldeko baratza diot ezen ez baitu pretentsiorik, ez du Txomin Agirre gainditu nahi. Haren itzalean siestatxoa egin nahi du, bertan goxo egin.

Konklusio harranditsu gisa formula polit bat erabil genezake: obra literarioak bere indar propioaz garai bat definitzea lortzen ez badu, garaiak berak zapaldu eta xehatu egiten du obra. *Antton*, historiak xehatzen duen obren multzoan sartu beharko litzateke, zer duda.

Eta hala ere, obra hau aukeratu dut, dena bere aurka duelarik, birtute literario handi bat duelako: komikotasuna. Obra ezin irrigarriagoa da, txit dibertigarria. Lehenik zera esan, Ibon Sarasolak maite duen Iparraldeko euskara kristalpeko labelizatu horretan idatzita dagoela. Eta horrek bakarrik atsegina egiten du irakurketa, zeren idazkera eder, bizi eta alaia baitu Iratxetek, *Leturiaren* proto euskara batua zurruna baino askoz atsegina. Obra hau nobela komiko bat da, nobela komiko lortua gainera... baina nahigabekoa!

Komikotasunak iturri asko izan ditzake. Horietako bat abiada da, *tempo*-a. Hau da, ausaz, Iratxeten prosa Agirreraren ereduarenetik urruntzen duen elemen-

tu nagusia. Agirreren prosa aberatsa da, denbora hartzen du gauzak deskribatzeko eta, bidenabar, euskarari bere zukua ateratzeko. Hemen ez dago halakorik, ekintza da nagusi. Laster irakurtzen da *Antton*. Zitzu bizian garamatza, nola harri batetik bestera jauzika:

Martxoan jadanik, etxe berriaren gainean zureriaren ezartzen hasiak ziren eta beharrik apherileko teilak emanak zituzten, zeren apheril ondarra dena denbora txarretan joan zen.

Eta orai, uztaila. [...] (3)

Eleberri ohiturazalearen berezko geldotasuna bortxatu egiten da hemen. Badirudi XX. mendearen abiadaren azkartzea kutsatu egin zaiola Iratxeti eta ezin duela horren aurka borrokatu, nahiz kontzienteki darabilen paradigma literarioak kontrakoa eskatu. Nola defenditu, izan ere, euskal gizarte tradizionalaren betiereko baloreak modernitatearen ezaugarri nagusia den abiadatik? Iratxetek dioen moduan, *Antton*-en kapitulu bati hasiera emanez,

«treinak airos kurritzen du burdin bidean» (4).

Eta lehen arraildura bat dakusagu obraren xede literario kontzientean, bere barne bultzada inkontziente baten –abiadaren grinaren– emaitza modura. Abiadura modernoak autorearengan duen erakarpenaren zantzu gisa uler daiteke, era berean, adizkera berezi baten erabilpena. Esan dugu gorago iraganaldian kontatzen zaigula ekintza. Eta hala da. Baina marko narratibo orokorra –eta bereziki nobelaren konklusio moralizatzailea– iraganean dagoen arren, eleberriak askotan jotzen du aspektu puntukaria erabiltzera, gertatzen ari dena erakutsi nahiz, gertatzen ari balitz bezala kontatuz, indar gehiago emate aldera-edo, irakurlearen interesa pizteko. Aipatu dugu kontakizunaren akzelerazioa eta hori dateke eleberri honen komikotasunaren eragileetako bat, orain azalduko dudan bigarrenarekin batera.

Henri Bergson filosofoaren definizio famatuaren arabera irria eragiten duena –komikotasuna beraz– zera da: mekanikoa den zerbait bizidunari aplikatzea. Gogora datorkit Charlie Chaplinen *Denbora modernoak* filmea, zeinetan Charlot pertsonaia lantegi handi bateko zirkuito mekaniko erraldoiean harrapatuta gelditzen den, edo zeinetan errepikapenaren poderioz lan egiten duen kateatik ateratzen denean ere nola jarraitzen duen jestu berberak egiten, erreflexu mekanikoa itsatsi balitzaio bezala gorputz bizidunean. Bada, antzeko zerbait gertatzen da *Antton* eleberriarekin, eta bere pertsonaia nagusi eponimoarekin. Hemen, biziduna behar lukeen pertsonaia bati –Antton Etxebazterrekoari– ohiturazko eleberriaren mekanika esleitzen zaio, mekanika osoa gainera, arketipo literarioaren xehetasun bakar bat bera ere ahantzi gabe. Eta horrek, jakina, ezinbestean irria eragiten du eleberria bizitzatik (edo errealtate efektutik) aldendu eta parodiarrantz daramalako. Adibide bakar bat nahikoa bedi esandakoa ilustratzeko.

(3) Iratxet, *Antton*, op.cit., 43. or.

(4) Iratxet, *Antton*, op.cit., 35. or.

Antton Ameriketatik aberasturik itzuli eta Marixani bisita egitera joaten zaio Baionara, emakume gazteak bere ezkontza proposamena onartuko duen esperantzarekin. Oraindik ez daki, nahiz irakurlearentzat aspalditik agerian dagoen, Marixan hiritartu dela gorputzez ez ezik bihotzez ere, eta ziur aski ez duela nahiko baserrira itzultzea. «Marixan hiritarra» izeneko kapitulu antologiko honetan, arlote ageri zaigu Antton irakurleoi (XXI. mendeko euskal irakurle hiritartuoi, noski), baina narratzaileak, esan gabe doa, bere alde egiten du eta pertsonaiaren inadaptazio komikoa goraiatu egiten du etengabe. Horrela, Marixanek, neskame diharduen etxean –nagusi aberatsak alde eginak direla baliatuz–, bazkari berezia prestatzen dio Anttoni:

Lehenik «langouste», gero «tomate farcie», «écrevisse au choufleur» eta gainerateko. (5)

Anttonen erantzuna beretzat berria bide den proposamen gastronomiko horren aurrean:

–Gaixoa! Ez zuen balio deusen egitea, banituen ekharriak bi etxe-ogi zerra moleta puska bat eta xingar zafla batekin. Gasna puxka bat ere ba xahakoa ontsa betherik. (6)

Bezperan zineman filme beltz bat ikusten izan da Marixan eta horregatik neke puntu bat aitortzen dio Anttoni. Hori ere Antton nobelako «euskaldun onarentzat», hiritar bizitzaren zozokeriaren seinale da. Egun osoa soroetan lanean igaro ondoan hamaiketarako lehertuta ohean zegoen bera eta bizimolde horri esker sasoiean eta umoretsu ageri da.

Bazkari arrafinatuak ez bide du asetu Antton eta laurak aldera, berriro goseturik komunak non dauden galdetzen dio Marixani. Honek WC-en bidea erakutsi dio eta bertan zer egiten du Anttonek? Etxetik ekarritako ogia eta tortilla irentsi.

Etxetik atera eta paseatzera doaz orduan Antton eta Marixan, baina:

Athera aitzinean, sukaldeko leihotik egin zuen behako bat. Parrean, buruz buru, zombait urhatsetan, karrikaren bertaldean, leiho batetarik emazte bat beha eta begiek ikhusten ahal zuten bezain urrun, teilatu eta khebiderik baizik ez ageri. (7)

Horra Baionako *skyline* famatua deskribaturik, New Yorkekoa baino gutxiago ez dena Anttonen begientzat (ala Iratxetenentzat?). Pasarte honen gakoa exagerazioa da, hiperbola ohiturazalea Baiona hiri xumearen deskribapenean. Bidenabar, ohartarazi behar da Txomin Agirrearen *Garoa* eta *Kresalak* zutik jarritako ereduaren hainbat osagai ezagutzen direla pasarte honetan. Bi hauek esate baterako: batetik, hiritartzen den euskalduna neskame izan behar, bor-

(5) Ibid., 47. or.

(6) Ibid.

(7) Iratxet, *Antton*, op.cit., 49. or.

txaz, eta, bestetik, hiria deshumanizazioaren gune erraldoi da beti (*Garoan* goratasun batetik ikusten den Somorrostroko inguru industrializatuen deskribapenaren errepikapena da, inolako dudarik gabe, Baionako teilatu eta tximi-niazko itsaso amaigabearen deskribapen laburra).

Eleberri ohiturazalearen mekanika ezagutzen duenak badaki, bestalde nor den ona eta nor gaiztoa eta nola bukatu behar den istorioa. Gertatu behar zena gertatu egiten da, hemen ere, eta Marixanek gosez ordainduko du hiria aukeratu izana. Gerla hasi eta goseteak jotzen ditu hiritarrak. Narratzailea, Txomin Agirren baten irakaspena ongi ikasita ez da, noski, isilik geratzen eta esplizituki onaren alde egingo du, ahosgora, eta txarrari moralina jaurtikiko dio gupidagabe, irakurleari lagundu behar baitzaio nobela behar bezala interpretatzen.

Aipatu eta erakutsi dugun exagerazio mekaniko horren ondorioa zein da? Bikoitza da.

Irakurketaren psikologiaren mailan jarrita, irakurlea, paradoxalki, Marixan hiritar gaiztoarekin identifikatzen da. Efektu hau, partez, erretrospektiboa da, gaurko euskal irakurlegoa Marixanen antzera hiritartua delako edo behintzat hiritartasunaren keinutzat jotzen diren hainbat ohitura gaur egun baserri aldean ere arruntak bihurtu direlako. Zergatik Marixanekiko identifikazio hau? Bada, askoz ere humanoagoa dirudielako: lan fisiko gogorregia ez du gogoko, zinemara joatea gustatzen zaio, bere gorputzaren eta itxuraren ardura dauka (ikus bedi «la ligne» edo mehetasunari buruzko pasarte gogoangarria 66. orrialdean), kontsumo gizartea gustatzen zaio (gasna marken zerrenda –*La Vache qui rit* eta beste– «gure kanpainetako gasna afrusa»ri kontrajarrita, 47-48. orrialdeetan)... eta batez ere ahulezia hauek guztiak aitortu eta asumitzen ditu.

Bitartean, Antton ohituraletasunaren kortse moral estuaren preso ikusten dugu, zurrun, mekaniko, demostrazio ideologikoaren txontxongilo bihurtua. Eta hain da agerikoa eta azpimarratua narratzailearen aukera (Anttonen alde) ezen kontrako efektua lortzen baitu.

Izan ere, gure ustea da eleberri honen irakurketa psikoanalitikoak ere emaitza onak emango lituzkeela. Saia gaitezen: Marixan litzateke Iratxeten inkontzientea ordezkatzeko duen figura (nola ez, feminino) gaitzetsia, bere buuruari eta orduko euskal gizarteari, bere irakurlegoari, aitortu ezin dion bizitza hiritar, moderno, kontsumista, eta ez-euskaldunak eragiten dion zirraren irudi humanoa, hain humanoa. Antton, berriz, bere superni zikiratzailea da, tradizioaren ahots maskulinoa (legearena), euskal gizartearen ahots kolektiboa.

Eta bistan denez, inkontzientearen aurka ezin da ezer egin; ahal bezain sakon ehortzi arren, azkenean beti azaleratzen da. Kasu honetan, nahigabeko komikotasuna (Antton barregarri egiten duena eta Marixan hain hurbileko) da Iratxeten inkontzientea salatzen duena, sintoma, lapsusa.

Bai, esan daiteke, orain, bere modura *Antton Leturia* modernoaren aurrekaria badela. Agerian jartzen duelako XX. mendearen erdialdeko euskal

idazlea kokoteraino dagoela ohiturazletasunarekin. Berak ere, Marixanen moduan, janari finak edo industrialak jan nahi ditu, berak ere bere silueta zaindu nahi du, berak ere zinemara joan nahi du gauero filme «polizierak» ikustera. Berak ere baserritar arlotea izateari utzi nahi dio, zopa jatean kristoren arrabotsa ateratzen duen morrosko atzeratua izaterari utzi nahi dio. Ez da kasualitatea Antton, Iratxeten *alter ego* ofiziala, Marixanetaz maitemintzen bada, hain zuzen gorrotatu beharko lukeenaz maitemintzen bada.

Exagerazio mekanikoaren bigarren ondorioa estilistikoa litzateke.

Antton nahigabeko manierismo ariketa pasionagarria bihurtzen da exagerazioaren birtutez. Eleberri ohiturazalearen degradazio edo endekatze prozesuaren aurrean gaude, bere burua jaten hasten da eleberri ohiturazalea gure begi txundituen aurrean. Marxek zioen kapitalismoak berak hondoratuko zuela kapitalismoa, bada hemen halako zerbait gertatzen da eleberri ohiturazalearekin. Eta alde horretatik ere bada, bai, *Antton*, *Leturiaren* aurrekaria. *Leturiaren* aurretik nagusi zen ereduaren (eleberri ohiturazalearen) usteltze prozesua azkartu duelako, bakteria batek egingo zukeen eran.

Azken finean, Iratxeten *Antton*-en literaturtasuna (egungo ikuspegitik, jakina) obraren aspektu inboluntario batean kausi dezakegu, hots, bere nahigabeko komikotasunean, bere izaera parodiko erretrospektiboan. Eta egia da, gaurko irakurle informatu batek benetako plazerez irakurriko duela *Antton* (bigarren graduko irakurketa eginez, hori bai), geroztiko obra moderno asko baino atsegin handiagoz, egia esan (*Leturia* barne). Eta hau da historia literarioak eskaini ditzakeen ironietako bat.

Bai, inolako probokaziorik gabe diot *Antton* irakurgarriagoa dela *Leturia* zurruna baino. Borgesek behiala asmatuiko Pierre Ménard idazlea gure artean bizi balitz berriro idatziko luke obra hau eta Sagastizabal ezizenaz argitaratuko luke, *Kutsidazu bidea*, *Marixan* izenburupean, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*-en obraren *prequel* edo *sequel* gisa. Eta ongi funtzionatuko luke Sagastizabalen obraren negatiboa baita –euskar laboraria hiriko neskaz maitemindua eta hiriko kodeak bereganatu ezinik erakusten dizkigu–, eta, batez ere, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* bezain berregarria.

EKAITZPEAN JOSE EIZAGIRRE (1881-1949)

Jon Kortazar,
UPV/EHU Literatura katedraduna (*)

SARRERA

Lan honek helburu nagusi bi ditu. Alde batetik, Jose Eizagirre Tolosako idazle eta politikariaren bizitzari buruz aurkitu berri diren datuen notizia eman nahi du. Bestetik, haren lan ezagunenaren, *Ekaitzpean* nobelaren, irakurketa eskaini nahi du. Helburu biak desberdinak dira eta modu desberdinez landuko dira.

BIZITZA

Joseba Eizagirreraren bizitzaz zerbait jakin nahi zuenak bazituen iturri jakinak. Batez ere «In memoriam Eizagirretar Joseba zena» (*Eusko Jakintza*, III, 1949, 460-464) artikulua zen haren bizitzari buruzko informazio nagusia ematen zuen iturria. Eta handik etorri dira orain arteko data guztiak, nahiz eta errakuntza baten berri eman behar dugun. Han garbi uzten da 1949. urtean hil zela idazlea, eta Auñamendi Entziklopediaren argitalpenean oker eman zen data eta 1948. urtea idatzi zuten erredaktoreek. Bide hori jarraitu dutenek azken data hori ematen dute, eta errakuntzak adierazten du zein den erabilitako iturria.

Gaur egun, baina, beste iturri nagusi bi zabaldu dira. Lehena (eta eskerrak eman behar dizkiot nirekin izandako eskuzabaltasunagatik) Joseba Agirreazkuenagak zuzentzen duen *Diccionario Biográfico de Parlamentarios de Vasconia (1876-1939)*. Volumen II. (Parlamento Vasco/Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 2007, 1017-1028) egunotan argitaratu duten lanak azkoz ere informazio ugariagoa ematen du Jose Eizagirreri buruz (argitaratu aurretik kontsultatu ahal izan nuen, eta horregatik nire eskerrak). Jose Eizagirreri buruz idatzitako artikulua utzi zuen nire eskuetan Agirreazkuenagak eta hemen irakurriko dena baimenduriko laburpena besterik ez da.

Jose Eizagirre 1881. urtean jaio zen Tolosan. Valladoliden ikasi zuen eta 1897. uretan Zuzenbide ikasketak hasi zituen Oñatiko Unibertsitatean, ondo-

(*) Lan hau Euskal Herriko Unibertsitateak finantziaturiko GIU 06/65 Ikerketa Proiektuaren barnean kokatzen da.

ren Madrilen jarraitu eta 1901an burutzeko ikasketok. 1918. urtean Korteetarako Diputatu aukeratu zuten EAJ-PNV alderdiaren izenean Bergarako barrutian. Comunion-eko kide izan zen banaketa EAJ-PNVren barneko haustura gertatu zenean eta protagonismo berezia izan zuen batasun prozesuan. Konstituzio Garantietako Epaimahaikoa izan zen Errepublikara garaietan, eta 1937. urtean Euskadiko Epaimahai Militarreko Buru zen, eta urte beran Alicanteko Entzutegiko magistratu izendatu zuten. 1939. urtean deserriratu zen. Gerra ostean, EAJ-PNVren barnean Eusko Jaurlaritzaren kontseilaria, mundu-gerraren ondoren sorturiko erakundeetan euskal ordezkaria izan zen, eta euskal kulturaz idatzi eta argitaratu zuen garaiko zenbait aldizkaritan. 1946. urtean Zuzenbideko Kongresu Internazionallean Nazioarteko Zuzenbide Kongresuan euskaldunen boza eraman zuen eta 1947. ean Bruselan «Las garantías prácticas de los derechos del hombre en el plano nacional e internacional» txostena aurkeztu zuen Jurista Demokratikoen Elkarte Internazionalaren Kongresuan. 1946. urtean Erroman Alderdi Demokrata Kristauak egin zuen Kongresuan hitz egin zuen.

1947. urtean Eusko Ikaskuntzaren jarraitzaile izan zen *Gernika* Institutuaren buru aukeratu zuten. 1948. urtean Institutuak beste izan bat hartu zuen: «Sociedad Internacional de Estudios Vascos» deitu zuten eta Eizagirre ez zen ados agertu.

1949. urtean hil zen Donibane Lohizunen.

Beste alde batetik, ordea, Sabino Arana Fundazioan badira Eizagirreraren zenbait eskuizkributako materialak. Hona hemen adibidez, eta Fundazioaren baimenarekin eta hari eskerrak luzatuz, gure idazleak egindako gutun baten irudia (*ikus 1. eta 2. irudiak*).

Beste dokumentu garrantzitsu bat ere aurkitzen da Artxibo honetan. Eusko Jaurlaritzak bazuen asmo nagusi bat, Estatu bat sortzea Euskal Herrira berriro itzultzerakoan. Justizia sailaren eraketa Joseba Eizagirrek egin zuen. Dena dela, Joseba Eizagirre politikariaren egun handia izan zen *Union Universelle pour le Droit International et la Paix* Erakundearen aurrean egindako hitzaldia. Eta hemen aurkezten dugu bere lehen orrialdea (*ikus 3. irudia*).

NOBELA

Ekaitzpean nobela 1948. urtean argitaratu zen Buenos Aires hirian, atzerrian beraz. Bi helburu nagusi zituen gure idazleak lana argitaratu zuenean. Lehena euskararen biziraupenarekin lotua ikusten zuen. Eta honela idatzi zuen:

– Euskera galduko balitz Euskal-Erria zearo galdua litzakela ziur badakigulako gure izkuntza maiteari iraupena eman nahi genioke (4. or.).

Barcelona - 18 - Enero - 1938.

Querido Juan;

Estando todos estos días por escribirte una carta en este momento que hoy tengo mucho de pendiente con tu mamá, una página o escribire a toda prisa.

He recibido tu carta que una amiga Rita Xuxueta, la que puedes figurarte cuanto agradeceré por ser la primera de amigos de esa. Claro es que figurite larguísimo que ha llegado aquí estos días me dice que Luis Sisi y demás amigos se quejan de que en las cartas, lo cual me espanta porque como puedes figurarte yo soy en Alicante uno de los hombres más compados y a cambio eso que están en San Juan de los rios para tener que hacer y podían escribirme.

Estoy en Barcelona estos días en viaje oficial para tratar y arreglar en el Ministerio de Justicia asuntos importantes de la Inducción de Alicante, tengo en esta plaza muchos grandes problemas por la circunstancia de que por dentro se me traba a él, entre toda la población real de Madrid, para ser juzgado. Se nos han tenido que dar mil quinientos pesos en

1. irudia

los sumarios correspondientes y se me anuncia por el presidente de la Inducción de Madrid, mi buen amigo, Vasco, Trullaga, al saber de otros tres mil. Por esto he habido que estar en la Inducción Nacional popular y de la que he hecho más que tengo en la actualidad además de cuatro juzgados especiales, además que en la Provincia tengo quince juzgados ordinarios y calcularía que tengo que trabajar extraordinariamente.

En Alicante me recuerdo con precisión de cosas y personas que lo posible por poderlo bien. Dale a Juanita que con Juanita me entiendo bien. Un día de esto te escribiré unas líneas respecto a los que en Alicante viven conmigo.

El pasado sábado día 15 recibí por la radio; me di si lo oírás se me anuncia con el nombre de José Agustín o sea con un segundo apellido, canta la romance de Mendocencia y la noticia del corte de hiera con una letra malherida que lo pone a punto la cual publica hoy Corradi y Escartada te la envío adjunta.

Desde que salí de casa no tengo cartas ninguna de una amiga ni de los otros pero me he recibido algunas cartas de ellos. He que una carta de ella y la voy a leer.

Tengo aquí delante una pluma que se puede hacer la carta propiamente por hacer la letra y no tengo un modelo por tenerla. Un día por lo que

2. irudia



Puntu honetan, bada, Jose Eizagirre literatura euskararen menpe jartzen zuten idazleen zerrenda luzean kokatua dugu; baina nobelaren gaia azaltzerakoan askoz ere argiago agertzen da:

– aizkenengo gure gudate izugarriaren zipiritin beltzak mendi-mendian izutatuta dagoen baserri bateraño nola iritxi diran, gaitzat artuta (4. or.).

Gaia, bada, guda izugarriaren oihartzunak zeintzuk diren aztertzea litzateke. Dena dela, baserria ez dago hain urrundua, ez hain mendi-mendian ezkutatua, eta garbi azaltzen du herritik baserrira dagoen aldea 144. orrialdean, non agertzen den baserriak herria ikusten dela, eta garbi azaltzen direla handik prozesioan doazen gizakiak. Eta pertsonaiek ere garbi dute nondik nora ikusten duten herria (*ikus 4. irudia*).



4. irudia

«XABIER.- A! Bai, emendik ederki ikusten det, ... aurretik bat bere ikusriñarekin dijoa...» (144. or.).

Egia da gainera, pertsonaia desberdinek herritik baserrirainoko bidea egiten dutenean ez dirudiela bide handia egin dutenik.

Nobelaren argumentuak hari mataza bi nahastatzen ditu: Alde batetik, guda baserrian nola bizi den azaltzen da, eta beste alde batetik, idilio bat du kontagune, hau da, gazte biren maitasun mataza.

Historia lau ataletan bananduta dago:

- Guda-otsak.
- Babes goxoa.
- Ekaitz ixugarria.
- Bukaera.

Lehen atalean, «Guda-otsak» horretan, baserri horretako familiakoak deskribatzen dira. Anton Mari eta Mañaxi senar-emazteak, aitona, zaharra, Manu seme nagusia, Malen, Joxepantoni, alaba gaztea, eta seme txikia, Txomin. Manu karlistek behartuta joango da gudara eta saiakera batzuetan hilik gertatuko da. Malen alaba zaharrenaz Pello Kirten dago maitemindua, baina hark ez dio kasurik egiten. Dirudienez, baserria karlisten eremuan da, Gipuzkoan, baina karlisten menpe, eta bat-batean gudariak agertzen dira Xabier gudari gaztea zauriturik dakartelarik. Familiak Xabier zaindu eta gorde egingo du, nahiz eta sor lezakeen arriskuaz oso pentsakor izan:

«Babes-goxoa» sailean, Xabier etxean delarik, Xanti medikua dator hura bisitatzera, eta baserri giroa deskribatzen da. Supazter goxoa ipuinak, Mateo Txisturena, kontatzen direlarik. Dena dela, Malen eta Xabierren arteko maitasuna indartzen doalarik, era berean zabaltzen da kezka familian: norbaitek ikusiko balu Xabier? Eta zelatan bizi dira. Eta Txinparta karlistaren beldur dira, nahiz eta semea rekete artean hilda gertatu zen.

«Ekaitz izugarrian», aldiz, bukaera ematen zaio ekintzari. Pello Kirtenek, Malenen pretendiente ukatuak, salatu egiten du karlisten aurrean, eta Txinparta agertzen da eta Xabier lotzen dute. Familikoekin borroka sortzen da eta Txomin seme gazteak, ilunean agertu eta tiroka sakabanatzen ditu karlista beldurtiak. Xabier, gudaria, Malen eta Aitona baserritik joango dira herri berri baten bila, eta ideologia nazionalistak bizirik dirauen lurraldeen bila.

NARRAZIOA ETA IDEOLOGIA

Ekaitzpean nobelak eztabaida nagusi bat agertzen du. Hau da, nola ulertzen diren karlisten eta nazionalisten arteko harremanak. Jose Eizagirreran

ustetan karlista mota bi daude. Batzuk, aspaldiko karlistadan borrokatu zutenak, eta horren eredu nagusia da aitona, onak dira; gaurkoak, aldiz, hau da frankismoaren alde jarri direnak, Txinparta bezalakoak, karlista ustelak dira, ez dutelako nazionalismoaren ideologia ulertzen.

Jose Eizagirre kinka baten erdian dago, eta agian, horixe da nobelak erakutsi nahi duen gai nagusia. Zeintzuk dira nazionalismoak karlismoarekin dituen loturak? Jakina da nazionalismoaren eta karlismoaren arteko loturak estuak izan direla eta baten «Dios, Patria Rey» hirukoteari «Jainkoa eta Lagi Zaharra» bikotearekin erantzun ziola besteak; baina gerra sortzen denean, hara non karlistak Errebelioaren alde jartzen direla. Eta gainera, horrela da, etxeko semea erreketarekin doa, ez gogo onez, baina joan, joan badoa. Eta hil egingo da.

Nola uztartu eta adierazi kontraesan hori? Bada anbiguotasunez. Hau da, karlista mota bi eraikirik. Karlista mota bat ona izango da, hau da nazionalismoaren eratzailera, aitona sinbolizatzen duena, eta karlistadetan borrokatu zutenekin irudikatzen direnak, eta besteak, gaurkoak, txarrak, Txinparta bezalakoak, gazteak buru berotu eta gerrara hiltzera bidaltzen dituztenak (bide batez, Manu ez da gerran hilko, gerrara joan aurretiko entrenamendu militar batean baino). Beraz, pertsonaia nagusia aitona da, eta aitona adierazten du Jose Eizagirrek duen kezka hori. Berak ziurtatzen du benetako karlismotik nazionalismora doan bidea. Karlista zahar jatorraren irudia ematen du eta horregatik nobelaren bukaeran Xabier gudari nazionalistarekin eta Malenekin etxetik irten eta joan doa nazionalistak nagusi diren eremura.

Nobelaren gertatzen den kontrakotasun nagusia aitona/ Kirten pertsonaien artekoa da. Aitona karlisten (eta beraz nazionalisten) izaera jatorra sinbolizatzen du. Kirtenek ordea, faltsukeria (besteak bidaltzen ditu gudara, baina bera ez doa), eta koldarkeria (Txomin gazteak tiroz beldurtu eta uxatzen ditu).

Etxekoak karlistak ziren hasieran:

ez al zarete zuek ere gure aldekoak, ez al zarete karlixten aldekoak beti izan? (15. or.).

Baina horrela izan arren, familiak bere burua ezjakintzat agertzen du:

guk politikaz ezer ez dakigu (15. or.).

Gudako gauz oietaz baserritarrak ez gaituk sartzen (51. or.).

Hala, gudaren kontrako ideologia bat sortzen da, nazionalismoak garbi izan zuena. Guda besteek sortu zuten, eta halaxe zen, eta bakearen aldeko joera nagusia agertu zuten:

naitanaiez ortara beartu gaituelako (50. or.).

Guda ez degu guk sortu, besteak sortu dute aiek asi dute (52. or.).

Karlista berriak agertzen duten kontraesanik nagusia haxe da, kristauak izanik gerraren alde egiten dutela:

gudaren aldeko gizonak badirala... eta beren bururak krixtautzat jotzen dituztela! (125. or.).

Eta, azkenean, guda gorrotatu egiten du Jose Eizagirrek, mezu nagusi gisa ideia hori barreiatuz:

guda baño gauza txarragorik ez da (58. or.).

Guda madarikatua (216. or.).

Karlista berriak gerraren zale badira ere, nazionalistak ordea, herri baten alderik sendo eta osasuntsuena da:

euskaldunik onenak oek omen ziran eta inor baño aurrerago erlijioaren aldekoztat beren buruak jotzen zituzten... eta orain gorriekin bat egin da (29. or.).

Kontraesan horien artean, karlistak kristauak, baina gerraren aldekoak, nazionalistak kristauak, baina gorriekin nahastuak, aukera egiten duen bakarra aitona da, karlista zaharretik, benetako karlista berrira, hau da nazionalismora igaroz. Malenek ere aukera egingo du nazionalismoaren alde, baina ez arrazoi ideologikoz maitasunaren poderioz baizik.

Nazionalismoaren eta karlismoaren arteko kontraesanetan murgildurik narrazio aldetik nobelak ere anbiguotasunak erakusten ditu maila narratibotan, alegia:

- a) Lehenik genero kontuetan. Ezaguna denez, *Ekaitzpean* nobela kontakizuna da, baina pasarte handiak ditu antzerti erara emanak. Jakina da, bestalde, Jose Eizagirrenen lehen lana antzerti generoan sortu zela. Argitaratu zuen lehen lana *Basotarrak* (1913) izan zen Segurako Euskal Jaietan saritua. Hiru ekitaldiko antzertia. Eta beraz, antzertira emana zen idazlea genuen, nahiz eta ondoren prentsan aritu eta artikuluak eta saiakerak (euskaraz nahiz erdaraz) argitaratu. Egileak hitzaurrean adierazten du irakurleak errazago irakur dezan lana egin duela elkarrizketa horrela; baina lanaren pasarte batean antzerti gisa asmatzen zuela lana adierazten du (146. or.).

Agerraldi hau amaitzen da

utzi zuen idatzita, hau da antzertian pentsatuko balu bezala. Genero kontua, baina, ez da soilik agertzen genero nagusien kontuetan. Narrazio aldetik ere arazoak ditu egileak. Kontatu, idilio bat kontatzen du, hau da Xabier eta Malenen arteko maitemintzearen historia, honek Pello Kirteni ezetz esan dion ondoren. Antzerti aldetik sainete baten itxura du, batez ere azken momentuan Txominek eskopeta hartu eta karlistak uxatzen dituenean. Ez da kontatzen, noski, zer gerta litekeen karlistak itzuliko balira, baina badakigu hutsunea literatura lanetan ezinbestekoa dela, baina hainbesteko hutsunea, nekez onartzen da gaur egunean ere.

- b) Kontakizunaren aldetik ere arazoak ditu egileak. Bi batez ere, bata denborarekin loturik dagoena, eta bestea narrazioaren topikotasunarekin. Kronologia ez dago ongi moldatua, eta badirudi momentu batzuetan idazleak huts egiten duela denbora neurtzerakoan. Aipamen bi egingo ditut, adibide gisa.

Lehen gerra garaia hasten denean gertatzen da. Une horretan kronologia gaizki zehazten da eta gaizki osatu. Gerra piztu da, baina, Eizagirreraren kontakizuna jarraituz, badirudi oraindik Nafarroan karlistak reketea osatzen ari direla, eta hori ez da posible, reketea gerran dagoelako jada.

Beste pasarte batean esaten da gerra piztu zenetik hiru hilabete pasatu eta udara-azkenekoan dira, ordea, pertsonaiak. Garbi dagoenez, uztaillari hiru hilabete gehituz gero, urria behar luke izan, eta beraz, pertsonaiek ezin dute uda hondarrean (irailean) bizi. Nobelaren azken aldean ere, esaten zaigu azarora aurrera doala, baina era berean baiesaten da negua dela, dena dela, idilio bati dagokion bezala, eguraldiak ederrak dira.

Espazio aldetik, arazoak badira (ikusitako lehenago baserria ez dagoela herritik hain urruti, eta gainera ez dago garbi frentean dagoen -gudariak Xabier zaurituarekin agertzen baitira- edo beste pasarte batean esaten den bezala, gudak aurrera egin duen:

lur-alde hau guztia Xabier gure zauritu orren etsai amorratuen mende zegok.

Kontakizunaren topikotasuna nonahi agertzen dela esan behar genuke. Familiaren eraketa bera patriarkala dugu hasiera-hasieratik: gurasoak, lau seme-alaba eta aitona. Eta emakumeen papera, batez ere amarena, oso eskasa da, ekintza egile bakarrak aitona eta Txomin seme gaztea dira, Malenekin batera noski.

Idilioaren tonuak ere topikoz osatzen du kontaketa:

gizonen artean hainbeste gorroto, ezin-ikusitako, zitalkeri ta burruka dabillan garaiean, arantza arteko lore eder bat bezala, maitetasun-lore garbi, apain, bikaña euzko-mendi-emendian sortu,erne eta agertu da (146. or.).

Bai maitasun historia, bai karlistekin izandako guduaren istorioa oso era sinplez kontatuak daude. Azken batean, kausalitateak ez du ongi moldatzen kontakizuna. Pertsonaiek dituzten arazoiez pentsatzen jarritz gero, garbi dago gurasoek, batez ere, euren «bizibeharra» adierazten dutela, baina ez dago mugimendu handirik eurengan. Malenen arrazioak oso ongi ulertzen dira, aldiz. Bai Pello Kirteni ezetz esaten dioenean, bai Xabierreri emandako baietzean. Ulertzen dira baita ere karlisten arrazioak, nahiz eta ez den oso ongi azaltzen zergatik onartzen duen seme nagusiak reketean deia.

Pertsonaiak onak dira, batez ere onak. Bizitza gogorra dela onartzen dute, baserria aberatsa, baina lana eskatzen duena; baina zergatik onartzen dute etxean Xabier? Kristautasunaren deiari kasu eginez, euren izaera on horri jarraituz. Eta kristautasun horrek bultzatzen ditu pertsonaiak ekintzak arrazoitzera. Aitonaren aldaketa da nagusia, zeren karlista zahar izatetik nazionalistekin joatea erabakitzen baitu, eta prozesuan arrazoiak eta kausalitatea moldatu ditu Jose Eizagirrek, beraz, pertsonaia borobildua osatuz; baina bere psikologia ahuldu egiten da, zeren, azken batean, bere izaera eta arrazoa ez baita psikologian oinarritzen, baizik eta bere joera analogikoan. Aitona karlista onen irudia da, hain zuzen ere, nazionalisten alde egin duten «karlisten» irudia, eta gainera legitimitatea adierazten duena, zeren berak karlistada zaharretan borrokatu du, ez Txinparta bezala, berria eta Francoren alde jarri dena. Haren izaera karlismoaren legitimitatea agertzean datza. Espazioaren topikotasunaz gainera:

mendi magal artan euskaldun nekazarien sendi jator, zintzo au, pakean eta zorionsu krixtautsunea ederrean bizi zan (10. or.),

oraintxe bertan ikusiko dugu kontakizun aldetiko beste desoreka bat.

- c) Izenburuaren anbiguotasuna. *Ekaitzpean* izenburuan edonork ikus dezake esanahi sinbolikoa, hain zuzen ere, pertsonaiak gerrak ekarri duen «ekaitzaren pean» bizi dira, eta gerrak ekarritako ekaitza da hitzaurrean esaten zaigun bezala:

aizkenengo gure gudate izugarriaren zipriztin beltzak mendi-mendian izkutatuta dagoen baserri bateraño nola iritxi diran, gaitzat artuta... (4. or.),

zipriztin beltzak dira ekaitzaren zantzuak; baina, badu bigarren esanahia: errealista. Kontakizunaren hasieran, baserritik irten dira lanera aita eta seme-alabak, emaztea sutondoan zain dago, eta ekaitza datorrela sumatzen duenean beldurtu egiten da, eta kezkatu zer ote zaien gertatu kanpoan direnei. Nobelaren bukaeran beste ekaitz bat kontatzen da, ekintza nagusi bat errepikatuz, eta nahiz eta gerra garaian izan, emaztea ez du gerrak –nagusiki– kezkatzen, baizik eta ekaitzak. Ikusten dugunez, errepikapenak ez dio onik egiten liburuaren egiturari, eta gainera leundu eta aldatu egiten du izenburuaren zentzu sinbolikoa. Berriro irakurtzen badugu sarrerako esaldia:

aizkenengo gure gudate izugarriaren zipriztin beltzak mendi-mendian izkutatuta dagoen baserri bateraño nola iritxi diran, gaitzat artuta... (4. or.),

konturatuko gara baserria ez dagoela mendi-mendian ezkutatua, eta gudatearen zipriztin beltzek baino garrantzi handiago dutela izadiko ekaitzek.

- d) Ideologia itxaropentsua. Gerrako zipriztin beltzak izan arren, Jose Eizagirre idazlea itxaropentsu bizi zen tokatu zitzaion garaian. Euska-

dira noiz itzuliko zain bizi zen, eta agian, garaiko hainbat deserriratu-
en ametsa zen Euskadira itzuli eta berriro ere autonomia lantzen ja-
rraitzea. Horretarako idatzi zuen Jose Eizagirrek eskubide alorreko lan
berri bat. Itxaropenaren aldeko joera ideologiko hori nabari ageri da
nobelan. Aroak ez dira onak, baina etorriko dira hobeak:

eta egun batez... bere jaiotetxea jaso eta bizikera sendo, iraunkor, ede-
rrean jarriko dute.

Nobelak, azken batean, jarraipen ideologikoa du, eta, beraz, hauxe
izango litzateke kontakizunaren azken desoreka puntua.

YON ETXAIDEREN ELEBERRI HISTORIKOAK: *ALOS-TORREA* (1950) ETA *JOANAK JOAN* (1955)

Javier Rojo Cobos,
UPV/EHU

1. SARRERA: NOBELA HISTORIKOAK DIRELA ETA

Ikastaro honetan Txilardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* izeneko nobelaz hitz egiten da, eta niri 50ko hamarkadan nobela hori argitaratu baino lehenago agertu ziren nobela batzuei buruz mintzatzea suertatu zait, Yon Etxaidek idatzitako nobela historikoez aritzea, alegia (1).

Bi nobela argitaratu zituen Etxaidek hamarkada horretan, *Alos-torrea* (1950.ean) eta *Joanak joan* (1955.ean), eta biak ala biak nobela historikoa deritzon generoaren barruan kokatu ohi dira. Kontua da genero honetaz hitz egiten denean guztiz desberdinak diren testuak aipatzen direla, hain desberdinak, ze inpresio daukat halako izendapen bat erabiltzen dela hutsik dagoen ontzi bat izango balitz bezala, gero norberak nahi duen likidoa botatzen baitu barruan.

Nobela historikoa, nobela genero bat da, eta beste nobeletatik, historikoa ez diren nobeletatik bereizten bada, argumentuaren aldetik ezaugarri berezi batzuk dituelako da. Zientzia fikzioan edota nobela poliziakoan gertatzen den bezala, estrukturalki ez dago ezer nobela historiko bat historikoa ez den nobela batetik bereizteko balio duenik. Desberdintasunak kontatzen den edukian ikusi behar ditugu. Honexegatik, nobela historikoa hain malgua da bere barruan edonolako testuak sartzeko.

Zein da, orduan, argumentuaren aldetik nobela historikoez duten berezitasun hori? Nobela historikoan errealitatez hartutako osagaiak eta idazlearen asmamenaren ondorioz direnak nahasten dira. Gauzak horrela esanda, ez dirudi nobela historikoetan beste nobeletan gertatzen ez diren gauzak agertzen direnik, zeren nobela guztietan, alde edo moldez, halako osagaiak nahasten

(1) Euskaltzaindiak Donostiako Uda Ikastaroen programa barruan antolatutako «*Leturiaren Egunkari ezkutua* eleberriarren ekarpena XX. mendeko euskal narratibaren testuinguruan» izenburuko ikastaroan eskaini zen hitzaldi hau UPV/EHUko GIU 06/65 ikerketa talderako egindako lanaren emaitza da.

baitira, errealitatekoak eta asmatuak, fikziozkoak nahi baduzue. Askotan nobela baten barruan agertzen den guztiak irudimenaren ondorioa dirudielarik ere, errealitatearen aztarnak ager daitezke. Zinetik hartutako adibide bat aipatuko dut. Ez dakit ezagutzen duzue «Starship troopers» izenburua duen filma (ez dakit gure artean nola bataiatu zuten, «Las brigadas del espacio» agian?), Paul Verhoevenek zuzendutakoa, eta zine kritikak gupidarik gabe astindua. Film honetan Lurra erasotzen dute beste planeta bateko izakiek, zomorro itxura nazkagarria dutenek. Eta mendeku moduan Lurtarrek erabakitzen dute zomorro horiek guztiak akabatzea. Kontua da Lurtarrak izan zirela lehenengoak zomorroen esparruan sartzen, zomorroak lasai asko inorekin sartu gabe bere munduan bizi ziren bitartean... Militarismo eta patriotismo naifaren apologiatzat hartu izan da film hori, baliorik gabeko subproduktutzat. 50ko hamarkadako nobela batean oinarrituta dago eta garai hartako B serieko filmen estetika berpizten du neurri batean. Baina zuzendariak material hauek erabili zituen, errealitatearekiko paralelismo bat ikusi baitzuen bertan. Gerorago jakin zenez, Golkoko lehenengo gerran gertatutakoaren parodia egin nahi izan baitzuen zuzendariak material horiekin, Estatu Batuetan garai hartan korritzen zen propaganda eta nagusi zen giroa marko intergalaktiko batean jarrita. Errealitatearen osagaia, nolabait esateko, halako istorioan plagiatuta ikusi zuen. Errealitatearen itxura mozorrotuta, honen ikusleak urruntasun puntu bat izan zezakeen, eta gauzak honela, arazoak pixka bat urrunetik azalduta errealitatea beste begi batzuek ikusteko aukera dago. V efektua deitzen zion antzeko teknika bati Bertol Brechtek, oker ez banago. Paul Verhoevenek arazo bat izan zuen film honekin, ordea, inork ez baitzuen bere momentuan ulertu istorioaren aspektu ironiko-parodiko hau eta argumentuaren azalean geratuta ez baitzuten ikusi atzean zuen errealitatearen kritika.

Nobela historikoetan ere errealitateari dagokion osagaia dago, baina osagai hau historiari dagokio. Nobela historikoetan agertzen den errealitate errealitate historikoa da. Eta errealitate historikoari dagokion osagai honekin batera, idazleak bere asmamena erabiltzen du. Eta zeharka idazlearen garai historikoa ere hortxe dago, ikuspuntua eskainiz.

Baina errealitate historikoa ez da arazorik gabe aurkezten den osagaia. Joera dugu pentsatzeko historia hor dagoen gauza bat dela, objektiboa dela eta historiari heldu ahal diogula inolako bitartekaririk gabe. Historia, ordea, ez da hain objektiboa, historia narrazio baten ondorioa baino ez baita. Historiagileek dokumentuak erabiltzen dituzte, baina iritziak ere bai, eta osagai hauekin narrazio bat eraikitzen dute, eta narrazio honek edozein narraziok dauzkan osagaiak dauzka: ikuspuntua, helburua, gertakarien aukeraketa... hori guztia egiazat eskainita, irakurleak suposatzen baitu historiagileak ez diola gezurrik kontatuko, datu zehatzetan behintzat; baina ez dugu ahaztu behar historiagileak ere bere ikuspuntua daukala. Ondorioz, esan daiteke errealitatearen eta fikzioaren nahasketan den nobela genero honetan, errealitate historikotzat eskaintzen denak oinarri diskurtsiboa duela. Honen ondorioa argia da, nobelagileak nobela historiko

bat egin nahi badu, historian oinarritzen da, baina historia beste diskurtso bat denez, nobela bera bezala, nobela historikoa beti izango da bigarren mailako diskurtsoa, beste diskurtso baten gainean eraikitako diskurtsoa.

Errealitatearen eta fikzioaren arteko nahasketa hau maila desberdinetan eman daiteke: pertsonaia nagusiak, argumentuan kontatzen diren gertakariak historikoak izan daitezke edo ez, baina pertsonaien eta gertakarien markoa, leku-denborak alegia, historikoak izan behar dira. Lehenaldi historikoki identifikagarri batean kokatzen dira gertakariak, historiaren aldetik leku eza-gun batean, eta alde honetatik idazleari eskatzen zaio errealismoarekin jokatea eta ahal den neurrian anakronismoak saihestea. Batere erreza ez den kontua, bestaldetik, batzuetan anakronismoak oharkabean pasatzen dira-eta. Batez ere eguneroko bizitzari dagozkion kontuetan izaten da konplikatua anakronismoak alde batera uztea. Gauzak honela, idazleak, anakronismoari ihes egin nahian, errealitate tipikoa erakusteko joera izan dezake batzuetan, tipikotasun horretan denboraren higaduratik kanpo dagoen osagai bat egongo balitz bezala.

Edonola ere, nire ustez nobela historikoetan ez zaio hain beldur handia izan behar anakronismoari, eta onartu behar den gertakaria da. Generoari dago-kion berezko ezaugarria da anakronismoa, eta anakronismorik gabeko nobela historikoa idaztea ezinezko iruditzen zait. Batzuetan idazleak gehiegi kezkatzen dira horretaz, eta adibidez hizkuntzan bertan saiatzen dira anakronismoa saihestea, testuan aspaldiko garaia gogorarazten dituzten hizkuntza-osagaiak sartuz.

Zaila da Erdi Aroan erabiltzen zen objektu bati aspaldiko izenarekin ez deitzea, baina handik Erdi Aroko hizkuntza imitatzen edo berreraikitzen saiatzera aldea dago. Adibide ikusgarriak jarriko ditut: Nola idatzi behar zuen Robert Graves-ek gazteleraz *El vellocino de oro* izenarekin ezagutzen den nobela, guztiz koherentea izateko? Grekera arkaikoan, agian, suposatuta halako pertsonaiek hizkuntza hori erabiltzen zutela? Eta Klaudioren memoria nobelatuak idatzi zituenean, latinez idatzi behar zituen? (denok dakigunez, Klaudiok, Kaligularen osabak, ez zekien ingelesez, besteak beste ingeleza egon ere ez baitzegoen garai hartan...). Egoera inolako arazorik gabe eraman daiteke absurdoraino.

Idazle batzuk lehiatzen dira ahalegin horretan (gure artean, *Lur bat har-ratago* izan liteke adibide bat, XVII. eta XVIII. mendeetako euskara imitatzen duena).

Bestetan ez da ahaztu behar horrelako anakronismoek balore parodikoak izan ditzaketela, eta hau oso interesgarria izan daiteke parodia nagusi bihurtzen mundu honetan: idazle batek esan dezake zaldunak zaldia hartu eta ziztu bizian joan zela, Valentino Rossi bere Yamahan joango balitz bezala. Txistea ematen du honek, baina aurrean euskaraz argitaratu den nobela batean, (*31 baioneta* du izena, eta XIX. mendearen hasieran kokatuta dago), narratzaileak deskribapen bat egin ondoren, irudi hori argazki batekin konparatzen du.

Izan ere, ez da ahaztu behar hizkuntza argumentuaren zein diskurtsoaren osagaia dela, eta biak ez dira zertan bat etorri, pertsonaien ikuspuntua eta diskurtsoa kokatzen den komunikazio egoera desberdinak izaten baitira, eta testua azken honen menpean dago.

Pertsonaiak eta gertakariak ere historikoak izan daitezke, historiaren aldetik ezagunak. Baina askotan honek muga handi bat suposatzen dio idazleari, historiaren aldetik ezagunak diren pertsonaiak erabiltzean pertsonaiaren garapenean ez baitu askatasun handirik izango. Horrexegatik idazleek aukeratu ohi dituzte edo guztiz anonimoak diren pertsonaiak edo historiaren aldetik bigarren mailakoak direnak. Protagonista moduan oso ezagunak diren pertsonaiak erabiltzen dituztenean idazleak saiatzen dira alderdi ezkutuetan sakontzen. Edonola ere, ez dugu ahaztu behar pertsonaia historikoak nobela batean agertzen badira, nobela pertsonaiak bihurtzen direla. Alde honetatik aipagarria izan liteke orain dela gutxi euskaraz ere agertu zaigun *Ravel* izeneko nobela, Jean Echenoz-ek idatzitakoa.

Bestela, honelako pertsonaia nagusiak marko historikoari dagozkion osagaiak dira, argumentuan parte hartze handirik ez dutenak.

Pertsonaia anonimoak badira ere, nobela historikoetan joera dago pertsonaia hauen ibilbidea gertakari historikoen menpean egotera. Agian ez dute parte hartuko gertakari historikoetan, baina gertakari historiko horiek eragina izango dute beraien bizitzetan.

2. ALOS-TORREA (1950)

Sarrera honen ondoren 50ko hamarkadan Yon Etxaidek idatzi zituen nobela historikoez zerbait komentatzera pasatuko naiz.

Txilardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* baino lehenago argitaratu zituen nobelez arituko naiz, beraz, *Gorrotoa lege* izeneko nobela (1964.ean argitaratu zena) alde batera utziko dut, nire ustez nobela hau nobela historikoaren generoaren ikuspuntutik begiratuta Etxaideren literaturan gailurra bada ere.

Hasieran aipatutako bi nobeletan zentratuko naiz bera.

Lehenengoa, *Alos-torrea*, lehenengo aldiz 1950.ean argitaratu zena, gero argitalpenetan, zenbait aldaketa eginda *Usoa Alostorreko* izenarekin argitaratuko zena.

Etxaidek nobela hau egiteko Araquistainek idatzi zuen leienda batean oinarritu zen. *Tradiciones vasco-cántabras* liburuan agertu zen «Gau-illa» izenburuarekin. R.M. Azkuek ere ipuin moduan argitaratu zuen istorio horren beste bertsio bat.

Leienda horren istorioan oinarrituta eta zenbait aldaketa eginda, Etxaidek nobela bat idatzi nahi izan zuen. Eta batzuetan iruditu zait nobela hau ia nobelagintzan ikasteko ariketatzat hartu behar dela, idazleak proiektu handiagotan sartu baino lehenago, halako saio bat egin behar izan zuela.

Gogoratuko dut argumentua:

Lehenengo irakurketa batean, Etxaideren nobelan istorioak, N. Friedmanek gertakarien izaeran oinarrituta egindako sailkapena gogora ekarriz, intriga melodramatikotik eta intriga sentimentaletik, bietatik zerbait du. (2) Izan ere, pertsonaia nagusiek (Usoak eta Beltran haren aitak) hainbat probatatik pasatu behar dute nobela honetan zehar, bukaeran halako egoera orekatsua (egilearen asmoak mugatutako egoera orekatsua) lortu arte.

Nobelaren argumentuak Usoaren jaiotzatik, aitaren gau-beilan denen aurrean emakume honen ohorea garbirik gelditzen den arte hartzen du. Irakurle-ari aurkezten zaion moduan, hamar kapitulutan zehar garatzen da:

1. Usoa jaiotzen da eta honen ama hil, erditzearen ondorioz.
2. Beltran, Usoaren aitak bigarren emaztea hartzen du, Otxanda. Etxean Matxin izeneko umezurtza (*Belabetz* deitzen diotena) hartzen du Beltranek. Etxera etorri berri diren pertsonaia hauek Usoaren kontra jartzen dira.
3. Urteak pasa dira, eta Usoa oso egoera larrian aurkitzen da etxean daukan kontrako giroa jasan ezinik. Aitak ezkontza bat prestatzen dio, Mitxele Bidaniakorekin.
4. Ezkontza bertan behera utzi behar dute, zeren zaldunek gerrara joan behar baitute. Handik zazpi urtera bueltatzen dira eta Beltranek, bera kanpoan zegoen bitartean etxean ume bat jaio dela entzuten du ostatu batean. Atal honetan ikus dezakegu historiak gertakarien garapean daukan eragin xumea.
5. Etxean agertzen da Beltran, Otxanda eta familiako besteen harridurarako. Usoa giltzapetuta aurkitzen du dorreko ganbaran, nobela gotikoaren giroa gogorarazten duen eszena batean.

(2) Garrido Domínguez-ek honelaxe definitzen ditu intriga motak:

»*Intriga melodramática*: el relato termina con la desgracia del protagonista, el cual ha sido sometido previamente a diferentes pruebas; este hecho origina la simpatía y la conmiseración del lector hacia él [...].

»*Intriga trágica*: la evolución y el desenlace son similares a los del tipo anterior, aunque los separa un elemento importante: el protagonista es responsable, al menos en parte, de su destino [...].

»*Intriga sentimental*: un protagonista del agrado del lector supera diversas pruebas; al final siempre se imparte justicia poética [...]» (Garrido Domínguez 1996, 59).

6. Beltran eta Usoa Debako ostatu batera doaz bizitzera. Usoa sendatu ondoren, Bidaniara ezkontzen da Mitxelerekin. Beltran, bitartean, ostatuan geratzen da.
7. Beltranek Deba utzi eta Bidaniara doa, Matxinekin hitz egin ondoren. Egun batean, aspaldiko lagun batekin (Txoperekin) topatzen da eta honek bere alabaren ezkontzara gonbidatzen du, Debara. Beltran gonbitea onartzeko prest dago, baldin-eta Otxanda eta Deban gelditu diren besteak ezkontzara gonbidatzen ez badituzte.
8. Otxandak jakin du ez dutela ezkontza horretara gonbidatuko, Beltranek hala inposatu duelako. Erabakitzen du mendekua hartzea Ipiola deitzen duten bertsolariaren bidez. Ezteietan daudenean, Ipiolak bertso iraingarriak botatzen ditu Beltranen kontra eta honek ezteien erdian hiltzen du bertsolaria.
9. Beltran kartzelara daramate hamar urtez. Bost baino bete ez dituenen, aske uzten dute eta erabakitzen du Debara bueltatzea, Otxandarekin-eta bakeak egiteko. Deban hil egingo da Beltran, hara heldu eta hilabete batera.
10. Deban, Beltranen gau-beilan Usoa agertzen da. Balada ezagunaren bidez, jakitera ematen du zer gertatu zen Aloseko dorrean aita gerran egon zen bitartean. Matxin Usoa hiltzen saiatzen denean, Beltran berpiztu egiten da. Elkarri barkatuz eta bakeak eginez bukatzen da nobela.

Hauexek dira argumentuaren hari nagusiak.

Aipatu den bezala, Yon Etxaidek elezahar baten argumentua hartu eta zenbait aldaketa egin zizkion, helburu zehatz bat iristeko. Izan ere, zer eman nahi du aditzera Yon Etxaidek nobela honekin? Nobela tesi-nobelatzat har baitaiteke, inolako oztoporik gabe.

Etxaidek argumentu honekin kristautasunak konfliktoak gainditzeko duen balioa azpimarratu nahi du. Istorio honen bidez agertu nahi duen moduan, kristautasunak bi oinarri ditu, idazleak berak nobelaren bukaeran azaltzen duenez: besteenganako maitasuna eta barkamena:

[...] irakurgai berritu hontan, hain beharrezkoa zaigun lagun hurkoaganako amodioa eta barkapen legea hartu ditut helburutzat; alegia, gaizki eginari on eginaz erantzun behar zaiola, giristinoak baldin bagara [...] (UA, 150).

Helburu honek istorioaren amaiera mugatzen du, pertsonaien jokaeran nobelaren bukaeran helburu hori argi eta garbi azaltzea planteatzen baita argumentua garatu ahala.

Amodioaren legean oinarritzen den helburu hau plazaratzea funtsezkoa iruditzen zaio, fedegabeko mundu batean:

Gaur, fedegabeturik, nora-ezean dabilkigun mundu triste hontan, Euskalerria barne, gizonak hain beharrezkoa duen esperantza eta bizitza berri batera daraman argia –Jesus Jaunaren argia–, eskaini nahi nioke irakurle euskaldunari. (UA, 151).

Helburu hau nobelan bertan nola gauzatzen den komentatuko dut hemen.

Lehenengoz, ideologia horri buruzko aipamen zehatzak agertzen dira, mairuen kontrako gerrak direla-eta. Ia arazorik gabe idazlearekin identifika daitekeen narratzaileak honelako komentarioa egiten du, jaunek gerrara joateko arrazoia azaltzerakoan:

[...] giristinotasuna –Jesukristo gure Jaunaren erakuspiden kontra– arma bidez eta odola isuriz zabaldu behar zelakoan. Eta nola ez zuten sinetsiko «fede gabeen» kontra gogorkeria erabili behar zela, Aita Sainduak berberak beren «gurutzaldi» predikutan horixe erakusten baldin bazuten? (UA, 44).

Benetako kristautasunaren eta Elizak erakunde moduan batzuetan erakutsi duen jarreraren arteko kontrajarpena agertzen zaigu hemen.

Eta beste momentu batean, Beltranek berriro ere mairuen kontrako gerrara joateko duen asmoa azaltzen duenean, kristautasuna defendatzearen alde armak hartzeko prest dagoela adieraztean, hauxe idazten du Etxaidek orrialde barreneko ohar batean:

Esan dugu garai hartako kristaugoaren mentalitatea –gezurra badirudi ere– hala zela. (UA, 86; 127. oharra).

Honelako aipamen zuzenez gainera, nobelaren bukaera ere Etxaideren planteamendu hori adierazteko asmoarekin eginda dago. Azken atalean, Araquistain-en eta Azkueren kondaira-ipuinetan agertzen den mendekuaren ordez (bertsio hauetan Beltranek Belabeltz hiltzen baitu), pertsonaia guztiek elkar barkatzen dute. Eta barkamen hau nobelan zehar Beltranek burutu duen ibilbidearen azken muga da. Pertsonaia honek azkenean benetako kristau bezala jokatzeko duenean, kartzelan egon ondoren Debako familiarekin bakean bizitzera doanean, Otxanda ez juzkatzeko erabakia hartzen duenean eta Belabeltz bizirik uztean, bakea zabaltzen da konfliktoan dauden alderdi guztien artean. Eta barkamenaren eta amodioaren indarra pertsonaia guztien gainean hedatzen da. Halako zerbait esan daiteke Usoaz ere, honek ere bere kontra aritu ziren guztiak (Belabeltz barne) barkatzen baititu.

Konfliktoaren oinarrian gizakien alderdi materiala zegoen, pertsonaien grinetan gauzaturik. Baina, konfliktoan dauden taldeen gainean kristautasunaren funtsa den amodioaren legea zabaltzen denean, konfliktoa bera desagertzen da, alderdi espiritualak, berezko joeren ondoriozkoak diren grinei mugak jartzen dizkien alderdi espiritualak, nagusitzen delarik.

Konflikto hura adierazteko markorik egokiena familia barruan ikusten du Etxaidek. Geroko beste nobela batzuetan gertatuko den bezala (*Joanak joan-*

en, adibidez, begi-bistakoa da), kontrajarritako taldeak familia barruan kokatzen dira, familia bera, gizartean ematen diren konfliktoen adibidea eta metafora izango bailitzan, anaia-arreben, anaia-arrebaordeen edota senar-emazteen arteko liskarretan azaltzen den bezala. Alde honetatik, azpimarragarria da oso argumentuaren garapenean ezkontzek duten garrantzia: ezkontzek pertsonaiak elkartzen dituzte familia berriak osatzeko eta ezkontza hauek suposatzen duten mugarririk gabe nekez joko luke aurrera honelako argumentuak.

Ohiturazko nobelagileen mundu tradizional konfliktogabea desagertu egin da Etxaideren nobelan. Hala ere, ez da gai izan arrazoi materialetan oinarritutako irtenbide bat bilatzeko. Bestaldetik, konfliktoaren irtenbide moduan planteatzen dena ez da talde batek bestea garaitzea. Bi taldeen artean nolabaiteko dialektika dagoela ematen du, baina irtenbidetzat ematen dena ez da sintesi bat. Hurrengo nobelaz aritzean sakonduko dut puntu honetan.

Honetan Etxaide mundu tradizionalaren eta modernitatearen artean (Orixeren eta Arestiren artean, era ia metaforiko batean esateko, 1950. eta 1964. urteek suposatzen duten muga kontuan hartuta) kokatzeko arrazoi bat ikusten dut. Konfliktoa azaldu, planteatu egiten du; baina irtenbidea gaur egun ahaztuta dagoen terminologia baten arabera «superestruturazko ideologikoa» deitu izan den osagai batean (Etxaidek kristautasunaz ulertzen duen horretan) aurkitu behar da.

Kristautasunaren balioak azpimarratu nahi dituen jarrera hau ez ezik, nobelaren diskurtsoa bera ere esanguratsua iruditzen zait, kondaira batean oinarrituta nobela bat eraikitzeak esanahiaren mailan zerbait adierazi nahi duelako. Izan ere, bi helburu dauzka Etxaidek nobela honekin: aipatutako ideologia azaltzea eta elezahar baten istorioarekin nobela egitea.

Leiadak bi ezaugarri nagusi dauzka Jon Juaristik azaltzen duenaren arabera: fantasiatik hartutako osagai efektisten erabilera eta denboraren aldetik kokapen zehatzgabea izatea (Juaristi 1986 eta 1987, 67-69). Nobela historikoan, ordea, marko historiko zehatza agertzen da eta, honez gainera, osagai fantastikoak arrazionalizatzen saiatzen dira idazleak.

Etxaidek, bere nobela burutzean, horixe egin nahi izan du, hain zuzen ere: egiantza duten azalpenak ematen dira fantasiakoak diruditen osagaien aurrean (non ez diren zeharo baztertzeko) eta elezahararen argumentua Erdi Aroko garai zehatz batean kokatzen du, X. mendean lehenengo argitalpenean eta XII-XIII. mendeetan hurrengoetan.

Izan ere, Etxaidek elezahararen eta eleberriaren arteko desberdintasuna, fantasia eta errealismoaren arteko desberdintasun moduan ulertzen du. Horrelaxe adierazten du berak, gertakari zehatz baten (3) azalpena ematerakoan erabiltzen dituen hitz hauetan:

(3) Ez zitzaion sinesgarria iruditzen Beltran bezalako agure batek zerraldotik irteadakoan Belabeltz gazte eta indartsua ezpata borroka batean hil lezakeenik, kondairan agertzen den bezala.

Elezahar bateko fantasia bezala ongi dago, baina errealismoa falta zaion aldetik ez dit egoki iruditu elaberriturik emateko. (UA, 149).

Eleberri, nobela batean agertzeko, osagaiak errealismoaren parametroetan azaldu behar baitira. Gauzak horrela, asmo ideologikoari egokitzeko *ad hoc* asmatutako bukaera horrek errealismo handiagoa dauka elezaharrekoak baino, Etxaideren hitzen arabera.

Errealismoa bilatu nahian (edota idazleak emandakoa fantasiaren ondorio ez dela adierazteko), batzuetan zientziatik hartutako azalpenak ere ematen ditu. Adibidez, Beltranen berpiztea dela-eta, zientifikotzat har daitekeen azalpen bat ematen du. (4) Eta Beltranek Ipiola hiltzen duenean ere, azalpen zientifikoa ematen du. Beltranek eskuakin itotzen du Ipiola bertsolaria honek botatako bertsoek sutan jarrita:

lepoa estutuz ari zitziola oraindik amorruren amorruez, bere eskupekoak ahotik odola zeriola nabaitu zuen bat-batean Beltran-ek. Nonbait, ustekabeen, eztarriko zainen bat lehertu zion. (UA, 106).

Beltranek ez baitzuen Ipiola hiltzeko asmorik. Dena dela, hil egiten du eta hori zergatik gerta zitekeen azaltzeko, orrialde barrenean ohar hau gaineratzen dio aurreko testuari:

Estrangulazioa larinjea eta kartilago tiroideo delakoa hautsiz gerta daiteke. (UA, 106; 164. oharra).

Horrelaxe azaltzen du Ipiolaren heriotza, «ustekabeen» gertatutakoa. Horrelaxe salbatzen du Etxaidek errealismoaren beharra: Ipiolari zergatik ateratzen zaion odola azaltzen baitu, batetik; eta, bestetik, zergatik hil den berez gaiztoa ez den pertsonaia baten eskuetan.

Nobelan honelako azalpenak egitea beharrezkoa ikusten du Etxaidek, hain zuzen ere nobela, eleberria egiten ari delako. Elezaharrean ez lirateke beharrezkoak izango:

[...] gogoan eduki behar da, bestalde, tradizioak (5), hanpatuak, fantasiaz beteak eta desitxuratuak iristen zaizkigula. (UA, 149).

Honetan Araquistain-ek Etxaideregan eragina izan zuen arren, kontatzen dutenaren gainean jarrera desberdinak dituztela iruditzen zait.

Araquistain-ek elezaharren izaera hau balio positiboz horniturik ikusten du. Izan ere, egia da elezaharrak batzuetan aldatuta heltzen zaizkigula, baina hauek, funtsean, sakonean egia bat gordetzen dute. Cantu izeneko historiagi-learen hitzen aipamena eginez, hauxe dio Araquistain-ek:

(4) Beltran katalepsia egoeran baitago, kordegabetuta; kondaira eta ipuinean, ordea, heriotzarena amarru bat da.

(5) Araquistain-ek elezaharrei «tradición» izena ematen zien, bere liburuaren izenburuan ikus daitekeenez.

[las tradiciones] aunque parezcan insulsas o viciadas, proceden de algún hecho, o tienen su origen en una verdad profunda: de modo que no pueden mirarse con indiferencia por el que estudia en la historia, no la anécdota, si no al hombre. (Araquistain 2000, 7).

Historiak sakonera jo behar baitu, Araquistain-en ustez, eta elezaharrek sakonean egia diote, azalean zenbait hutsune badituzte ere. Badirudi, beraz, historiak barnehistoria, sakoneko historia ikertu behar lukeela, elezaharrei ohartuz gero. Eta herri batzuen historia ezagutzeko derrigorrezkoa da elezaharretara jotzea, hauetan (bestelako dokumentazioaren faltan) aurkitzen baita herri horien *benetako* historia.

Bestaldetik, Araquistain-en ustez, ezin daitezke elezaharrak eta sineskeria, besterik gabe, parekatu. Sineskeriaren aztarnak edonon aurki baitaitezke haren ustez: tradizioetan bai, baina baita zientzian eta zenbaitetan erlijioan ere (Araquistain 2000, 12).

Gauzak honela, elezaharrek historiaren ikerketan duten tokia azaltzera-koan halako kontrajarren bat egiten du Araquistain-ek: batetik, fedea (sentimendua, poesia) dago; bestetik, zientzia; batetik, sakoneko egia; bestetik, itxurazko, azaleko egia; batetik, barne-bakea; bestetik, etsipena (Araquistain 2000, 12-13).

Etxaidek beste era batez planteatzen du arazoa, abiapuntua antzekoa bada ere. Izan ere, Etxaidek ere elezaharren oinarrian egia bat dagoela pentsatzen baitu, baina egia hau, Araquistain-en erromantizismoaren neurrian azalduko sakoneko egia izan beharrean, elezaharrean kontatzen diren gertakariaren oinarri historikoan bilatzen du Etxaidek. Idazleak pentsatzen baitu kontatzen dena egiazko gertakaria dela jatorrian, guregana itxuraldatuta (hanpatua, fantasiagatik) betea eta desitxuratua, Etxaideren hitzak parafraseatuz) heldu arren.

Araquistain-en planteamenduan, denborak elezahar batean azaleko aldaketa batzuk erants ditzake, elezaharrak bere baitan gordetzen duen sakoneko egia batera aldatu gabe. Alde honetatik, badago elezaharretan denboran zehar aldaezina den hari bat, historiak ezin baitu eraginik izan horren gainean.

Etxaidek, ordea, tradizioa historian bertan gauzaturik ikusten duenez, historiak eragin dezake tradizioaren gainean.

Honek hiru ondorio dakartza bere literatur praktikan, *Alos-torra*-n ikusi denaren arabera:

- Alde batetik, idazlea saiatzten da elezaharren oinarrian dagoen gertakari historikoa agertzen. Badaki, ordea, hau, berez, ezinezkoa dela. Inoiz ez duela ziurtasun osoa izango bere pertsonaiak eta hauen gorabeherak marko historiko egokian txertatu dituen ala ez. Horrexegatik, probabilitateen arabera jokatu behar du. Marko historikoa egiazkoa izan behar da; eta egiazko marko historiko horretan probabilitate handiena-

rekin kokatu behar dira pertsonaiak eta gertakariak. Horrexegatik aldatu zituen gertakarien kokapena lehenengo ediziotik hurrengoetara, gertakariak X.mendetik XII–XIII. etara pasatuz. Izan ere, lehenengo nobela historiko honetan historiari praktikan uzten zaion leku bakarra gertakarien kokapena eta gerraren presentzia dira.

- Bestaldetik, errealismoa bilatzen du. Hau da, osagai fantastikoak baztertu egiten dira eta fantastikotzat har litezkeen osagaiei azalpen *zientifiko*a ematen saiatzen da. Errealismo bilaketa honek, ordea, ez du nobelaren azken atalarekin azaldu nahi duen helburu ideologikoa higitzen.
- Hirugarrenez, uko egin dio Araquistain-ek aipatzen duen sakoneko egia hori azaltzeari. Honen ordez, Etxaidek kristautasunean oinarritutako bere ideologia dauka eta horixe azaldu nahi du. Alde honetatik, badirudi elezaharrean kontatzen den istorioa, bere nobelaren argumentua osatzeko erabiliko duena, «lan ireki» bat bezala aurkezten zaiola Etxaideri, eskema argumental bat balitz bezala, non bere iritziak eta ideologia gauzaturik ikus ditzakeen.

Hurrengo nobelan Etxaidek hemen iradoki baino egin ez dituen joeretan sakondu egingo du.

3. JOANAK JOAN (1955)

Joanak joan izango da hizpidera ekarriko dudana bigarren nobela (1955.ean argitaratua).

Nobela honetan idazlea Topet-Etxahun bertsolariaren bizitzan oinarritu zen, baina pertsonaiaren ibilbidea kontatzeko datu biografikoak bere erara erabili zituen. Ez du biografiarik egiten, ezta biografia nobelaturik ere. Pertsonaiaren eraketan bertan errealitate historikoaren (kasu honetan biografikoaren) eta asmatutako fikzioaren nahasketa gauzatzen da, bere helburua lortzeko. Etxaideren nobelan agertzen zaigun Etxahun hau nobela pertsonaia da, eta idazleak azpimarratzen du behin baino gehiagotan izaera hau:

[...] eleberririk kontakizunak, zenbait egiazko gertaeratan oinarrituak egon arren, asmamenari ateak irekitzen baitizkio nobelaren helburuari jarraiki. (JJ, 385).

Eta esaldi honetan agertzen zaigun nobelaren helburua bi zentzutan ulertu behar da: argumentuaren ibilbidea bideratzen baitu, batetik; eta nobelaren bidez jakinarazi nahi baitu tesi bat, bestetik.

Ez naiz nobelaren argumentu hau azaltzen hasiko. Etxahunen bizitza nahiko ezaguna da. Bakarrik gogoratuko dut nobela honetan Etxahunen ibilbidearen urrats nagusiek *Etxahun –Xaxi (emaztea)– Xalbador (emaztearen*

maitalea) triangeluaren osaketa eta honen ondorioak azaltzera eramaten dutela. Triangelu honen inguruan eraikitzen baita nobelaren argumentua.

Nobelaren tesiaz arituko naiz, zeren Etxaidek tesi-nobela bat egin nahi izan baitzuen:

eleberri hau mamitu nuenean, nire asmoa tesidun nobela bat egitea izan zen. (JJ, 387).

Ideologikotzat har daitekeen helburu bat plazaratzeko asmoarekin idatzi zuen nobela hau. Helburu ideologiko hau, bestaldetik, lotuta dago Etxaidek kristautasunaz duen ideiarekin:

nire helburua eleberri hau mamitzean, egiazko erlijioaren sustraia, erroa eta funtsa maitasuna dela adieraztea izan zen. (JJ, 387).

Maitasun honen objektuak ez dira adiskideak bakarrik, honetan ez baitago inolako meriturik. Etxaidek erakutsi nahi digun maitasuna neurrigabea da, Jesukristoren irakaspenetatik datorrena:

[...] gure Jesus Jaunak guruzetik erakutsi ziguna, etsaia barkatzen eta etsaia maitatzen –hau ia ezinezkoa gizonarentzat– dakien amodioa. (JJ, 387).

Nobelaren bukaeran ikusten da hoberen, maitasun honen agerpena, akatsak akats, nobelako pertsonaiak fededunak baitira:

[...] gure eleberriko pertsonaiak ere, beren Jaun eta Maisua eredutzat hartuz, beren etsaiei barkapen oso bat opaz amaitzen dute. (JJ, 387).

Horrexegatik nobela honi «eleberri giristinoa» deitura jarri zion Etxaidek (JJ, 387). (6)

Helburu nagusi honekin batera, Yon Etxaideren pentsamenduaren ardatza eta gunea suposatzen duen tesiarekin batera, bestelako ideiak ere plazaratu nahi dira nobela honen bidez. Besteon artean, Etxaidek hauxe aipatzen du:

eta, bestalde, gaineratu dezagun irakurgai honek argi eta garbi aditzera ematen duela ere ezkontza bortxatuek, gehiago edo gutxiago behartuek alegia, zeinen ondoren kaltegarriak dakartzaten. (JJ, 387).

Jarraian, helburu nagusi hura, erlijioaren oinarria den maitasunaren legea erakustea alegia, nola gauzatzen den azalduko da.

Esan daiteke nobelan ongiaren eta gaizkiaren arteko lehia erakusten dela. Lehia, batetik, pertsonaia desberdinen artean ematen da, batzuek ongirako joera eta bestetuek gaizkirako joera dutelarik. Baina lehia hau, batez ere, pertsonaia bakoitzaren baitan ematen da, hitz hauetan islatzen den planteamen-duan ikus daitekeen bezala:

(6) Erabili dudun argitalpenean (1999.ekoan) baina, ez da horrelako deiturarik agertzen izenburuaren ondoren, nobelaren hasieran.

Etxahuniako koblakariak, gizakume guztiak bezala, bere alderdi onak eta alderdi txarrak zituen. Izan ere, ez baita munduan ontasun hutsezko gizakirik eta, halaber, gaitzerako grinak soilki eragiten dionik. Gizonaren baitan onerako eta txarrerako gurarien borroka latza sortzen da eta gizakiak, horrelakoetan, bere buruaren jabetasunaz baliatuz ona eta txarra bereizten jakin behar du. (JJ, 287).

Baina gizaki guztiengan bi alderdi horiek badira ere, bata bestearen gainean gailendu ohi da, ongia eta gaizkia bakoitzaren baitan egon arren ere, bataz bestekoa desberdina baita gizakitik gizakira. Desberdintasun hauen arrazoiak Jainkoak baizik ez dakizki, Jainkoak ezaugarri hauek gizakien artean bere asmoen arabera banatu baititu. Etxaideren hitzetan:

batzuk, sortzez eta izatez dira onberak; bestetzuk, berriz, txarberak. Jaungoikoak bakarrik daki gaitasunok zergatik banatu dituen gisa horretan eta bakoitzari zer neurritan ezarri dizkion. (JJ, 287).

Gauzak honela, bakoitzak ez du izaten bere joeraren gainean erantzukizunik, gaitasunak halaxe banatu dizkiolako Jainkoak. Gizakien erantzukizuna beste lekuren batean bilatu behar da:

alabaina, onerako eta txarrerako joera horiekin batean, beste dohain bat ere erantsi dio gizonari, alegia, ona eta txarra bereizteko zuhurtasuna eta Beragan fede eta uste duenari, garaziaren indarra eman ohi dio txarkeria menderatuz eta grina txarrak heziz, bere burua bertutez apaintzeko. (JJ, 287).

Fedea izanez gero, grinak menperatzeko indarra izango baitu gizakiak, Jainkoak emanda. Eta honi kontrajarrita, «aberekoitasuna» agertzen da:

Gizakumeok geronekin daramagun aberekoitasunak txarrera eragiten gaitu [...] (JJ, 287).

Ongia eta gaizkia daude gizaki guztiengan, eta honekin batera, fedea eta aberekoitasuna, hau da, gizakien alderdi espirituala eta alderdi materiala. Eta gizakien alderdi espirituala nagusi den bitartean, ongia nagusituko da.

Nobelan erakusten zaigu zer gertatzen den pertsonaia batzuekin gizakien alderdi material hura nagusituz gero, gizakiek beren grinei mugak jartzen ez badizkiete. Hau gertatuz gero, pertsonaiek helburu materialak izango dituzte bizitzan (dirua, boterea, maitakeria) eta helburu material hauetatik haien arteko konfliktoak sortuko dira. R. Girard gogoratzea komenigarria litzateke (Girard 1985): maila material horretan desiratzen dena, desio triangeluar batean sartu ohi da eta honek, nahitaez, triangelu horretako bi erpinen arteko kontrajarpena dakar, lehia, alegia, helburu berbera lortu nahi duten subjektuen artean.

Protagonistaren ibilbidearekin horixe erakutsi nahi duela esan daiteke: protagonista honek oinordekoa izan nahi du, helburu hau edozein balorearen gainetik jarrita. Benetako amodioari (Mayiri, balore espiritualari) uko egin dio, eta Xaxirekin (grinaren eredu den pertsonaiaekin) ezkondu egin da, helburu

horretara heltzeko. Bizitzaren helburu moduan alderdi materiala jarrita konfliktu guztiek leher egiten dute.

Bide honetatik jarraituta, protagonista tragedian murgilduko da: Xaxik Xalbador izango du maitale eta Etxahunek Xalbador hil nahi duenean bere adiskide bat tirokatuko du okertuta.

Gertakari honen ondorioz, baloreen aldaketa gertatzen hasiko da, pertsonaia erlijiozaletu eta alderdi materiala alde batera utziko du. Erromesaldien eraginez, familiak alde batera utzi duenean eta kartzelaldiak suposatzen duen infernurako jaitsieraren ondoren, pertsonaiaren esanahiaren eta funtzioaren aldetik protagonista berri baten aurrean gaudela esan daiteke:

orduantxe, bere bihotza Jaungoikoarengana jasoaz, gizonaren egiazko bizitza mundu zital honetakoa ez dela ezagutu zuen. (JJ, 300).

Benetako bizitza mundu espiritualari baitagokio. Eta Mainerrekin, Xaxiren eta Xalbadorren arteko harremanetatik jaioko den neskatoarekin, hitz egiten duenean haxe diotsa Petirik, haxe baita erabili dudana argitarapenean Etxahuni eman zaion izena:

estanpatxo hori zinez maite duenak zeruetako erresuma berekin dauka, eta dirua maite duenak, ostera, ez du izanen mundu honetakoa baizik. Mundu zoroak, ordea, ez dio horrela irizten. Ni neu ere munduko ondasunen atzetik ibilia nauzu gizonak ate guztiak itxi dizkidaten arte. (JJ, 323).

Alderdi espirituala nagusitzen denean, ordea, konfliktua bera desagertu egiten da, kontrajarritako aldeek kontrajarrita egoteari uzten baitiote. Beraz, ez gaude planteamendu dialektikoetan agertzen diren alderdi desberdinen arteko sintesi baten aurrean. Alderdi espirituala nagusitzeak edozein planteamendu dialektiko deuseztatzen baitu, alderdi espirituala nagusitzearekin dialektikak inplikatzeko duen kontrajarpenak zentzurik ez baitu. *Alos-torrea*-n gertatzen zen bezala gertatzen da hemen ere.

Hori erakustea da Mainer bezalako pertsonaia baten funtzioa. Mainer Xaxi eta Xalbadorren arteko harremanetatik sortu den umea da, bekatutik jaioa, baina errugabea oso. Bera alderdien arteko mediatorea da, baina berak lortzen duena ez da alderdien artean erdibideko konponketa bat, planteamendu dialektiko batean gerta litekeen bezala, eta, bide batez esanda, nobela historikoetan agertzen den pertsonaia bakezaleak egin ohi duen moduan, alderdi desberdinek ez egotea baizik.

G. Durand-ek iruditeriaren egitura antropologikoak aztertzean egiten duen sailkapena gogoratuta (Durand 1981), gaueko erregimenaren barruan agertzen diren egitura mistikoak deitzen dituenak aurkezten dira irtenbide moduan, honelako pertsonaia baten presentziarekin: alderdi batek ez du bestea suntsitzen (eguneko erregimena, egitura diairetikoak); eta ez da bi alderdiren arteko erdibide bat proposatzen (gaueko erregimena, egitura sintetikoak). Alderdi biek bat egiten dute beraien arteko konfliktuen arrazoiak (bizitzaren alderdi

materialak) desagerrarazten direnean. Hauxe da irtenbidea, Maider pertsonai-arengan sinbolizatua.

Pertsonaia honek markatzen du nobelaren bukaera, Xalbadorren ibilbidean ere ikus daitekeen moduan. Maiderri esker, Xalbadorrek maitasunaren eta maitakeriaren arteko desberdintasuna ulertuko baitu. Maiderren eragina jasan aurretik, Xalbadorren eta Xaxiren arteko harremanak erdi hondatuta zeuden, baina horretara eraman zituen damuak beldurrean zuen oinarri:

Xalbador eta Xaxi zenbait aldiz egon ziren beren harremanak hautsi ala ez hautsi, baina beti arriskua ondoan sumatzen zutenean, eta beren arteko amodioa sendotzen zen galzoria pasatzen zenean; beraz, sekula ez zien maite-damuak eragin, beldur-damuak baizik. (JJ, 356).

Izan ere, hiru beldurren menpe bizi zen Xalbador:

Petiriren beldur, hilko ote zuen kezkatan; aitaren beldur, baserriko jabegaitasuna kenduko zion zalantzan; eta azkenik, herri-beldur, zeren liztorrik ez baita munduan eztena hain sakona eta mingarria duenik. (JJ, 357).

Egoera honetan Maiderren eragina jasango du, maitasuna errepresentatzen duen pertsonaiak aldaraziko baitu Xalbador. Maiderrenganako «maitasuna» pertsonaiaren bihotzean sartu ahala, Xaxirenganako «maitakeria» alde batera utziko du, biak inkonpatibleak baitira.

Idazleak Xalbadorren aldaketa honi garrantzia handia ematen dio, aldaketa honen arrazoietan baitago nobelak azaldu nahi duen tesiaren alde handia.

Maitasunaren balorea, sakrifizioarekin lotuta, beste pertsonaia batzuegan gauzatuta ikusten bada ere, Maiderrengan bere puntu gorenera heltzen da, honen heriotzak batuko baititu pertsonaia guztiak.

Eta nobelaren bukaeran Xaxi eta Petiri berriro elkartzen direnean, maitasunaren garaipena ikusiko dugu: bizitza osoan zehar etsaiak izan direnak barkatzea daraman maitasuna pertsonaia guztiengana hedatuko da. Xaxik eta Petirik elkarri barkatuko diote. Baina, honez gainera Allande (Exahunen osaba) eta Marti (anaia) ere agertuko dira, Petirirekin bakezkoak egin nahirik. Honen erantzunik ez du dudarik uzten:

berak prest baldin badaude, nik ez dut oztoporik jarriko, giristinoa bainaiz eta barkatzea zor baitut. (JJ, 376).

Eta Xaxi hiltzera doanean, Maider zeruan ikustea espero du. Petirik hauxe diotsa orduan:

Hari [= Maiderri] zor diogu, noski, azken une honetan gu biok eta mainada guztia elkartzea, eta ziur nahiz [sic] haren heriotzaren bitartez denok han goian elkar ikusteko zoriona izanen dugula. (JJ, 377).

Narratzailearen ahotik mintzo zaigun idazleak, bestaldetik, honela laburtzen du bere nobelan gertatutakoa:

barkatu eta maitatu! Ba ote da ederragorik txarkeriaz lohitutako mundu bihurri honetan? Eta sarritan zenbat luzatzen dugun barkatzen! Bizitza oso bat! Heriotzaren atzaparrak gure lepoetan ito beharrez sumatzen ditugun arte. (JJ, 378).

Maitasunarekin, beraz, barkamena dator, konfliktoen desagertzea, maitasunak alderdi espiritualaren garaipena baitakar. Hauxe erakutsi nahi du Etxaidek, bizitzan zehar kontrakoa egiten duten pertsonaia batzuei gertatzen zaiena erakutsiz.

Eta esan daiteke Etxaidek lehenaldira jotzen duela horrelako irtenbide bat errealitate hurbilenean gertatzen diren konfliktoetan gauzatuta aurkezteak falsua izateko arriskua izango zuelako: errealitateak erakusten baitu irtenbide horiek idealizazioen ondorioak direla, egilearen baitatik sortzen diren proposamenak. Halako irtenbide batek bakarrik dauka zentzua errealitate hurbilenean aldenduz gero. Gertakariak irakurleen orainalditik urrunduta, balizko proposamenak izaten jarrai baitezakete; hurbileko errealitatean gauzatuta, ordea, ezinezko irtenbide utopikoak baino ez lirateke izango, hurbileko errealitate honetan bizitzaren alderdi materiala ez baita lehenaldian kokatutako literatur lan batean bezain erraz gainditzen. Hau da: orainaldian kokatuta, planteatzen diren konfliktoei ezin eman zieziaiekeen halako irtenbide bat, idazleak nahi zukeen gutxieneko egiantzarekin.

Etxaideren literaturan oso garrantzitsua den beste gai bat ere agertzen zaigu nobela honetan, justiziarena alegia. Gai honen formulazio osoa *Gorrotoa lege* nobelan agertuko da. Justiziaren gaia dela-eta, esan behar da Etxaideren ustez, justizia, benetako justizia, Jainkoaren eskuetan baizik ez dagoela. Gizakien eskuetan dagoena, gehienetan, sasi-justiziaren itxurapean egiten den mendekua izaten da.

Nobela honetan justizia eta Jainkoa elkarturik agertzen zaizkigu. Petirik Mayi alde batera uzten duenean, Mayik honelako hitz profetikoak jaulkitzen dizkio:

baina argi ibili, zuk gaur ni baztertu eta zokoratu nauzun bezala, zure etsaiek hankapera eta zanpa ez zaitzaten egunen batean. Jainkoa izan baitaiteke berankor, baina ez ahazkor. (JJ, 128).

Gauzak horrela, gizakiei gertatzen zaizkien zorigaitzak ere Jainkoaren zigorraren adibideak izan daitezke, batez ere jende ezjakinen ustetan, beste gertakari bat dela-eta narratzaileak adierazten duenez:

[...] jende ezjakinek batik bat, zorigaitz guztietan Ahalguztidunaren zigorra ikusten baitzuten. (JJ, 265).

Baina Jainkoaren eskuetan dagoen honelako justiziaz gain, gizakien mailako justizia dago. Nork bere eskuen bidez justizia egin nahi badu, mendekua baino ez da izango, eta espero ez litezkeen ondorioak izango ditu. Halaxe gertatzen da Petirik Xalbador hil nahi duenean: berari egindako kalte

baten ordaintzat aurkeztu nahi du (justizia, nolabait) baina hau itxura baino ez da, mendeku bihurtuta agertzen baita ekintza hau.

Hirugarren maila bat dago Jainkoaren justiziaren eta gizabanakoaren mendekuaren artean: gizarte-legearen izenpean agintariak burutzen dutena. Honelako legea, dena dela, mesfidantzaz ikusten dute pertsonaiek nobela honetan. Petiri ihesean dabilenean, jende askok jakin arren nor zen bera, ez dute salatzen:

inork ez zuen salatu hala ere, euskaldunentzat gauza makurragorik ez baitago inori salaketarik egitea baino, legez kanpora dabilenak errurik beltzena bere gain eraman arren. (JJ, 245).

Eta, atxilotzen dutenean, narratzaileak, kontu handiz, ez du justizia aipatzen, legea baizik:

legeak bere eginkizuna bete zuen kriminal periltsutatz zeukan gizona atxilotzen eta Mauleko ziega beltzetara kateaturik ematen. (JJ, 245).

Justiziaren eta legearen arteko desberdintasun hau berriro agertzen da azalduta, salatarien kontrako hurrengo hitzetan. Izan ere, salatariek legea bete dadin laguntzen dute, baina laguntza hau era negatibo batez aurkeztuta dago. Baten batek jendarmeei Petiri non zegoen esan ziela adierazi ondoren, hauxe dio narratzaileak:

tristea da aitortzen baina gure mendietan ere perretxiku salatriak sortzen dira han-hemenka. (JJ, 279).

Badirudi idazlearen pentsamenduan honelako planteamendua dagoela: gizakien mailako justiziaren ordezkoa legea izan daiteke, baina nobela honetan agertzen den lege hau ez da euskaldunen neurriko legea. «Arrotzek» inposatutako legea da, lege frantsesa. Beraz, euskaldunek ezin dute berena ez den legea begi onez onartu, eta mesfidantzaz ikusten dute. Horrexegatik, salatariez gaizki hitz egitea (7). Alde nabarmena dago nobela honetan agertzen diren legea betearazteko erakundeetatik hurrengo nobelan (*Gorrotoa lege-n*) agertzen direnetara.

Justizia, benetako justizia, onak saritzen eta gaiztoak zigortzen dituen guztizko justizia egiten duen Jainko horren ondoan, Etxaideren planteamenduen erdigunean dagoen ideia gogora ekarriz, maitasunaren eta barkamenaren adibidea den Jesukristo jartzen da kontrapuntu moduan. Honek erakutsitako bideak gizakiek jarraitu behar zituzketenak baitira, gizakientzat ia ezinezkoak badira ere. Haritxabaletak, Xaxiren osaba apezak, Xaxiri erakutsi nahi dionean beste bide batzuetatik joan behar duela, hauxe dio narratzaileak, Haritxabaletak erabilitako argumentuak azalduz:

(7) Eta honelakoak kontatzean, beharbada, idazleak pertsonaien garaia ez ezik berari bizi-tzea tokatu zitzaion garaia ere eduki lezake gogoan, nobela historikoetan hainbestetan gertatzen den bezala.

Musde Haritxabaletak ahalegin guztiak eginen zituen erlijio erakusbidez bere iloba bide onera erakartzeko. Lehenengo Jesukristo gure Jaunak bere heriotza lazgarriaren bitartez agertu zigun maitasun neurrigabea aditzera emanik, eta maite-damurik sortzen ez bazitzaion bekatuan txarkeriaz dirautenei Jaungoikoak iragarri dien suzko zigorraz mehatxu eginik [...] (JJ, 213).

4. AZKEN HITZAK

Joanak joan nobela honek bere garrantzia izan zuen argitaratu zen garaian, eta ez dira gutxi izan euskal literaturaren inguruan aritzen direnen artean nobela hau euskal literaturara egin zuten lehenengo hurbilketa izan zela diotenak, literatura bezala irakurri zuten lehenengo euskal liburua izan zela.

Bere ideiak islatzeko, Etxaidek nobela historikoak aukeratu zituen, inguruko errealtatetik urruntzeko aukera ematen baitzion, errealtateaz hausnartzeko asmoarekin, zeren kasu honetan urrunketak ez du esan nahi ihes egitea. Ez zuen beldurrik izan konfliktoa adierazteko, euskal irakurleak horretara ohituta ez bazeuden ere, eta kristautasunean oinarritutako irtenbideak proposatu bazituen ere, euskal literaturan zenbait gauza aldatzen ari zirela erakutsi zuen bere nobeletan.

Nobela diskurtsoaren aldetik, ordea, tradizionala izaten jarraitu zuen. XIX. mendeko errealismoaren epigonoak zituen gustuko, eta hori islatzen da bere nobeletan: narratzaile heterodiegetikoa, orojakilea, istorioa lehenaldian kontatzen zuena eta arazorik gabe bere iritziak ematen zituena, askotan idazlearekin identifikatzen delarik alde horretan.

Izan ere, fikzionalitatea arazo handia izan zen Yon Etxaideren literaturan. Ez zen gai izan fikziozko NI bat eraikitzeko, narratzailearen eta idazlearen arteko aldeak askotan deuseztaturik agertzen baitira, eta horrek mugatu zuen bere literatur ibilbidea. Bere nobeletan narratzailea NI batekin azalduta agertzen zenean, Yon Etxaidek, idazleak berak, hitz egiten zuen, eta muga honekin nekez gara zezakeen fikziozko kontakizun bat.

Baina, mugak muga, Etxaidek zubi moduko bat suposatu zuen 50ko hamarkadan. Nobela generoak modernitatera hurbiltzeko artean zenbait urrats eman behar zituen: adibidez, fikziozko NI hori eraikitzea edota konfliktoei kristautasunarekin hain lotuta ez zeuden irtenbideak eskaintzea, narrazioaren logikatik eta ez kanpoko planteamendu ideologiko batetik sortutako irtenbideak.

Txilardegi hasiko zen bide honetatik lehenengo urratsak ematen Etxaidek *Joanak joan* argitaratu eta bi urtera.

BIBLIOGRAFIA**Yon Etxaideren nobelak, erabilitako argitalpenetan:**

Usoa Alostorreko, Hordago, Donostia, 1981 [UA].

Joanak joan, Erein, Donostia, 1999 [JJ].

Aipatutako beste idazlanak:

ARAQUISTAIN, J.V. DE (2000): *Tradiciones Vasco-Cántabras*, Roger Ed., Donostia [lehenengo argitalpena: 1866].

DURAND, G. (1982): *Las estructuras antropológicas de lo imaginario*, Taurus, Madrid [jatorrizkoaren lehen argitalpena, frantsesez: 1979].

GARRIDO DOMÍNGUEZ, A. (1996): *El texto narrativo*, Ed. Síntesis, Madrid.

GIRARD, R. (1985): *Mentira romántica y verdad novelesca*, Ed. Anagrama, Barcelona [jatorrizkoaren lehen argitalpena, frantsesez: 1961].

JAURISTI, J. (1986): *La tradición romántica*, Pamiela, Nafarroa.

—— (1987): *El linaje de Aitor*, Ed. Taurus, Madrid.

AMABOST EGUN URGAIN'EN (1955) ETA ELEBERRIGINTZA POLIZIAKOAREN HASTAPENAK

Javi Cillero Goiriastuena

Gerraondoko urteak euskal literaturan: katakunbetako belaunaldia

Espainiako Gerra Zibilak (1936-1939) euskal literatur sistema hasi berriaren oinarriak suntsitu zituen, euskal kultur industria sortzeko aukera guztiak ezabatuz. Kontuan hartuta 150.000 lagunetik gora erbesteratu zirela Euskal Herriatik gerra garaian eta gerraondoan, erraz ikustekoa da nolako hutsunea utzi zuten herrian (Intxausti 152). Izan ere, erbesteratuek eurekin eraman zuten esperientzia hainbat esparrutan, hala nola argitalgintzan, egunkarietan eta aldizkarietan. Hutsune hori ez zen guztiz bete 1950eko hamarraldiaren hondarera arte.

Gerraondoko lehen urteetan Espainiako gertakizun soziopolitikoak oztopo handiak ziren euskal literatur sistema bat sortzeko. Francoren diktaduran debekatuta zegoen hizkuntza eta kultura «erregionalak» sustatzea (Intxausti 151). Zenbait urtez, euskal argitalpenak debekatuta egon ziren, edozein motatakoak izanda ere (Clark 137). Kultur politika zentsuran oinarrituta zegoen eta liburuiei, argitalpen egitasmoiei eta enpresa proiektuei ezartzen zitzaizkien (Torrealdei 124). Horregatik, euskaraz onartzen ziren lan bakarrak euskalkiez idatzitako lanak ziren, Euskal Herri pintoresko baten irudia indartzeari begira: euskaldun langilearen irudia, hain zuzen ere. Espainiako zentsura gogor aritu zen literatura, hiztegiak eta itzulpenak atzera botatzeko, euskal kultura moderno eta eguneratua agertuko zuten argitalpen guztiak, hain zuzen ere.

1947 eta 1951. urteetan bi greba izan ziren Hegoaldean, Francoren aurkako erresistentzia mugimenduak antolatuta (Watson 494; Lorenzo 232-233). 1955ean Espainia Nazio Batuen Erakundearen onartu zuten, eta 1956an aldaketa ekonomikoak izan ziren eta zentsura apur bat arindu zuten (Sanz 32; Ferreras 1988: 14). Historialariek honako arrazoi hauek aipatzen dituzte aldaketa horiek ulertzeko: industrializazio masiboa, eta atzerriko kultura eta turismoaren eragina (Sanz 32). Bitartean, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Frantziaren baziren aldaketa nabarmenak gizariek eta kulturaren, eta existentzialismoa korrante filosofiko eta literario nagusi bihurtu zen (Berton 102).

Euskarazko aldizkariak eta argialetxeak Gerra Zibilarekin batera desagertu ziren, eta ez ziren berrosatu 1950eko hamarraldira arte. Hegoaldean, *Egan* aldizkaria 1948an hasi zen, *Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*-en eskutik (Juaristi *Literatura* 107). Argitalpen gehienak Iparraldean edo Hegoamerikan egiten ziren, exiliatuena bidez. Honela, *Aintzina* aldizkaria 1942an etorri zen berriro eta *Hordago* argialetxea 1944an sortu zen (Intxausti 155). 1949an, Venezuelan erbesteratutako euskaldun batzuek *Euzko Gogoa* aldizkaria sortu zuten (Intxausti 154).

Era berean, ez zegoen euskal irakurleak sortzeko lantegirik: lehenengo ikastolak urrats txikiak egiten ari ziren Hegoaldean, eta Iparraldean ez zegoen halakorik (Fernandez 67). Euskal Herriko Unibertsitatea ez zen sortu 1980 urtera arte, eta ez zegoen euskara ikasteko biderik ez eta euskal kultur produktzioak sustatzeko modurik ere (Fusi «La cultura» 45).

Bitartean, idazleen belaunaldi berri bat azaldu zen plazara, oso ingurugirorantsa. Gerraondoan azaldu zen idazle taldeari «Katakunbetako belaunaldia» zeritzon, lurrazpian ezkatututa egon behar zutelako (Kortazar *Literatura vasca* 103). Juan San Martinek azaltzen zuenez, esan genezake urte haietan idatzitako euskal literatura erresistentziako mugimendu baten parte zela, hain zuzen ere, Francok aldarrikatutako Espainiaren batasunaren kontrakoa (Lete 18). Katakunbetako belaunaldiko izen nagusiak, besteak beste, Salbatore Mitxelena eta Nemesio Etxaniz poetak ziren, Koldo Mitxelena hizkuntzalaria eta entsaio egilea, eta Jon Etxaide eta Jose Antonio Loidi eleberri egileak.

Katakunbetako belaunaldiko idazleak erdibidean zeuden. Alde batean, gerraurreko izen handien itzalpean zeuden eta beste aldean 1950eko amaieran sortu ziren idazle gazteagoak zituzten. Artean ere ez zegoen euskara batua literatur hizkuntza normalizatu bat erabiltzeko, eta euskal literatura bera ere ez zegoen, salbuespenak salbu, modernitatearen bideetan sartua. Gainera, argitaratzeko azpiegiturak ere berrosatzeko bidean ziren, eta beti ere kontuan hartu behar ziren zentsuraren arazoak eta debekuak (1).

Katakunbetako belaunaldiko idazleen eleberriek ez zuten islatzen garaiko euskal gizartea (Toledo 695). Jon Etxaidek, adibidez nobela historikoak idatzi zituen eta Jose Antonio Loidik detektibe nobela bat. Halere, Etxaide eta Loidiren eleberriak aurrerapauso bat izan ziren Txomin Agirreren ohitura nobelen ostean etorri ziren lanen ondoren. Jon Etxaidek irudi «ausartak» tartekatu zituen bere lanetan, eta haren pertsonaiak ez ziren hain idilikoak.

(1) Gerraondoko urteetan Espainiako nobelek zeukaten kalitate eskasa azaltzekotan, Ferrersek bi arazo azpimarratzen ditu 1940ko hamarraldian idazten hasi ziren nobelagileen artean: ez informaziorik ez askatasunik ez izatea (12-13). Gerra Zibilak nazioarteko autoreen lanak jasotzea galarazi zuen, eta etorkizuneko egileen heziketa oztopatu zuen joera narratibo garaikideei zegokienez. Etenaldi horrek atzerapausoa ekarri zuen bai literatur teknikan bai ezagupen narratiboetan, eta, honenbestez, nobelagile berriek errealismora jo zuten lehenengo urratsak finkatzeko (Ferrerak 14). Euskal narratibaren badago horren adibide bat: Joxe Inazio Irazusta. Irazustak narrazio errealistak sortzeko ahalegina egin zuen *Joanixio* (1946) eta *Bizia garratza da* (1950) nobeletan.

Nolanahi ere, Etxaideren pertsonaiak katoliko zintzoak ziren eta euskaldunen irudi idealizatu bat osatzen zuten, Toledok dioenez (695). Horregatik, mundu ikuskera ideal bat islatzen zuten, euskal kulturaren nagusi zen ideologiaren irudi bikaina. Ikuskera horren arabera, ingurugiro idiliko batean hazia zen euskal kultura, euskarari eusten zion ingurune berezi batean. Ingurune hori euskal eleberrietan islatuta gelditu zen hogeigarren mendearen hasieratik: euskal baserriarren eta arrantzaleen komunitate txikiak. Orohar, Euskal Herrian ez zegoen euskara literatur hizkuntzat hartuko zuen burgesia hiritarrik, eta euskal idazleek aurre egin behar izan zioten arazo horri hizkuntza moderno bat sortzean (Aldekoa *Mendebaldea* 12).

Bestalde, Jose Antonio Loidik genero berri bat aukeratu zuen, detektibe eleberria, eta euskal literaturaren lehenengo ikertzailea edo detektibe pribatu sortu zuen. Loidiren kasua oso berezia da euskal literaturaren historian alde askotatik begiratuta. Oinarri zientifiko eta literario sendoak zituen Loidik, eta Euskal Herrian sortu zen giro berri baten adierazle: fenomenoak aztertzeo eta ikertzeo espiritu ireki bat. (2) Loidik teknika modernoak erabiltzen zituzten euskal pertsonaiak sortu zituen, detektibe ikerketa baten barruan. Nahiz eta herri txiki bateko ingurunea aukeratu eleberrirako, ez zen bereziki arduratu halako ingurunea era idilikoan eta bertutez beterik deskribatzeko.

Loidiren jokaerak zenbait aldaketa iragartzen ditu euskal idazleen pentsamoldean. Argi dago garai hartako polizia eta zuzenbide sistemak ez zutela giro egokirik eskainiko eleberri poliziakoak Euskal Herrian txertatzeko, baina egileak bigarren mailakotzat jo zituen arazo «tekniko» horiek detektibe nobela bat idaztean. Beste arazo bat ere bazuen Loidik, hau da, euskarazko eredu narratiboak aurkitzea. Oro har, eredurik fidagarriena Txomin Agirrerren nobelak ziren, eta, beraz, gehien imitatu zena (Kortazar *Literatura* 116-118). Harelere, hein txiki batean bazen ere, (Espainian bizi ziren) euskal idazleek nazioarteko idazleen lanak eskuratzeko modua zuten (Sanz 36).

Gerraondoko euskal narratiba eta nobela poliziakoa

Gerraondoko urteetan, euskal elaberrigile batzuek gerrari buruzko istorioak idazten jarraitu zuten, adibidez, Eizagirrerren *Ekaitzapean*, edota inmigratioari buruzko gaiak jorratzen, (Irazustaren *Bizia garratza da*). Hala ere, gai berriak agertzen hasi ziren: nobela historikoa, (Jon Etxaideren *Gorrotoa lege*) eta nobela polizikoa (Jose Antonio Loidiren kasua).

Nolanahi ere, artean ere baziren hutsune handiak urte horietako literatura idatzian, zenbat kritikok adierazi dutenez (Aldekoa *Mendebaldea* 11). Adibi-

(2) Euskaltzaindiko kideekin lehenengo aldiz bildu zenean, Loidi konturatu zen konputagailua erabiltzen zuen lehenengo idazlea zela orain dela 20 urte baino gehiago (Loidirekin hizketan).

dez, errealismoa izeneko literatur generorik ez zegoen, eta horrek kalte egin zion euskal narratibaren modernizazio prozesuari. Izan ere, ohitura nobelak behera egin zuenez geroztik, euskal narratibak ezin zuen aurrera egiteko oinarri sendorik hartu (Lasagabaster *Contemporary* 19).

Langileak hiri inguruetan biltzen ari ziren eta euskal gizartea modernizatzen ari zen 1950eko hamarraldian. Era berean, idazleek bestelako ikuspuntuak zituzten literatura garaikideari buruz (Sanz 31-32). Hiriko garapena gai berri bat zen euskal idazleentzat, eta gazteak batez ere kezka berriak plazaratzen hasi ziren beren nobeletan (Sarasola *Historia* 105).

Idazleen belaunaldi berria detektibe nobelarekin harreman estuagoak izateko prest zegoen (3). Iparraldeko idazleek XIX mendeko idazle poliziako klasikoak, hala nola Gaboriau eta Leblanc, irakurtzeko aukera izateaz gain, XX mendeko izen berriak ezagutzeko parada izan zuten, adibidez, Simenon. Hegoaldeko idazleek, berriz, hainbat nobela poliziako irakurtzeko aukera izan zuten. Gerra Zibila baino lehenago, Wallace, Oppenheim, Mason eta Christieren lanak itzuliak izan ziren (Colmeiro 128). 1940. urteaz geroztik, nobela poliziakoaren Urrezko Aroko lanak heldu ziren Espainiara, besteak beste, Agatha Christie, Dorothy Sayers, S. S. Van Dine, and Ellery Queen-enak (Vázquez de Parga 73) (4).

Urrezko Aroko nobela poliziakoak irakurtzean euskal irakurleek egunero errealitatetik ihes egiteko aukera zuten. Detektibe liburuaren konbentzio zorrotzei esker, genero horretako liburuak mendebaldeko herri guztietan barrera zabaldu ziren, egoera soziopolitikoak gorabehera. Zenbat eta kritika sozial gutxiago agertu nobela poliziakoetan, hainbat eta erakargarriago gertatzen ziren atzerriko irakurleentzat. Izan ere, inor gutxik espero zuen nobela poliziako horien egileek kritika soziala egitea.

Urrezko Aroko nobela poliziakoak jolas hutsa baino ez ziren idazleen eskuetan, eta hortik sortutako lanak guztiz indarge ziren ikuspuntu politiko batetik. Beraz, nobela horiek erraz argitaratzekoak ziren Francoren diktaduran, erregimen errepresibo eta antidemokratiko batean. Bestalde, Dashiell Hammett eta Raymond Chandleren lanak zentsuratuta zeuden eta Hegoamerikako edi-

(3) Koldo Mitxelena da adibiderik onena belaunaldi honetaz ari garea. Mitxelenaren joera zientifikoak aire berriak ekarri zituen euskal hizkuntzalaritza eta literaturara; oso irekia zen nazioarteko ikerle eta mugimenduetara. 1956an, adibidez, *Historia de la literatura vasca* atera zuen bertsiio laburtu batean (1960an argitaratu zuen osorik). Liburu horretan lehenengoz saiatu zen norbait euskal literatura testuinguru historiko batean kokatzen, beste literatura batzuei lotuta. Mitxelena bera oso zalea zen nobela poliziakoetara, eta laudatu egin zuen Loidiren liburua.

(4) Nobela poliziakoaren «Urrezko Aroa» 1920-30 hamarraldietako tarteari deritza, orduan argitaratu baitziren joko garbiaren arauak betetzen zituzten nobelarik ezagunenak. Arau horien arabera, hiltzailearen identitatea asmatzean zetzan nobelaren funtzioa eta egileak ahalik eta biderik bihurrienak asmatu behar zituen irakurleak «engainatzeko», beti ere konbentzio batzuen arabera. Besteak beste, Agatha Christie, Dorothy L. Sayers, Anthony Berkeley, R. Austin Freeman, John Dickson Carr, S.S. Van Dine eta Ellery Queen ditugu estilo honetako egilerik ospetsuenak.

zioetan baino ez ziren ailegatzen Espainiara (5). Loidik nobela poliziakoaren eskola klasikoari heldu zion *Amabost Egun Urgain'en* 1955ean idaztean, eta modu horretan lehenengo nobela poliziakoa sortu zuen euskaraz.

Jose Antonio Loidi: lehenengo euskal nobela poliziakoaren egilea

Jose Antonio Loidik (Irun, 1916-1999) farmazia, optika eta akustika ikasketak egin zituen Madrilén. Hainbat urtetan euskaltzain urgazlea izan zen eta euskaltzain ohorezko izendatu zuten 1998an. Bestalde, zenbait artikulua eta liburu idatzi zituen toponimiaz, farmakologiaz eta botanikaz. Irungo Luis de Urantz kultur elkartearen sortzailea izan zen. 1955an argitaratu zuen bere lehen nobela, *Amabost egun Urgain'en*. Ez zuen beste nobelarik idatzi, istorio laburrak argitaratu bazituen ere aldizkarietan.

Amabost egun Urgain'en gerraondoan argitaratutako lehen eleberrietariko bat izan zen Euskal Herrian. Gerraren ondorioz, euskal kulturak gerraurreko hainbat idazle galdu zituen, eta besteek exiliora jo zuten edota isilpean geratu ziren Francoren diktaduraren azpian. Ez da zertan gogorarazi nolako lanak izan zituzten euskaraz hitz egin, irakatsi edo idatzi nahi zutenek urte haietan.

Oztopo guztien aurrean, Loidik euskal kultur eragiletzat zeukan bere burua eta irrikan zegoen bere lehen nobela idazteko. Loidik ez zuen ikasi gazteleraz zazpi urteak bete arte, baina hogeita hamar urteak bete orduko konturatu zen ez zekiela euskaraz ondo idazten. Hori zela eta, hizkuntza lantzeari ekin zion, euskal gramatikak eta bestelako liburuak irakurriz etxean. Gero, Simenonen eleberririk bat itzultzen saiatu zen, baina oso nekeza egin zitzaion hitz egokiak aurkitzea. Adibidez, Loidik berak behin aitortu zidan ez zekiela nola euskaratu, besteak beste, «botines de nácar». Beraz, zerbait originala idaztea bururatu zitzaion. 1950ko hamarraldian nobela poliziakoa puripurian zebilen Espainia aldean. Oso genero herrikoia zen eta oso ezagunak ziren Agatha Christie, Simenon eta beste idazle batzuk. Besterik gabe, gogoan zeukan ideia bat erabili eta misteriozko istorio bat idatzi zuen, nahikoa azkar idatzi ere (Camino «J.A. Loidi» 28).

Loidik adierazi zuenez, eleberria idatzi zuenean, Euskaltzaindia berriz ere bilerak egiten hasi zen. Areago, Euskaltzaindiak literatur lehiaketa bat antolatu zuen, eta Loidik bere lana aurkeztu zuen. Etxaidek irabazi zuen lehenengo saria, *Joanak Joan* eleberriarekin, eta Loidik aipamen berezi bat jaso zuen. Gero, bere kabuz argitaratu zuen *Amabost egun Urgain'en* 1955. urtean. Garai

(5) 1940-50ko hamarraldietan, nobela poliziako klasikoaren alderdi «intelektualak» azpimarratu zituzten Jorge Luis Borges eta Adolfo Bioy Casaresek. Argentinako idazle horiek *El Séptimo Círculo* izeneko bilduma poliziakoa zuzentzen zuten (Colmeiro 167). Era berean, urte horietan Espainiako kritikariek nagusitasun osoa ematen zioten nobela poliziako klasikoari, hau da, «whodunit» estiloari (Colmeiro 133-134).

latzak ziren, eta urte hartan euskal bi eleberri haiek baino ez ziren argitaratu. Zarauzko etxe batek baimena jaso zuen Loidiren liburuaren mila ale argitaratzeko, baina idazle hasi berria zenez, berak ordaindu zuen argitalpena. Gainera, etxera eraman zituen mila aleak eta bere kabuz banatzen hasi zen. Laster asko saldu zituen denak, Loidik berak aitortu zuenez.

Nobela idazteko Loidik eskema bat egin, pertsonaiak garatu eta tartekak bete zituen (Loidirekin hizketan). Honelakoa da istorioa: Txomin, Urgain izeneko herriko lurperatzailea, Egurmendi jaunaren emazte zenaren hilobia ikusi eta, konturatu da tiro bat duela kopetan. Eta hala ere denak zeuden emakume hura tifusak jota hil zelakoan duela urte batzuk. Hori dela eta, herriko nagusi batzuek Martin Garaidi detektibeak kontratatzen dute zer gertatu den iker dezan, eskandalua saihestekotan. Ikerketa egitean, Garaidik ekintza susmagarri batzuk aztertzen ditu eta pertsonaien arteko harremanak eta gora-beherak. Azkenean, korapiloa desegin eta honako azalpen hau ematen du Garaidik: Pagodi izeneko gizon bat kartzelan izan zen Bigarren Mundu Gerran eta Urgainera itzuli zen emaztearekin biltzeko. Dirudienez, Pagodiren emaztea ezkondata zegoen Egurmendirekin, Pagodiren adiskide batekin, hain zuzen ere. Egia esan, Pagodi bera ezkondu zen andrearekin Belgikan, baina alemaniarrek atxilotu zuten herritik ihes egiten ari zela. Pagodi eta Egurmendik zerbait asmatu behar zuten eskandalua saihesteko. Adin bereko beste emakume bat hil zuten mugaldeko herrixka batean kontrabando gorabehera batean. Zerbitzari batek halako berria eman zion Egurmendiri eta honek plan bat antolatu zuen. Hildakoaren gorpua erabili zuen bere emaztearen (Pagodiren emaztea) gorpua balitz bezala. Herriko medikuaren laguntzaz berria zabaldu zuen emaztea tifusak jota hil zitzaiola, eta kontrabandistaren gorpua erabili zuen bere emaztearen gorpuaren ordeaz. Horrela, Pagodik atzerrira ihes egin ahal izango zuen bere benetako emaztearekin. Zerbitzariak ere herria utzi zuen eta Egurmendik bizimodu berri bat hasi zuen neskalagun berri batekin.

Loidik urtebete edo eman zuen nobela idazten, poliki-poliki, farmazian. Eleberrian joko garbiaren arauak betetzen ditu, Urrezko Aroko nobela poliziakoen egileek ezarritako arauak hain zuzen ere (6). Nobelaren hasieran pertsonaien zerrenda dator, «whodunit» (nork egin du?) izeneko estiloan sarritan erabilitako ezaugarria. Atalak zenbait orritan biltzen dira, hasieran misterioa azalduz eta gero kontuak argituz. Azken eszenan susmagarri guztiak biltzen dira eta detektibeak jendeari azaltzen dio nola gertatu diren kontuak eta nor den erruduna (7). Halako nobeletan indarkeria gutxi dago, eta gertatzen dena elipsiaren bidez deskribatzen da. Pertsonaiak burgesiaren mundutik datoz

(6) Loidik detektibeak daukan informazio gehiena eskaintzen dio irakurleari, nahiz eta xehetasunen bat edo beste ostentzen dion misterioa berehala ez argitzeko: karbono 14ri buruzko informazioa, adibidez (184).

(7) Aita Ronald Knoxek 1929an nobela poliziakoak idazteko arauak ezarri zituen. Arau hauek «hamar manamenduak» edo «dekalogoak» izendatu zituzten. Knoxen arabera, nobela poliziako baten mamia misterio bat argitzean datza; misterioaren osagaiak argi aurkeztu behar zaizkio

eta maila ertainekoak dira gehienetan, hau da, mota horretako eleberriak irakurtzen zituzten irakurleen girokoak (8).

Martin Garaidi: nola sortu zen lehenengo euskal detektibe pribatua

Loidik oztopo batzuk gainditu behar izan zituen eleberria idaztean. Lehenik eta behin, ikertzaile pribatu bat sortzea misterioa argitzeko. Gehienetan, polizia oso pertsonaia neutrala izan ohi da «whodunit» estiloko nobeletan, baina Euskal Herrian ez zegoen jatorrizko polizia 1950eko hamarraldian. Espainiako polizia euskal herritarren etsaiak ziren, eta jendeak ez zituen jotzen jabetasun pribatuaren eta ordenaren defendatzailetzat, Britainia Handiko nobeletan bezala. Aitzitik, gobernuko aparatua bat zen euskal herritarren bizitza eta afiliazio politikoa kontrolatzen zituena (Clark 170). Beraz, Loidik detektibe pribatu bat asmatu behar izan zuen, ikertzaile independente bat, poliziarekin batere harremanik ez zeukana.

Besterik gabe, Loidik euskal detektibe bat sortzeko asmoa zeukan, Hercules Poirot edota Sherlock Holmesen antzekoa. Detektibe horiek Britainia Handiko tradizioetik datoz biak. Urte haietan, EEBBtako detektibe «gogorak», hala nola, Sam Spade edo Philip Marlowe, ez ziren oso ezagunak Espainian (Colmeiro 135). Beraz, Loidik bi ezaugarri berezi zituen pertsonaia bat sortu zuen: detektibearen irudia betetzeko modukoa eta Euskal Herriko literatura tradizioari ondo egokitua.

irakurleari ikerketaren lehenengo urratsetan bertan, eta jakinmina piztu behar du irakurlearengan. Jakinmina asebate egin behar da istorioaren amaieran. Hona hemen bere arauak:

1. Hiltzailea istorioaren hasieran bertan aipatu behar da, baina hiltzailearen pentsamenduetan ez zaizkio inolaz ere jakinarazi behar irakurleari.
2. Alde batera utzi behar dira gizagaindiko fenomenoak azalpenak emateko.
3. Ezin da erabili gela edo pasarte sekretu bat baino gehiago.
4. Ezin da erabili pozoien ezezagunik, ez eta amaieran azalpen zientifiko luze bat behar duen tresnarik.
5. Ezin da erabili txinatarrak istorioan.
6. Detektibeak ez du txiripaz aurkitu behar soluzioa, eta ez du izan beharko intuizio ustekabekorik dena azaltzeko.
7. Detektibea bera ezin da hiltzailea izan.
8. Detektibeak ezin ditu bere golkorako gorde aurkitzen dituen aztarnak.
9. Detektibearen lagun argelak, hau da, Watson doktoarena egiten duenak, pentsatzen duen guztia aitortu behar dio irakurleari; pertsonaia horrek irakurle arruntak baino adimen gutxiago izan behar du, baina apur bat gutxiago besterik ez.
10. Ez da anaia bikirik erabili behar, ezta bestelako bikirik ere, baldin eta horretarako alde aurretik prestatuta ez bagaude (Father Knox's Decalogue).

(8) Pirmin eta Muñube pertsonaia muturjoka dabilta nobelan, baina irakurlea ez da eszena horren lekuko. Gehienbat, indarkeria atzealdean susmatzen da posibilitate gisa, baina ez da esplizitatzen. Alde horretatik, egileak suspentsearen bidetik jotzen du askotan, joko intelektualetik aldentuta. Bestalde, aipatu behar da nobelaren ekintza gehienak saloietan eta etxeko geletan gertatzen direla. Horra hor, adibidez, Egurmendiren liburutegia, Agatha Christieren eleberrietako liburutegiei egindako omenaldia, itxuraz.

Euskal literaturan baziren apaiz sermoizaleak, baserritar zuhurak eta hiritar susmagarriak, baina ez zegoen ikertzaile pribaturik, are gutxiago garai-ko teknika zientifikoak erabiliko zituena. Hala ere, Martin Garaiddi –Loidik sortutako ikertzailea– nahikoa sinesgarria da detektibe pribatu gisa. Neurri batean, Garaiddi euskal klase sozial baten ordezkari naturala da: maila erdiko merkataria, abokatuak, sendagileak eta dendariak. Halako ogibidea daukate nek neskameak eta zerbitzariak erabiltzen dituzte, maila ekonomikoaren adierazgarri. Bestalde, honela deskribatzen du egileak Garaiddiren itxarongela:

gela hura, legegizon, sendagile, edo beste era horietako gizonen etxeetan, jendea itxaroten egoteko izaten diren gelak bezalakoxea zen. Alde guztietan eserlekuak eta erdi-erdian aldizkari eta liburutzoz betetako mahai txiki bat. Ez oso arranditsu, baina dotore eta txukun bai. (8. arg. 177).

Haren ingurune sozialari esker, Garaiddi goi mailako jendearekin ibiltzen da harremanetan, hala nola, Egurmendi lurjabearekin, eta era berean aise ibiltzen da behe mailako jendearekin, hala nola, Txomin izeneko hilerriko lurperatzailearekin.

Garaiddi ez da enigma nobeletako superdetektibe horietako bat: Poirot, Ellery Queen edota Philo Vance. Egia esan, lapurretan eta delitu txikietan aritu ohi da arduranean. Lapur asko harrapatu omen ditu eta zenbait misterio argitu (Amabost, 39). Beste pertsonaieek detektibe modernotzat daukate eta iruditzen zaie misterioa argituko duela arrazoizko metodoak erabiliz. Maritxuren begietara, Garaiddi bere kabuz lan egiten du lapurrak eta bestelako kriminalak harrapatzeko (22), nahikoa modu arina eta zehazgabea detektibe pribatu baten lana deskribatzeko.

Nolanahi ere, Loidik ez digu argibide askorik eskaintzen Garaiddi buruz, eta irakurleak narrazioetik atera behar ditu. Adibidez, Garaiddi ez konduta dago eta mezatara joaten da igandean, garai hartako euskaldun askoren antzera (93). Oro har, Garaiddi gizon adimentsua da, heziketa onekoa, baina aldi berean badaki aurre egiten herrixka bateko gorabeherei. Horrela, Loidik bidea ematen dio irakurleari Garaiddiren pertsonaia bere gogara interpretatzeko eta moldatzeko, errealismoaren bidetik ihes eginda.

Amabost egun Urgain'en eleberriaren baliabide estilistikoak

Loidiren baliabide narratibo nagusiak atzerapena eta fragmentazioa dira, eta era guztietako informazio atalak erabiltzen ditu puzzle bat osatzearren. Honela, detektibe Donostiatik Urgainera eta Urgainetik Donostiara doa, etxe batetik bestera dabil eta pertsonaia batengandik beste batengana. Teknika horren bidez, Loidik istorio zuzen bat hartu eta argumentua korapilatzen du, azken momentuan desegiteko. Elkarrizketa bizi eta arinak eta pertsonaien deskripzio zuzenak erabiltzen ditu Loidik atzerapeneko mekanismo batzuk tartekatzeko, irakurleak irakurketa konstruktibo bat egin dezan.

Nobelan erabilitako atzerapen mekanismo nagusia Joxe Jokin ostatu jabearen etenaldiak dira. Pertsonaia horrek Garaidiren pentsamenduak eta datu garrantzitsuak ezagutzea eragozten du behin eta berriro. Era berean, herrixkaren kontzientzia eta izaera azaltzen digu. Joxe Jokinek hiri handia eta herri txikia konparatzen ditu, euskal literaturako gai ezagun bat. Bestalde, Ameriketako esperientziak eta inmigrazio kontuak kontatzen dizkigu (57-58), euskal literaturaren beste gai nagusi bat. Loidik tarte handia eskaintzen dio Joxe Jokini, gizon zahar eta berritsuaren topikoa lantzearen: oroz gain, Joxe Jokinek atsegin du berbetan ibiltzea.

Kasu poliziakoaren alderdi teknikoak hutsunez beteta daude ikerketa kriminalaren hasi-masiak ezagutzen dituen edonorentzat. Giro errealistagoago batean, probako elementuak ez lirake horrela erabiliko eta zuzenbidea oztopatzeak ondorioak ekarriko lituzke. Hala ere, «whodunit»-en mundu alegiazkoan, argumentua nahikoa sinesgarria da, nahiz eta krimenik gabeko delitu batean oinarrituta egon. Hein batean, Sherlock Holmesen istorio poliziakoen antza hartzen du Loidiren eleberriak: detektibe pribatu bat ikerketak egiten ari da eta metodo zientifikoak erabiltzen ditu bere teoriak egiaztatzeko. Sarri askotan Holmesen abenturetan poliziak ez du esku hartzen ikerketan, eta krimena talde itxi baten kontu pribatua da.

Pertsonaiei dagokienez, Loidik Txomin Agirrerren teknika erabiltzen du, hau da, pertsonaiak lehen inpresio batzuen bidez deskribatzea. Deskripzioa parrafo labur batean egiten da, konparazio eta irudi deigarriak erabiliz pertsonaien jitea azaltzeko. Esate baterako, Txomin zarpailez jantzitako gizagaixo bat dugu eta zaku bat ipintzen du buruan euritatik babesteko. Honenbestez, Txomin inozo samarra da, batez ere janariaz kezkatzen da (euskal umorearen ezaugarri bat) eta emazte adimentsuago baten mendean dago. Larrola gizon harroko bat da, eta Loidik umorez deskribatzen du:

ate ondoan dagoela, hanka baten gainean paratutako oilarra dirudi (20).

Halako teknika erabiltzen du Loidik Garaidi deskribatzeko, baina askoz ere modu atseginagoan:

...gizon gazte bat zen. Hor hogeitamabost urte edo zituena. Ondo jantzia, sendoa, aurpegi zabala, alai. Beti irriparez; alde guztietan alaitasun jario zebilena... Bere lanetan, berriz, gauzarik nahaspilatuenak ere argitzen zekiena. Azkarra benetan! (25)

Azpinarratzekoa da bestalde nola erabiltzen duen hika Loidik eleberrian. Elkarrizketak askoz ere sinesgarriagoak dira hika erabiltzen duenetik, bai eta exklamazioak eta forma enfatikoak ere, liburuan agertzen diren herriko esamoldeak ahaztu gabe. Teknika horrek ondo funtzionatzen du behe mailako pertsonaien artean eta kokagune herrikoietan, bai eta Txomin barne bakarrizketan hasten denean. Hala ere, lekuz kanpo dirudi azalpeneko narrazioaren pasarteetan, Sarasolak gogorarazi zuenez.

Nolanahi ere, pertsonaien ahotsak zuzenean aurkezten zaizkio irakurleari, eta erraz asko sumatzen dugu egileak bere pertsonaiei hitz egiten uzten diela, narratzaile orojakilearen nagusitasuna auzitan jarriz. Etxanizek dioenez, ez dago deskripzio handirik nobelan, eta elkarrizketek betetzen dute liburuaren parterik handiena (244). Egileak ahaleginak egiten ditu irakurleari zenbait ikuspuntu eskaintzeko, nahiz eta batzuetan nabaritzen den Loidiren ahotsa ere hor dagoela. Horrela, Txominen espantu eta minak, Garaidiren adimen zorrotza eta Muñuberren baldarkeria ikusteaz batera, askotan nabaritzen dugu Loidiren ironia fina edota komentario arinak pertsonaiak deskribatzean.

Loidiren apostua: nobela poliziako klasikoaren ildotik

Esan bezala, Britainia Handiko nobela poliziakoen ereduari lotzen zaio Loidiren nobela, Ameriketako *hard-boiled* kontakizunei lotu barik. Nobela poliziako klasikoetan, «ordena soziala ez da bortxaz iraultzen, eta ez dago errudun sentimendu unibertsalik, baizik eta mundu lasai eta ia mugiez in bat, non gauza guztiak jendearen onerako gertatzen baitira» (Grella 41). Loidiren eleberriak nobela poliziako klasiko baten osagaiak biltzen ditu: arazoak konpontzen dira istorioaren amaieran, kokagunea nahikoa funtzionala da eta pertsonaiek funtzio jakin batzuk betetzen dituzte.

Nobela poliziako klasiko askotan bezala, Garaidik gizakien arteko harreman nahasiak txukuntzen ditu eta ordena sozialaren oreka eta ongizatea bermatzen du amaieran (Grella 53). Nobelaren azken eszenan sumagarri guztiak biltzen dira eta Garaidik korapiloaren azalpena eskaintzen digu, nobela poliziako klasikoetan ohikoa den amaiera zorionsua eskainiz. Hanna Charneyk dioenez, nobela poliziako klasikoetan «krimena erauzi egin behar da» eta «gizarteak funtzionatzeko gauza izan behar du» (108-109). Areago, amaieran maitasunezko arazo bat ere konpontzen da: Begoña eta bere senargaia berriz elkartzen dira eta ezkontzeko prest daude –Agatha Christieren hainbat nobelatan bezala.

Nobelaren kokaguneak Grellak aipatutako bi helburu betetzen ditu: komikoa eta funtzionala (47). Gertakizunak herrixka batean kokatzean, Loidik Euskal Herriko herri txiki-txiki mikrokosmos txiki bat aurkezten digu gerra-ondoko urteetan. Behe mailako klaseak lurperatzailea, neskameak eta zerbitzariak dira, batez ere, pertsonaia komikoak. Bestalde, Egurmendi lur jabeen ordezkaria da. Erdialdean, hala holako pertsonaia multzo bat dugu, klase ertainekoak, hala nola, Larrola doktorea eta Garaidi bera ere.

Pertsonaia multzo horrek bere gisako funtzio tipikoak betetzen ditu narrazioan. Garaidi ez da polizia profesional bat, baina hurbil dago «gizarteak onartutako detektibe amateurrengandik», zeinak ondo ulertzen baitu ikerketa egiten ari deneko ingurugiro sozialaren kodea (Grella 41). Gainera, Garaidik ez du inolako iritzi eztabaidagarririk ingurugiro sozialaren kontra jazartzeko.

Azken batean, ikertzen ari den giza unibertsoaren partaidea da. Zilegi da Garaidi multzo berezi batean kokatzea: Grellak «aztia» deritzo halako pertsonariari, zeren oso detektibe iaioa baita ezagupen zientifikoak eta arrazoizko prozedurak erabiltzeko (46).

Hauxe da Loidiren eleberriaren beste ezaugarri garrantzitsu bat, alegia, gizartearen desoreka bere onera ekartzea benetako gaizkile bat edo hiltzaile bat aurkeztu gabe. Grellak dioenez, nobela poliziako klasikoan gizarteak gaizki iritzitako pertsonaiak –hau da, gizarteari komeni zaion funtzioa bete ez dutenak– komunitatetik kanpora egozten dira (49). Gehienetan, halako pertsonaiei biktimaren edota hiltzailearen rola ematen zaie. Nolanahi ere, Loidiren nobelan ez dago benetako hilketarik eta, beraz, ez dugu ohiko hiltzailerik (9). Honela, beste nonbait aurkitu behar da kritikaren objektua eta gizartearen ostrazismoa pairatzen duen pertsonaia.

Izan ere, bestelakoa da Loidik kritikatzan duena: herriko esamesak eta nonzeberrien ibilerak, gizartearen zentsura eta aurrejuzkuak. Hori dela eta, bi senar-emaztek heriotza bat faltsutu behar dute elkarrekin bizi ahal izateko. Azken batean, dena da fikzio bat eleberrian, eta pertsonaia nagusiek errealitate fabrikatu bat antzeztan dute herritar «normalen» aurrean, komunitatearen gaizki esanak saihesteko.

Berriz ere, Grellak eskaintzen digu nobela poliziako klasikoaren gai topiko bat: «benetako amodioaren bidea oztopatzea», zeinean komunitate moralak eragin txarra daukan pertsonaien bizitza pribatueta (49). Beraz, misterioa argitzen denean, auziarekin zerikusia duten pertsonaiak elkarrekin adostuta daude sekretua herriko kontakatiluetaatik gordetzeko. Horra hor eleberriaren «galtzaile» bakarra: komunitatearen esamesak eta zurrumurruak.

Loidi Urrezko Aroko idazleen ereduari jarraitzen zaionez, eleberrian deskribatutako gizartearen ordena nahikoa murrizta da eta urruti samar dago 1950eko hamarraldian Hegoaldean ageri zen errealitatearen ezaugarri askotatik. Ez dira inondik inora ikusten langileen grebak, egoera soziopolitiko larria, euskal kulturaren marginalitatea eta zentsura orojalea (10). Loidik, «whodunit» idazten zuten Britainia Handiko idazleen antzera, ez du garaiko egoera soziopolitikoaren aipamenik egiten eleberrian (11). Grellak azaltzen duenez, nobe-

(9) Biktimari dagokionez, Loidik kontrabandista familia erabiltzen du, hau da, gizarteak marginatutako talde bat, baina oso kritika arina egiten dio eta ez du inolaz ere auzitan jartzen jardura edo ogibide hori.

(10) Loidik arrazoi sendoak zituen giro errealistago bat ez aukeratzeko, nobela poliziakoaren ibilbidea jarraitzeaz gainera. Izan ere, beldurra zion istorioan politika kontuak tartekatzeari. Loidiren gurasoak zigortuak izan ziren politika kontuengatik, eta Loidi bera poliziak atxilotua (Loidirekin hizketan). Hala ere, pertsonaia batek aipatzen du «langile arteko egundalako zarata izango zela Urgainen...» norbaiti beldurra sartzeko asmoz (2004eko edizioa, 157).

(11) Krimena modu ezberdinetan erabiltzen da ondorio sozialak «whodunit» eta «nobela beltzetan» agerrarazteko. Heriotzaren eta gorpua aurkitzearen ondorio sozialak ez dira oso serioski hartzen Loidiren enigma nobelan. Askoz ere inportanteagoa da ekintza eta istorioaren osagai misterioitsuak maila intelektual batean jartzea, detektibeak bere ikerketa egin dezan. Nobela bel-

la mota horiek usadiozoko literatur errealismotik aldentzen dira eta «neurri handi batean ez da agerian dagoen bizitzaren islada, baizik eta bizitzaren alderdi estilizatu baten islada eta ikuspegi jakin batekoa» (56) (12).

Komunitate tradizionalaren kritika ironikoa

Hori dela eta, Loidiren eleberria ezin da hartu diskurtso errealistatza, nobelaren funtsari dagokionez, behintzat. Hala ere, Loidik aldezen duen ordena soziala ezin da parekatu edo identifikatu Agirreren eta gerraurreko egileen euskal komunitate tradizionalarekin. Loidik euskal belaunaldi berri baten oihartzun leuna erakusten digu Urgainen, herriaren modernizazioaz kezkatuta dagoen gizamultzo bat. Horren adibide garbia lehenengo atalean daukagu, non andre batek detektibe pribatu bat telefonoz kontratatzen duen. Ezin ziurrik esan, baina baliteke lehenengo aldía izatea emakume batek (normaltasun osoz) telefonoz hitz egiten duena euskal nobela batean.

Gizarte moderno batean eroso kokatuta daude Loidi eta bere belaunaldikoak, eta baliabide horiek erabiltzen dituzte nobeletan. Telefono deiak eta telegramak, autoak eta ikertzeko tresna modernoak (laboratorio bateko txosten bat aipatzen da) eguneroko kontuak dira Loidiren pertsonaiaz. Bestalde, horra hor bizitza modernoko markatzaile bat: erretzea. Detektibe nobeletan bezala, pertsonaia askok erretzen dute Urgainen, ohitura sozialarengatik, batez ere.

Loidi ez da usadioen defendatzaile bat, eta ez du aldezen, Agirrek eta bere jarraitzaileek bezala, euskal herrixken ordena sozial estatikoa. Azpimarratzekoa da, alde horretatik, eleberrian ez dela apaizarik agertzen eta ikusezinak direla ordenari eusten dioten gizarte erakundeak (polizia, alkatea). Lehen esan dugunez, Loidik herriko bizimoduaren alde komikoei begiratzen die batez ere, eta ez da kezkatzen herriko ohiturak eta usadioak goraiptaeaz.

Era berean, Loidik baserritik ostatu batera aldatzen du ekintza nagusia, eta kokagune berri bat ekartzen dio euskal literaturari. Joxe Jokinen ostatua gorabehera askoren lekua da, klase ertaineko antzezlekua, gizabidezko komedia antzetzeko leku aproposa (13). Ez dezagun ahaztu eleberrian ageri den denboraren kontzentrazioak, kokaguneen aukeraketak eta pertsonaien joan-

tzetan, ordea, heriotzak ondorio larriak ditu gizarteari dagokionez. Krimenarekin eta heriotzarekin zerkusua duen jendea askoz ere nabariagoa da nobela beltzetan. Enigma nobeletan, berriz, hiltzailea beste edozein pertsonaiaren tankerakoa da, eta errugabe dirudi askotan.

(12) Loidiren eleberriak badu beste ezaugarri bat enigma nobelatik aldentzen duena, eta hori umorea da. Egileak han-hor-hemenka barreiatzen da umore fina pertsonaiak askoz ere biziagoak eginez irakurlearentzat. Adibidez, auzokoak espatzen ari den atsoa (111), Mulazen izeneko pertsonaia baten ahoberokeriak, Joxe Jokin berritsu porrokatuaren eta bere alaba isilaren arteko kontrastea, eta abar.

(13) Giro atsegin honek ez du zerikusi handirik euskal literaturan agertutako ostatu bada-epadako batzuekin, hala nola, *Peru Abarka* nobelakoarekin.

-etorriak (eszenetan sartu-irteten ibiltzen dira) antzezlan baten prozedurak dakarzkigutela gogora.

Izan ere, Loidik bestelako kontuak zeuzkan gogoan eleberria herrixka batean kokatzeko, Agirrerrenak eta ohitura nobelako idazleenak ez bezalakoak. Loidik *Urgain* herria asmatu zuen, baina ez ohitura nobelako idazleen irudi idealizatu gisa. Herriaren kokapen fikziozkoak askatasun handiagoa eman zion deskripzioak egiteko, xehetasunei erreparatu gabe. Loidiren garaian ez zen euskarazko ingurune aproposik hirietan, ez eta Donostian ere. Beraz, herrixka bat aukeratu zuen eleberriaren ekintzak kokatzeko eta pertsonaiak ingurune natural batean azaltzeko (Loidirekin hizketan).

Edozein kasutan, pertsonaia batzuk hirian bizi dira eta klase ertaineko kideak dira, baserrialdetik gero eta urrutiratuagoak. Pertsonaia nagusiak klase ertainekoak dira, lanbide liberalekoak, hala nola, Garaidi bera, Larrola dokto-rea, eta egurmenditarrak. Azken hauek etxe handi batean bizi dira, Britainia Handiko landetxeen antzeko batean, hain zuzen ere. Txomin lurperatzailea behe mailako pertsonaia bakarra da, eta nolabaiteko loturak ditu baserriarekin. Joxe Jokin ostatuaren arduradunak ordezkutzen du herritarren ahotsa, eta he-riaren kontzientziaren rola jokatzen du.

Agirrerren eta Barrensororen eleberrietako komunitate morala kinka larri-
an dago Loidiren *Amabost egun Urgain'en*. Bizitza modernoak azpian hartu du baserriko bizimodu tradizionala (Txominen bizimodua, adibidez, ez da batere idilikoa, Joannes *Garoaren* patriarkarena ez bezalako; pertsonaia hala-
holako lanak eginez bizi den gixagaixo bat baino ez da). Gainera, herriaren erdigune morala –Joxe Jokinen ostatua– ez da hain erabakigarria eta arazoak ditu informazio iturriak eta bideak menderatzeko: horra hor ohitura nobeletan ageri ohi zen tresna garrantzitsu bat komunitarearen ordena moralari eusteko. Loidik kritika sotila egiten dio komunitate moralaren ohiko ordenari, eta egoera batere dramatizatu gabe Euskal Herrian gertatzen ari den modernitate-
rako bidea erakusten digu.

Loidiren harrera kritikoa

Katakunbetako belaunaldiko kideak gerrak sortutako hutsune ikaragarriaz ohartu ziren kultura ondareari begiratu ziotenean. Loidiren eleberria euskal kulturaren ondarea berreskuratzeko ahalegin horietako bat da, garai berrietara egokitzeko asmoz. Loidiren lana euskal hizkuntza eta kultura suspertzeko proiektu baten barruan dago, non indar guztiak batu behar diren etorkizunean emaitza onak izango badira.

Loidiren liburua nahikoa arrakastatsua izan zen bere garaian, kontuan hartzen badugu ez zegoela inongo merkaturik euskal liburuentzat. Lehenengo argitalpena 1.000 alekoa izan zen, eta azkar agortu zen. Euskal idazle askok

aitortu dutenez, *Amabost Egun Urgain'en* irakurri zuten gaztetan. (14) Eleberria espainerara, frantsesera, katalanera, alemanera eta ingelesera itzulita dago, baina katalanez baino ez da argitaratu (Onaindia 123).

Kritiko batzuk berehala konturatu ziren Loidik genero berri bat ekarri zuela euskal nobelagintzara, eta alde positiboak azpimarratu zituzten. Nikolas Altzolak esan zuen bide berriak ireki zituela Loidik detektibe nobela harekin (149). Bigarren argitalpenaren hitzaurrean, E. Masek iruzkin garrantzitsu bat egin zuen: kritiko honen arabera, Loidiren nobela argitaratu arte, euskaraz lantzeko arlo bakarrak arrantzaleen eta nekazarien bizitzen deskripzioak ziren, bai eta ahots lirikoak eta erlijioaren irakaskuntza. Euskara ez zen gai, zenbaiten ustez, bizitza modernoaren mugikortasuna adierazteko, ez eta halako bizimodurak dakartzan kezka, alarmak eta ustekabeak ere (Mas 215-126).

Bestalde, azken urteotan Loidiren liburua euskal ohitura nobelaren ildotik doalakoan azaldu dira aditu batzuk. Ana Maria Toledok Eizagirre eta Etxaide-rekin batera sartzen du Loidi, Txomin Agirrerren jarraitzaileen multzoan gerraondoko ohitura nobelaren deskripzioan. Horren arabera, Loidik sortutako unibertso estatikoan ez dira zalantzan jartzen Agirrek eta euskarazko ohitura nobelak hogeigarren mendearen lehenengo partean ezarritako literatur arauak (694). Iritzi horren kontrakarrean, Etxanizek uste du Loidik ihes egin zuela ohitura nobelaren mundutik, eleberrri dinamikoa eta joera modernokoa sortzeri esker (245).

Beharbada, K. Mitxelenak deskribatu zituen egokien Loidiren lorpenak eta hutsuneak, *Egan* aldizkarian argitaratu zuen erreseinan. Lehenik eta behin, Mitxelenak ezagutu zuen Loidik benetako euskal detektibe bat sortu zuela, nahiz eta garai hartan irakurle gehienek —Mitxelenak barne— ez zuten batere gogorik irakurtzeko nobela poliziako bat, baldin eta pertsonaia nagusiak abizen euskaldun edo espainola bazuen. Bestalde, Mitxelenak ohartarazi zigun Loidik lan ona egin zuela pertsonaia zahaztean eta eleberria egituratzean. Halaber, akats txiki batzuk seinalatu zituen nobelan, hala nola, gai nagusia arin samarra zela. Amaitzeko, Mitxelenak eleberrian erabilitako euskara laudatu zuen, zeren oso naturala eta ulertterraza baitzen («J.A. Loidi» 71-72) (15).

Irakurleen harrera beroa jaso arren, Loidiren nobela ez zen behar bezain laudatua izan kritikarien artean (16). Egia esan, detektibe nobela bat idatzi

(14) Ibon Sarasola, Joxe Austin Arrieta, eta beste idazle batzuek esan zioten Loidiri bere nobela euskaraz irakurri zuten lehenengo liburua izan zela (Loidirekin hizketan). Era berean, Xabier Gereño eta Gotzon Garatek Loidiren eragina aitortu dute.

(15) Loidik ez du neologismo askorik erabiltzen, eta baten bat erabiltzen duenean, kontu handiz azaltzen du esanahia testuinguruaren bidez: *tximist-krisailu* (eskuargia, lanterna). Beste batzuetan, neologismoak eta nazioarteko hitzak tartekatzen ditu (*urrutizkina*, *telefonoa*) eta beste batzuetan bere hartan idazten ditu hitz arrotzak (*pullman*).

(16) Bitxia da, zeren nobelaren lehenengo edizioaren hitzaurrean, Iraigaraiak bi motatako literatur lanak aipatzen baititu. Alde batetik, *Iliada*, *Hamlet*, eta *Kixotea*, hau da, lan ospetsu eta balio handikoak. Bestalde, honako idazle hauen lanak: Poe, Txehov, Alarcón, Verne, Simonon,

zuenez, Loidi ez zen euskal literaturaren kanonean sartu, bitxikeria gisa ez bazen. 1970eko hamarraldian Ibon Sarasolak nobelaren argumentu landua eta egitura originala azpimarratu zituen (*Historia* 158). Callejak eta Monasteriok euskal nobela poliziakorik onena zela esan zuten (108), nahiz eta horretarako lehia handirik ez egon. Bestalde, Etxanizek (244) eta Garatek nobelaren elkarriketa eta deskripzio biziak laudatu dituzte, bai eta lehenengo detektibe euskalduna sortzea ere («Euskal» 64).

Loidiren nobela behin eta berriro argitaratua izan da, eta arrakasta handiz saldu da. Nekez azalduko dugu irakurleen artean duen presentzia esanez soilik, euskarazko irakurgai bakanetako bat zela 1950ko hamarraldiaz geroztik. Arrakasta hori ikuspegi berri bati zor zaio, Loidiren ikuspegiari: bizitza modernoaren gorabeherak azaltzeko ahalegina eta hiritarren kezkek eta ikuspuntuak azaltzea.

Erreseina hartan, Mitxelenak kontu bat aipatu zuen oso kontuan hartzekoa euskal nobela poliziakoaren garapena atzertzean: Mitxelenak azpimarratu zuenez, literaturan ez da gai handirik ez txikirik, baizik eta gai onak eta txarrak, eta kalitatea egilearen iaotasunak gaiei aurre egitean datza («J. A. Loidi» 72). Alde horretatik, Loidiren ekarpenak beste egile batzuen karrerak bultzatzen lagundu zuen, besteak beste, Gotzon Garate eta Xabier Gereñorenak, eta argudio onak eman zizkien autore horiei egin zitzaizkien kritikei aurre egiteko.

Bibliografia

- ALDEKOA, IÑAKI. *Mendebaldea eta narraziogintza: euskal nobela modernoa*. Donostia: Erein, 1998.
- ALTZOLA GEREDIAGA, NIKOLAS. «J. A. Loidi Bizkarrondo, Amabost egun Urgain'en.» *Egan* 1-6 (1968): 149-150.
- «Amabost egun Urgain'en.» *Xaguxarra: literatur aldizkaria*. Ed. Txomin Peillen. Donostia: Hordago, 1980. 143.
- BERTON, JEAN CLAUDE. *Histoire de la littérature et des idées en France au XXe siècle: angoisses, révoltes et vertiges*. Paris: Hatier, 1983.
- CALLEJA, SEVE. *Haur literatura euskaraz: lehenengo irakurgaietatik 1986ra arte*. Itzul. Igone Etxebarria. Bilbo: Labayru, 1994.
- CAMINO, IÑAKI. «J.A. Loidi: Liburu gehiago idatzi eta irakurtzen da gaur egun.» *Argia*, 1985ko irailak 15: 28-29.

Dickens, Balzac, Maupassant eta abar, nolabait arruntagoak. Loidiren nobela bigarren multzo honetan dago, jakina. Gaur egun, eztabaida handiak izango lireratek bigarren multzo honetako idazleei dagokienez.

- CLARK, ROBERT P. *The Basques: The Franco Years and Beyond*. Reno: University of Nevada Press, 1979.
- COLMEIRO, JOSÉ F. *La novela policiaca española: teoría e historia crítica*. Barcelona: Anthropos, 1994.
- ETXANIZ, XABIER. *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. [Bilbo]: Euskal Herriko Unibetsitatea, 1997.
- «Father Knox's Decalogue: The Ten Rules of (Golden Age) Detective Fiction». <http://www.thrillingdetective.com/trivia/triv186.html>.
- FERRERAS, JUAN IGNACIO. *La novela en el siglo XX (desde 1939)*. Madrid: Taurus, 1988.
- FUSI, JUAN PABLO. «La cultura en el País Vasco (1940-1990)» *Cuadernos de Alzate* 16 (1997): 45-57.
- GARATE, GOTZON. «Euskal polizia eleberrien hasiera,» *Jakin* 105 (1998): 53-69.
- GRELLA, GEORGE. «Murder and Manners: The Formal Detective Novel.» *Dimensions of Detective Fiction*. Ed. Larry N. Landrum, Pat Browne, Ray B. Browne. [Bowling Green, Ohio]: Popular UP, 1976. 37-57.
- INTXAUSTI, JOSEBA. *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1990.
- JUARISTI, JON. *Literatura vasca*. Madrid: Taurus, 1987.
- KORTAZAR, JON. *Literatura vasca: Siglo XX*. Donostia: Etor, 1990.
- LASAGABASTER, JESÚS MARÍA, ed. *Contemporary Basque Fiction: An Anthology*. Reno: University of Nevada Press, 1990.
- LETE, XABIER. «¿Crisis de la literatura en euskera?» *Muga* 11 (1980): 16-21.
- LOIDI, JOSE ANTONIO. *Elkarrizketa*. 1998ko abuztuaren 19koa.
- . *Amabost egun Urgain'en*. Arantzazu: IFA, 1955.
- . *Hamabost egun Urgainen*. 8. arg. Donostia: Erein, 2004.
- MAS, E. Eranskina. *Hamabost egun Urgainen*. Jose Antonio Loidi. 7. arg. Donostia: Erein, 1990. 215-216.
- ONAINDIA, SANTI. *Euskal literatura*. 5 liburuki. Donostia: Etor, 1990.
- SANZ VILLANUEVA, SANTOS. *Historia de la literatura española. El siglo XX. Literatura actual*. Barcelona: Ariel, 1984.
- SARASOLA, IBON. *Historia social de la literatura vasca*. Madrid: Akal, 1976.
- TOLEDO LEZETA, ANA MARIA. *Domingo Agirre: euskal eleberraren sorrera*. Donostia: Bizkaiko Foru Aldundia, 1989.

TORREALDAI, JOAN MARI. *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*. Jakin, 1997.

VÁZQUEZ DE PARGA, SALVADOR. *La novela policiaca en España*. Barcelona: Monsel, 1993.

WATSON, CAMERON. *Sacred earth, symbolic blood : a cultural history of Basque political violence, from Arana to ETA*. Tesia. University of Nevada, Reno, 1996.

YARZA, AITZIBER. «Joxe Ramon Zubimendi: Irratinobelaren arrakasta euskarren erabileran datza.» *Argia* 23, 1992ko otsaila, 61.

LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA (1957) HAUSTURA BAT EUSKAL NARRATIBAN?

Jon Casenave

Leturia mugari, *Leturia* haustura egile, *Leturia* modernitatearen aintzindari XX.garren mendeko literaturan. Liburua argitaratuz geroz iragan diren berrogeita hamar urte hauetan tematika horiek behin eta berriro erabiliak izan dira, aurrera ikusiko dugun bezala. Abiapundua, dudarik gabe, liburuan berean aurkitzen dugu, Koldo Mitxelena 1957-an *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriaren lehen argitalpenarentzat paratu zuen aitzinsolasean, hain zuzen. Koldo Mitxelenez gain, orduko kritikari ohartuenek (Etxaniz, Ibinagabeitia, Villasante, Orixe) liburuaren alde berri-zailea azpimarratu zuten haiek ere, haren gaitzieteko edo berdin, nola gerta, haren goraiatzeko. Europako beste kulturetan guziz erabilia da «hausturaren konzeptua. Bigarren zeinua zentzuz kontra ezagarria da», aspaldidanik eta anitz eremutan, hala nola historia eta literaturaren sailetan. Bizkitartean, ez da asko baliatua izan Euskal Herrian *Leturia* arte. Kasu honetan, hastetik beretik agertzen dira haustura eta berriztapenaren gaiak eta orduz geroz, eskal literaturaren historio egile guziek (Sarasola, Torrealdai, Urkizu, Olaziregi, Aldekoa (1), etb.) mugariaren irudia erabili dute *Leturiaren* ekarpena aipatzerakoan. Ondoko lerroetan, «haustura» eta *Leturia* nola izan ziren parezkatuak eta elkarri josiak aztertuko dugu.

1. «HAUSTURAREN» FINKATZE PROSEZUA

1.1. Hausturaren sortzaileak eta lehen hedatzaileak

Sartzean aipatu bezala, erran daiteke haste-hastetik erabilia izan dela «hausturaren» konzeptua *Leturiaren* zat. Liburua agertu baino lehen ere atxeman zitekeen gaiaren lehen agerraldia. *Euzko-Gogoa* aldizkariak nobela berriaren zati bat plazaratu zuen argitaratu baino lehen, «Negu» deitzen den atalaren azken zatia zehazki erran beharrez. Aurretik dastatzera eman zen pasarte hori, «Uztaila eta Daguénila»-ko zenbakian (1956) agertu zen. Sartze gisa, aldizkariaren taldeko norbaitek (2) aurkezpen labur bat egiten dio hamar lerro-

(1) Historiolarri horien erreferentziak artikulua barruan aurkitzen dira.

(2) Pentsa daiteke Koldo Mitxelena bera izan zitekeela, baina hori ikertzekoa da oraindik.

tan. Eta horra –menturaz– «haustura»-ren lehen aipamen zehatza: «azalez ta mamiz orrelakorik eztugu irakurri euskaraz lenago.»

Harekin batean, modernitatearen gaia erakartzen du aipatzaileak: *orain-oraingo kezka blai-blai egindako eleberri gotorra dugu, ta oraingo gazteen biotzak zulatzen ditun minez josia*. Beraz, literatura saio berri eta berritzaile gisa iragarria da *Leturia* kaleratzeko unean dagoelarik.

Hausturari buruzko bigarren oharra lehen argitalpen horretan aurkitzen da. Liburuaren hitzaurre luzean, Koldo Mitxelena honela aurkezten du eleberriaren ekarpena: *dena delako lehenik, eta mugarri baten antzera lur berriaren seinalea eta ezaugarria dugulako gero*.

Eta ondoko orrialdeetan, bide beretik segituz hausturaren gaia errepikatzen du molde ezberdin batzuen bitartez *Leturiaren egunkari ezkutua*ren berri-tasuna azpimarratuz:

ez dut esango Egunkari honen azken zatia baino ederragorik ez dela ondu euskaraz –belles-lettres direlakoetatik agitz urruti gabiltza hemen– ezta ere gai garaigorik ez dela ukitu. Baina, baldin neure iritzia estalkirik gabe agertu behar badut, ez dut uste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larririk, horren zinezko aitorrik, horrenbesteko karraxi sarkorrik.

1.2. Hausturaren hedatzaileak

Liburua argitaratu ondoan haren aipatzen ari izan diren kritikariak gainez gain izendatzeko eta Jon Bilbaoren *bibliografia* segituz, 1957-ko maiatza eta ekaineko *Euzko gogo*a aldizkariaren zenbakian aurkitzen diren artikuluekin abiatu behar da. Biak batean heldu dira, lehena Andima Ibinagabeitiaren lumatik eta bigarrena, Nemesio Etxaniz-en eskutik. Mitxelena-ren ildo beretik dator Ibinagabeitia, idazlanaren ez ohizkotasuna eta modernitatea azpimarratzen dituelarik:

liburu berria benetan gure elertian, oraintasunez betea, idazle azkar baten arnas beroaz oretua ta pizkortua.

Jarraian, Nemesio Etxaniz-ek, modernitatearen gaiaz gain, «mugarria»-rena erabiltzen du liburuaren laburpena egin ondoan:

euskaraz etzan onelako gairik aztartu egundaño. Au degu pozgarri. Gai berriak lantzea; kezka berriak arrotzea nai genduke gure izkuntzaren baratzen, ta auxe egiten digu txalagarriena Txilardegi gazteak.

Eta *Egan* aldizkarian ere, iraila-abenduko zenbakian hain zuzen, L. Villasantaek antzeko zerbait idazten du, liburuak dakarren ikuspegi berria erakutsi nahiz:

bai gogoz irentsi eta zurrupatu ere! Arriturik gelditu nintzan oso! Arrazoi du Mitxelena jaunak, itzaurrean dionaz, alegia: eztugula sekula Leturiarena bezalako ibillaldirik egin gogo-bideetan barrena.

1.3. Aipatzaileak eztabaidan: aldekoak

«Haustura» deitzen dugun konzeptuaren arrakasta ez da bakarrik sortzaile eta hedatzaileen lanetik etortzen. Liburuaren inguruan izan diren eztabaidetatik ere jin zitzaion. Badakigu maiz eztabaida gauza ona dela obra baten omenaren finkatzeko. Berez probokazio itxura bazuen *Leturiak* baina, orduko iturrien arabera, aurkako handirik ez du sortu lehen denbora batean. Aldiz, haren ondotik hiru urte berantago, Txillardegik argitaratu zuen bigarren liburuak, *Peru Leartzako* deitzen den obrak, polemika ederra sortu zuen. Gehitu behar da, bai tematikaren aldetik, baita ere hizkuntza ereduaren aldetik, biak ildo beretik heldu zirela eta, dudarik gabe, horrela agertu zitzaizkien orduko aipatzaileei. Eztabaida guzietan bezala, aldekoak ukan zituen liburuak: horietan, aipa dezagun hitzaurrearen egilea. Adituek diotenez, Txillardegi bera zen. Aurkezleak bi liburuak (*Leturiaren egunkari ezkutua* eta *Peru Leartzako*) batera ekartzen zituen bere solasetan eta euskal kulturaren orduko egoeran bihurgune bat bezala aurkezten zituen. Berritze hori, tematika mailan oinarritzen zuen batez ere, jende gaztearen kezken aldetik, hots belaunaldien arteko borroka mailan:

berriz ere biotzaren ikara, arimaren larri-mina, gaurko gizonaren barne-urduritasuna, darabilkigu Txillardegi-k bere bigarren liburu ontan.

1.4. Orixe eztabaidan partaide: Txillardegiren aurka

Peru Leartzako eleberriaren aipatzaile kopuru murriztaren baitan, kontra-koak ere agertu ziren eta bat, ez nola nahikoa, Orixe bera, orduko Euskal Letretan ospe gehiena zuen idazlea. Funtsean, Eztabaida on baten egiteko, aurkako ona behar da. Eta, hain zuzen, orduko aurkako hoberena altxatu zen emaitza literario berri horien kontra. Preseski Mitxelenak eta Txillardegik begitan zuten hura bera, Orixe. J. Azurmendik lan kritiko bikoitz (3) guziz sakon batean ongi erakutsi zuen bezala, nahi ala ez, Orixe-ren figura hor zegoen, tente-potente. Azurmendik berrikitan erripikatu du orduko idazle gazteek miresten zutela Orixe-ren eredu. Aldi berean, garbi zeukaten eredu berri eta biziago baten sar arazteko euskal letretara, Orixe (4) zela lurrera botatu behar zuten harresia edo errotoik kendu behar zuten monumentoa.

Orixe-ren ustez, Peru Leartza eta Joseba Leturia, «Europearrak» ziren, hots kanpoko gaitz gaiztoenek kutsatu zituzten gizon gazte biziutuak. Orixe, postura tradizionalistaren aldeko idazle ospetsuena zen dudarik gabe eta, 1960-an, *Peru Leartzako* argitaratu zen urte berean, *Yakin* aldizkarian, progresista gazteen aldizkari berrian, eraso bortitza zuzendu zion Txillardegiri, doinu polemikoa erabiliz:

(3) J. Azurmendi, *Zer dugu Orixe-ren kontra?* (1976), *Zer dugu Orixe-ren alde?*, (1977), *Jakin* argitaletxea.

(4) J. Azurmendi, «Hizkuntz ereduaren eztabaida», *Jakin* 158, 2007: «Orixe, bere akats guzietan, sekulako idazlea zen.»

Leartzaren filosofia ustela ta merkea da: novela tzarretan ikasia.

Iturrietan, Bergson eta Unamuno aipatzen ditu eta, nahiz ez dituen izendatzen, pentsa daiteke, «nobela tzar» horiek frantses eleberrri existentzialistak direla, Sartre eta Camus-enak batez ere, eskandaloa sortu baitzuten bigarren gerla ondoko garaian. Eta jarraitzen du azpimarratuz Txillardegi idazle gaztearen eragina gazteen artean, berak sotengatzen duen «euskaldun fededun» tradizionalistaren ereduaren kaltetan hedatzen ari den eragin ezkorra:

barrenak ez dit agintzen ixilik egotea, liburu onek gaurko gazte-jendearen artean egin dezaken kaltearengatik.

Hain zuzen, artikulua beste zati batean, eredu berri horren aurka garbiki agertzen du bere burua:

leartza, liburu ontako giza nagusia, europear biurtu zaigu, izurri gaizto batean, beintzat.

Joxe Azurmendi-k, azaltzen digunez, «europear» erran moldeak «moderno»erran nahi du, hots kanpoko eragina duena, beraz, euskal eredu klasikoa arriskutan ezartzen duena. Garbi da beraz, bi ereduaren arteko borrokan parte hartzen zuela Txillardegiren orduko literaturak, berritzaile eta haustura egile gisa.

2. LETURIA, OBJETU «EXTRA LITERARIO GISA»

Orain arte erabili ditugun solasek argi ta garbi erakusten dute kontestu berezi batean agertzen dela *Leturia*, borroka eta eztabaida une batean, hain zuzen. Beraz, bere literatura mailako erran nahiaz gain, badu zer erran ere «objetu extra literario» bezala.

2.1. Koldo Mitxelenaren hitzaurrea

Ikus dezagun zer izan den *Leturia*-ren funtzioa literaturaren eremutik kanpo. Fama handiko euskaltzale bat badu aita besoetako gisa, Koldo Mitxelenak egiten baitio hitzaurrea. Orduko borroka giroan, Mitxelena-k maisuki erabiltzen du Txillardegik idazten duen literatura lana. Hori erratean ez dugu aditzera eman nahi Txillardegi erabili duenik tresna baten gisa. Baina, onartu behar da Mitxelenari oso ongi etorri zitzaiola Txillardegik egin zion proposamena. Orroit gaitezen, *Leturia*-ren bigarren argitalpenean (5) Txillardegik berak kondatzen duela itzulpen bat egin gogo zuela hastapenean, K. Hamsum-en *Pan* eleberraren. Proposamen horrekin joan zen Mitxelenaren ikustera, aholku bila. Mitxelenak, berriz, sorkuntza lan bat eskatu zion itzulpenaren orde:

(5) *Leturiaren egunkari ezkutua*, bigarren argitalpena, Leopoldo Zugaza argitaletxea, 1977.

–ez, ez –erantzun zidan brauki Mitxelenak, inolaz ere ez! Zeure buruz asmatu behar duzu nobela bat; eta horixe bai izkiriatu. Ez zazu, beraz, Hamsum itzul.

Sorkuntza eskatzerakoan, beste zerbait bazuen buruan Mitxelenak eta sentitu zukeen Txillardegik bazuela kemen aski eginkizun ausart horren obratzeko. Hizkuntza mailako ereduaren berriztapena aiseago pasa zitekeen tematika mailako aldaketa handi baten bitartez. Hain zuzen, lehen argitalpenaren hitzaurrean Mitxelenak liburu berriaren ekarpen bikoitz hori azpimarratzen du erranez, haren ustez, liburuak bi eredu joiten dituela bekoz beko. Alde batetik, gizarte mailako eredu bat erasotzen du, ordu arteko literaturaren bitartez garatu den «euskal eredu tradizionala» labur biltzeko:

mendi tontoretara igotzearekin ere, Domingo Agirre-k nahi zuenez, ez dugu deus askorik aurreratuko.

Leturiaren eginkari ezkutua, «Sarrera hitz batzu», L. Michelena, 1957.

Liburuari esker, ideia berriak eta kanpoko ikus moldeak sarrarazten ditu Txillardegik eta ikuspegi aniztasuna bultzatzen du orduko euskal kultura monolitikoan. Bestaldetik, hizkuntza mailako eredu «klasikoa» erasotzen du: «euskara garbia / euskara mordoiloa» (6), orduko eztabaida bizi-bizian ximista bezala sartu zen Txillardegi bere liburuarekin, hizkuntza mailako eredu aniztasunak ekar zezakeen aberastasuna frogatuz.

2.2. Txillardegi eta «euskara berria»-ren garapena

Gazte-gaztea izanik ere, Txillardegi ez zen nornahi euskalzaleen mundutxo ttipian. Euskaldun berria zen baina gizon guziz jantzia hizkuntza mailan eta 1956-etik goiti, euskarari buruzko eztabaida teknikoetan parte hartu zuen, batez ere Euskaltzaindiaren inguruan izan ziren solasaldietan. 2004-ean argitaratu duen liburu batean (*Euskararen aldeko borroka*) (7) euskarari buruzko artikuluak bildu ditu. Izenburutik beretik ageri da borroka bat izan dela hizkuntzari buruzko ezatabaida hura. Txillardegik, hitzaurrean kondatzen du «euskararen eredu berri baten garapenaren alde» ari izan dela lanean hastapenetik. Hona zer dioen, *Leturiaren* garaiko artikulu bati buruz:

lenengotzat, 1956an agertutako «Ez bat ez beste» deritzon artikulua hautatu dut (Egan aldizkarian). Azpigitulu hau baitzekarren garbi: euskeraren auziari buruz. Ene ustez ongi samar hautematen da garbizaleek gramatikaren alorrean ere hizkera asmatzeko zekarten gogo amorratua.

Hitz horiek garbi erakusten dute nor zituen aurkakoak eta zeren ondotik zebilen. Orduko kalapiten lekukotasun bikaina aurkitzen dugu ere berrikitan agertua den *Jakin* aldizkariaren zenbaki batean (*Jakin* 158, 2007). Gerla ondoko giroaren argitzeko, J. Azurmendik eta J. Intxaustik funtsezko xehetasunak

(6) J. Azurmendi, «Hizkuntz ereduaren eztabaida», *Jakin* 158, 2007.

(7) Txillardegi, *Euskararen aldeko borroka*, Elkar, 2004.

ekartzen dizkigute bi artikulutan. Azurmendi-ren lumatik jakiten dugu Mitxelena eta Txillardegik zer funtzio ematen zioten literaturari kultura mailako borrokan eta hizkuntzari buruzko eztabaida bizietan:

Mitxelena edo Txillardegiren mordoiloaren defentsak lehen-lehenik «kalekoa» nahi zuten literaturari begiratzen zion: mordoiloa, hor, beldur izan behar ez zaion zerbait zen.

Euskara idatziaren eredu klasikoa elitistegia zeukaten, eguneroko hizkuntatik apartegia eta ezin irakurria jende gehienentzat. Gainera, haren bitartez egiten zen literatura, erdi asmatutako «baserriko euskal mundu» ideal batean oinarritua zen, Euskaldunen gehiengoa kalean bizi zelarik, Europako gizarte modernoaren baitan. Beraz, premia handikoa zeukaten literatura berri baten eragina eredu tradizionalekin hausturaren markatzeko.

2.3. J. Azurmendi - J. Intxausti: lekukotasunak

Azurmendi eta Intxausti-ren artikuluei esker ongi dakusagu zer zen jokoa orduko eztabaidetan, baita ere implizitoki, garai hartako literatur idazlan batean. Hona zer dioen horretaz J. Azurmendik:

bataila gurutzela izan da gerraosteko norabideentzat. Ez baitzen eztabaida linguistikoa bakarrik. Ideal tradizional ala modernoagoak, mentalitateak, atxikimendu politikoen moduak, abertzaletasunaren zentzua oro har eta kulturaren kontzeptu osoa besarkatzen eta konprometitzen zituen nolabait, esan bezala.

Orduko giroari buruz, beste ezaugarri batzu eman daitezke. *Yakin* aldizkarian (*Yakin* 10, 1959), Orixe-ri egiten dion erantzunean, J. Intxausti-k argi eta garbi finkatzen du zein irakurlego kategoria eta zer euskara mota behar dituen gogoan ukan orduko idazle garaikideak, «belaunaldi berriaren» arabera:

euskara garbiz... esan ditezke eunetik laurogei ta emezortzi. Egi osoa noski. Baiña euskera errez ta ulergarria izango ote da orrelako ori? Zorionerako edo zoritxarrez izango da; baiña idaztean, ezin ditut aaztu gure errietako karreradun esukal-ikastolagabeak. Auek irabazi nai nituzke nik iltzear daukagun euskararentzat, erri xearen aurrean gure izkuntzari ospe onik eman dezaioten. Ogi-bidetzat aukeratu dituzten jakintzetan ikasiak; baiña euskalariak ez diran auentzat idatzti bear genuke, batez ere.

3. IDAZLEAREN AUKERAK ETA POSTURA

3.1. Leturia, «objeto literario» bat

Leturia-ren bitartez eramaten zituen helburuen argitzeko kontu handitan har ditzagun Txillardegik Intxausti-ri igorritako gutun batean finkatzen dituen sorkuntzarako baldintzak:

euskaldunentzat idatzi bear dugu...

Beraz, bi gauza bear ditugu derrigor:

1. ZERBAIT esan bearra (...), zerbait unibersalik alegia, arimari edo gizonari dagokion zerbait egiazkorik eta mamitsurik (...)
2. EUSKARAZ (...) esan, eta ez guk asmatutako sasi izkuntza zoro batez. Orra, nere ustez, bi baldintzak.

Nik nai nuken euskara au da: euskara-esperanto.

Txillardegi idazle gazteak bi puntu nagusitan banatzen du bere programa. Biak era bat berriak dira orduko euskal literaturaren ingurugiroari begira. Lehen puntuak, alegia deus ez, maila oso gora batean finkatzen du idazlearen lehen saioa. Alde batetik, denek ulert eta sendi dezaketen zerbait idatzi nahi du; baina, dudarik gabe, «unibertsala» den maila horren erakustea, bakarrik munduan izan diren obra nagusiek lortua dute. Beraz, munduan dauden liburu gorenak ditu eredutzat hartzen.

Bigarren puntuan, hizkuntzari buruzkoan, garbizaleak ditu begitan. Intxaustik *Yakin* aldizkarian doi bat berantago (1959) idatzi zuen bezala, Txillardegik euskara berria eta modernoa nahi zuen, baina batez ere simplea, denek ulertzeko gisan. «Gorago ikusi dugun bezala garai hartako...» euskarazko ereduaren arteko «borroka» gogorrean sartzen da Txillardegiren oharra. Halarik ere, onartu behar da narratiba mailan, eredu berri, soil eta hastetik buru aski koherentea eraiki duela bere lehen liburuan berean. Aurkakoek, aldekoek bezain zintzoki, puntu hori onesten dute. Eredu berri baten sortzea aurrerapen handia da.

3.2. *Leturia* kanpokoan gerizapean

Sorkuntzari begira, ideia argiak ditu Txillardegik eta ondorioz, *Leturia-n* erakustera ematen dituen aukerak guziz garbiak dira. Aurreko atalean agertzen diren bi puntuetatik lehena baizik ez dugu barnatuko. Aipa dezagun beraz orotarako gogo hori edo «unibertsalismo»-rentzat duen interesa. Gorago ikusten genuen gai unibertsalak erabili nahi zituela. Horretarako, nola egin eta nola idatz ez badira munduko obra nagusiak ispilu eta eredu bezala erabiltzen? Horretaz ohartzeko, kontuan har ditzakegu liburura erakartzen dituen erreferentziak, Joseba Leturia egunkari egilearen lumapean, hain zuzen. Joera unibertsala du Txillardegik, bere pertsonaia nagusiaren kultura filosofiko-literarioa agerian emaiten duenak: idazle unibertsalak, aspaldikoak (Homero, Shakespeare), modernoak eta garaikideak (Kafka, Gide, Valéry, etb.); filosofo guztiz ezagunak, Antzin Arokoak (Buddha, Euclides) Modernoak eta Garaikideak (Unamuno, adibidez). Bestalde, aurrera ematen duen kultura estetikoaren errotarikoak da: musikariak (Cl. Debussy), margolariak (P. Gauguin), besteak beste munduko handienetan izan dira, dudarik gabe.

Hots, kultura zabal bat ematen dio Joseba Leturiari Txillardegik (8): modernoa, baita ere garaikidea, eta unibertsala, nahiz Europa mailakoa den batez ere. Baina, oroit gaitezten, gerla ondoko urte haien giro intelektualean, eredu «unibertsaltzat» hartua zela orduko kultura europearra, dekolonozazio prosezua hastekoa baitzen oraindik. Zer nahi gisaz, ezaugarri horiek aintzinatzean haustura bat markatzen zuen Txillardegik orduko euskal literatura gehientsuan agertzen ziren tokian tokiko erreferentziekin, Jon Mirande bezalako idazle baztertu batzu salbuespentzat hartzen badira. Segur, Orixe, Jokin Zaitegi eta Andima Ibinagabeitia bezalako idazleengan maila eta ospe handiko autore asko agertzen zen, baina gehienak klasikoak ziren, mundu greko-latinoari lotuak (Agustin, Platon, Virgilio eta Ovidius, etb.). Beraz, Txillardegik *Leturia*-n argitan ematen duen kultura, ez da batere ohizkoa orduko euskal letretan.

3.3. Garai bereko beste idazlanak

Hautu horiek ez dira kasualitatez eginak edo liburu baten girotzeko doi-doia. Txillardegik, *Leturia*-tik kanpo ere erakusten ditu aukera horiek, batez ere garai berean argitaratzen dituen artikulua eta idazlanetan. Bospasei lan badira orotara, *Egan* eta *Euzko gogoa* aldizkarietan publikatuak.

***Egan* aldizkarian**

1957.ean, sorkuntza lan batzu aurkeztu zituen: *Orangutanen ugartea* ipuina adibidez, zientzia-fikzioa eta fantastikoaren artean dagoena; biak genero «deitoragarriak» Orixerentzat, hain segur. Baina azterketa eta saiakera sailetan argitaratutako lanetan zituen batez ere orduko euskal kulturaren kaltekor eta kutsakor bezala ager zitezkeen erreferentziak erabiltzen, hala nola *Unamuno eragille* (1957) deitu idazlanean: «Egiazko existentzialista degu.»

1960.ean, Lekuko *bikain bat il da*, artikulua bat Camus hil berriaren ohoretan; zeinetan Beauvoir, Camus, Gide, Heidegger, Sartre, eta beste idazle batzu xeheki aipatzen baititu.

***Euzko Gogoa* aldizkarian**

1957: «Taupadak» deitu artikulua, adibidez: hartan ere, Camus, Gide, Sartre, eta maila bereko idazle kanpotarren erreferentziak erabiltzen.

(8) Liburuan dauden erreferentziak xeheki bilduak izan dira *Leturia*-ri buruz egin izan den azterketa bakarretarik batean: *Txillardegik eta Saizarbitoriaren nobelagintza*, I.Sarasola, 1975.

Camus-en ohoretan idatzi zuen artikuluan, bere burua aurkeztu zuen existentzialisten irakurle «goiztiar» bezala («goiztiar» euskal eremuan noski), anekdota ttipi baten bidez:

1951 urtean, ni Bilbo'n nengoelarik, oso ots andia atera zuen Camus'en liburu berri batek: «Jaikitako Gizona» (9). Eta, nere aitari –Paris'era baitzijoan egun aietan– ekartzeko eskatu nion. Paris'ko liburu-denda batean sartu omen zan ba nere aita, saio famatu horren eskean; eta dendariak galdetu omen zion:

–Eta, zeinatzako nai duzu?

Neure semearentzat.

Zenbat urte ditu?

Ogei ta bi.

Ba... Etzenioke eraman bear... Badakizu: Camus ori esistenzialista zoro eta lizun oietako bat da; danetan bildurgarriena omen da. Beraz, zeuk ikus.

Lekuko bikain bat il da, Txillardegi, **Egan**, 1960.

Besteak beste, omen handiko pentsalari eta idazle progresistak dira orduan aipatu zituenak. Baina, denbora berean, gogoratu behar da horien artean, existentzialistak bazirela (Camus, adibidez) eta garai hartan «erre usaina» zuten beste izen batzu, hala nola André Gide. Eta, noski horiek zituen gogoan Orixek idazten zuelarik Peru Leartzak (eta Joseba Leturiak berdin) irakurketa gaiztoak eta kutsakorrak zituela.

* * *

Konklusio gisa: Euskal literaturaren historiografiari begira

Aztertu dugun «haustura»-ren kontzeptua *Leturia*-ri lotua da haste-hastetik. Ordutik hona, behin eta berriro aipatua izan da liburua aurkezterakoan, euskal literaturaren aztertzaileen artean. Ibon Sarasola (10), J.M. Torreal-dai (11), Iñaki Aldekoa (12), besteak beste, bat datoz hausturaren gaiari buruz. Kritikari horietan, norik berak, alderdi bat edo beste azpimarratuko du berritasunen artean: Jon Kortazar (13)-ek kontaketa berriztapena aipatzen du *Euskal Literatura XX.garren mendean* liburuan; Mari-Jo Olaziregik (14) bere aldetik «bibliotekaren presentzia» Leturiaren erreferentzietan eta, K. Otegi-

(9) *L'Homme révolté*, Albert Camus, 1951.

(10) Ibon Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, Lur, 1971.

(11) J.M. Torreal-dai, *Euskal idazleak gaur*, Jakin, 1977. *Euskal kultura gaur*, Jakin, 1997.

(12) Iñaki Aldekoa, *Mendebaldea eta narrazio-gintza*, Erein, 1998.

(13) Jon Kortazar, *Euskal Literatura XX.garren mendean*, Prames, 2003.

(14) M.J. Olaziregi, *Euskal eleberraren historia*, Labayru, 2002

ren (15) ekarpena kontuan hartuz, Leturia protagonistaren alde gatazkatsua. Oro har, denek xehetasun eta berezitasunen artean, aurreko idazlan literarioekin *Leturia*-k ekarri zuen aldaketa nabaritzen dute.

«Haustura»-ren kontzeptua guztiz erabilia da mendebaldeko kulturetan, XIX.garren mendetik hona. Literaturaren historian eragin handia badu hausturak belaunaldien arteko ezberdintasuna edo mugimendu literarioen arteko bereizketaren erakusteko. Sortzaileek berek gogotik baliatzen dute tematika hori, nahi dutelarik beren sorkuntza mota edo beren teorien alde berria preziazarazi. Adibide bat ematekotan, aipa dezagun XX.garren mendeko bi gerla nagusien artean Pariseko Surrealistek apailatu zituzten eskandalo guziz aipatuak. «Avant-garde» bezala agertu nahi dutenek hautsi behar dute aurrekoekin, «autoritate»-ekin, arrabots handiko ekitaldi eskandalagarriak antolatuz, manifestoak eta panfletoak argitaratuz. Horrela, berritzearen eragile bezala agertzen dira «autoproklamazio» horren bitartez, eta beren errolean konfirmaturik aurkitzen dira, «idazle zahar konsagratu»erasotuek ihardesten dutelarik.

Europako kultura garatuetan arrunta izanik ere, «hausturaren gaia» ez zen batere erabilia bigarren gerla osteko euskal kulturari eta are gutiago literaturaren eremuan. Hausturari kontra jartzen ohi zaion kontzeptuari, jarraipenari, ematen zitzaion lehentasuna Euskaldunen artean. *Leturiaren egunkari ezkutua* aitzindari izan da, sail horretan ere, euskal literaturaren historiografiari begira.

(15) Karlos Otegi, *Pertsonaia euskal nobelagintzan*, Mensajero, 1976.

TXILLARDEGI:
LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA

Iñaki Aldekoa Beitia

Egun on, eta eskerrik asko uztaila erdian hitzaldi nahasi hau entzutera etortzeagatik. Hitzaldia hiru zatitan banatuko da, arbelean dituzuen hiru zati horietan.

1. Testuinguru ultrakatolikoan eztanda bat

Lehenengo puntu honi Ernst Bloch-ek, *El principio de la esperanza* idatzi zuen filosofo marxista alemanak, 1930.urte inguruan egiten zuen gogoeta batekin ekingo diot:

ez dira pertsona guztiak ORAIN (letra larriz) berean bizi. Kanpotik baino ez da horrela gertatzen, soilik gaur eta hemen ikus ditzakegulako.

Pentsalari alemanak «garaikidetasunaren ez-garaikidetz» zioen hura fenomeno historiko zabaldua da eta, garai bateko kultura-ikuspegi bateratu gisa aztertu ohi dutenei begira, desafio larri bat.

Gurera etorritz, antzeko gogoeta egiten zuen Joxe Azurmendik *Oraingo gazte eroak* liburuan. Hauxe zioen:

batzuetan pentsatzen dut gure arazoa belaunaldi bakarrean lau mende eta hiruzpalau iraultza batera bizi behar izatea dela: hori zeinek zuzen asmatu? (89. or.)

Azken batean, Alemanian Erreformarekin XVI.mendean gertatu zen komentuen hustuketa hemen lau mende geroago gertatu zen, eta tartean gertatutako era guztietako eraldaketak nola edo hala, ezinbestean, modu nahasi eta bizkorregian geureganatu behar izan genituen. Horrela gertatu bada testuinguru soziokulturalean, beste hainbeste gertatu delakoan nago bilakaera pertsonaletan ere. Baita Txillardegirenean ere. Ikusiko da aurreago.

Ez gara hasiko hemen aski ezagunak diren kontuak aletzen. Ez diogu bada helduko, premia-premiazkoa ez den neurrian, *Euzko-Gogoia*, *Egan* eta geroxeago *Jakin* aldizkariaren inguruan gertatutakoari, nahiz eta ondo jakin horiek izan zirela, oro har, kultura-sentsibilitate edo mundu-ikuspegi nagu-

sien agertokiak euskal munduan. Nahikoa dugu esatearekin Orixen eta *Euzko-Gogoa*-ren inguruan biltzen zirela erlijioa (Eliza eta Jainkoa) orden moral osoaren muin gisa bizi zutenak (tradizioa, balio indibidual eta sozialak eta abar). Ezagutzen ditugu Orixeren eta Nemesio Etxanizen edo Ibiñagabeitia baten artean zeuden aldeak, nahiz eta historia kultural batetik begirata, ñabardurak izan, trantsizio kulturaletan gertatu ohi diren modulazio xumeak. Bestetik, *Egan* eta *Jakin* (1960tik aurrera). Azurmendik honela adierazten zuen kontu hori:

ulertzen da orain kontua, Nemesioren bihotza buruarekin ezbai gatazkan zebilen artean, *Izotz kandelak* idazteko posibilitatea pentsatzen eta ez ausartzen, Txillardegi *Leturia* eta *Peru Leartzako* publikatzen ari zela jada: denbora diferente biren arteko desfasea alegia une berean euskal kulturari.

Artean, orixezale eta euzko-gogozalea zen *Jakin* aldizkarian izan zuen *Leturiaren egunkari ezkutua*-k aurreneko eraso gogorra. Iñaki Baztarrikak, orduko *Jakin*-eko zuzendariak, bi lan argitaratu zituen zenbaki berean (5. zenbakian), bata Camusi buruz, «Albert Camus edo gizatasun etsia», eta bestea Txillardegiren *Leturiari* buruzkoa. Lehenengoan egile argeliar-frantsesaren seriotasuna, egi-grina, jatortasuna eta gizatasuna goraiipatzen ditu (Charles Moeller-en *Littérature du XX siècle et Christianisme* liburuari jarraituz idatzitakoa da). Bestean, aldiz, Txillardegiren lana jipoitu egiten du. Maltzur samarra, Baztarrikaren joko; Camus eta Dostoievsky bai, baina Txillardegiren «existentzialista kutsuko» eleberria ez. Camus-ek Dostoievsky aupatzen du existentzialismoaren aitagoi gisa, eta Camus bera da, Sartre-rekin batera, literatur-korronte horren ordezkari behinena. Horrek guztiak kanporako balio zezakeen. Etxekoari egurra. Aditza ematen du ulerberak garela eta Camus eta Dostoievsky beren maila intelektual eta moralean gozatzeko gaitasuna izanik, ez genukeela gurea ere zertan ez ulertu, baina Txillardegiren lanari baldarra eta noragabea irizten dio. Gertatu dena, ordea, beste hau da: ez zaizkiola gustatu Txillardegiren saioak zabaltzen dituen atak, ordu arte tinko itxita zeudenak. Saiatu bai, baina ezin Baztarrikak uholde modernizatzaileari eutsi. Modernotasunaren atak jada zabalik zeuden eta existentzialismoaren ikurpean ari zitzaigun gure mundua ziprztintzen.

Urte berean argitaratu zuen Luis Villasantek liburuari buruzko aipamena *Egan*-en. Nahiz eta Leturia zoro bat iruditu, ez zuen Villasanteren kritikak Baztarrikarenaren azpijokorik. Villasantek xaloago jokatu zuen, zintzoago; ez horregatik utzi zituen esan gabe kristau eta erlijioso baten barrutik esan beharrekoak. Villasantek ezin du irudikatu eleberrian agertzen den moduko pertsonaiarik («Leturia bezalako eroak ugaritzen badira», dio). Ez zuen asko espero gainera zetorkiona, Joxe Azurmendik *Oraingo gazte eroak* izenburupean marraztu zuen andana, alegia, modernotasunaren izenean, garai berrien ondare nagusi bihurtuko zena.

Erabatekoa zen etena: Leturia eta Peru Leartza zoroak dira Orixerentzat («liburu hauek gazte-jendearen artean egin dezaketen kalteagatik... ez dugu hemen halakorik behar»), zoroak Villasanterentzat. Ez ziren ba, ez batarentzat ez besterentzat, irakurketarik eredugarrienak.

Bestelakoa da Koldo Mitxelenaren irizpidea:

nik ez dut Txillardegi bakarrik ikusten. Txillardegi eta *Leturiaren egunkari ezkutua* gizaldi berri baten eta gizaldi horren obren aitzindari gisa agertzen zaizkit.

Mundu zaharraren eta berriaren arteko etenduraren kronika bat da hau: Jainkoa eta kristautasuna mundu-ikuspegi zuen belaunaldi baten sinismen eta morala, batetik, eta, babes horren faltan, handik eta hemendik edango duen belaunaldiarena, bestetik. Deigarria gertatzen da eztabaida gogor honetan zein gutxi hitz egin den eleberriaz, eleberri gisa *Leturiaren egunkari ezkutua*-k izan zitzakeen ahuldadeez. Ulertzen dut eleberriaren forma, barne-koherentzia eta halakoak huskeria izatea jokoan zegoenaren aldean, azken finean, estetika bera ere ez da mundu-ikuspegi edo kosmobisio (erlijioa, balioak, giza-legetasuna) zabalago baten zutabe baina. Batzuentzat eta besteentzat, beraz, bazegoen non borrokatu «txikikeria» hauetan sartu baino lehen. Gauzak horrela, ahaztu egin zitzaigula dirudi eleberri baten aurrean geundela eta ez saiakera baten edo ideia filosofikoen euskarri baten aurrean. Esan dudan bezala, garaiak ez zuen horretan lagundu. Ez zegoen garaia ñabardura horietarako helduta, gure mundua borborrean zegoen eraldaketa sakon batean konprometitua. Ez zen garaia eleberriez hitz egiteko, ideologiaz, mentalitate etendurez, iraultzaz eta halako abstrakzioez jarduteko baizik. Azken batean, gure mundua goitik behera astindu zuen jarduerak ziren gogoetagai.

Ez pentsa urte gutxiren barruan likidatu zenik zurrumbilo moderno hori. Ez zen asuntua 1957-1965 tartean erabaki. Ramon Saizarbitoriak beranduago idatzi zuen bere *Egunero hasten delako*, eta artean ez zuen hark ere behar adinako bazkarik eman nonbait, ez gure ideien eztabaida eta egarria elikatze-ko tamainan, bederen. Nori axola eleberriaren eraikuntza formala? Nori ikuspegi errealista batetik saiaturako eguneroko mundu konkretuari jarritako arreta eta analisiaren balorazioak? Ez zen hori funtsezkoa, nonbait. Nobelak ez dira, ordea, ideiekin bakarrik eratzen, nobelagilearen begiratuak mundu apalago eta ezdeusagoetan ere pausatu behar du. Txikitutasunaren ikertzaile ere bada nobelagilea. Norbaitek esana duen bezala, «Jainkoa detaileetan dago.» Baina gu oraindik ez geunden umotuta halako peskizetarako. Alde horretatik, berdin zion Leturiak Mireni emandako zaplaztekoa, azken batean, fraideek ere ez zuten besterik egiten ume gajoekin, egurka ibili; garaiako markak izaki, nonbait, funtsik gabeko kasualitate ezdeusak. Gaurko egunetik begirata, berriz, funts gehiago du zaplazteko horrek eleberriko pertsonaia batek Jainkoaz egin dezakeen ukazioak baino. Halakoxea izan da ordutik hona gertatutako aldaketa. Etorriko gara berriz gai honetara.

2. Ohiturazko nobelaren eredu eta balioetatik egunkari literariora

Zein da halako planteamendu batek ekarri zuen berritasuna? Bada Txillardegiren nobelak ekarri zuena «ni» berri baten eraikuntza izan zen. Eta «ni» horrek berekin zekarren ordu arte euskal narratiban saiatu gabeko barne munduaren, subjektibitatearen, edo intimitatearen esplorazioa. Alde horretatik, bere nobelarekin Txillardegik bat egiten du mendebaleko modernotasunak gorpuztu zuen pentsamendu eta sentiberatasunarekin, hau da, Rousseau-rengandik erromantizismora igaro zen tradizioarekin. Mundu zaharraren eta geureganaino iritsi den berriago baten bidegurutzean, beraz, esan ahal izan zuen Rousseau-k, *Aitor-menak* bere liburuaren atarian, honakoa:

sekula exenplurik izan ez duen obra bati ekiten diot, zeinen burutzeak ez duen izango, bestalde, imitatzailek (*tronpatu egin zen honetan*). Nire berdinei gizon bat erakutsi nahi diet bere naturalezaren egia osoan; eta gizon hori neu izango naiz.

Eta gurean Joxeba Leturia da gizon hori. Hara nola deskribatu zuen Bitoriano Gandiagak (*Egan*, 1957) pertsonaia hori:

Gizon-begi-goritu
Gizon-jagi-zale
Gizon-griñen-katigu
Gizon-miñez-bete-
Gizon:

Ordu arte ez zen euskal esparruan halakorik ezagutzen. 1988an *Hegats* aldizkariak argitaratu zion azkenetako elkarriketa batean, hauxe zioen Gandiagak:

Txillardegi eta ni ez gara eskola bera, baina bai komunitate literario berekoak. *Leturiaren egunkaria*. Nik erantzuna. Beste tradizio batetik etorri arren eta diferenteak izan arren, ez dugu elkar arrotz hartu, anaiak bezala baino.

Gandiagaren hitz horietan bi dira azpimarratu beharrekoak: «tradizio» (diferentea) eta «arrotz».

Zein da tradizio diferente hori? Dударik gabe, modernotasunak bere ernamuinetatik eraiki zuen subjektibotasunaren, norberegaitzaren eta intimitatearen tradizioa. Tradizio hori kristaua izan arren, ez da katolikoa (Unamunoren *San Manuel Bueno, mártir* katoliko ortodoxoa ez den modu berean). Azterketa laikotu horren norabideak Errefomaren iturrietaraino eramango gintuzke. Azken batean, barne-behaketara arima-azterketara errenditzen da ezinbestean. Jakina, halako aitortzak apaizaren aurrean eta Elizaren magalean egin ohi dira tradizio katolikoan. Haatik, zein urria den hegoalde katolikoan egunkaria literatur-genero gisa! Katolizismoak dogmaz iltzatuta izan du giza behaketaren bidea; erabat estalpetuta eta babestuta egon da gure elizetako aitormenzalea ezein zalantzaren zimikitik.

Eta hori horrela zen 1957ko Arantzazuko fraideentzat eta baita Gandiagarentzat ere. Baina noiz arte eutsi estalpe horri? Orditik hona transijitze atzabate baten historia dugu onenean euskal Elizarena.

Horretan ere aurreratu egin zen Leturia (Hegoaldeaz ari naiz, jakina; Mirande beste mundu batekoa dugu, bete-betea europarra). Zein eduki formalez mozorrotu da Leturia? Alain Girard-en *Le journal intime* liburutik jasotako hitzekin erantzungo dut:

gizakion historiak ez du gizaki bakarrarenak baino sendotasun handiagorik, eta barne behaketara isurtzen den gizabanakoak ez du bere baitan aurkituko, ez munduan ez gizartearen hautemango, transzendentsiaren oinordeko den betiereko antolaketa eredugarriarik. Norbere baitan behatzen du, bere burua ulertzen eta ezagutzen saiatuz, erlatibo eta desagerkor agertzen zaigun mundu sentipenaren aurrean geratzen zaion absolutu bakarra jarritz, norbere existentzia propioaren sentipena.

Beraz, bakarrik dago «Zerubiden», eta Leturiak berak eraiki beharko du, asmatu beharko du, erabaki beharko du, non eta nola bizi. Ez du Leturiak bere ordezkari bat duen Jainkorik, ez giza baliorik. Berak ezean, inork ez du bere existentziaren erabakimenik.

Leturiaren egunkari ezkutua irakurri duzuenok ohartu zarete honezkero zenbat orri eta buruhauste eskaintzen zaizkien kontu horiei, existentzialismoaren orbitan berpiztutako «*brainstorming*» horri guztiari, alegia: aukeratu beharrak sortzen duen larrimina, aurrerago berriz aukeratzea bera naturalezaren arnasa dela eta ezin duela gizakiak aukeratu (Schopenhauer, Freud...), egia, norbere bidea, absolutua eta abar.

Ez dezagun ahaztu egunkariaren formak berak eskaini diola estalpea aipatu dudana «*brainstorming*» moduko horri: malgua da egunkari generoa, eta esanekoa egutegiaren aginduarekin edo, eleberri honetara egokituz, urtaroeekin, nahiz eta barne-denbora edo denbora existentzialera errenditu. Azken batean, egunkari batek denboraren iragana erregistratu behar du. Halaxe zioen Blanchot-ek egunkariei buruz:

il doit respecter le calendrier.

3. Egunkaririk nobelara

Badakigu, beraz, egunkariarekin batera, eleberrira pasatu zaizkigula hainbat baliabide literario. Beste modu batean esateko, egunkari literarioaren potentzialitatea bere egingo du *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriak. Esate baterako:

- a) Urteko sasoen araberrako denboraren antolamendua (egunkariaren agindura jarritz, nobelak ere behar zuen nolabaiteko denboraren datatzeko moduren bat).

- b) Barne behaketa eta intimitatea (intimitatea eta bakardadea eskutik helduta agertzen zaizkigu nobelaren aurreneko esalditik: «Bakarrik nago Zerubiden»). Intimitate moderno hau ez da ez komentuetan ez mendian garatuko, hiriko parkean baino. Ez dira bertan urmaelak eta iturritxoak faltako, izan ere norberarengan baitaratzeko gonbitak dira biak ala biak. Jakina, parkeak, baratzak, urmaelak, barne behaketaren (esplorazioaren) korrelato espazialak dira, ibiltari bakartiaren intimitatea garatzeko maiz erabiliak literatur tradizioan, benetako «*locis communes*» izateraino.

Aipatu da gorago sentsibilitate modernoaren garapenean zein garrantzitsu gertatu zen Rousseau-ren paseatzaile bakarti harengandik hasi eta erromantizismoaren tradizio iraunkorrera pasatuz, *Leturiaren egunkari ezkutuko* dekozioa taxutzeraino eragin duen sentiera berria.

Egia bada ere guretzat ondare erromantiko hori –bere parke, baratze, biolin musika eta pasiatzaile tristeekin– estereotipo bihurtu dela jada, ezin uka sentsibilitate modernoaren garapenean, eta baita gurea bezalako modernitate berankorreen ere, izan zuen eragin berritzailea.

Esana dugu baita ere egunkari baten moztarpean eraikitako eleberriak zein tolerantzia handia izan ohi duen bertan garatzen diren ideiekin. Atergabea da gogoeten trafikoa, maiz ia beste ezertarako tarterik hartuko ez duelarik narratzaileak. Horren adibiderik behinena «Negua» atala dugu. Pariseko deskripzio xume batzuk salbu, etengabea eta agonikoa da egiaren (bere egiaren) bilaketa, Leturiaren baitan gertatutako bilakaera intelektuala. Labur-labur esanda, bilakaera horrek existentzialismoaren ondare zaratatsuenetik (gizabakoaren askatasun muturrekoenetik) kristautasunaren ondarean ondo erroto-tako sentiera bateraino ekarriko gaitu.

Bilakaera horretan desegin egingo dira absolutuak eta uko egingo zaio aukeratzeko askatasunari zoriaren (edo naturaren) mesedetan, uko egingo zaio adimenari sentimenduaren mesedetan, uko «ni»aren harrokeriari umiltasunaren mesedetan:

aukeratu... ez daukat nik aukeraterik!
 Nazkagarria da gañera aukeratzallearen arrokeria...
 Eziña eta gorrotagarria da, bada, aukeratzeko nire naikunde zaarra.
 Ta ura jotzen nuen nik gizonen sustraia? (135. or.)
 Ni, ni, ni. Onatx korapilloa: neu nintzen kontutan eduki bear zen bakarra.

Azkenean, oinarri-oinarrizko kristautasunaren karitatea eta maitasuna besarkatzera errendituko da Leturia:

eta zer da maitasuna? Nork bere burua eman, nor bere buruaz aaztu, nor bere burutik ateratzea. Beste batek gu aukerazten uztea. (136. or.)

Zein gertu gauden oraingo honetan Unamunoren *San Manuel Bueno, mártir*-eko mezuarekin: federik gabe eta sinismenik gabe ere lagundu hurkari («sinistea sinistu nahi izatea da»).

Iritsi gara ba, barealdirik gabe, atergabeko ideien arteko borroka agoniko batean, amaierako soluziora. Dramatismo intelektualik ez zaio falta izan nobelari. Baina dramatismo nobelistikorik? Hau beste kontu bat da. Intelektualaren garaipena nobelagilearen porrota da. Intelektualki atzeman den maitasunik ez da nobelatu. Esan nahi dudana da ez dagoela maitasunik nobela honetan, ez maitasun nobelaturik. Eta ez dagoela bizitzarik, bizitza nobelaturik. Soilik Leturiaren buruan ibili da halakorik.

Ez da *Leturiaren egunkari ezkutua*-n bizitzaren zurrumurrurik entzuten. Soilik eleberriarren lehen zatian –«Udalenean»– entzuten da haren oihartzuna, maila oso apalean, udan zehar isiltzeko. Handik aurrera ez dago Leturiaren ahalegin zerebrala baino. Zeren gauza bat da ezagutza, eta bestea, bizitza. Eta nobela hau orekatua izatera, gogoeta mamitsu horiek guztiak bizitza errealaen zurrumurruekin oretuta jaso beharko genituzkeen. Ez da halakorik gertatzen, ordea. Areago esango dut, narratzaileak propio egiten dio ihes bizitza errealaen kutsadurari, ihes afektu, egunerokotasun, mania eta komizitateari, hain egokiak, bestalde, eguneroko batean jasoak izan daitezten.

Zer da ba, bestela, «Uda»rekin gertatzen dena? «Uda»k nobelagileari eskatzen zion erronka ez zen makala: ekaitz intelektual potoloak alde batera utzi eta bikote ezkon berriaren eguneroko bizitza arruntean murgildu. Ulertzen dut horrek Leturiaren egilearentzat interesik ez izatea, nobelagileei maiz gertatzen baitzaie aspergarri trantsizio garaiak lantzea, nahiz eta trantsizio eta barealdi horiexetan erakutsi behar duen maiz nobelagileak bere abilezia. Are interes gutxiago luke lan horrek Txillardegirentzat, zeren nobelaren tesiaren abiadura azkarra da, eleberria abian jarri baino lehen erabakita dago mezua, gutxi gorabehera, honelako zerbaitera errenditzen dena: maitemintzea leherketa bat da eta erabat gatibu izaten gaitu, gero barealdia dator eta geroxeago maitasunaren ahitzea eta asperdura. Lehen sasoa gatzaroarekin lotzen da, eta bigarren eta hirugarrenak, heldutasunarekin.

Egia esan, zer dakigu Leturiari berari buruz, nobelako pertsonaia nagusi eta bakar horri buruz, bere gogoeta mamitsuez gain? Ia ezer ez. Ez dakigu nolakoa den, zer egiten duen pentsatzen ari ez denean, zein mania dituen, nola bizi den. Leturiaren gustu jasoaren lekuko gisa aipamen kultu batzuk ematen zaizkigu soilik. Guk ez dugu «gizon»a ezagutzen, benetako gizonaren kategoriaraino altxatuz, Gandiagak ustez hain ondo ezagutu zuen pertsonaia hori. Guretzat benetako «gizon», benetako pertsonaia izatera iristeko dezente du faltan Leturiak. Tentazioa etorri zait Gandiagaren bertsoak berregiteko. Nahia-go dut pentsatu bere ustean hala zela, «gizon» zela, garai hartan beharbada gizonari klabe intelektualean eskatzen ziotena eskolastiko/ez eskolastikoen arteko eztabaidetan erabakitzen zelako. Uste dut gu esijenteagoak garela.

Gehienetan ez dira poetak izaten kritikorik egokienak nobelen gorabeheretz hitz egiteko garaian, nahiz eta poeten artean baden nobela irakurle zorro-

tzik. Horietako bat iruditzen zait Auden poeta. Hara zer esaten zuen Auden-ek maitasunaz eta egiaz ziharduela:

egiak eta maitasunak elkarren eskutik joan behar dute beti; hori ez denean posible, maitasunak gailendu behar du. Poetaren hautaketa maitasun aukeraketa bat da. Horrexek bereizten du haren pentsamendua filosofoarenarengandik. Azken hau egiaren izenean bizi da soilik, maitasunari uko egin behar badio ere...

Binomio hori gure eleberrira ekarriz, zeraz konturatuko gara, ez dagoela inolako orekarik bi aldeen artean, garbi etzaten dela nobela egiaren azterketa soilera. Leturiariz gainera, ez dugu beste pertsonaiarik ezagutzen, bizitza fisiko eta espiritual autonomo bat erakutsiko lukeen benetako pertsonaiarik. Mirenek ez du pertsonaiaren giza nortasunik, Leturiaren behar intelektualen justifikaziorako ez bada. Miren trapu zahar bat da, komeni denean txisteratik atera eta bere paper inuzentea beteko duena. Horren frogarik larriena bere gaixotasunarena da. Zein modu miragarrian heltzen zaion Leturiari Mirenen gaixotasiaren berria! Baina, orduan ere, bere baitan bizi duen bilakaera intelektualak du lehentasuna eta premia. Azkenean, ez dakigu zer gertatu zen Mirenen gaixotasunarekin, ez derrigorrezkoa delako datu hori nobelari amaiera emateko, baizik eta Leturiaren erorketa/suizidio edo dena delako horren parean bederen egon zitekeelako interesgune gisa. Bide batez esan dezadan ahula dela narratiboki suizidioa moztortzeko saio hori, istripuarena erabat sinesgaitza gertatzen delako.

Egiatik asko du Leturiaren azken aurkikuntzak, alegia, maitasunerako ezintasuna dela dohakabearen patua, inor ulertzeko, inori emateko, inor laguntzeko ezintasunak egiten gaituela dohakabe. Baina egia hori ez du literarioki lortu, filosofikoki baizik. Azken finean, *Leturiaren egunkari ezkutua* jeneroaren abusua da eta, konbentzioaz harago, ezer gutxi du nobelatik. Nobela da, hala ere.

LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA

Liburuaren harrera garaikideen artean

Patri Urkizu,
UNED

AGURRA ETA ESKER ONA

Egunon denoi.

Lehen-lehenik eskerrak eman nahi nizkioke bereziki Lourdes Otaegi, ikastaro honen koordinatzaileari, hainbat lanen eta etsipenen ondoren martxan jarri ahal izan duelako ikastaroa. Eta bidenabar EHUKo XXVI. Uda ikastaroen eratzaleei gonbiteagatik, Jose Luis Alvarez Enparanza «Txillardegiren obra eta batez ere narrazioak eta berauen eragina eta oihartzuna euskal gizartean ikertzeko aukera eta parada ona ematen didatelako.

Azkenetarikoa izateak badu aldetxar bat nabarmena, alegia, ia den-dena esana aurki dezakeela jadanik entzuleak (1), baina halere saiatuko gara gure ondar ale berezia erakartzen hondartza zabal honetara, alegia, literatur kritikaren esparru mugagaitzara.

BIZITZA ZERTZELADA LABUR BATZUEK

Jose Luis Alvarez Enparanza «Txillardegiren», «Larresoro» «Igara», «Usako» izengoitiz, Donostian jaioa dugu Antiguako auzoan (1929). Badirudi 1948an hasi zela euskara bere kabuz ikasten, eta 1948-49 urteetan Xabier Zabalo, Rafael Albizu eta beste zenbaitek lagun-arteko elkarte sozio-kultural bat bazutela *Eup Pelissier* izenekoa, non ezagutu zuen Julen Madariagak (2). Injenieri ikasketak burutu zituen Bilbon eta ikasle zelarik Abertzaleen Mugimenduarekin harremanetan jarri zen eta Martutenen espetxeratu zuten. 1953an

(1) Hor daude lan monografikoak: *JAKIN* 114 (1999); *Txillardegiren lagun giroan*. (Aurrerantzean TXLG), Txipi Ormaetxea ed., UEU, Bilbo 2000; Txillardegiren omenaldia: *Nerekin yaio nun*. P. Etxeberria & Henrike Knör (ed), Iker, 17, Euskaltzaindia, Bilbo, 2005; eta Koldo Mitxelena Liburutegiko 88 sarrera, besteak beste. Hala nola www.txillardegiren.gipuzkoa.net interneteko atarian hainbat txosten.

(2) Julen Madariaga «Jose Luis sortzailekidearen jiteaz hitz bi», *TXLG*, 31.

Ekin ikasle-taldearen sorreran parte hartu zuen ere, beraz gazte-gaztetandik politikan murgildurik dakuskegu.

Soldadutza, alferez, gisa El Ferrol-en burutu zuen 1956.an.

1959.an E.T.A. sortzen du Irigaray, Lopez Dorronsoro, Benito del Valle, Manuel Agirre, Patxi Iturrioz eta Julen Madariagarekin, sail kulturalaren buru eta arduradun izendatzen dutelarik.

1960.ko abuztuan Martutene ezagutuko du barrendik bigarren aldiz. Eta bertatik ateratakoan hanka egin Frantzia aldera, hots, 1961ean atzererritzen da, Parisen Linguistika ikasten eta Bruselaren ingeniari gisa lanean aritzen. Jone Forcadarekin ezkondu zen eta lau seme-alaben gurasoak izanen ditugu.

* * *

1963.an Iparraldeko lehen Aberri Egunean parte hartuko, eta 1964-65.ean matematika irakasle bezala izanen da Hazparneko Laborantza eskolan. Garai honetan Euskara Batuaren hastapenak lantzen ahalegindu zen eta Baionako Biltzarrean 1964.eko abuztuaren 29-30.ean gidari lanak burutu zituen.

1967.ko apirilaren 14ean ETA uzten du Benito Del Valle eta Xabier Imazekin idatzitako gutun batean erakundea gero eta marxista-leninista espainolagoa bilakatzen ari delako, hau da, ezkertiar hiztegiak eta espainiar nazionalismoaz erabat kutsaturik omen dagoelako. Bere burua beste askotan bezala, sozialista abertzaletzat definitzen du 1967.ko gutun batean (3).

1971.ean Monzonekin batera Bazkoz Aberri Egunean parte hartu zuen eta Frantziako Gobernuak Ipar Euskal Herritik urrundu nahi baitzituen exiliatuak Baionako katedralean maiatzan gose-greba hasi zuen. Haraxe sartu ginen bisitan. Hantxe zeuden zoko batean ur botilez eta mantez inguraturik etzanda lurean. Norbaitek esan zidan, hori da Txillardegia. Ordurako irakurria neukan gogo eta zaletasun handiz eta miresten genituen neurri batez bederen gizon haien balentriak. Halere ez zuten lortu nahi zutena, eta Ipar Euskal Herritik erbesterratu zituzten.

* * *

Bazen *Mugalde* deitu liburu-denda Hendaian Frankismoaren azken urteetan. Literatura sari batzuk antolatzen zituzten ere eta bertan parte hartu genuen, Ramon Saizarbitoriak *Ehun metro* (Kriselu 1976) geroago deituko zen eleberriarekin, eta nik *Dorrejilko kanta* (Kriselu, 1977) tituluaz agertuko zen poema liburuttoarekin. Hantxe ikusi nuen berriro.

Franco hil ondoren, desterrutik itzulitakoan ESB (Euskal Sozialisten Biltzarra) sortzen du Arantzazun 1977an, ETAtik berezi eta *Branka* aldizkariaren

(3) Ikus Karlos Santamariarekiko gutunak. Koldo Mitxelena kulturunean: C.S.C. 1264.

inguruan zebilen jendearekin eta bestetik ELAren zatiketarik sortu beste zenbaitekin. Hauteskundeetan porrot egin ondoren, desadostasun politikoengatik utzi egin zuen ESB eta ezkerraldeko joera hartu eta HBren sorreran partaide izan zen (1979). HBko senadore ere hautatua izan zen. Gero talde hau utzi eta ARALAREN partaide bilakatu zen, azkenik hau utzi eta ANVrekin orain bidaide delarik, ezta? Bordeleko Unibertsitatean irakasle izan zen eta EHUko irakasle ere izana dugu. Orain ongi merezitako jubilazioa, atsedena dastatzen ari zaigu.

Geroago Durangoko Azokan (1988-VI-12) berak dedikatutako *Exkixu* eleberria badaukat gordea, *Galeuska*-ko biltzarretan topatu izan dut eta mintzatu, Galizian eta bestean. Donostian antolatu Nazioarteko herri ttipietako idazleen Biltzar baten atsedean unean Antiguoko kafetegi batean piano jotzen ere ikusi izan dut. Lezon elkarrekin bazkariren bat *Oriotarran* eginga dugu. Amasako baserrian Jokin Apalategi eta beste euskaltzaleekin ere bai. Donostiako kaleetan paseatzen elkarrekin topo egin izan dugu, portu inguruan, Koldo Mitxelena liburutegi ondoan... eta beti gizakoi, tratu atsegineko gizona iruditu izan zait.

Zientzia eta Letrak biltzen dituen intelektual peto-pettoa da Txillardegia. Ertz aniztuna. Hau da, ingeniaria da, baina baita ere idazlea. Saiogilea, narratzailea, hizkuntzalaria, eta politikoa. Hots, XX-XXI. mendeetako zientzia gizon eta pentsalari konprometitua.

* * *

OBRA

Erraldoi baten lana da Txillardegik utzi diguna, hots, nekaezina nabari den langile batena. Hemen aipatu besterik ez dugu egingo argitaratu obren zerrendatik batzuk baizik. Hiru arlotan berezirik emango ditut. Hizkuntzalari, saiogile eta narratzaile gisa.

Hizkuntzalaria:

Sustrai bila (1970)
Oihenarte (1592-1675): Atsotitzak eta neurtitzak (1971)
Euskara batua zertan den (1974)
Euskal Fonologia (1978)
Euskal Gramatika (1978)
Fonologiaren matematikuntza (1978)
Elebidun gizartearen azterketa matematikoa (1983)
Euskal Dialektologia (1984)
Euskal azentuaz (1984)
Soziolinguistika matematikoa (1994)

* * *

Saiogilea:

Huntaz eta hartaz (1965)
Hizkuntza eta pentsakera (1972)
Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981 (1984)
Gertakarien lekuko (1985)
Antigua 1900 1991 (1991)
Santa Klara, gure uharte ezezaguna (2004)

* * *

Narratzailea:

Leturiaren egunkari ezkutua (1957)
Peru Leartzako (1960)
Elsa Scheelen (1969)
Haizez bestaldetik (1979)
Kosmodromo (1984)
Exkixu (1988)
Putzu (1999)
Labartzari agur (2005)

Argitaratu gabe edo, hobeto esateko, bildu gabe dauzka, noski, artikulua, elkarrizketa eta gutun dexente, eta mereziko luke ere OBRA OSOA paratzea errebista eta aldizkari zientifikoetan eta kulturaletan sakabanaturik dituen lanekin XX. mendeko Euskal Kulturaren Mugimenduan erreferente nagusietariko bat dugunez, Piarres Lafitte, Nikolas Ormaetxea «Orixe», Jokin Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia, Koldo Mitxelena, Gabriel Aresti, Jon Mirande eta beste zenbaiten gisa.

* * *

1936-1956 EUSKAL KULTURAN

Begirada bat ematen badiogu Jon Bilbaoren *Bibliografiari*, ikus dezakegu Txillardegiren lehen lanak 1956-1957koak direla *Egan*, *Euskera* eta *Euzko Gogo* aldizkarietan. Zazpi urte zituen Txillardegik gerra hasi zenean, eta 28 lehen eleberria argitaratu zuenean. Zer izan zen epe horretan euskal kulturaz eta zer irakurgaitaz elikatu ziren euskaldunak garai hartan?

Exilio garaia (4) eta katakunbetakoa deitu izan zaio ere epe honi. Erbestean Eusko Jaurlaritzak sortu eta izan zituen bere ideien zabalkunderako aldizkari zenbait, hala nola, *Euzko Deia* (*La voz de los vascos / La voix des*

(4) Patricio Urquizu, « La cultura del exilio vasco en eusquera », José Luis Abellán et al., *Memoria del exilio vasco. Cultura, pensamiento y literatura de los escritores transterrados en 1939*. Biblioteca Nueva, Madrid, 2000, 99-145.

Basques), zein Parisen argitaratu zen 1936-40 a arte, gero alemanak sartuta-koan Buenos Airesen (1941-43), Mexicon (1943-1945) eta Bigarren Mundu Gerla bukatutakoan, berriro, Parisen (1945-1972).

Bai halaber *Espetxean* (1937-1942), *Euzkadi en Catalunya* (1937), *Anaiak* (1939), *Euzko-Enda* (1939-1940), *Gudari* (1944), *Aintzina* (1943), *Ikuska* (1946-1951), *Gernika Cahiers Collectifs de Culture Humaniste* (1948-1953), *Euzko Gogoa* (1950-59), *EGAN* (1948...)...aldizkarietan aurki dezakegu euskal idazleen oihartzunik.

Errebista hauei jarraikiz euskal literaturaren zenbait idazleren ideiak eta lanak irakur ditzakegu. Hala nola Manuel Apalategi «Sabiaga» (Ataun 1901), Jel-Orde, Ignazio Eizmendi «Basarri» (Errexil 1913-Zarautz 1999), Joxe Mari Lopetegi (Irun- Sarrikota 1942), Koldo Mitxelena (Errenteria 1915-Donostia 1987), Pierre Lafitte, Jon Zubimendi, Jesus Maria Leizaola, Orixe, Ibiñagabeitia, Mirande, Txillardegui... eta besteren bertso, erreseina, artikulu, ipuinak, eta beste.

Gauza jakina da urte hauetan oso liburu gutxi argitaratu zela euskaraz. Ez du esan nahi honek, ordea, ez zirela lan gehiago idatzi, zeren asko mantendu baitziren itzalian, askoz ere beranduago, baldintza sozio-politikoak aldatu bide zirenean, argitaratu arte. Hona hemen plazaratutakoen zerrenda erlijio lanak eta itzulpenak kanpo utziz:

- | | |
|-----------|--|
| 1937 | Toma Agirre «Barrenso» <i>», Uztaro</i>
Txomin Arruti «Mendi Lauta», <i>Loretxo (Eguna)</i>
L. Léon, <i>Herriko besta biharamunian (Gure herria)</i> |
| 1937-1944 | <i>Eskualduna</i> (5) |
| 1938 | L. Léon, <i>Mehetegiko nausia (Gure herria)</i> |
| 1939 | L. Léon, <i>Haurrak azken hitza bere (Gure herria)</i> |
| 1940 | P. Lafitte, <i>Kantuz</i>
J. Diharce, <i>Zakalar</i> |
| 1941 | D. Soubelet, <i>Pétain Marechala</i> |
| 1942 | R.M. Azkue, <i>Euskalerrriaren Yakintza II</i> |
| 1943 | <i>Aitzina</i>
I. Lopez Mendizabal, <i>Xabierto</i> |
| 1944 | J. Moulier «Oxobi», <i>Haur elhe haurrentzat. Herria</i> (1944...) |

(5) Epe horretako eta sortu zenez geroztikako euskal literaturaren historia egiteko funtsezkoa. Ikus, besteak beste, X. Altzibar, *Jean-Hiriart-Urruti, Ni kazeta-egilea naiz*. Labayru, 2004; eta J. Casenave, *Eskualduna* astekariaren gizaldi gaztea (1877-1888). www.archiker.ccsd.cnrs.fr

- 1945 *El Bidasoa* (1945...)
R.M. Azkue, *Euskalerrriaren Yakintza III*
Telesforo Monzon, *Urrundik*
Juan Antonio Irazusta, *Joanixio*
Piarres Lafitte «Piarres Iturralde», *Murtuts eta bertze...*
- 1946 Jokin Zaitegi, *Goldaketan*
Jon Andoni Irazusta, *Joanixio*
Jean Pierre Iratxet, *Antton*
Jean Batista Elissamburu, *Piarres Adame*. 3. ed.
P. Lhande & J. Larrasquet, *Le Poète Pierre Topet dit Etchahun (1786-1862) et ses œuvres*
- 1947 R.M. Azkue, *Euskalerrriaren Yakintza IV*
Telesforo Monzon, *Gudarien egiñak*
Pedro Ormaetxea «Lontzi Aba», *Ipuintxuak*
- 1948 Pedro Ormaetxea «Lontzi Aba», *Bigarren Ipuintxuak XX, Piarres Ibarrart-en Koblak*
Jose Eizagirre, *Ekaitzpean*
Gregorio Muxika, *Pernando Amezketarra* (4. ed.)
Gernika (1948-1953)
Egan (1948...)
- 1949 J. Moulier «Oxobi», *Oxalde (1814-1897)*
Salbatore Mitxelena, *Arantzazu*
Inaki Eizmendi «Basarri», *Atano III. Bere edestia bertsoan*
- * * *
- 1950 Inaki Eizmendi «Basarri», *Basarri'ren bertso sorta*
Juan Antonio Irazusta, *Bizia garratza da*
Jon Etxaide, *Alos-torrea*
Toma Agirre «Barrensoror», *Uztaro*. (2. ed.)
Nikola Ormaetxea «Orixe», *Euskaldunak*
A. Zubikarai, *Itxasora*
Euzko Gogoa (1950-59)
M. D. Agirre, *Aukeraren maukera azkenean okerra*. *Egan*
- 1951 Salbatore Mitxelena, *Ama-semeak Arantzazuko kondairan*
Jean Diharce, *Herri-mina*
Nemesio Etxaniz, *Kantu kantari*
Jon Etxaide, *Amaiur (Euzko Gogoa)*
(21-III. *Pen Euskel Klubaren sarrera*: A. Ibiñagabeitia, F. Krutwig, J. Mirande...)
- 1952 Nemesio Etxaniz, *Izeko aberatsa. Irulearen negarra*
Emeterio Arrese, *Olerki berritze*

- Eusebio Erkiaga, *Sinisgogorra (Egan)*
 P. Guilsou, *Korapillo (Gure herria)*
 E. Salaberry, *Frantses Xabierrekoa, euskaldun seme (Gure herria)*
 A. Labaien, *Muga (Eusko Jakintza)*
 P. Lafitte, *Meilleurs pages de Mgr. St. Pierre*
- 1953 Luis Jauregi «Jautarkol», *Ipuiak*
 Jon Etxaide, *Purra! Purra!*
 «Xabier Lizardi», *Ezkondu ezin ziteken mutilla (Egan)*
 P. Guilsou, *Gizona (Gure herria)*
 E. Salaberry, *Frantses Xabierrekoaren pilota (Gure herria)*
 P. Larzabal, *Etchahun*
- 1954 Santiago Onaindia, *Mila euskal olerki eder*
 Tx. Agirre, *Kresala (2. ed.)*
- 1955 Jon Etxaide, *Joanak joan.*
 Antonio Sorarrain, Jose Galarraga, Jose Mari Garaialde,
 Salvatore Mitxelena, *Elezarrak. Arraun ta Amets*
 A. Labaien, *Lurrikara (Euzko Gogoa)*
 P. Lafitte, *Orratza (Gure herria)*
- 1956 Sebero Altube, *Laztantxo eta Betargi*
 J.A. Mogel, *Peru Abarka (4. ed.)*
 «Xabier Lizardi», *Biotz begietan*
 J. Diharce, *Harrapallu*
 A. Labaien, *Petrikillo (Egan)*
 M. Ziarsolo, *Eguberri-aizeak (Egan)*
 T. Monzon, *Lau kantari eta xori bat (Euzko Gogoa), Jakin (1956...)*

* * *

Orotara kontuak eginez, eta badakit ziur obra batenbat edo bestek ihes egin didala 65 liburu(txo) ateratzen zaizkit, honela sailka ditzakegunak: Herri literatura (7), Poesia (20), Narrazioa (18), Antzerkia (21), Saiakera (2). Deus baino zertxobait gehiago. Batez beste hiru obratxo urtean, eta zabalkundea kontuan hartuta, batzuk Ameriketara eta beste batzuk Ipar Euskal Herrian argitaratzen zirela, ordea, irakurgai gutxi irakurle euskaltzalearentzat. Halere nabari da euskal idazleak ez zeudela lo, idazminak hartuta zeuzkala eta batez ere hiru aldizkari nagusitan parte hartzen zutela beren gogoetak hedatzearen: *Euzko Gogoa*, *Egan* eta *Gure herria*. Hots, Jokin Zaitetik, Koldo Mitxelenak eta Pierre Lafittek batipat zuzentzen eta animatzen zuten aldizkarietan.

* * *

TXILLARDEGIREN LEHEN IDAZLANAK

Jon Bilbaoren *Bibliografiaren* arabera 1956koak dira Txillardegiren lehen argitalpenak, hain zuzen, *Eganen* («(Euskeraren auziari buruz) Ez bat ez beste», «Mendeurren oargarri bat. Buda sakiamuni ta bere gaurkotasuna» eta «Religión sin Dios»), hala nola *Euzko Gogoan* («Taupadak»).

Hauetan ikus daitezke zeintzuk izango diren bere bi kezka nagusiak, alegia: euskera eta hizkuntza honetan eginiko literatura, alde batetik; eta bestetik, kezka erlijioso, Budaren irakatsiek duten gaurkotasuna eta existentzialismoaren arrakasta. Hots, Sartre, Simon de Beauvoir eta Camus-en entzute eta osparen oihartzuna.

Jose Azurmendik, bere aldetik, beste bi lan aipatzen dizkigu, *Oargui* sariketan (1954-1955) parte hartu zutenak, bat «Urruti-min» titulua zeukana eta antza denez galdua. Sariketa hoietan parte hartu zuten ere, besteak beste, Sabin Berasaluze frantziskotarra, Anton Valverde »Aialde», Gabriel Aresti, eta Julio Ugartek. Epai-mahaiko ohi ziren Koldo Mitxelena, Antonio Arrue, Nemesio Etxaniz, Jon Etxaide eta Aingeru Irigarai.

Txillardegik 1957ko udaberri hasieran (28-III-1957) Urkixo Mintegiko Solas-aldiak deitu hitzaldietan parte hartu zuen «Unamuno eragille» lanarekin eta oraindik argitaratzear zegoen eleberriaren zati batzuk ere irakurri ziren, zein Irigaraien iritziz, *nobela zorrotza eta biziki oraitarra dela ematen du...* (EGAN 1957, 97).

Hona halaber Nemesio Etxanizek Andima Ibiñagabeitiari idatzi gutunean (6) 1957ko ekainaren 2an nola ematen dion hitzaldiaren berria:

Andima larritu,

[...] Aldundian ilero izaten ditugun izketaldietan gazte batzuek agertzen ari zaizkigu. Epailekoa Txillardegi, injeniero gazteak eman zigun. Euskaldun berri degu au, ta gaur zazpi urte tutik ere etzekian euskerarik. Gaur guk bezin jator egiten digu. Bere gaia Unamunoren pilosopia izan zuan, eta jator azaldu zigun gai ori. Beti apaiz edo praileren bat ikusten oituak orrelako lanetan, pozik ikusi genizun gazte prakaduna izlari. Jorrailekoa Ansola gazteak eman zigun. Onek Europako batasunaz itzezin zigun. Lengo ostiralean (Orrilak 31) Gotzai kaputxino bat genuin izlari. Txinan 27 urte egina mixiolari, ta ango oituren berri eman zigun garbi. Aldabako semea degu Larrañaga Apezpikoa, Tolosa-ondoko auzotxiki batekoa.

[...] Irratiz or gabiltza amaika nagusiren mende gure lana egiten asma ezinik. [...] Ala ere zerbait degu, astean iru aldiz euskal-irratsaioak enzun al-izatea.

Ezagutu genuen tikiak ginela Larrañaga Hondarribiko kaputxinoen komentuan, eta benetan gizon atsegina eta erakargarria iruditu zitzaidan bere

(6) Gutun argitaragabea, 1957-VI-2.

bizar luze eta guzti. Bestalde, Etxeanzen lana eta ahalegina euskera Irratian hedatzeko eta garaietara egokitzeko benetan txalagarria izan zen.

LETURIAREN SORRERA

Txillardegi berak ematen dizkigu 20 urte beranduago, bigarren argitalpe-nerako prestatu hitzaurrean eta 1977ko martxoaren 7an datatuan honakoxe argibideak:

[...] Existenzialismoa modan zegoen. Camus, Sartre, Jaspers, Kierkegaard... izatearen zoritxarra gailen. Eta gure Unamuno iragarle...

*1956-ko Apirila zen. Galiziara alferrez sei hilabetez egotera nindoan soldauzkara. Eta joan aurretik, Koldo Mitxelenarekin mintzatu nintzen; eta inork ez zekien neure segretia aipatu nion: Galizian pasa behar nuen denbora hura galdu nahi ez, eta zerbait euskaratzeko neure asmoa azaldu nion. Knut Hamsun-en **Pan** nobela zoragarria hautatu nuela, hain zuzen.*

–Ez, ez –erantzun zidan brauki Mitxelenak– Inolaz ere ez! Zeure buruz asmatu behar duzu zuk nobela bat; eta horixe bai izkiriatu...

[...] Camusen La peste (=Izurritea) neukan gogoan....

[...] Nolanahi ere LETURIA Ferrolgo lanperna usain eta «ribeiro» zuritan oratua izan da Ene anaia bizkia ez bada ere, ene gaztaroko adiskide mina eta hurbila da Joxeba, eta ageri dela iruditzen zait. Horren barruan daramatzadan Puentedeune, Betanzos, Cedeira, Jubia, La Coruña, Arosa, Grove, La Toja-n sortu da....

Ondiñas veñen e van airean mamitua, LETURIA-k dauka , bere muinean, behar bada nik uste baino sakonkiago «saudade» bortitz haren kutsua....

Soldadoxkako atsedean uneetan bada idatzi izan duen euskal nobelagilerik (Txillardegi, Kintana, Urkizu, Zulaika...). Hona Mitxelenak animatzeko Ferrolera bidali gutunaren zatitxo bat:

Jose Luis Alvarez «Txillardegi»ri

Ferrolera

Donostian, 1956-VII-4

Ene adiskide ori

[...] Irugarrena azkenik. Ori da ederrena eta pozgarriena. Itzulketak utzi eta zure baitarik ari nai duzulako, leenbizi; novela artu duzulako mintzabide, gero.

Eztidazu neri esan bearrik etzabiltzala berrikeri billa. Gaurko euskaldunak, gaurko edozein lekutakoak bezalaxe, gaurko gaiak bear ditu erabilli. Eta zuk ere gogoko duzuna aukeratu bear, ezer egingo baldin baduzu. Lan ortatik bi on aterako ditugu gutxienez: bata, zure gaitasuna lantzea, eta bestea euskera-bide berri batetik abiaraztea. Eta saio oni ezta bear bada zuk beldur zeran bezala

kaxkarra izango: ori da nere ustea. Eta etzaitzela beintzat pot egiteko beldurrez gelditu. Gazteari dagokio ausarta izatea: gaztea ausartzen ezpada, nor ausartu? laurogei urteko agureak? (7)

Urte honetan, 1956an noski, bi Batzar garrantzitsu gertatu ziren euskal munduan. Parisekoa eta Arantzazukoa.. Kontatu izan ohi du Ramon Saizarbitoriak nola lagundu zion bere aitari itsas-ontzian eramaten Nemesio Etxaniz Pariseko bidean Donibane Lohizuneko porturaino, honek garaian zeuzkan arriskuekin. Honi buruzko memoria eta ondorioak berrargitaratu zuen Eusko Jaurlaritzak (8). Arantzazukoan parte hartu zutenen fotografia interesgarri bat ere badago. Bazkaltzen ari dira eta hantxe daude solas ederrean mahaiean, Koldo Mitxelena, Jon Mirande eta Santiago Onaindia.

Hona nola kontatzen nuen ene Jon Miranderen biografia nobelatuan Arantzazukoa:

Ene ustez urte haietako denboraldirik interesgarriena ene bizitzan eta garrantzizkoena 1956. urtea izan zen. Hura gora behera, batera eta bestera ibili geharra! Lehenik iragan nituen hamabost egun Bazkoz Belgian, edo hobe esateko Flandreetan, eta gogoz bainintzen beste bi aste oso, iraileko oporretan Euskalerrian eman nituen. Aste bat mugaz haraindiko Euskalerrian eta beste bat Lapurdin eta Xuberoan.

Donostian ohi bezala hainbat maite nuen ene Jon Etxaide kuttunaren familian egun pare bat egin ondoren bere aizparekin solas ederrik literaturaz batipat eman ondoren, eta Manterola denda liburuan zenbait lihuru erosi eta Arantzazura joan ginen elkarrekin, berebitez, irailaren 14, 15 eta 16 iragaitea euskaltzaleen biltzarra zela eta Euskaltzaindiaren eta frantziskotarren komentuarren babespean. Itzal haren baitan hirurehuntsu bildu ginen, Villasantek ongi etorria eman zigularik. Mahaiburu bera, Damaso Inza, Julian Elorza, Pierre Lafitte, Nazario Oleaga eta Alfontso Irigoyen idazkari bezala. Era guztietako eleiz gizonak, beneditarrak, karmeldarrak, apaiz soil, dominikoak, klaretarrak, eta batipat frantziskotarrak ugari gure artean. Sinodo bat zirudien areago, eta nola ahantz frailekume ikasle, filosofo eta teologo gazte bikain haiek? Euskal idazle, har eta eme andana batekin suertatu nintzen, eta sekulako abegi ona egin zidaten, hala eleiz gizonak nola prakadunek. Asko ikusi eta ikasi nuen benetan Arantzazuko babesleku hartan. Jende berri anitz ezagutu ahal nuen, adibidez, Balendin Aurre Apraiz sutsu eta ausarta. Honek, Zabala jesuitak bere gaztelaniazko hitzaldia, bertso berri bila nola zebilen Euskalerrian zehar adierazi zuenean, altxatu eta bizkaieraz ozenki esan zuen bera ez zela hain urrunetik etorri, alegia, Ameriketatik, gaztelaniaz mintzatzen entzuteko eta bihotzean arantzazko zorrotz bat eroango zuela batzar hartatik irteterakoan, eta denoi zinotsuela pentsa genezan ea geure euskal zaletasuna egiazkoa zen. Bestetik, gehien laket zitzaizkidan emanaldiak Arantzazuko folklore gaiet buruz izan ziren, bat Gandiaga, fraile gazteak egina eta bestea Barandiaran zaharrak. Era berean Iban Mokoroaren gaztelaniazko lana

(7) Patri Urkizu, aip. ed., 79.

(8) Euskal Batzar Orokorra. Congreso Mundial Vasco. 25 años. Eusko Jaurlaritz. Vitoria/Gasteiz 1981.

irakurri ziguten, eta bertan esaten ziren zenbait gauza zentzudun eta arrazoizkoak izan arren, haren ondoren Arrue jaunak zioenaren arabera, ezin onart zitekeen hileta doinu hura, oraindik entierro garaia ez baitzen iritsi. Azken egunean, igandean, areto batean bazkaldu genuen den-denok, Enbeita zenaren semeak bertso ederrak abestu zituen, bertako fraileek kantu ederrik asko, eta benebene-tazko euskal-jaiak ospatu zen.

Ez nintzen, ez, egiaz, damutu ez dolutu han egoteaz. Abagadunea ere ukan nuen politikaz mintza nendin, abertzale eta karlistekin, errepublikano eta deus ere ez zirenekin. Herriketaz mintzo ginen, bada, eta orduko Espainiako gobernua euskaldunekin zerabilen politikaz, eta ohartu nintzen euskal kultura hein batetan bederen pizten ari zela, eta etorkizuneko politikan esperantza txinparta zenbait agian pizten ari zirela. eta auskalo ez ote zen ere itsaropentsu geroa, neuk euskal bihar hortaz esperantza ia galdurik baneukan ere (9).

Arantzazuko Biltzar honetara bidali zuen Txillardegik «Karta Idigia» (10), bertan egon ezinaren pena deitoratuz, euskaren egoera larria salatuz, eta beste zenbait ideinen artean egin zitezkeen bi ekintza azpimarratuz. Bata, gutxiengo prestu bat gertu, eta bi, euskera gaitu, batu eta osatu.

LETURIAREN ERREFERENTZIA NAGUSIAK

Alde-aldiak Orixek esango zukeen bezala, espazioa eta denborak garbi daude adieraziak eleberrian. Donostia eta Parise baitira hiriak, Galiziako urruntasunetik begiztatu, oroitu, ausnartu eta paperean errekreatuak.

Donostiako eta inguruetako toponimoak aldatuxeak dauden arren, eta hemen batipat zenbait hitz asmatuaren aukeran eufemismoak baduela eraginik ene ustez. *Zerubide, Altzurain, Izeta, Bolueta, Ibaeta, Ondarreta...* Donostia ingurukoak, eta *Buttes Chaumont, Saint-Germain des Près, Chaillot-jauregia, Sacré Coeur...* Parisekoak.

Bada data bat bukaera aldera ageri zaiguna, 1956ko abuztuaren 30-a eta lau urteoroak banatzen dute obra: Udalen (23 atal), Uda (atal bat), Udazkena (15 atal) eta Neguak (17 atal).

Pertsonaia nagusiak bi gazte, Joxeba eta Miren. Maitemindu, ezkondu eta gazterik hiltzen direnak. Baina *leit-motiv* nagusia batipat narratzailearen barne gogoetak dira, maitasunari, bizitzari, erlijioari, eta heriotzari buruzko gogoetak.

Pintura erreferentziak: bere anaia Juan Marik (11) irudikatuez gain, Gauguin.

(9) Patri Urkizu, *Etsipenez. Jon Chahoren memoriozunak*. Elkar, Donostia, 1984, 110-111.

(10) Jose Luis Alvarez, «Karta Idigia», *Euskera* 1956, 245-250.

(11) Juan Maria Alvarez Emparanza, donostiarr pintore eta pintura komentariogilea da. Honen marrazkitxuri-beltzek ongi irudikatzen dute Leturiaren kanpo eta barne-paisaiak.

Musika erreferentziak: Ezkongaietean zerbait ba nintzan, ezkondu-eta... (Herrikoia), Debussy-ren *Les Jardins sous la pluie*.

Zine aipamenak: *Three Coins (12)*, *Marty (13)*.

Liburu eta idazle aipamenak dira ugarietak kontutan harturik protagonistak, lehen partean dioskun bezala, *Jo-ta kea- eman natzaio irakurtzeari*. Hala bada, hor daude: Gerard Bahr UDALEN-ean; Kafka eta Amiel UDA-n; Shakespeare, Ortega, Gide, Freud, eta Homero UDAZKENA partean; eta azkenik, Paul Valery, Unamuno, San Agustín, Axel Munthe eta Lizardi.

Hona adibide bat: «*Amona mantangorri, gorri, gorri, gorri...*», *Ume guzien xomorro maitatua. Gerard Bahr'ek dion bezela euskaldunen pizti sagartua izan zelako?* (65.or.).

Gerard Bähr (Legazpi 1900-1945) Gipuzkoan jaioa eta Alemanian errusiarren kontrako gerlan hila dugu. Guraso alemanak izan arren euskaraz ikasi zuen, eta hizkuntzalari gisa *Euskera* (1931, 34) eta *RIEV*-en idatzi zuen ahaidetasun hitzez, mitologiak, eta euskararen etorkiaz. Haren tesia *Baskisch und Iberish* (Euzko Jakintza, 1948) aski interesgarria da, bi hizkuntzetako deklinabideak erkatzen dituelarik. Tamalez ez dut uste alemanetik euskaratu denik oraindik.

EGUNKARIAK NOBELA MOTA GISARA

Baina ez zen soilik euskal gaiez arduratzen Txillardegia, ikus dezakegunez, hor ageri baitzaizkigu **Henri Frédéric Amiel** (Genève 1821-1881), zeinek 34 urtez eta hamasei mila orrialdetik gorako *Journal intime* delakoa idatzi zuen, Roland Purnalen arabera ospetsuegia. Eta Paul Borget-en hitzetan «S'appliquer à se connaître sans autre but que se connaître, voilà le problème qu'Amiel s'imposait à lui-même avant sa trentième année (14)». Hona bere hogeita hamar urtekin Amielek bere buruari ezarritako lana eta helburua, bera ahalik eta sakonen saiatzen ahalegitzea.

* * *

Eta **Frantz Kafka** (Praga 1883-Kierling 1924), XX. mendeko idazlerik funtsezkoenetarikoa. Pragako eskolakoa (Rilke, Werfel, Brod eta besterekin batera) jaidura metafisiko handia zeukaten denek, baina baita ere munduko

(12) *Three Coins in the Fountain* (La Fontaine des amours) «Amodioen urmaela», Jean Negulescoren filma da (1954), non hiru amerikarren abenturak oporretan Erroman kontaktzen diren, aktoreak Clifton Webb, Dorothy MacGuire eta Jean Peters direlarik, besteak beste.

(13) *Marty* Delbert Mann-en filmak (1955) Ernest Borgnine eta Betsy Blaire-kin lau oskar irabazi zituen, hala nola 1955eko Canneseko Urrezko Palma.

(14) Laffont-Bompiani, *Dictionnaire des auteurs*. R. Laffont, T. I, 5. ed. 1989, 73.

alde errealisten ardura, eta honi darraikan musika, hots, ametsa, irkaitza eta arrazoimen argitsu baten sintesia. *Itxuraldaketa* (1915), *Prozesua* (1925), *Gaztelua* (1926), eta *Amerika* (1927) dira bere eleberrri ospetsuenak, baina 1910.ean hasi zuen heriotzeraino jarraituko zuen bere *Barne Egunkaria* delakoa.

* * *

André Gide (Paris, 1869-1951) nortasun eta eragina handiko idazlea du. Haren *Les Nourritures terrestres* (1897) eta *L'Immoraliste* (1902) beste obra askoren artean azpimarragarriak dira. Lehenean gazte baten irrikak, pasioak eta haragizko mundu baten gozamenen bila dabilen gazte bat aurkezten digu, non familia, gizarte, erlijio eta berekiko morrontza guztiak hautsi eta apurtzea proposatzen duen, zeren askatasuna ez da mementoan baizik bizitzen eta une oro jaiotzen ari den izakiaren baitan. Bigarrenean ospatzen du ere plazeraren atsegina, koloreen, usainen eta polliki-polliki berraurkituriko gorputzaren mundua. Bere *Journal*-ak (1889-1939), (1942-1949) xit interesgarriak dira, Ni benetazkoaren bilaketa pasioz beteak aurkezten baitigute.

* * *

Axel Munthe (1857-1949), suediar etorkikoa, Oskarshamn-ekoa hain zuzen, Anacaprin kokatu zuen eta eraiki bere egoitza, eta honen gora beherak *Le Livre de San Michele-n* (1929) kontatu zituen. Liburu autobiografiko honek arrakasta handia ukan zuen. Bertan ageri da mediku humanista moduan eraman zuen bizimodua, azkenean Suediar estatuari oparitu zion bere etxea. Idazle bizi-bizia, eskandinabiaren naturalismoaz joa, badirudi ez zitzaiola Txillardegi hainbeste laket izan.

Baina baita ere ezin ahanztzikoa dira **San Agustinen Aitorkizunak** Orixek itzuliak eta beste garaiko liburuak bezalaxe Itxaropena-n argitaratuak (1956). Leturiak honakoxea dio bukaeraldean:

Agustin Deunarekin esango dut: «Zeuk esnatzen duzu (gizona) Zu goratuz gozaro dedin; zeren Zeuretzat egin ginduzun, eta urduri dabilke gure biotza Zugan atsedean arte» (123-124. orr.)

Orixek itzulpen honetan eta bestetan euskarari ezarri doinua eta trinkotasuna (trinkoegia bere ustez erraz eta irakurgarri izateko) goraiatzan eta kritikatzan du Mitxelena (15), eta garbi dago horren atzematen ere saiatzen dela Txillardegi.

* * *

Aipatzen ez den arren kontutan eduki behar **Georges Bernanos** (Paris 1888- Neully-sur-Seine 1948), une batez Ziburun bizi izan zena eta euskal-

(15) Koldo Mitxelena, «Agustin Gurenaren Aitorkizunak», EGAN, 1956-5-6, 142.

dunen adiskidea, katoliko kritikoa, zeinek idatzi zuen *Le Journal d'un Curé de Campagne*(1936). Arrazako idazlea benetan indartsua. Edota **Jean Cocteau** (Maisons-Lafitte 1889- Milly-la-Forêt 1963) poeta eta antzerkigile handiaren *Journal d'un inconnu* (1952), zeinetan ikus daitekeen bere benetazko nortasuna.

Jakina denez, *egunkaria*, kontsidera daiteke literatur kritikaren ikuspegi-tik (16), poetika kasu berezia gisa, anbigua bere literaturtasunean, deitura berearekin hasita, zeren adibidez frantsesez izen guztiz ezberdinak har ditzake: *journal, carnets, cahiers, feuillets, notes, réflexions*, eta beste. Blanchot-ek berak (17) dioskunez, egunkariak beste NI bat sortzen du, ni inpersonala neurri batean biziartzat duelarik distantziak sortuz egile eta protagonista artean.

LETURIAREN HARRERA

Benetan ez da erraza jakitea ongi edo asmatzea zein izango den liburu baten harrera edo arrakasta. Baina garai hartan garbi dago animatzaile lanak burutzen zituen Koldo Mitxelena irakasleak ahalegin handia egin zuela nobelaren edizioa txukun irten zedin.

* * *

Has gaitezen bada **Koldo Mitxelenarekin** bere bizitzaz eta idazlanez zertxobait mintzatuz.

Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984) lanean (18) argi gelditzen den bezala, literatur albiste iturri ezin hobegoak dira gutunak jakiteko zehazki garai bateko idazleen arteko harremanak, korapilo eta istiluak, zeren bertan aurki ditzakegu egileen iritzi zuzena inolako mugarri edo zentsurarik gabe. Gutun hauen bitartez ikusten dugu Koldoren ohizko hizkuntzalari, gramatikari, hiztegi-gile, literatur kritikari, zine-komentariogile -, irudiaz aparte, ezagutarazi ez den alde ia ezkutua, hau da, benetazko irakasleari dagokiona. Batez ere, zuzendari, eragile eta bultzatzaile, animo eta ideia emailearena.

Mende honetako erditsutan sortu eta oraindik gaur egun bizirik dirauen *EGAN* literatur aldizkari bizitzan sakontzeko okasio aparta dugu, bertako idazkari nagusi izan baitzen, eta besteen artean egiteko honen bitartez gerra-

(16) Dominique Kunz Westerhoff, *Méthodes et problèmes. Le journal intime*. Université de Genève, 2005.

(17) Maurice Blanchot (Quain 1907- Yvelines 2003), kazetari izana, saiogile eta eleberrigilea. Hona beste askoren artean bere zenbait libururen tituluak: *Journal des débats* (1933), *L'espace littéraire* (1955), *Le livre à venir* (1959), *L'Amitié* (1971)... Literaturaren indar iraultzailea errebindikatzen du.

(18) Patri Urkizu, *Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984)*. Bilduma 18. Erreterria, 7-223.

ondoko garai, alde guztietatik zail eta pobre ziren haietan euskara eta euskal literaturaren hesparruan agertzen zihoazen lan guztien, edo gehienen, berri zehatza emango baitigu Mitxelenak.

Linguistikako lanak, hiztegiak, antzerkiak, poesia-antologiak, goi mailako poeta eta narratzaileen itzulpenak, ipuinak, filmeak izango ditu aipagai, laudorio eta kritika solasgai. Inolako arazorik ez eta aurreiritzirik gabe bere iruzkin jakintsu eta justuak isuritzen joango da jario benetan aberats, eder, esanguratsu eta beti baliagarrian.

Eta ezin ahantzi ditugu hemen gainera 1957ko Erramu igandez *Leturiaren egunkari ezkutua*-ri ezarritako «Sarrera-itz batzu» haiek, taxuzkoak eta zentzuzkoak, zein honela bukatzen diren: *Egiak, aspaldi irakatsi ziguten, latza eta garratza izanagatik, osasunbidean jarri gaitzake.*

* * *

Jon Miranderen gutunak (1948-1971) (19) aurkezterakoan honako aipamenarekin hasten nintzen:

Noizko Miranderen lan osoak?... Zergatik editorial batek Miranderen lanak denak ez badira ere, bai gutienez hoberenak- bildu eta liburu bat edo bitan argitaratzeko kargua ez du hartzen?

Honelaxe mintzo zen Armendaritz *Anaitasuna* aldizkarian (1973-11-28) eta honen hitzek kilikaturik edo, saiatu ziren geroztik zenbait ikerle Miranderen obra plazaratzen. Hala Txomin Peillen, haren adiskide handiak, *Idazlan Hautatuak* aurkeztu zizkigun (1976), geroxeago Txema Larreak *Poemak eta Lan Kritikoak* (1984-85), Xabier Olarrak *Ene Jainko-eidol...* ere edizio pollit batean (1984), eta neronek *Ipuin izugarriak. Gauaz parke batean* (1984) prestatu eta argitaratu genituen.

Dena den, uste dut aski (?) direla ezagutzeko sakonxeago gure idazlea, ze hamaika adiskide hauexei zuzendu zitzairen: Jean Lousteau, Txomin Peillen, Robert Peillen, Andima Ibiñagabeitia, Jokin Zaitegi, Norbert Tauer, Alfontso Irigoien, Koldo Mitxelena, Jon Etxaide, Andolin Eguzkitza eta Xabier Kintana Gehienak, eta batik bat Berrogeita Hamarreko hamarteko lehen urtekoak irakasle ez ezik, adiskide kuttun-kuttuna izan zuen Andimari.

Politika, Filosofia, Erljioa, Euskal Kultura, Euskal Literatura eta Euskara beste zenbait gaiekin batera –bidaia, lan arazoak, familia gora-beherak, sexo harremanak...– ziren eskutitzgai, eta ohartu gaitezke gutun benetan hungigarri haien bitartez zenbaitek eman diguten irudia ez zela hain zuzena, eta ez daitekeela inolaz ere idazle handi honen sakona eta aberatsa klitxe hertsia eta errezegiekin erdietsi. Faszista, paganoa, igarle desterratua, kristautasunaren lehenengo kritikoa, euskaraz indargintza predikatu duen lehena... ezen

(19) Patri Urkizu, *Jon Miranderen Gutunak (1948-1972)*. Susa, Zarautz, 1995.

Lousteau-ri esaten badio *Ni ere kristotarra naiz -bai eta demokrata ere. Baina izena baino nahiago dut izana (erraiten ohi den bezala)* (1948), Zaitegiri beste honakoa idatziko dio: *Bainan, zer nahi duzu, ez naiz khristarra ez izpirituz ez bihotzez, eta ezin idatz dezaket khristar araura* (1954). Hots, garbi dago bilakaera erlijioso hori epe horretan eman dela. Eta Ibiñagabeitiari hitz hauekin zuzentzen bazaio:

damu dut, ez bai'naiz Judua jaio; oriek beintzat gai izan dira beren Endarentzat gudukatzeko. Bear genuke, laster, «terrorist» igikun bat eraldu -galiztar katalandar, breiztar, flamendar, frystar eta beste minoritatekin batean- eta aundi-maundi zenbait garbitu, laterri aundi guzietan (1951).

Dena den 1953an hiru idazlan funtsezko idatzi zituen. Bata, argitaratzear zeukan poema bildumaren sarrera (20), non poema panteistak idazteagatik egiten zizkioten erasoetatik defenditzen zen, esanez, ez zituela poemak idazten inoren ongi-nahi moralagatik, baizik eta bere gozamenerako soilik, eta *for the happy few*. Bigarrena Pariseko Euzkadi irratirako Ibiñagabeitiak egin zion elkarrizketa (21), non bere idazle maitatuak goraiatzen eta gorrotatuak aipatzen zituen, eta nola euskal alorreko lur berrietan lehena aitzinatu zen, hots, masturbazioa, paidofilia, lesbianismoa... Eta hirugarrena eskandala harria izan zena, «Liburu Lizunetaz» (22), non euskaldun-fededun binomioa kritikatzan duen, kontsideratzen baitu garaiko euskaltzale eta abertzaleen artean aurki zitezkeela, hala panteistak nola neopaganoak, mahometanoak edo ateoak, baitaioak ez baitzuen deus ikustekorik euskalzaletasunarekin.

Urte gutxi batzuek geroago, indarkeriaren erabileraz iritzia guztiz aldatu-rik, Zaitegiri beste honako hau izkiribatuko dio:

ergelkeria izan da Euskaldunei indarraren Berri Hona aldarrikatzea, Eliza Amaren aurkha joatea seme desleial antzo, gure herritar bihotz samurrekoak Germaniako basatien bizi-kontzeptuetara eraman nahi izatea. Ergelkeria hoi- nek behkatuak damutzen nauxit *-mea maxima culpa-* eta ez dut gehiago egin nahi (1956).

Noski, ez dira xehetasunak falta, batez ere, Ibiñagabeitia eta Zaitegiri eskeinutako gutunetan, eta argi ikus dezakegu Nietzscheren jarraitzaile sutsua den Mirandek pentsakera sakon eta filosofia orokor bat bazeukala, ongi frogatu duenez Joxe Azurmendik aztertzean (1989) jatorrizko hizkuntzan irakurtzen zituen Weimarren hildako filosofo alemanarekin batera Schopenhauerren eta Spenglerren eraginak.

Mortuan oihuz dagienaren mintzoa izan da nerea, dio gutun batean Mirandek mingotstasun garratzez eta etsipen doinu- z, baina, halere ez zaio irkai- ztik, umorerik faltako, agurtzen ditue- nean adiskideak edota zenbait erakunde-

(20) Jon Mirande, *Ene jaindo- eidol zaharra, Lur!*. Xabier Olarraren edizioa, Elkar, Donostia 1984, 15-16.

(21) Andima Ibiñagabeitia, «Olerkarienean», *Gernika*, Paris 1953, n° 23, 98-102.

(22) Jon Mirande, «Liburu lizunetaz», *Euzko-deya*. Paris 1953, n° 355.

taz mintzo zaigunean: *Agur eta iru laurden, Gora Zuberoa Hazkatuta!... Euskal Urdezkaritzaz, Erreputablikaz, edo Etsai-minetaz... Peillenekin batera sortu Igela Euskaldun heterodoxoen errebista* dugu adierazgarri, zein *Harakiri* frantses aldizkaria eredutzat hartu eta hasieran *Katastrophe* bezala bataiatzekotan izan ziren. Hemen Erasmo, Jany, Wilde, Curros Enríquez hartu zituzten idazle eredugarri gisara.

Hona Andima adiskide kutunari Leturia irakurri ondore idatzi ziona:

Ibiñagabeitia'tar Andima'ri

1958-I-7

Adiskide maitea,

[...]Leturia'ren egunkari ezkutua irakurri dut nik ere eta asko gustatu zait. Gauza berria dugu or. Txillardegik eskeinia. Ala ere, ez dut gogo oso onez oarteman egilleak Frantziako kultura'ren aurrean darakusan begirune andiegia B. Nafarrokoek dioten legez kampoan lili, etxean lore ta frantzes etxe ontan bizi ba litz Txillardegi, ez luke bear bada ainbat miretsiko.

Aspaldi ontan ez dut ezer ere idatzi euskeraz (ez eta erderaz ere...) . Ez dut geiago idazteko gogorik ez erretasunik; eta, gaiztoago dena, biziak ez du areago gozorik enetzat; damu dut artu dudan bideaz, bañan orain beranduegi da beste bat artzeko... fiat voluntas Deorum!

Uzten zaitut, adiskide maite ori, gu iruren goraintzirik onenak zuri igorritz.

Agur biotzeko bat zure

J. Mirande' rengandik (23).

Garbi dago hemen, bada, garai hartan Txillardegik edo Leturia pertsonaiak pairatzen zuen frantses munduarekiko lilura salatzen duela.

* * *

Luis Villasanteren omenez. Laudatio (24) delakoa egin nuenean honakoa xea nioen beste zenbait gauzaren artean Villasanteren bizitzaz eta obraz.

Gernikako Erretereria auzokoa dugu jaiotzez Luis Villasante Kortabitarte, 1920ko martxoaren 22an sortua. Tikitan Juan Ansotegi errenaren eskolan ibilia omen, adimen azkar eta bizkorra izaki nonbait, eta hor ikusten dugu Arantzazuko Frantziskotarrengana igoa istudioak jarraituzera eramana. Lati-noak burutu, eta nobiziaduan sartu berria zegoelarik, zoritxarreko gerra mada-rikatua piztu zen eta sorterrira itzuli beharrean aurkitu zen, eta bertan Gaileta fabrikari ofizina lanetan hasi.

(23) Patri Urkizu, aip. lib., 137.

(24) Patri Urkizu, «Luis Villasanteren omenez. Laudatio» RIEV. 42, 2, Donostia 1997, 471-498.

Jaioterriko bonbardeok eta suntsiketak hantxe aurkitu zuen eta deus gabe gelditu zelarik, beste gernikar asko lez, Zarautzko komentura itzuli zitzaigun. Hemen soldadutza egiteko deia errezibitu zuen, eta Burgosera jo beharrean aurkitu zen, eta frentera joatetik bere jakituriak libratu, alegia, makinaz jotzen, eskribitzen jakiteak.

Gerra zibila bukatu eta berriro Arantzazura, goi mendi tarteko kabi, atsedean tegi eta otoitz-lekura. Hemendik Nafarroako erribera alderantz, hots, Olitera filosofia ikastera, bertan euskera irakasle Jose Benito Mendia izango zuelarik. Amaitutakoan Nafarroako lur eta eremu lehorretarik berriro Arantzazuko harkaitz hodeitsu eta hezeen artera, eta bertatik Comillaseko seminariora, Teologia Dogmatikoa ikastera.

Ez zen Kantabriako partean kokaturik zegoen (ez kantarenean, noski) goi-ikastetxe hau nolanhiko lekua, Fundatzaileen helburuek hala nahi zutelarik,

sería un Colegio apostólico de donde salieren sacerdotes tan exquisitamente formados que con su cultura y santidad honrasen a la Iglesia Católica y desautorizasen las calumnias del anticlericalismo liberal.

Hau da, modernismoaren dotrina liberalek Eliza Katolikoaren kontra sortzen zituzten gezurren aitzinean egia eta bizi eredugarria eraikiko zuen apaiztegia.

Bitxia da ikustea, gainera, nola ikastetxe honetatik iraganak diren XX. mendeko euskal literaturaren gailurrean koka ditzakegun idazleak, argi bereziko izar ditzizariak: Nikolas Ormaetxea «Orixe», Jose Aristimuño «Aitzol», faxistek gerran fusilatua, eta Nemesio Etxaniz. Halere, gerraondoko euskarakerikiko giro hotz eta arrotz hartan ez zen gutxi suzia itzali barik mantentzea.

Han, 1945eko abuztuaren 15ean Meza Berria ospatu zuen, eta 1947an Arantzazura igoko da berriz, jada 50 urtetan hemendik ez mugitzeko, ez bada erlijioa eta euskararen aginduz eta obedienciaz apal-apal bere egitekoak burutzen ahalegintzeko. Mende erdi honetan gizon nekaezina izan dugu Villasante eta hor dugu froga gisa, haren emaitza oparo eta ezin ederragoa batipat idazkintzan, Zazpiehun eta berrogeita lau lan xehekiro, eta arreta handiz aipatu eta eman dizkigu Arana Martijak. Ziur naiz, ordea, bibliografia honi, 92an argitaratua izanenez, erantsi beharko zaizkiola oraindik azken urteotan plazaraturiko hainbat lan sakon eta mardul.

Aranzazu, Gernika, Euzko Gogoa, Verdad y Vida, Cantabria Franciscana, Scriptorium Victoriense, Boletín de la Real Sociedad de Amigos del País, Anuario del Seminario Filología Julio de Urquijo, Fontes Linguae Vasconum, Euskera, Anaitasuna, EGAN, Gure Herria, Jakin, La Gran Enciclopedia Vasca, Gran Enciclopedia de Navarra,... errebista eta bilduma hauetantxe erraz topo egin dezake irakurle saiatuak Villasanteren izkribuekin eta dasta gozamen handiz.

Bi gai ditu nagusi: Erlijioa eta Euskera. Eta hauen inguruan arituko zaigu beti.

Lan erlijiosoak, beti bere ohizko eta benetazko apaltasunez aitortzen digunez, iheskor eta mementoko gora-beheren gainetik kokatzen direnak, dibulgazio mailakoak, baina serioski eginak, halere. Ez gara nor, beraz, gizonaren barne-muinetan egin hautapenez mintzatzeko, eta euskal alorrean Villasantek jorraturiko lanak izango ditugu bereziki aipagai, eta horiei eskainiko dizkiegu hurrengo hitzok.

Villasante berak Bizkaiko Foru Diputazioak egin zion omenaldian honakoa diosku euskararen munduan sarrazi zioten adiskide eta gertaerez:

gizonaren bizitzan gertatzen dira norberak gutxien usteko lituzkeen bezalako bideak hartzea. Garai batean nork esango zidan niri hartu ditudan egitekoak nire gain hartu behar nituela? Neronek ere ez dakit zuzen esaten zergatik hala izan den, baina iruditzen zait bizitzako gora-beherek, gure inguruan ikusitako gertaerak eta gerrek izan dutela honetan parte eztxikia. Eta norberaren bizitzan zehar eza-gututako adiskideak: etab. Salvatore Mitxelena fraidea, eta geroago beste Mitxelena (Luis), eta nola ez aipa, Federico Krutwig jauna, zeini zor diodan Euskaltzaindian egotea...

Eta zerk eragin zidan euskal alor hau lantzerantz? Gerra eta gerra ondoko giroaz euskal landarea galtzeko arriskuan ikusten nuen, eta pentsatu nuen - ez nik bakarrik, beste batzuekin batean baizik- lagundu behar niola, Eta komentu barruan aurkitu nuen lan horretan aritzeko behar zen giroa eta bai bide batzuk ere. Guzti horiekin zordun naiz, bada. Eta denei eskerrak eman beharrean naiz. [1995:471]

Baina, geu gara, Euskal gizarte osoa benetan zorretan dena, eta eskerrak bihotz-bihotzetik eman behar dizkiona Villasanteri. 1951ren irailaren 25 ean izendatu zuten euskaltzain oso Julio de Urquijoren aulkia betetzeko. Ez zuen, ordea, hori nola nahi egin, 1952an BRSVAPen eman zigan euskarari buruzko lehen lan sakona, «Literatur-euskera, laphurtarr klassikoaren gain eratua» (25), 70 orri ingurukoa, honela aurkezten zuena Aingeru Irigayek: *Un placer al apreciar, la belleza y la hondura del trabajo del erudito franciscano*. Eta ez da gutxiagorako, egun traide frantziskotarraren lan sakon hura, hango hizkuntzalaritzako gogoetak eta euskara idatziarentzat egindako proposamenak ortografia, morfologia, sintaxia eta hiztegi mailan berrirakurtzerakoan harri eta zur gelditzen gara ohartuz, hein eta neurri handi batean geroago euskara batuak hartu bideak hantxe marraztuak daudela.

Hona laburtuz dioena Txillardegiren eleberriaz Luis Villasantek *EGAN*en egin erreseinan:

[...] Lengoan biaje bat egin bear izan nuen. Ba-nekian alde z aurretik estazio batean itxaron-aldi luzea izango nuela, eta nolabait denpora pasatzeagatik liburu ori zorroan sartu eta abiatu nintzan. Bai gogoz irentsi ta zurrupatu ere! Arriturik

(25) BRSVAP, 1952:87-119;259-298.

gelditu nintzan oso! Arrazoi du Mitxelena jaunak, itzaurrean dionaz, alegia: «eztugula sekula Leturia-rena bezalako ibillaldirik egin gogo-bideetan barrena». Analisi psikologikoan batez ere barne-barnera daki zulatzen eta gogo-arazoak eta kezak tajuz adierazten. Ba-degu bistan idazle garai bat, euskal alorra agitz joritu dezakena.

Leturia gaixoak egunkari bat idatzi oi du eta bertan utzi digu tinkatua bere bizitzaren ritmua. [...] Existenzialisten eskolak moda ori jarri digu: giza-bizitzaren tajugabe salatzea.

[...] Izan ere, existenzialista ateoek zergatik jotzen dute giza-bizitza tajugabekotzat? Bizitza ori bear diren begiekin ikusten eztakitelako. Bizi onetatik lekora beste bizi bat siñesten ezdutelako. Leturiak duen itzali eziñezko egarri ori, absolutuaren bear ori, ez al da probarik ederrena eriotzaz bestaldekoak ba-direla egiztatzeko? Alde onetatik begiratuta, Apologetikarik ederrena liteke liburu au.

[...] Eta gure kideko errukarriak Agnostizismuaz bazka ditezen artean ezta batere arritzeko Leturia bezalako eroak ugaritzen badira.

[...] Existenzialistek kezka, urduritasuna ta ezin-egona goraiatzen digute, aurreraparen eragille bezala. Ortan ez nuke esango arrazoi pixka bat ezdutenik.

[...] Eta Mistika alorrean garbi ikusten danez illunaldiak, atsekabezko garaiak, barne-oiñaze-orduak dira beti eragikorrenak. Lozorroan datzanak krisis bat bear, akuillu bat, esnatzeko eta aurrera abiatzeko.

[...] Baiña zorionez geinek jakiten dute orrenbeste. Orregatik diot Leturiak adierazten digun giza-bizitzaren beltza eztagokiola gauzen egiari.

[...] Labur, ba-dakigu Negu orren ostean ba-dela Udalen berria, bein ere zimeltzerik eta igartzerik izango eztuen Udalena (26).

Zein tonu ezberdina, noski, konparatzen badugu *Peru Leartza'ko* elebriariaz Orixek (27) eginiko kritikaren hasierarekin: *Barrenak ez dit agintzen ixillik egotea, liburu onek gaurko gazte-jendearen artean egin dezaken kalte-arengatik. Leartza, liburu ontako giza-nagusia, europear biurtu zaigu, izurri gaizto batean, behintzat. Ez dugu emen olakorik bear.*

Biak ziren katolikoak, noski, bat jesuitarik bidalia eta bestea frantziskotar apala. Hots, bada bien artean *talante*, orain hainbeste izendatzen duten hori, jenio eta jaidura ezberdintasunik. Baina bada ere frantziskotarren artean usain eta iritzi sakon eta azaleko alderantzizkoak dutenak. Hala, hona *JAKIN*en gutunzale zen Iñaki Bastarririk (28) agertu zuen iritzia eta idatzi ziona:

(26) Luis Villasante, «Leturiaren Egunkari Ezkutua», *EGAN* 1957, 328-332.

(27) Nikolas Ormaetxea «Orixek», *Peru Leartza'ko* (Txillardegia) *Yakin* 1960, 5-6. Paulo Iztueta (ed.), «Peru Leartza'ko (Txillardegia)», *Orixek, Artikulu eta saiakerak*. Etor, Donostia 1991, T.III, 449.

(28) Iñaki Bastarririk «Txillardegia jaunari», *JAKIN* 1957, 5, 99-102. Ez dugu gutungile honen argibide askorik aurkitu, soilik itzultzaile bezala, Lamberto Echeverria, *Bat, sei, amar edo zenbat seme?* Madrid, PPC, 1957.

«TXILLARDEGI» Jaunari.-

Euskaltzale bizkor:

Ongi etorria euskal-alorretara! Ba-ditekek apika geu baiño ere aspalditxo-koagoa izatea, baiño bolaratxo ontan zabaldu duk emen ire berri. Gogoz irakurriak dizkagu ire idazlantxoak eta irentsia ire «Leturia-ren Egunkari Ezkutua». Bejondaikela: zorionez, gazte asmotsu baten zantzu nabarmena igarri dikagu ire lerroetan barna, buru argi baten erraiñuak: Ba-zikan gure euskerak ire gisako gazte egikor batea premi!

«Leturia-ren egunkari ezkutua»ri buruz zer esan? Iruzkin luzetxo bat-edo egiteko asmotan nengokan, baiño nere iritzia –edonor batena– labur-labur adieraztea otu zaidak. Ba-zekikat Aita Villasante'k iruzkin sakon bat egina dikala «EGAN» aldizkarian azaltzekoa; baita gure Gandiaga olerkariak olerkitxoren bat eskeiñia. Egoki zerizkiokat . Ez duk nolanaikoa erditu dukan eleberri ori. «Idazkererari iara geiegi egin gabe, bere almenak gai-arian biltzen dituan idazle bat bazetorkiguk noizpait», zesaidakekan batek arestian. Etzaiok arrazoirik palta ere.

Entzuna nikan aspalditxotik idazle gazte batek «esistenzialista kutsuzko» eleberri bat argitara emanik zedukala. Irakurmin nengokan. Artu ta irakurri nikan. Iritzia eskatu zidatekan amaitu orduko. Zer eritzi jakin ez-ta geratu nindukan. Beste oei alako goraiipamenak entzunda oker nengokelako; geratu nindukan. Dana dala egiari zor gatzaiñkiok eta itz-bitan adieraziko dikat nere irizpidea. Egia esan, naste-borraste bat-edo otu zitzaidakekan. Aria ondo eramana. Baiño arrunta xamarra... nere gardiz. Astuntxoegi ere ez ote duk? Maiz orrialdeak saillean pasatzeko gogoak ere ematen zidakekan. Irakurtzale porrokatu nauk izatez, batez ere elerti-filosofi gaietan. Ez dikat, bada, uste oitura-ezatik ditekemanik...

Gaiñera, nere ustez beintzat, gai oek ekarrikoak baiño areago izan bear ditek etorrikoak. Ekarrria ez duk erreza, ongi ekartzen beintzat; etortasuna duk zailenik eta bearrenik, eta onetxen palta zekuskat nik ire idazti ontan. Etortasuneza onek, indarka edo asma-egiñaletan bezela egiña zegokala zirudik. Alako zerbait iruditzen zitzaidakekan aurreneko atalean batez ere, «Udalen» delakoan, alegia. Onetzaz gaiñera, maitasuna, ezkontza, libertadea, aukerapena, ta bitan-edo azaltzen dukan Jainko orren irudi margul ori... Moral aldetik bakarrik ez, «Etika natural» aldetik ere etzekikat nola epaitu leizken... Dostoievski baten eleberrietan ireak baiño intziri etsituagoak arkitzen dituk orrialde bakoitzean, baiño egoki ta bere puntuan otutzen zaiok edonori. Naiz-ta bapatean Jainko ta gizaki guzien aurka biurtu, beti egoki. Etortasun, egitasun onen palta edo egokitasuna somatzen dikat ire ortan...

Nortasun egin baten pentsaera umotua baiño, esistenzialista joerako nobelari asko irakurritako baten saiok iruditu zaiñkidak ire bururapenak. Ez dikat onekin liburu au ire seme ez denik. Idaroki nai, filosofo-elergille oen kutsapena igan nabarmen somatzen dala baiñik, «eragilleena» baitipat.

Enikek onekin ire asmo ta almenik deuseztu nai. Elbarritu baiño bizkortu. Nor arrituren duk ba, asi-berri batek bere aurreneko jardupena erdipurditan sortzea? Ekiok irmo bide oetatik. Bazegok gure errian bertan ikutugabeko naiko elebarri-gai ederrrik asko. Nork bilduko ta eleberrituko zizkiguk? Murgil adi gure erriaren barne-arazoetan. Ez dituk nolanaikoak. Buru-argitasuna, biotz-unkitasuna

na, maitasun-garra, kultur-iakintza sakona, zer geiago erri baten problematika ulertzeko? Gure euskera orr-errian sartuko baduk ere, bearrezko zaiguk bide oek ere urratzea noizpait.... Onetaz besterik ez oraingoz.

Beste arlotxo bat ere ba-nikan irekin jardutekoa.

Barkatu zak nere ausardia. Enatorkik erasotzeko asmoz, adiskide antzean neure iritzia azaltzekotan baiño.

Irakurria dit ik emen bildutako euskerazko batzarraldi artan bidali ukan gutun idekia. Baita arestian Aita Villasante'ri idatzitakoa ere. Ire «Taupadak» ere bai. Mirestekoa duk benetan ire asmotasun sutsu ori. Aolkutxo bat idarokitzea zillegi al zaidak?...

Egia esan, alperrikako zerizkidak eta ez ain ongarri eureztat ere, gure aurrekoek geiegi arroturik duten euskera-joera kontu oietan naastea. Etenkigarririk baiño kalte geiago sortzen ditek gai oek; onetxek ere urruntzen dizkik gure aurrekoak elkarrengandik. Arrazoi aski badik gure Zaitegi jaunak Uztaila-Dague-nila'ko «Eusko-Gogoa» aldizkariko atarian onako au zia gokanean: «Beste erri-etan gerta danez, gazteok begirunez ta itzalez io oi dute garako gizonengana argi-eske ta laguntza-eske. Gurean zoritxarrez, ez da orrelakorik gertatu: maiz gazteok asaldata dira garako gizonen aurka: ortik gure alkar buru eziña. Zenbait gaztek uste dute berak agertu arte, ez dala euskeraz idatzi. Esate baterako 1.900-1937 arteko Azkue, Eguskitza, Lizardi, Olabide, Orixe ta abar bazterrean utzi nai lituzkete. Gazteok egokiera aundirik eztute izan, nonbait, idazle bikain oien lanak bear den egonarriz auznartzeko. Euskerarik eztute lorrindu idazleok, ez orixe. Nik enun uste idazleok ain biurri izan litezkeanik, alako izugarririk egin litzaketea-nik... Euskera orriloan eta gara betean utzi dutela esan badizute, orriloan eta gara betean dateke. Dana dala, gazteok garako idazleok lanak aztertu bearra lituzkete, egia danentz ikusteko».

Garako idazle ospetsu oen artean, apaltasunak izkutarazi duan Zaitegi bera ere aipatzekoa duk, noski. Jendea leporaño dagola uste dikat amaigabeko berri-eta oekin. Antziñako zaarrak aztertu bear dizkagula? Ondo zegok. Baiño gizaldi onen asieratik euskera bide okerretik abiarazi dutela? Utikan! Joan gizaldikoak, eta Axular bera ere ikusi nai nitek egungo gaietan barna! Itzalez ta begirunez ta mirespenez begira bear dizkagu gizaldi ontako idazle-sailla, eta oek batez ere. Oek, garako idazleak, urratu zizkigutek iakintza ta gizapide-landa guziak, ta onen bearra zikan baitipat gure euskerak. Lan gogor eta astunena oen bizkar zamatu duk doi-doi.

Euskera-arazoa joera batek edo bestek askatuko dulakoan al ago apika? Arkitu al duk joera ori? Arraio pola!, barreia zak lau aizetara! Etziguk, nere ustez korapillotxo au joera batek edo bestek askatuko, asko ta ugari idazteak baiño.

Joera-zaleak be-zeudek euskal-idazleen artean, baiño egia esan, guziek bide berdintsutik zijoaztek. Batak ezin duna besteak asmatzen baitik. Oar zak euskal aldizkarietan ere, ainbesteko desberdintasunik somatzen al duk? «Orixe» jaunak senez diagonez euskal-idazleok oraingoz bata besteen ikasle gaituk. Eta bestela ain gaizki bagoaz, argitara zabaldu zak beste joera-edo bear luken bide «ezkutu» ori.

Eztit esan nai onekin euskerak batere arazorik eztaukanik, oztopo-alderdi oek geiegi anpatu bear ez ditugula baiño. Euskaltzaleok, euskaldunok orobat, urri gaituk oso, eta pamilitxikien akats bereziak zeuzkagu. Bata besteenean naasi bear derrior. Zer genesaiokek. nekazari bat industri-teknikoen lanbidetan naastuko baukek? Ez al da berdin idazletxo tentel bat gizon erdi landu bat filoloji-gaietan naastea? Bai, euskera etxekoa izan-da...

Amaitzera noakik, adiskide. Bestela neroni naastuko nauk ez dagokidan arloan. Ondo esanak onartu, ta oker daudenak barkatu. Erantzun nai izan ezke-ro zabalik dauzkak YAKIN onen ateak.

Bastarrika'tar Iñaki.

Ez zen gelditu, noski, erantzunik gabe Bastarrika, eta hortxe dugu 1958ko otsailaren 26an sinaturiko Txillardegiren ihardespren luze, zehatz eta gogorra JAKINen (29).

* * *

Andima Ibinagabeitiaren gutunak, (1935-1967) (30) argitaratzean urrats bat gehiago gehiago eman nahi izan genuen gure memoriaren berreskuratzeko bidean.

Andimak hamar urte zituela, beraz, mutil koxkor bat besterik ez zenean, etxetik urrun Tuterara eraman zuten jesuitetan batxilerra buru zezan. Dirudie-nez erabaki honetan bere osaba Matia jesuitak zerbait ikustekorik izango zuen. Hemen *latinoak* egiten ari zelarik Orixek behin zer esan nahi zuen «Ibi»-k eta berak «allí» erantzun zionekoa ez omen zuen sekulan ahanzi. Nafarroako erriberatik Gipuzkoako bihotzera, Loiolara, hain zuzen, joan zen hamabost urte bete berriak zituelarik, eta bertan 1921etik 26ra igaroko. 1923an nobiziaduko botuak egin zituen, proba aski gogorrek iragan ondoren.

Hemen euskal giroa aurkitu zuen, zeren 1922az geroztik halakoxe euskal akademiako bat sortua zuten Zaitegi, Lauaxeta, Iñaki Goenaga, Plazido Mujika, Korta anaiek eta beste batzuek. Halaber Aita Estefania izan zuten literatur gidari bezala, eta betirako markatuak geldituko dira haren irakaskintzekin. Ibinagabeitiak idatzi lanetarik ezagutzen ditugun lehen lanak latinez idatziak dira, *Et Lux in tenebris*, *Pondus vitae* eta *Redditi impresos candenti sindone vultus* lehen bertsulerroa duen poema, Patxi Altunak agertu digunez (31). Lehena 1925ean Loiolan idatzia eta beste biak Oñan, 1927ko ekainean. Hemen dagoelarik (1927-29) hasiko da artikuluak bidaltzen Bilbon agertzen zen *Jesus'en Biotzaren Deya*-ra, non ezagutzen dugun bere euskarazko lehen artikulua agertu zen, «Pio XIgarrena ta eleiz-abestiak» titulupean (1930).

(29) «Txillardegi jaunaren erantzuna Iñaki Bastarrika'ko jaunari». JAKIN 1958, 85-93.

(30) Patri Urkizu, *Andima Ibinagabeitia, erbestetik barne-minez, gutunak (1935-1967)*. Susa, Zarautz, 2000.

(31) Patxi Altuna (ed.), *José María Estefanía Zabala. S.I. (1889-1942) «Maestro de vasos»*. Bilbao, Mensajero 1990, 114-115.

Oñan (1929-32) filosofia egindakoan hautatu beharrean aurkitu zen, edo Madridera soldaduska egitera joan edo Colombiara maisu gisa joan. Noski, ez zuen batere dudarik izan eta Ameriketara iragan zituen hiru urte Bogotan eta Bucaramangaran. Handik itzulitakoan Marneffe-ra (Belgika) bidali zuten Teologia eta Eskubide Kanonikoa ikastera. Hemendik ere jarraiki zion jesuiten aipatu errebistaren «Idazti berriak» erreseina sailerako artikulua bidaltzen (1934). Baina 1935eko pazkotan bere bizitza guztian adiskide kuttun izango zen Jokin Zaitegiri Konpainia uzteko erabakiaren berri –*Biotza dardaraz eta begiak iturri*– emango dio Marneffetik zuzendu gutun batean, alegia, apaizteko bezperetan zegoelarik habituak zintzilikatzea erabaki zuela. Lauaxetak bezala, euskara eta Euskadiren alde lan egitea hobetsi zuen, ikusten baitzuen Konpainia buruekiko obedientzia eta bere bihotzak agintzen ziona ezin uzartuak zirela.

Hemezortzi urte luze eta diziplina latzean jesuitekin bizi ondoren etxera itzuli zen, beraz, Deustura, ama han bizi baitzen, eta bizitzeko beharrez Portugal aldera jo zuen, eta hantxe Lisboa ondoko Trafarian zegoelarik, dinamita fabrika batean lanean, gerra zibilak harrapatu zuen, zeinek honako sentimendua ernaraziko zion: *Poz biderik ez dut, nereen berririk bazeretz. Emengo izparkarietan berri zenbait irakur izan ditut baina berriok naigabea areagotzen didate* (1936-XI-10).

Gerrak, noski, ez zuen gauza onik inora ekarri. Aberriak eta euskerak kezkatzen zuten batik-bat Andima, bere biziak baino areago, eta lekuz aldatzea pentsatzen du, Zaitegiri beste gutun batean argitzen dioenez, ... *ez ote zenuke beste lurralde batean aire bigun eta atseginagoak artzeko tokirik? [...] patxisten amorrua erbesteraino eltzen baita* (1939-III-16).

Bukatzen denean gerra, Deustura, amarengana itzuliko da, baina ez da eskuak geldirik edukitzeko jaioa, eta Erbestean dagoen Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu eta agindupean ezarten du bere burua, eta Pepe Mitxelenaren agindupean, Anton Zugadirekin batera Aliaduentzat informazio lanak egiten saiatu zen. Garai honetako albiste oso gutxi dugu. Noizean behin Madrid edo Barzelona aldera joaten omen zen espioitza lanek hala eskaturik.

Euskara, ordea, ez zuen ahantzirik, beraxek urte anitz beranduago «Aurkastolak» artikuluan, gogoratuko duen bezala:

Gudu-ondoko urteak ziran, illun, itun eta astunak; gosea garai, malkoa nonnai, beldurra berriz, biotz guztietan ernai, salatariak ari baitziran espetxeak errugabez eta illobiak illotzez betetzen [...] Egun aietan ia egunero joaten nintzan gure Azkue aundiari agertutxo bat egitera. Ribera'ko etxe zar artan arkitzen nuen beti, leize-zulo beltz batean galduta bezela. Inor gutxi agertzen zitzaion orduan gizon aundi ari, alare antxen zegoen bakartasunik aundienean, beti lanean euskeraren alde, asperdu gabeko ekinean. Pozik artzen ninduen gure apaiz aundiak eta nik ere pozik idarotzen nituen berarekin ordutxo aiek. (*Eman*, 5, 1967).

Halako batean, salakuntzaren baten ondorioz edo, 1947ko martxoaren 15ean, zehatzago izatearren, polizia joan zitzaion etxera bila, baina atzeko partetik jauzi egin eta ihes egitea lortu zuen. Handik egun batzuetara Parisetik ilobei bidalitako gutun batean Bach-en Fuga arrakastaz jotzea lortu zuela, adierazten zien. Pariseko desterruan iraganen ditu 1947tik 1954erako urteak Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuan, Quentin Bouchart kalean zeukan bulegoan. Urte emankorrak izan ziren benetan hauek, eta garai honetakoak dira ere gutunik gehienak.

BBC-erako programak prestatzen zituen, euskerazko klaseak ematen (bere ikasle aurreratuenen artean zuberotar etorkiko ziren J. Mirande eta Peillen anaiak izango dira) eta artikulu ugari errebista ezberdinetarako (Guatemalan Zaitegik zeraman *Euzko Gogoa*-rako, Pariseko *Euzko Deya*-rako «Euskal orrija» antolatzen, Fagoagak zuzentzen zuen *Gernika*-rako, bai eta *Alderdi*-rako ere). Politika, musika, kultura, euskara eta euskal literatura izango ditu aztergai nagusienak bere luma zorrotz, trebe, oparo eta joriak.

1951-eko martxoaren 24ean Zaitegi, Mirande, Krutwig, Peillendarrak eta Irujorekin batera *PEN Euskel Kluba* sortu zuen, bera idazkari izendatu zutelarik. *International PEN-Bulletin of Selected Books*-erako euskal idazleen obren berri (*Bizia garratza da, Ama-semeak Arantzazu'ko kondairan, Euskaldunak, Goldaketan*) ematen zuten artikuluak idazten zituen Miranderekin batera (1952).

Aldizkarietan euskal lanez egiten dituen kritikak, ordea, –kritikari baino areago berriemate, zabaltzaile nekazina baitzen–, beti izango dira alde onak goraiatzeko, eta soilik gutunetan ageri da duen benetazko iritzia. Adibidez, Krutwig-en idazkera dela eta honako idatziko dio Zaitegiri, *Krutwig'en euskera benetan bitxia! Atzo, ain zuzen ere, Mirande'ek esaten zidan gazte orren izkuntza Olabide'na bainon askoz ere zailagoa dela* (1951-IV-16). Leizaolak agertu berri zuen euskal literaturaz lan bat eta honakoa aitortuko dio berriro Zaitegiri, *–erdizka baizik gure olertiaz ez zaigula yabetu esango nuke–* (1952-V-26). Eta beste batean ozpin-ontzia isuri nahirik, ez Jokini bere adiskide kuttun zuen Joni baizik hauxe adieraziko dio, *Asperturik nago igaro iru auetan ater gabe txalo joka ta kritika idazten* (1952-XII-4).

Gutun horien bitartez jarraiki diezaiekegu dudarik gabe euskal kulturaren memento hartan ematen ari ziren aldaketa nagusiei. Nola goraiatzen duen (1953-I-7) hainbesteinek eskandala sortu zuen «Liburu Lizunetaz» Jon Mirandek idatzitako artikulua, nola Nemesio Etxanizi idatzitako beste batean dioen, *egia esan, literatura gordin eta ausarditsu baten bearranean arkitzen gera, bestela jai dago. Eliza ez da bere lotalditik esnatu euskeraz pekatu mortala ikusten denean baizik* (1953-IV-29), eta nola eliza-zentsoreen jokiera maltzurra Zaitegiren *Bidalien Egiñetaz* salatzen duen bortizki, zeren eta

Bide ortatik Euzkadiko sinismen-oztua, otzagotzea baizik ez dute iritxiko (1953-VI-15).

Zaitegi behin eta berriro ari zitzaion laguntza eske *Euzkal Gogoa* zuzentzearen eta Ameriketara hurbiltzeko bere aldamenera, eta azkenean lortu zuen Andimak erabaki hori har zezan. Lehendakariak berak antolatu zuen despedida eder bat sekulako afari batekin (1954-II-21), baina itsasoaz bestaldean berehala ohartu bide zen Guatemala ez zela Parise. Honelaxe idatziko dio Miranderi: *Aldaketa aundia, adiskide, ortik onakoa. Au ez da Paris, urrik eman ere: or igaro zazpi urte luzeak ez ditut bereala aantziko, ez orixe, Euskalerrria eta Europa zaharra, barneegi daramazkit ene biotzean.* (1954-III-25).

Beraz, Euskadi-mina ez ezik Paris-mina berehala sortu zitzaion. Eta hau menderatzeko lanari uztartzea bezalakorik ez zuen ediren, Zaitegik zuzentzen zuen Ikastola Nagusian, Landibar Lizeoan, latinezko klaseei, eta *Euzko Gogorako* idazlanei jotake eutsiz. Baina Guatemalako matxinadaren ondorioz sortu zitzaizkion arazoak poliziekin animoa apalduko diote.

Aitorle eta animatzaile Koldo Mitxelena aurkituko du, eta honela bere animoa eroriaren berri ematen dioenean, nola jaiki eta erori dabilen halaxe arituko zaio gutun batean:

Beti bezela ari naiz ni, ieiki ta erori, erori ta ieiki. Auxe, atzerriko lorra geroago ta aztunago gertatzen ari zaitala. Amar urte laster zama akigarri au bizkargainean daramadala. Arinagoa egiten zitzaidan Parisen Euskalerrriko aizeak urbilago izaki, emen aldiz, gero ta pixuago. Burmuina ere elkortzen ari zait, luma nagitzen, biotza zainiltzen. Onenak eman ditudala deritzat. (1955-VI-24).

Hona idatzi ziona Miranderi Txillardegiren obrari buruz:

JON MIRANDEri

Parisera

Caracas, 1957-XII-12

Ene adiskide maitea:

[...] *Irakurria duzu or nunbait, Leturiaren egunkari ezkutua. Txalo andiak jo dizkiot egileari ene kritika-bideari jarraituz. Zuk zer derizkiozu liburu berri orri. Esango didazu zerbait, zure kriterio elerti gaietan guztiz dalako jakingarria neretzako.*

Beti bezela ari naiz emen gairi, Europa-mina ezin gairiditurik. Lurralde auetan aspertuta bizi naiz, asto belarrandiz inguratuta, batez ere gure kolonian, benetako kolonia... Euskeraren egunez aperi bat egin zuten aberri izkeraren alderako... Ni ez nintzan joan. Okaztuta naukate eta ez dut aien batzarretan nere bururik agertu nai... Eta bakarrean ari naiz, ixilean ene gelatxokoan sartuta... Irakurri, idatzi... eta abar.

Iloba ezkondu zait eta or gaindi ibili da bi ilabetez, artean ni bakarrik. Ederki antolatu naiz eta egun goxoak igaro ditut.

Or datozkigu jaiak... eta ezin ixilik irauin zuri zorion-agur andi ta ozen bat bialtzeke, orobat zure guraso maiteei ere. Irrikaz nago zuek ikusteko. Laister izango al da. Anartean ar itzatzu ene besarkada sendoenak.

* * *

Eta hona ondoren ere *Euzko Gogoan* Ibiñagabeitiak ohi zuen eran idatzi eta agerturiko kritika baikorra.

*Txillardeg*i, Leturiaren egunkari ezkutua. Bilbao 1957.

Aldizkari onen zuzendariak liburu ontaz kritikatzeko bat egiteko eskatu zidan luzaro ez dala. Anartean, EGUNKARI onen otsandia nereganatu zan or-andik, eta urduri nengoen eleberri aipatu ori noiz ikusiko. Ain zuzen ere, nere atsarteak asi ditudan egunean eskuetara zait Txillardegiren liburuia, txukun ta apain Bilbao'ko «LEN ETA ORAIN» argitaldariaik oi duenez. Paketea zetozen beste liburuak aldebat utzita, Txillardegirenari ekin diot, gogoz ekin ere.

Eta egia esan, etziran ustel atera eleberri onen inguruko berri onak. **Liburu berria benetan gure elertian, oraintasunez bete**a, idazle azkar baten arnas beroaz oretua ta pizkortua. Bai, irakurle, oretua ta pizkortua. Idazlearen arnasa dariten liburu gutxi izan dugu orain arte gure artean: geinetan idazlea karpalaldetik baizik ez zaigu agertzen, barnetik ez ordea. Txillardegiren liburu ontan aldiz, idazlea bera agiri zaigu oso-osorik bere esankizun, auzi ta gogoeta saketan, eta liburu au idazlea bera dala esan bear, ez estiloz bakarrik baita mamiz ta giarrez ere.

Ez da errexa, egia esan, norbere mami-giarrak, nolarebait mintzatzeko, papera iraultzea, eta orixe iritxi du bete-betea Txillardegi gazteak. Guk ere bear genuen orrelako zerbait. Euskal-idazleak eginkizun andi ori bear bezela betetzeko girorik sekula ez dutela izan esango nuke. Berez gera lukur ta esku-eutsiak euskaldunok barneko gure katramilla ta auziak gordinki ta ausarki biotz aratoletatik atera ta irakurlearen gogora aldatzeko. Maitasun gai ontan batez ere, beti ibilli izan gera erabe ta lotsati, ez noski euskaldunok maitabidean besteak baiño otzago geraldako, axari-kumeago geraldako baizik gere maite-kontuak esaltzen.

Mitxelenak ederki diñonez itzaurrean, milla eratan azaldu digute maitasuna idazleak, eta oraindik ez dira adierok akitu ezta akituko ere gizona gizon deño, ardatz orren inguruan baitabiltza lur ontako auzi ta gora-bera guztiak. Orixen izan, ain zuzen, gizadiari berean eusten dion iturria, gizakiak ainbat ur-mota darizkin iturri agortu-eziña, berez bakar ta orokar. Eta Txillardegik argi ta garbi erakusten digu bere novela ederrean euskaldunok ere badugula esatekorik gai orren inguruan, eta esateko iakingarriak.

Ez zaitut aspertuko, irakurle, liburu onek iradoki dizkidanak azalduz eta ainbeste bulko ta ustekizun ernerazi dizkit nere baitan. Baten batzu idazle azkarrekin bat ez datozenak, iakiña. Zerbaiterako dugu bakoitzak gere burutxoa, pentsatzeko alegia, eta bat bederak geure pentsamenduak ditugu edo bear genituke beintzat. Unamuno'k ziñonez, benetako idazleak zerbait ernerazi ta iradoki

bear du irakurlea baitan. Txillardegik, ala fede, ederki iritxi du elburu ori bere eleberri zoragarriarekin. Beste gorapenik egingo ezpaliote, auxe luke aski gure letretan lenengo errenkadan ezarteko.

Izkerari buruz enoa ezertxo ere esaten. Ez naiz gramatikakeritan murgilduko gure artean oi danez. Novela au irakurtzean ez zait bururatu gramatika danik ere, ez itz-berririk ezta lapurtar klasikorik ere. Auxe bai; darabilen euskerak gogoia erabat inarrosi dit, eta gogoak inarrosteko gai dan izkera benetakoa ta egiña da.

Ongi etorria, Txillardegi, gure soro mear ontara, itzaurregillearekin mintzatzeko. Ez da gogoia, ala ere alako barne pozatsegiñak ekarriko dizkitzu noiztanka. Gaiñera zu bezelako langille azkarren bear-gorrian arkitzen da gure baratzatxo au.

Estimatzeko hitzak, noski.

* * *

Geroxeagokoa da «Odol-gabeko matxinada» izeneko artikuluan batean (*Irrintzi*, 7, 12-13) proposatzen duen iraultza, alegia, munduari adierazteko euskaldunen izan-nahia, bizi-nahia eta iraun-nahia, batipat euskararena litzatekeena. Tamalez, gutxiegi hedatutako artikulua da hau.

Euskaltzaindiak, 1961eko abuztuan urgazle izendatu zuen Insausti, Eizmendi eta Peillenekin batera. Adore hain handikoa eta hain sutua izan zen gizona urte honetan Aberriera itzultzeko asmotan ibiliko da, baina frankismoaren garai gogorrek irauten zuten oraindik. Hona haren gogoeten berri ematen digun gutun zatia:

Egia diotsut, bidea zabal baldin banuke lurralde auek bertan-bera utzi eta aberriera itzuliko nintzake pakean iltzeko baino ezpada ere. Bainan ezin itzuli angio agintariek lur-joten ez duten bitartean, eta ez dute ain arin lur-joko noski. Orra eman, nere barne-giroaren berri, larritasunez eta etsitasunez betea. (1961-I-7).

Gutunetan ageri dira noizpehinka euskal idazleei buruzko komentarioak. Krutwig-en *Vasconia* liburuaz pentsatzen duena, edo Txillardegiren *Huntaz eta hartaz* saioak eragiten diona, zeinek Nemesio Etxanizi zuzendu gutunetan honelaxe dioten:

Oraintxe irakurri dut Txillardegiren liburu berria: *Huntaz eta hartaz*. Lan sakonak dakazkinak eta ederki idatziak; ainbeste h-ek begiak lausotzen dizkidatela... bestela benetan irakurgarri liburutxo. Beinepein gazteok exenplu ederrik ematen die gure politiku zarrakituiei, inoiz ere euskerarik lumartean artzen ez duten oriei eta artuko ere ez. Liburu au ezpaldin badaukazu, neonek igorriko dizut bertatik. Esan beraz. (1966-I-4).

[...] Irakurri dut Txillardegiren liburu berria, arekin bat nator gauza askotan, eta arrazoi guziak ematen dizkiot euskera kontuan batez ere. (1966-II-15).

[...] Txillardegiren azken liburua neri ere oso atsegin egin zait euskal-auziari dagokion saila batez ere. [...] Inoiz buru jabe gertatzen baldin bagera, ni neuk enuke inoiz ere bilinguismorik onartuko; lenengo egunetik euskera bearrezkotzat ezarriko nuke Euskadiko ikastola guztietan espainiarren eta prantsesen bideak jarraituaz. (1966-III-20)

Andimak 1967an, adorea etsipenetik atereaz beste aldizkari bat sortuko du, ia bakar-bakarrik Miranderen laguntzarekin. Barne-mina, aldiz, bihotz-mina bilaka-bide zaio:

Biotzak ustegabeko joko larri bat jokatu zidan eta il-zorian ikusi nuen nere burua. Eskerrak biotz-osagile onak direla uri artan eta eguerdiko izu-ikara arratsean patxara biurtu zen (1967-VI-17).

Jota, pitzatua, zatzatua zeukan bihotza nabarmen denez eta hori dela eta hainbeste maite zuen Aberri itzuli gabe, desterruan, bakardadean hil zen Caracasen 1967ko azaroaren bian, mende honetako euskal idazle, itzultzaile eta saiolaririk handienetakoa. Bera lurpean datza, baina bere obrak zutik dirau, –zenbait lan argitaratzezain dauden arren.

Gauza jakina den bezala Txillardegik oso estimatzen zuen Andima, eta estimu honen adierazgarri dateke Santi Onaindia karmeldarrari Waterloo-tik idatzitako gutuna:

Santiago ONAINDIARI (32)

Larreara

Waterloo, 1967-ko Azaroaren 26

Agur adiskide:

Garagarrillaren 1-ekoa hartu nuen; eta orobat ere hartuak Olerti guziak (Urtarrilla-Bagilla, 1967 deritzana barne). Denengatik bihotzez milla esker.

Andima hil da. Dagoeneko ba dakikezu. Zure adiskide haundia izan zala ba dakit, eta nere dolumiña bidali nahi dizut. Hizkuntzaren aldetik hobea zan Andima, nere ustez, bere garaieko idazle gehienak baiño. Gazteriarekiko guztiz zabal, euskaltzale amorratua, galera bat da zalantzarik gabe.

«Atzerri-ogia garratza baita» esan zenidan zurean, eta egia dana ongi dakit! Ez nuen, ordea, aukerarik izan orduan; eta gaur gauza bera. Nere anaia eta Donostia'ko legegizon bat hor ari dira nere kasoa aztertzen; eta gauza oso gaizki omen dut: hamabi une «hasteko» anaiak esan didanez. Ez dut, beraz, aukerarik, ez banoa bederen komenturen batera fraillez jantzirik...

Ogi garratz hori irentsi beharrean naukazu, beraz; baiña gogoa EZERTAN ere hozturik dagoela uste baduzu, oker zaude. Beti bezin gogotsu nago, areago ez bada. Eta lanean jo-ta-ke, zoritxarrez frutuak oso ditziranteak ez badira ere...

(32) Aita Onaindia, *Eskutitzak. Euskal literaturari buruz*. Bilbao, 1974, 255-257.

Hortik datozen berriak, danak onak ez izanagatik ere, bihotz-altxagarri dira gehienetan. Ba dirudi, alde batzutatik bederen, gure gauza ez dala sekulan izan gaur bezin ondo. Ikastolen fenomenua harrigarria da; eta ez dator soilik: egun hauetakoa gertaera batzuk, gure etsaien beren ezinbesteko jokoak, dana, oso pozgarria da.

Ikastolei dagokienez, ez dakit nik zertan ari diran, nola moldatzen diran liburuen aldetik esate baterako. Oso pozten dira danak ikastolen ugaltzearen arabera, eta bidezkoa da; baiña askotan gelditzen naiz ni pentsakor, ez baikaude alde askotatik ez gertu eta ez gutxiagorik ere. Anarkia oraindik ere haundiago egitea ez zaigu inñundik ere komeni, eta nik ez dakit irakasle (txalogarri eta goragarri!!!) horiek nola moldatzen diran, zer irakasten duten, zer liburuz baliatzen diran, haurrak zer irakur dezateken, eta abar, eta abar. Hor zaudetenok problema hauetakoz pentsatzen duzutela ez dut dudan artzen; baiñan ez dut ulertzen. Neure emaztea izan zan Donostia'n euskal ikastola bat jarri zuen lehenengoetako bat, dakizun bezela, Elbira'ren laguntzaz; eta ba dakit, beraz, nolako urritasunak jo izan gaitun orain arte, eta nolako saltsak, ezin-ikusiak eta akatsak izan diran. Nola ikusten duzu zuk arazo hori?

Gure arteko alkarriketa, bidenabar, bai politikan eta bai hizkuntzan, beti bezin eskas eta kaxkar dago. Ez dugu alkarrekin hitzegin nahi. Danok azpikerian ari gera, alkarren kontra, hitz politikak aipatu baiña alkarri behaztopa eta ankar-te egiñaz! Noiz arte? Noiz bildu behar dugu funtsean gogaide geran guziok? Noiz arte gure ebakidura azkengabe huntan?

Ugalde horrera doa. Berri ona da. Ikusiko duzula espero dut. Laguntzaille ona doakizue, nik uste.

Gure B.6 datorren hillean agertuko da.

Lehenago zu ikusten ez bazaitut-edo, Eguberri on, eta nahi duzun arte.

Txillardegia

* * *

Nemesio Etxanizen 100. urteurrena dela eta (33) idatzi artikuluan nioen bezala, dudarik gabe Pako Suduperen lanak (1996, 1997) funtsezkoak izateaz gain aski sakonak dira haren bizitza eta obra behar bezala konprenitzearen, beraz, guk hemen esango ditugunak ertz-oharrak bezala jo ditzakezue, besterik gabe. Hasiko naiz kontatzen nola ezagutu nuen Nemesio Etxaniz.

Mila bederatzirehun eta hirurogeita seiko urtarrilaren hogeita hiruan (1966-I-23) izan zen, nere oroitzapenak ondo baldin badaude. Duela berrogeita bat urte, beraz, Victoria Eugenia-ko aretoan Jaialdi bat ematen zuten eta hantxe Lurdex Iriondok kantatu ondoren Martxa Luzeari buruzko eta Lin-Pao mendiko kontua eta kantua, besteak beste, agertu zitzaigun On Nemesio sotana luze harekin *Baratzeko pikuak hiru txorten ditu* kantari.

(33) Patri Urkizu, «Nemesio Etxanizen 100. urteurrena dela eta», *Oihenart*, 18, Donostia, 127-132. Deban, 1999-XI-12an, Joseba ULAZIA, Anton ALLIKA eta Pako SUDUPERekin izandako mahai-inguruan egindako hitzaldiaren moldaketa.

Dударик gabe, ahots izugarririk ez izan arren, grazia aparta zeukan apez moderno hark.

Eta gertakizun honek beretzat ere nahiko interesa izango zuen nonbait, honelaxe aipatzen baitio Andima Ibiñagabeitiari idatzitako gutun batean:

Ilbeltza'ren 23'an, Donosti'ko VICTORIA EUGENIA Antzokian, zoragarriko jaialdia izan genduan. Gure gazteak esnatu dira, gu ez aiña, ta or atera zaizkigu, teatro betearen aurrean gaurko kanta berri ta ye-ye aldeak euskeraz jantzita ematen. Ba-zan antxe jendea ta txaloka beroa.

Beti bezela, izan da norbait orrelakorik euskeraz ez degula bear esan duana; baiña iñosokeri oietan astia alperrik galtzeko biderik ez degu. Aurrera joan beharko degu, gure izkuntza gaurko jolasetan sartzen. Gaztediaren sailetan, euskera entzun dedila, ta joan ditezela zakurraren zerera, euskeraz sermoiak bakarrik entzun nai dituztenak. (1966-II-6).

Gutun horretan bertan beste komentarioen artean Txillardegiren liburu argitaraberriari buruz iruzkin aski mingotsak botatzen zituen, bizitzaren laburra aipatzen eta nola ez, fede kontuan sentitzen zituen *krisiak*.

Gu garai hartako gazteok, -hemeretzi urte nituen nik orduan-, esna geundela uste genuen ere, eta gure argien eskasiak erakusten zigun arabera gure bidea ere egin genuen. Kanta izan zen, dudarik gabe garai hartako kontzientzia suspertzaile, eragile eta bizi-arazlerik garrantzitsuenetakoa. Baziren urte batzuk Etxanizek berak *Kanta-kantari (Aur-jolasak: Maite-kantak: Izadi-abestiak)* liburua plazaratu zuenez geroztik (1952). Urte honetan bertan moldiztegia emanak zituen ere bi antzerki, *Izoko Aberatsa* eta *Irulearen negarra*. Kontrazalean Manuel Lekuonaren gaztelaniazko hitz batzuek zekartzan, honako hauek direnak, besteak beste:

Un propósito de apostolado, es el que estos últimos años le decidió a lanzarse a la publicidad. Un propósito de moralización de la canción callejera. Tal es el propósito que anima su precioso tomito de poesía vasca que ha hecho popular el expresivo título de KANTA-KANTARI. Canta cantando bella y graciosamente, desterrar la canción procaz que está a punto de desoxigenar el ambiente moral de nuestras poblaciones y aldeas.

Beraz, garbi dago apaiz haren helburua zein zen. Hona Etxanizek Zaittegiari idatzitako gutun batean (34) beste gauzen eta albisteen artean dioena *Leturia...-z*:

Donostia, 1957-VII-8

Zaittegi, adiskide:

[...] Txillardegiren liburu berria agertu zaigu. Irakurria dizut, askartxo bada-ere. Liburuxka polita dator; ez trinkoegia.

(34) Gutun argitaragabea.

Zuk irakurria dezu, ta idazkerari dagokion aldetik etzazu ezkutua. Leturia'ren egunkari ezkutua, gai berria degula, ta idazlea gaztea: ori degu nerekioko pozgarriena. Euskaldun berri-usaia ziara ez digula galdu, deritzat.

Atsegin zait geienetan. Mitxelenak bere buru-auste batzuek sartu dizkiola ere, agiri da. Egia, Donostia ta orrelakoak ez ditu galdu nai. Osorik jalkitzen dizkigu atzezki oiek.

[...] Zuri nere bostekoa.

Beraz, badirudi Mitxelenaren gidaritza nabarmendu nahi diola eleberriaren erdikitzen eta euskeran. Bestalde, gaur egun ere gertatu ohi den bezala obra bati buruzko bi erreseina ezberdin izatea, bi iritzi kontrajartzea, *Euzko Gogoa*n halaxe egin zuten *egiaren muina atzeman nairik*. Hona Etxanizena:

Txillardegi. *Leturiaren egunkari ezkutua*. Bilbao 1957.

Ona emen euskaltzaleok pozik ar genezaken idaztia. Dakarrena dakarrelako ta datorrenagandik datorrelako. Alper asko dugu euskeraz ikasten asten diranen artean. Asi... ta bertan utzi. Areago oraindik asteko kemenik ere ez dutenen artean. Gaurko idazti onen egileak ez du orrelakorik. Euskeraz ikasten asi, ta zazpi urterako onelako liburua ematen duan gizona, ez da baztarrerako egiña. Euskaldun berri degu, beraz, egilea. Ai onelako asko!

Eztegu, ala ere, intzentsu utsetan gure iritzia urtu nai. Liburuak goragarri asko ditun arren, ba-du alako gordin-antza ere. Bizi-bizi ta idazkera ebakia dakarkigu gazte onek; baña mirari zitekean euskaldun berri batek gure izkuntza zearo egosia agertzea. Ba-du, beraz, euskaldun berriaren usai pixka bat noizik bein. Ez da arritzeko, ta Txillardegi azkarrak artuko zion bere ume oni usai ori.

Ala ere, oso txalagarri jotzen degu egin duan lana, ta agertu digun eskua eleberri-sallean.

Dakarren gaia, gaur-gaurkoa degu gizaldi jorratu onen buruetan. Gizadia gudu-aizez astindua ikusi diguten gazteok, lengo bizieraren berri eztaite. Guzta erortzen ikusi dute, gizonen erakutsiak auen egiteetan urratuak ikusi dituzte. Ta gaztediaren galdera au da: Al-da ezer egiarik? Al-da egia ezagutzeko bide ziurrik?

Idazle gazte onek Unamuno'ren erakutsia ta burukera ederki azaldu zizkigun Aldundi'ko liburutegian. Unamuno, Ortega ta beste zemaik pilosoporen gogoetak, gazte auen muñetan gogor eragiñak ditugu. Gure gaztediaren ZALANTZA gaitza agertzen digu, ain zuzen, Txillardegi idazleak.

Leturia'k ZORIONA ta EGIA arkitzea du bere kezka zirikatzailea. Bakarrean pozik zegoena, Neskata baten agertzeak maite-irrikaz jo du. Maitasun-bideak ez dio Leturia'ri eragozpen asko ekarri. Eztegu emen zemaik eleberrietako ari-matatza nasturik. Neskataxaren ezaguera, maitasun agiriko biurtzen zaigu lan aundirik gabe.

Maitalearen mundua poliki agertzen digu Txillardegi'k. Griña biziari oztopo asko jartzen ezpadizkio ere, maitalearen gora-berak, poz-kezkak, maitalearen jokatzerak, egoki daramazki bere artian.

ZORIONA eskuratu du, ustez, eta orduantxe asten dira berriro Leturia'ren kezka zorrotzagoak. Zorion-jabe zalakoan ezkontzara jo du; ta-zorion-kabi ura utsik bilatzen du. Biotzak eztu arkitu an, uste zuen egon pozgarri-luzerik. Bereala aitez puztutako pilota bat, zulotxiki bat egiten ba-zaio andik uzten dan bezelaxe; alaxe gerta zaio gure ezkon-berriari. Zorionak urruti aldegin dio. Mendi-gañean ikusten ditugun lañoak, gailurrera igo ta eskuz ikutu ezin ditugun gisan; ala dabil gure Leturia ezkondu ezkeroko bere bizitzan.

Orduan alderdi berriak ikusteari eman dio, ta ba-dijoakigu Paris'era. An ere orobat gertatzen zaio. Len-egunak pozgarri, aldi pixka bat igaro-ondoren, bere Zorion-bidea galdu zaio.

Gerokoa azkar dator. Emaztearengana itzultzen da senar gaztea. Gaitz larripean arkitzen du gaxoa. Gaitz arek luze gabe galtzen du emaztearen bizia, ta Leturia bere ZALANTZA-gaitzak menderatuta pendiz baten bera dijoa betiko pakearen bila.

Azken iluna Txilardegi'k bere Leturia'ri eman diona. Gaurko gazteen buruetan diran lañoen antzekoa.

Liburuak Lizardi zanaren URTE-GIROAK darabilzki gogoan. Aren itzala pizten du azkenerate. Arek Udazkenean nai zukean jo-muga, Leturia'k Neguan arkitu du.

Euskeraz etzan onelako gairik aztartu egundaño. Au degu pozgarri. Gai berriak lantzea; kezka berriak arrotzea nai genduke gure izkuntzaren baratzan, ta auxe egiten digu txalogarriena Txilardegi gazteak.

Bijoakio gure zorion-agurra, ta iñola ere gure txaloak lanerako akulu bali-tu, biotzez jotzen dizkiot nereak, bide ortan aurrera jo dezan.

1966an Etxanizek argitaratu zuen poesia, eleberria, irrati-antzerkia antologia bat, *Lur Berri Billa* izendatu zuena. Nobelaren titulua *Ameriketara galdua*. Hona gaia laburbildua. Basaburu baserriko alaba baten gora-beherak dira. Gogoz kontra ezkontzen dute Juana Martinekin, baina honek ehizerako gustoa besterik ez duenez Mikolas anaia tikiak seme bat egingo dio (Pako), eta etxeko ohorea ez galtzearren Juana Ameriketara bidaltzen dute. Hemen Benito errioxarrarekin sei seme-alaba izango ditu elizatik kanpo. Azkenean, itzultzen dira aberasturik Logroñora, senarraren sorterrira, baina hau etxe-kalte huts bat da. Juana joaten da ama bisitatzera, baina honen kezka bakarra alaba elizaz ezkontzea da, eta Benitok ez duenez hori nahi Ameriketara itzuliko da Juana bere alaba tikiarekin. Hemen aspalditik galdua zuen semea, Pako aurkituko du, Rosa galiziar zintzorekin eta langile amorratuak direnez aberats bilakatu dira. Historia hau, Etxanizen beste guztiak bezalaxe apaiz baten begietatik ikusia dago. Elizatik kanpo, antza, ez dago bizimodu zuzenik, dena da «sasi», sasi-gizonak, sasi-semeak eta horrelakoak. Badu neurri batean eta titulu bertan R. M. Azkueren eleberri batekin antza, hau da, *Ardi Galdua* obrarekin, non Ameriketara joatea fede katolikoaren galtzeko arriskua, amildegia eta galbidea besterik ez den.

Andimak egindako iruzkinean hasiera goibela azpimarratzen du, eta hori ez datorrela ondo tango, fox rumba merenge eta abar euskaraz lehenengoz eman zizkigun idazle jatorrarekin. Baina, zein urrun gelditzen da zuela bederatzirte Txillardegik argitaratu Leturiarengandik, edo jadanik 1959rako Mirandek idatzirik zeukan *Haur besoetakoa*-tik. Badirudi, beraz, Etxaniz urte batzuetan kulturari eta politikari arloan aski ausarta izan zela, –hor daude leku-gisara gobernadore zibilekin izan zituen gora-beherak, gutun-trukeak eta Epaileen zigorra–, baina ohitura eta gizarte alorrean aski tradizionala zela. Eta aitzindari izan arren 60ko eta 70ko hamartean eman ziren benetazko kultura, ohitura eta euskararen iraultzetara, –68an ezarri baitziren batez ere Arantzazuko Biltzarrean euskara batuaren hastapen eta oinarri nagusienak–, ez zuela jakin ere egokitzen.

Dena den eta ideiak ideia, gure oroimenean betirako gelditu da lehen aldiz ikusi genuen apaiz alai eta bizi haren irudia, txatxatxa kantari.

* * *

Antonio Karmelo Urrestarazu «Umandi» idazle arabarrak (Araia 1902–Gasteiz 1993) Blanka Urgell-ek kontatzen digunez (35), euskaltzale amorratua izan zen, eta kartzelan bezala Parisen ere euskarazko klaseak ematen saiatu zen. Euzko Jaurlaritzaren administrari lanetan aritu zen Parisen, Errebista askotan parte hartu zuen, hala nola, *Euzko Deya*, *Euzko Gogoia*, *Estibalitz*, *Karmel*, *Kardaberaz*, *Alderdi*, *Egi billa*, *Goiz-Argi*, etc., hots, Paris, Mexiko, Baiona eta Caracasen argitaraturiko euskal aldizkarietako kolaboratzaile izan zen. Argitaratu zituen liburu zenbaiten artean hor daude, *Gramática vasca* (1955), *Bizkaierazko aditz-erak* (1955), *Euskal Betekizunak* (1977), *Gentza bearrean* (eleberria) (1985), *Euzkadiren ebazkizun aundia* (1985), *Euzkal Elizti laburra*. *Asimasiak* (1987) eta *Asmoz Hiztegia*. Gasteizko Hiriak erbesetik itzulitakoan, Urrezko domina eman zion (1984), eta *Asparrengo Udalak magalpeko seme izendatu* (1990) zuen.

Pariseko *Euzko Deya*-n, hain zuzen, *Gure Liburuak* deitu sailean bere iruzkinak aurkezten zituen. Eta ez sinatu arren hona nola eman zuen Txillardegiren harrera Parisen:

Leturiaren Egunkari ezkutua, debida a la pluma de un novel escritor «Txillardegia» que se nos aparece en este trabajo como una gran promesa (36).

GURE LIBURUAK

«*Leturia*’ren egunkari ezkutua», *Txiliardegia*’k egiña ta aurten Bilbao’n «*Euskal Idaz-lanak*» argitaraua.

(35) Blanka Urgell, *Andoni Urrestarazu «Umandi»*. Bidegileak, Eusko Jaurlaritza, Vitoria/Gasteiz 1996.

(36) *Euzko Deya*, nº 407, Paris 1957, 2.

Auxe aurtengo euskal-liburu berri bat. Berria aurten argitara eldu zaigulako; berria gaiaz ere orain arte, geuk dakigunez, euskeraz erabilli ez dan gaiaz egiña dalako.

Esan dezagun aurretik gai ori ez dala gure gogoko. Elertiarengandik atsegina naiago dugu beti eresi batengandik bezela; entzun eta ikuskizunetatik, gure zentzumena ikutzen digun beste edozeinetik bezela.

«Leturia»'k darabilen garra, eri dagoen arima batena izanik, bere eritasun orrek biziki jotzen du irakurlearena, ta osakintza maillean osoki ezpada ere, kutsugarria dugu eritasun oro; zer esanik ez, erikeri baldin bada; areago gogoeritasuna izanik.

«Leturia»'ren «egunkari»'a orain eztago «ezkutua», ta gogo baten barneko biziazen oyuia izanik, idatzitako itzen bidez oso edaturik dugu irakurleen beste gogoak zorrozki jotzen. «Leturia»'k jasandakoak besteengan koskik egin ez baileza.

Ez, ez da gure gogoko gaia. Eritasunak eriotzara garamazki ta guk geuk osasuna naiago, bizira eraman gaitzaken osasuna.

Ala ere, ta esandakoa aitortu bear izan badugu, euskerarentzat beste urrats bikain dugu, liburu onen bidez egindakoa. «Plazara» jauzi egin digu euskerak berriro, ta or ikus dezakegu dantza berritan zalu, Txillardegi txistulariaren doñuz; eta doñua ongi eroanik egoki dantza. Ona emen idazle berri bat. Dana dugu berri, ontan: liburu, gai, idazle; eta ona emen ere egille onen lan ederra: euskeraren orren egoki dantza berri ortan eragitea,

Liburu onen gaia zalla ere izanik, Txillardegi'ren lumak erreztasuna eroan dio, ta berari esker errez irakurtzen dira urtezarroetan barna gogo astinduaren gorabera guztiak.

Itzetan, oso bearrak ez bide diran erderakada batzuek ordez, pozago ikusi genitzakean arrunt eta jatorragoak edo ditugun euskerazkoak. Berebat joandako beste euskal-aroko joskeraren bat. Ona 125 orrialdean esaten dana: «Zergatik? Zeren egiak ez duen gizonagan agintzen, baloreak baizik». «Zeren» orren bidez, egiten dan joskeraren ordez, ezin ote diteke beste jatorrago bat erabilli? Jatorrago ta, apika, zuzenago? Baietzean gaude.

Iritzi auen gorabera, guztiontzako zorionak. Idazle berri, euskal-giar eta gunez betea, gazte, jakintsu, euskaltzalea. Amaika arnari mardul aurrerantzean berarengandik jaulkitzeko noski, betoz ugari, bere aroan bakoitza.

Eta onar bitza Txillardegi'k gogoz jotzen dizkiogun txalo beroak (37).

Garbi dago, beraz, ez zuela oso gogoko izan gaia Umandik, ez eta ez izan oso gustoko hainbat erderakada eta «zeren...»... bezalako joskerak, baina hala eta guztiz ere euskerarentzat beste urrats bikain bat bezala jo zuen.

* * *

(37) *Euzko Deya*, nº 412, 1957, 1 oct., 12.

Amaitzeko **Joxe Azurmendiren** «Kierkegaard-en “Egunkari ezkutua”» (38) lanaren berri aurkeztu nahi dugu laburzki. Argi eta garbi adierazten digu Azurmendik nola Kierkegaard-en eragina Txillardegirengan batetik zuzen-zuzena den, irakurketetarik datorkiona, eta bestea Unamunoren bidez, daniarra izan baitzen Unamunorengan eraginik handiena izan zuena.

Halaber, azpimarratzen digu bigarren nobelaren protagonista den Leartzaren subjektibismoa, funtsean subjektibismo modernoa besterik ez zena, ezin zezakeela onar Orixek, batez ere existentzialismoak uko egiten ziolako aristoteliko-tomisten sustantzia eta esentziaren izateari. Eta bidenabar Mitxelena ere ikusten zuena Leturia baitan, mundu berri baten oihartzuna: ezkontza tradizionalaren eta erlijio tradizionalaren kritika. Eta bestetik individualismoaren, antidogmatismoaren eta egiaren erlatibismoaren aldarrikatzea. Gaur bertan oraindik Leturiak konpromiso erradikalarekiko deiadar bat suposatzen duela.

Eta, beraz, amai dezadan. Hona bada bildurik garaikide zenbaiten iritzia. Koldo Mitxelena, Luis Villasante, Iñaki Bastarrika, Andima Ibiñagabeitia, Jon Mirande, Nemesio Etxaniz, Antoni Urrestarazu eta Xabier Azurmendi, honek geroxeago idatzi bazuen ere. Denak bat zetozen euskal literaturaren alorrean nobela hark, *Leturiaren egunkari ezkutua*-k sentsibilitate eta adierazpen molde berri bat zekarrela azpimarratzean, garai berri baten aitzindari zela, moral aldetik eta euskararen trataerarekin erabat ados ez izan arren.

Eta besterik ez gaurkoz. Milesker zuen arretagatik.

(38) TXLG, 117-137.

LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA: GIZON ETA EMAKUME IRUDIAK

*Iratxe Retolaza,
EHU/UPV*

Leturiaren egunkari ezkutua nobela askotan aztertu izan da, eta jardunaldi hauetan ikusi ahal izan dugun bezala, argitaratu zen unetik beretik euskal irakurleen arreta piztu zuen, eta kritiko literarioen iruzkinak eta irakurketak ere ugari izan ziren. Baina, Txillardegiren lehen nobela hartatik 50 urte bete diren honetan, oraindik ere, izan badira aztertu gabeko alderdi ugari, eta alderdi horiei erreparatzerakoan, *Leturiaren egunkari ezkutua* nobelaren irakurketa agorturik ez dagoela ohartuko gara, nobela honi buruz luze hitz egin bada ere. Ezbairik gabe, gaur egun nobela honi egin diezaiokegun ekarpenik mamitsuena (garai hartan ekarri zuen haustura aitortzearekin batera, jakina), irakurketa berriak eginez nobela biziaraztea da, irakurketak gaurkotuz. Izan ere, mugarri diren literatura-lanak irakurtzerakoan, maizegi irakurketa zedarritzeko, mugatzeko edota fosilizatzeko joera dago, alegia, maizegi irakasten zaigu nola behar duen literatura-lan horrek irakurria izan, eta ondorioz, irakurketa bera instituzionalizatu egiten da, literatura-lan horrek zabal-tzen dituen bestelako irakurbideak mugatuz, eta agortuz. Hori dela-eta, mugarri eta ikur bihurtu diren literatura-lanen kasuan, are beharrezkoagoa da esan direnak astintzea, gaurkotzea eta berrirakurtzea. Eta *Leturiaren egunkari ezkutua* nobelaren irakurketa gehientsuenek, esaterako, existentzialismoarekin duen harreman horri baino ez diote erreparatu. Jon Casenavek Jardunaldi hauetan azaldu bezala, existentzialismoaren korronteen argitan eginiko irakurketak badu oinarri sendorik, euskal nobelagintzan bide horretatik ere haustura ekarri zuelako, ordura arte ez bezala, Europako korrante filosofikoen altzoan kokatu zuelako Txillardegik nobelagintza. Frantzia garaturiko filosofia existentzialistarekin harremana izanda ere, ezin da mugatu, estutu edo hertsu nobela honen irakurketa ikuspuntu bakar horretara, nobela honetan beste irakurbide batzuetarako keinuak ere egon badaudelako. Keinu horietariko batzuek irakurbide berriak zabaldu ez ezik, *Leturiaren egunkari ezkutua* nobelako unibertso literarioa hurbiltzeko beste begirada batzuk ahalbidetu ez ezik, begirada berri horiek ere existentzialismoaren hainbat ertz gaur egungo ikuspuntutik berrirakurtzeko beharra agerrarazten dute. Generoa dugu, esaterako, zabal daitekeen irakurbide horietariko bat.

Gaurko saio honetan, hain zuzen ere, *Leturiaren egunkari ezkutua* nobelaren irakurketa berria proposatzeko generoaren ikuspuntuari helduko diot, eta

nobela honetan jorratzen diren gizonaren eta emakumearen irudiak izango ditut aztergai. Nire ustez, nobelak berak genero-gatazkaren argitan eginiko irakurketarako keinuak egiten dizkigu, saio honetan azaltzen saiatuko naizen bezala.

Batetik, genero-gatazkak Leturia pertsonaiaren bilakaeran eta Leturiak bizi duen gatazka pertsonal horretan lekurik baduela ohartarazi nahi nuke lan honetan. *Leturiaren egunkari ezkutua* nobelako ohiko irakurketari erreparatuz gero, aipatzekoa da Leturia euskal literaturako lehen pertsonaia gatazka-sutzat jo izan dela, Karlos Otegia *Pertsonaia euskal nobelagintzan* (Gero-Mensajero, 1976) ikerlanean zehaztasunez adierazi bezala. Baina, gatazka existentzial hori irudikatu edo aipatu izan denean, ez zaio erreparatu Leturiaren generoari, gizontasunari. Eta nik uste nobela honetako Leturia pertsonaiaren bilakaera gatazka horretan genero-gatazkak ere baduela lekurik, generoen arteko harremanek ere Leturiaren gogoetabideak zabaldu dituztelako, eta Leturiaren bilakaera baldintzatu egiten dutelako. Are gehiago, Joseba Leturia pertsonaia nagusiaren bilakaera hori, korapilo existentzial hori, Mirenekin duen harremanaren nondik norakoen arabera askatzen edota korapilatzen da. Horixe da aurkeztu nahi dudan alderditariko bat, nire ustez, Leturiaren gatazka pertsonala ulertzeko edo azaltzeko ezinbestekoa dela rol sozialari buruz hitz egitea, gizon rolari buruz hitz egitea alegia.

Bestetik, neure irakurle esperientziak ere horren aldeko datuak eman zizkidan, nobelaren irakurketak generoarekin loturiko hainbat galdera sortu izan dizkidalako. Gogoan dut, batetik, *Leturiaren egunkari ezkutua* lehen aldiz irakurri nuenean, artean gazte eta berde nintzela, izenburua irakurri bezain laster, bat-batean neure buruak Leturia emakumezko irudikatu zuela, eta nobela irakurtzen hasi nintzenean ere, hasierako lehen orrialdeetan horrela irudikatu nuela pertsonaia, emakumezko. Ez dakit zerk eragin zuen irakurketa hori; akaso ni neu emakume izanik, lehen pertsonan idatziriko testua ere horrelaxe ulertu nuen pertsonaiaren generoa markaturik agertu ez, eta hurbiltasunez emakume irudikatu nuen, edo akaso egunerokoetan emakume-ahots eta emakume-pertsonaiekin topo egitera ohituago nengoelako; izango du bietarik zerbait, ziur. Dena dela, argi dago irakurketak aurrera egin ahala testuak berak adierazi zidala nik neuk irudikaturiko pertsonaia hori ez zela emakumezkoa, gizona bezala baizik. Baina, nola nabarmentzen da eguneroko honetako pertsonaiaren ahots hori gizona bezala? Galdera horren erantzunaren bilaketak bideratuko du neure irakurketa, besteak beste.

Gogoan dut, bestetik, *Leturiaren egunkari ezkutua* irakurri ondoren, go-goan iltzaturik geratu zitzaidan irudirik biziena ohean gaixorik den Miren izan zela, irudi horrek sortu zuen batik bat nigan zirrarak, eta ohartu naiz, urteak igaro ahala, *Leturiaren egunkari ezkutua* Mireni buruz espresuki ezer gutxi esaten badigu ere, neure lehen irakurraldi haietan neure irudimenak gehiago jo zuela Mirenen irudi hori sortzera, –isilarazitako pertsonaia horren pentsamendu eta sentimenduak jostera alegia–, Leturiaren barne-bilakaera horretan murgiltzera baino. Baina, nola agertzen zaigu Miren irudikaturik Leturiaren

ahotsean? Bigarren galdera horren erantzunaren bilaketak ere bideratu du neure gaurko irakurketa. Horiek horrela, neure irakurle esperientziak eragindako inpresio eta joera horiek guztiak ulertzeko asmoz, Txillardegiren lehen nobela honetan irudikatu diren gizon eta emakumeak aztertzea erabaki dut.

Leturiaren egunkari ezkutua nobelako gizon eta emakume irudien azterketa egiten hasi aurretik, ohar bat egin nahiko nuke. Nobela honetako gizon eta emakume irudien azterketa egiterakoan, nobelako diskurtsoari erreparatuko diot, eta bertan bilduriko ezaugarrien araberako irakurketa eskaintzen ahaleginduko naiz. Hortaz, ez dut kontuan hartuko, esate baterako, idazleak berak Mirenen irudiaz eginiko irakurketa, edota beste hainbat lekutan egin diren interpretazioak. 1977. urteko berrargitalpenerako prestatu zuen «Hitzaurrea»-n Txillardegik honako hau dio, besteak beste: «Miren, horretara, gizonaren xedearen irudia zen ene asmoan, bidean aurkiturik eta absolutu bilakaturik» (20. or.). Txillardegiren irakurketa horrekin bat egiten badut ere, iruditzen zait bestelako irakurketarik ere egin daitekeela, emakumezko pertsonaia metafora moduan bakarrik ulertzen ez duen irakurketa egitea posible da, Miren hezur-haragizko pertsonaia modura irakurriaz, gorpuzte soziala duen pertsonaia modura irakurriaz. Jakina, Miren bada gizonaren xedea, Leturiaren xedea «bidean aurkiturik eta absolutu bilakaturik», baina irakurketa horrek ere badu beste alderik, alderdi soziologikoa alegia. Errealitateari buruzko eta pertsonen arteko harremanei buruzko zein ikuspuntu eratzten du gizonak emakumea absolutu bilakatzek? Kasualitatea al da nobela honetan gizonazko pertsonaia batek emakumea absolutu bilakatzea, eta ez beste ezer? Nire erantzuna, bistan denez, ezezkoa da, ez da kasualitatea nobela honetan gizonazko izatea emakumea absolutu bilakatzen duena.

Leturiaren bilakaera aztertzeko, eta bilakaera horrek generoaren ikuspuntutik dituen ezaugarriak aztertzeko, pertsonaia nagusi horrek bere nortasunaz hausnarketa egiteko erabiltzen dituen ispiluak aztertuko ditut. Aipatzekoa da Leturiak bere burua irudikatzeke, eta bere burua hizpide izateko garatzen dituen ispilu horietan bi aldi nagusi daudela, nobelaren egituran bertan zedarrituriko bi aldi: batetik, ezkontza aurreko aroa dago, eta bestetik, ezkontzaren ondoko aroa. Nobelaren ataletan argia da oso ezkontzak duen garrantzia, urtaroen banaketa estu-estu lotzen baitzaio ezkontza-aldiei: «Udalehen» atalean ezkontza aurreko kezkak eta gogoetak kontatzen dira; «Uda» atala *ezkontza-aldiarekin* lotzen da, eta gainera, ezkontza-aldi horren bidez justifikatzen du egileak Leturiaren isilaldia; «Udazken» atalean senar-emazteen arteko harremanaren okertzea kontatzen da; eta azkenik, «Negu» atalean Leturiak emaztea utzita Parisera eginiko bidaia kontatzen da, nolabait ezkontza-hausturaren ikur dena. Hortaz, nobela honek Leturiaren gatazka existentzialaren bilakaera kontatzen badigu ere, oso kontuan hartu behar da gatazka existentzial horrek, nobelako egiturak zedarritu bezala, hitzarmen sozial eta instituzio sozial konkretu batekin harreman estuan garatzen dela: ezkontzarekin, hain zuzen ere. Jakina, ezkontza, hitzarmen sozial eta instituzio sozial modura ere rol konkretu batzuetan kokatzen ditu gizonak eta emakumeak. Leturiaren bilaka-

eran, hortaz, ezkontzan oinarrituriko jendarte-antolaketak eragindako krisiak eta gogoetak mamitzen dira. Horregatik, Leturiak bere buruaz hitz egiteko erabiltzen dituen ispiluak aztertzerakoan, bi aldi bereiziko ditugu, ezkontza aurreko aldia, eta ezkontza ondoko aldia. Are gehiago, bi aldi hauetan erabiltako ispiluen artean ere nolabaiteko simetria badela ikusiko da.

1. LETURIAREN ISPILUAK EZKONTZAREN AURRETIK

Esan bezala, Leturiaren barne-bilaketa horretan, bere burua ezagutu nahian idatziriko egunkarian, Leturiak hainbat ispilu erabiltzen ditu bere buruaren berri izateko, bere burua islaturik ikusteko, bere burua eta nortasuna gorpuzten saiatzeko. Eta jakina, Miren ispilu horietariko bat da. Ispilurik nagusia. Baina, interesgarria da oso nobelan Leturia pertsonaiaren bilakaeraren berri izateko ispilu horiek zein diren identifikatzea, azken batean, ispilu horiek guztiek badutelako harremanik Mirenen irudiarekin, Miren ere ispilu badelako.

1.1. Iturria: natura

Nobelaren hasieran, nabarmena da oso naturaren eta hiriaren arteko aldea, bi eremu kontrajarri bailiran irudikatuak. Lehenik, Zerubideko parketasuna goratzen du: «Zerubide hau txit polita da, parke guztiak bezala. Ez dakit Zerubide ote den polita, ala Zerubide bera ez dena, hots, bere parketasuna» (26. or). Eta are gehiago, Zerubide parkean bakarrik egonda omen da zoriontsu, dio, naturako elementuak lagun dituela: «Orain, esaterako, aulki batetan eserita, urmaeltxiki borobil bat dut aurrean, neure lagun bakarra» (26. or.). Beraz, natura du lagun bakar, eta naturan sentitzen da Leturia zoriontsu nobelaren hasieran. Gainera, naturak emaniko zoriontasun hori hiriaren zorigaitzarekin alderatzen du: «Kaleko zarata zela-ta, ez nuen neure bihotzaren dei isila entzun, gor honek. Orain, berriz, urmaeleko susmurrak, eta arbolen kulunkaera harrigarri eta aldakorrak, garbiro belarriratzen didate bihotzaren hitz ahula. Zoriona behar dut, bai. Hiriko orroa zentzugabeak ez nau bete. Orain, oster, urrutitik entzunda, haren itsustasun eta gezurraz konturatzen naiz» (28. or.). Beraz, nobela abiatzen denean, Leturiak natura du ispilu, eta bere bihotzaren lasaitasun eta zoriontasuna ere naturan atzematen du, naturan atzematen du bizitzaren zentzua, bizitzaren egia, eta kaleak, hiriak zentzugabetasunera eraman dutela adierazten du, gezuraren bidean jarri dutela.

1.2. Gizona: jendetasuna

Naturarekiko harreman hori aurkeztu ondoren, jendetasuna (edo gizontasuna?) aurkezten zaigu, bakardadeari buruzko gogoetak eginez. Lehenik (1),

bere egoera hori, parkean egotearena, jendearentzat orokorra den egoera batekin berdintzen du; ondoren (2), «gutasun» batetik hitz egiten du, bakardadearen inguruko gogoeta orokorrak eginez; eta azkenik (3), bakardadean egon eta gogetan aritzeko aukera justifikatzen du:

- (1) «Gizonak bere begien aurrean belar izpi bat duelarik, gogaituta dagoela esan al dezake?» (26. or.)
- (2) «Gogorra omen da bakarrik nahi eta nahi ez ibiltzea. Eta, halere, pozik egon ohi gara bakarrik. Nola hori? Zer da bakardadetik ihes eragiten diguna? Eta zer da bestetan haren bila zuzentzen gaituela? Geure baitarako mintzagaiak izatea; geure buruarekin hitzik gabeko jarduna izateko gogo». (26. or.)
- (3) «Hots, neure buruarekiko kontuak garbitzeko joaten naiz bakarrik, garbiketa hutsa baita, eta egiatzko aitorketa, bakardadean egiten dudana egonaldia.

Neure burua ordea gezurtatu nahi dudanean, ezin dagoke aitorketarik, ez dut bakarrik egon nahi. Beldurra da, bada, nire buruaren beldurra alegia, bakardadetik baztertzen nauena» (26. or.)

Beraz, oso argia da diskurtsoan agertzen den bilakaera. Lehenik, jendea orokorrean naturarekin harreman estuan bizi delarik zoriontsu omen dela dio, eta bakardadeak sorturiko zoriontasun hori gutasun horrekin lotzen du, jendearen ezaugarri orokortzat hartuz. Eta azkenik, bakardaderako joera hori jendetasunaren ezaugarri orokor modura aurkeztu ondoren, bere bakardade pertsonal horren premia agertzen du. Alegia, azalpen orokorretatik pertsonaletara doan diskurtsoa sortzen du, jendeen ezaugarri orokor eta unibertsaltzat hartzen dituenak aurkeztu ondoren, pertsonaia konkretuaren ezaugarriak agerraraziz. Antza, hasiera-hasieratik nabarmentzen den bezala, nobelaren asmoa ez da nortasun konkretu baten sortzea, baizik eta jendetasunaz gogoeta egiteko aitzakia izango den pertsonaia sortzea. Bide horretatik, aipatzekoa da nobelaren lehen pasarte hauetan, «gizon»-en ezaugarri orokorrez hitz egiten duela, baina, badirudi jendearen ezaugarri orokorrak aipatu nahi dituela, eta ez da hain nabarmena jendetasuna gizonen ezaugarriekin bakarrik berdintzeko joera, nobelak aurrera egin ahala gertatu bezala (Mirenekin hartu-emanetan hasi ondoren batez ere).

1.3. Etxea: gauzatasuna

Leturiak bere buruaz hausnartzeko ispilutzat hartzen duen hirugarren elementua etxea da, gauzatasuna alegia. Honela, aurretik aurkeztu berri duen jendetasuna eta gauzatasuna aurrez aurre jartzen ditu, honako pasarte honetan ikusi bezala:

«Baretasuna dario etxetxoari bere gauzatasunean; ez da ezertan higitzen, eta bere horretan dirau eta dirauke» (27. or.). [...] «Zorion-mina da izadiaren eder-lore iaukalak sortu didan bihotz-hutsunea. Kezkatzen ez diren izakiekiko bekaitz-giro sentitzen dut barrenean batzutan. Haien bakea!» (28. or.).

Leturiak nobelaren hasieran etxearen betierekotasuna, mugiezintasuna goratzen ditu, eta haren zorientasuna du desio. Izan ere, kezkarik ezari mirespenez begiratzen dio, eta kezkarik gabeko izakitzat hartzen ditu gauzak, eta ondorioz, jendea litzateke kezkaz beteriko izakia, kezkarako joerak osatuko luke jendearen ezaugarri nagusienetarikoa.

1.4. Ezkonberriak: hitzarmen soziala, ezkontza

Gauzak eta jendeak alderatu ondoren, jendeen arteko harremanak ekarriko ditu hizpidera. Horretarako parkean zehar dabiltzan ezkonberriak izango ditu aitzakia, ezkonberri horiek izango dira Leturiarentzat ispilu, bere nortasunaz gogoeta egiteko bide:

«Bidea aurkitu al dute bi horiek? Aurkitu... aukeratu bai, behintzat. Askatasuna galdu dute, alegia, baina gaurgero maite-kezkabiderik ez dute izango. Horretaz gainera elkar maite badute, zerua ez al da ireki haientzat? Baina... Zauskada sakon eta latz batek astindu dit bihotzondoa. Zer dakit nik honetaz? Lilura, lilura!! Zorion itxura oinarrige hutsa ez al da horiek ikustekak bururatzen didan hau? Bi hegi, bi alderdi, bi aro izan ditu horientzat bizialdiak: txikitatik orain artekoa bata, eta gaurdanikoa bestea. Lehenengoari utzi diote. Hala ere, azken-kutsuren bat ez al du ezkontzak? Ordurarte, alde batek, gorantz al doa gizona, handik aurrera beherantz eta ilunpe beltzaren aldera abiatzen dela? Txikitzen ez al da gizona ezkonduz? Ezkongaietan zerbaít banintzen, ezkondu eta...

Aurrera begiratu, beste biziera bat islatzen da; alegia, ezkonberrientzat. Bainan, ezkon-aurre ametsa bazen, ezkon-ondoa zehatze eta konkretatzea da; eta ametsen gauzatzea beren amesburua baino zirtzilagoa ez al da izaten?

Zoragarria haien etorkizuna: bizimodu desberdina, zeharo ezagugabea, beheanzkoa agian.

Nork daki?

Eztai-eguna igaro dute horiek. Gaztetasun betearen bila abiatu, gaztaroa hil dute. Sari garestia, egia esan, aukeramenean baitatza gizonaren izana» (31-32. or.).

Pasarte luze hau bertaratu dut, ezkontzari buruzko gogoeta hauek etortzearen istorioaren mamia gordetzen dutela iruditzen zaidalako. Izan ere, Leturiak argi uzten du gogoeta hauetan guztietan, bere ustez, jendearen (edo gizonaren?)

funtsezko ezaugarria *aukeramena* dela, aukeratzeko gaitasuna dela. Hortaz, ezkontzaren inguruko gogoeta hauetan guztietan ikusi bezala, ezkontza hautu bat egitea denez, eta Leturiaren iritzira, hautu horrek bestelako aukeretarako bidea ixten duenez, ezkontzak funtsezko ezaugarri hori kolokan jartzen du, edo behintzat galdera horri eusten dio, galdera horrek jotzen du Leturiaren gogoa.

Gainera, aipagarria da oso ezkonduen naturarekin komunikatzeko gaitasun hori galdu dutela aipatzea: «Zer burura diezaioke Zerubide iturritxo honek ezkondu dagoen bati? Ez, alegia, niri esaten didana bera. Nolakoa ote da ezkonduen loreen hizkuntza? Jaiotzatik ezkondu artekoa eta ezkontzatik heriotzarakoa: horra bizitzaren bi zatiak: hautatu aurrekoa, hautatu ondokoa» (33. or.). Badirudi, beraz, ezkontzarako hautua eginez gero, hitzarmen sozial horretarako hautua eginez gero, jendeak askatasuna galtzen duela, aukeratzeko gaitasuna galtzen duela, eta ondorioz, jendetasunean ere herrenago dela. Horregatik, ezkonduen naturaz gozatzeko eta naturarekin harremanetan egoteko gaitasuna ere galdu dutela iradokitzen du Leturiak, nolabait naturarekin komunikatzeko gaitasuna nork bere buruarekin komunikatzeko gaitasunarekin lotuz.

Ezkontzaren inguruko gogoeta orokor hauek harilkatu ondoren, berriro ere bere egoera pertsonalean kokatzen du mintzagaia, eta kasu konkretu honetan, emaztegai izango duenaren harremanak nolako bilakaera duen kontatzen digu

1.4.1. Miren emaztegai

Leturia parkean dela ikusten du lehen aldiz Miren, iturrira hurbiltzen denean: «aurreko iturrira alderatu da neskatxa bat. Uraren ispilu higikorrena begira egon da lipar batez; eta bere burua ala urmaeleko hondo harritsu ikusten ote zuen, ezin esan dezaket nik, ametsetan bezala baitzuen begirada...» (33. or.). Beraz, Leturiak Miren ikusten duen lehen egunean ere naturako elementu batekin parekatzen du. Hurrengo egun batean, egun euritsu batean, «parke bustiaren bakardadeari bihotzez betesten eta ederresten» ari zela, neskatxa ikusi zuen berriro ere, Miren. Lotsatuta agurtuko du, eta honela deskribatuko du, naturaren elementuen bitartez beste behin ere: «giro busti eta ilun hartan margo-lore bizia zen bera, eta gorri-zuri gozoa inoiz ez dut senditu gaur bezain garbi eta kilikagarri» (36. or.). Eta ondoren, honako galdera hauek egiten dizkio bere buruari: «Nik bezalako kezkabide eta katramilak al darabiltza ausaz Zerubideko neska horrek? Zertarako haratzen da bestela horrenbestetan eta bakarrik? Tristerik eta huts-minez al dabil hura ere?» (36. or.). Miren ispilu duela jada Leturiaren nortasunarengan bilakaera nabaria da. Izan ere, nobelaren hasieran garbi dio jendearentzat ona omen dela bakarrik egotea, jendeak bakardadea bilatzen duela, baina, Miren bakarrik ikusirik huts-minez dagoela iruditzen zaio. Izango al du zerikusirik ikuspegi aldaketan Miren emakumea izateak? Ez da ahaztu behar nobelaren hasieran jendeak bilatzen duen bakardade hori aipatzean jendearen irudi hori bakarrik gizonezkoak

izendatzeko omen den ez dagoela argi. Badirudi Miren ispilu bihurtzearekin batera, Leturiak bere gizotasuna gorpuzten duela, eta gizotasun horren in-guruko kezka harilkatzen ditu hemendik aurrera.

Dena den, ezkondu aurreko aldi honetan, Leturia eta Mirenen arteko harremanak hainbat urrats egingo ditu:

1.4.2. Mirenen irudi fisikoa: Leturiaren desiraren objektua

Leturia eta Mirenen arteko harremana, nobelaren hasieran, idealizatzeko baten kontakizuna da. Hasierako pasarteetan Leturiak ez du buruan Miren beste irudirik izango, eta are gehiago, Mirenen irudi erromantikoa osatuko du, edertasun fisikoaren estereotipoz osaturikoa: «ezpain lodiskoteak», «begi herabetiak», «kristalezko bere ahotsak», «gorputz lerdena, begi argiak, bolizko larru zuria» (38. or.). Eta gainera, naturarekin harreman estuan irudikatzen du Miren nobelaren lehen pasarte hauetan, bai Mirenek sorturiko grina egarriarekin parekatu egiten duelako («Eremuan ehun egunetan egondako ibiltariak ura edango zuen eran, edaten nuen nik haren aurpegi zoragarria», 38. or.), bai Mirenek naturako elementuetan eragin berezia duela aitortzen duelako («Nola ez dira harriak berak hari entzutean urtutzen? Nolatan ez ditu haren begirada otoitsuak harkaitzak berak beratzen», 38. or.).

Honela, Mirenen kanpo-itxurak zoratuko du Leturia, eta harekin erabat maitemindurik, ordura arte Zerubiden izandako lasaitasuna, naturak emandako lasaitasun hori zoramen bilakatuko zaio: «Gizonaren xede bakarra bidez eta zentzuki bizitzekoa bada, eraman nazatela deabruak. Zertarako nahi ditut nik arautasuna eta zentzua, orain arte lozorroa besterik eman ez badidate? Bere bidez biziaren giharra hausnartzeko gauza egiten banau, betor ordu honean erotasuna» (40. or.).

Beraz, argi dago Leturiaren barne-gogoa aldatu egiten dela Miren ezagutzearekin batera, eta ordura arte zentzuz ibiltzearen aldeko bazen, naturaren orekaren aldeko bazen, orain eromenaren aldeko agertuko da, kezkaaren aldeko, desorekaren aldeko, kontrajarpenaren aldeko. Honela dio Miren mintzagai duela: «Egun eta ilun zatzaizkit batera» (40. or.). Eta gainera, nahiz eta Mirenen isla gorde nahi duen, nahiz eta Miren ispilu iraunkor bilakatu nahi duen, ezinezko zaio, ez du asmatzen oroimenean iltzatzerik: «Gogoratzen saiatzen naiz, eta bere aurpegiak zehatz oroitzen ez naizela ohartzten naiz saiatze berean. Gezurra dirudi: nire bizitza mamitu eta piztu duen oroitzapen horrek, ez du nigan, izan ere, isla aratzik» (41. or.).

1.4.3. Mirenen laguna, beste norbaiten objektu izatearen beldurra

Leturiak Mireni bere sentimendua adierazi aurretik, Miren lagun batekin ikusten du, gizonezko lagun batekin, eta ezinegonak jotzen du, kezka jotzen

du: «Egia esan, ez dut ulertzen, zergatik ez zen, bada, beste gizonekin ibiliko? Han zegoen nire Miren maite eta maitagarria. Nor ote zoriak horren bereziki hornitzen duen gazte hura? Senargairik ote du Mirenek. Edo-ta ere kenduko diodala zin dagit hemen, hartarako zeru-lurra oinperatu eta hilerazi behar baditut ere» (42. or.). Mirenek jada senargaia izatearen kezka jotzen du Leturia, Miren jada beste norbaiten desira objektu izatearen kezka.

1.4.4. Leturiaren gutuna: hitzeko komunikazioa, maitasun aitortza

Leturiak desiratzen duen emakumea lortzeko gogoz, komunikazioan urrats bat egitea pentsatzen du, eta Mirenen isla hori iraunkor egiteko asmoz, maitea bere ondoan iltzatzeko asmoz, gutun bat idaztea erabakitzen du. Leturia ez da, antza, gorputzez bere sentimendua adierazteko gai, eta hizkuntza baino ez du maitasun keinuak adierazteko baliabide. Eskutitza ematera dihoanean, baina, Mirenek ez dio hartu: «Ez nuen nik jokaera hau espero; eta emakumeekin gehienetan gertatzen den bezala, hura geratu da garaile; eta ni, gauzak pentsatuta zituena, asaldata eta oreka galdua» (43. or.). Mirenek gutuna hartu ez dionez, Leturia biziki haserretu da, eta Mireni oso gogor hitz egiten dio, eta gero Leturia damu da, baina horrela justifikatzen du bere jarrera: «Ez omen da gizon «azkarraren» bertutea beti atzeraka eta damutan ibiltzea; eta hala nabil ni» [...] «Nork jokatu du inoiz denetan zentzuz, eta adimentu hutsaren arauera? Egizale izan behar da besterik ez gizonaren flakia aitortzeko» (44. or.). Beraz, Mirenekin izan duen jarrera zakarra eta bortitza justifikatzeko gizonaren ezaugarri bat baliatzen du, ahuldadea. Hurrengo pasarte honetan ere bere jarrera gizonaren ezaugarri eta izera orokorrekin parekatzen du: «Bainan zerbaitek esaten dit isilik: Lasaitasunean noiz izan zara gizon? Beti damutu zaizu bezperako sasi-pakea. Lasai irauteko jaio al zara?» (44. or.).

1.4.5. Mirenekiko harreman fisikoa

a) *MUSUAK*: Mirenek azkenean gutuna onartzen du, eta Leturiarekin hitzordu batzuk ere egiten ditu, pixkanaka bi lagun arteko harremana sendotuz doala. Baina, Leturiak harremanean aurrera egin nahian edo, eraztun bat bidaltzen dio Mireni, truke fisiko horren bitartez hitzarmenen bat sinatzeko asmoz. Elkarrekin topatu, eta Zerubidera doaz, iturri aldera, elkar ezagutu zuten lekura, eta harreman fisikoari bide emango diote. Elkar musukatuko dute, baina, erabat esanguratsua da Leturiak musuaren berri emateko erabilitako hitzak: «Zeharka izan da musua, zerutiarra, eta laburra izan arren betikotasun kutsuduna» (63. or.). Beraz, badago halako gerturatze fisikoa, baina ez da haragizkoa edo desirazkoa, zerutiarra baizik. Bestalde, badirudi urrutiko harremana zena fisiko bihurtzean ere eraldaketa jasaten duela Leturiaren bar-

ne-gogoak. Esanguratsua da oso, besteak beste, Miren musukatu ondoren parkean ikusitako andre zahar baten deskribapena egitea, harreman idealizatu eta urrun zena zehaztean edo konkretatzean heriotzeranzko bidean jarria dela iradokitzen du eta: «Larruaren beroa eta euriaren hezetasuna elkarrekin nahasiak nire begitardean gogoz dastatuz gero, banentorren Zerubide'tik etxe alde-ra, nahiko bustita, egia esan, bainan pozik. Eta behingoz, estutu egin zait bi-hotza. Barneko Mirenen irudiaren orde, amona gajo bat begiztatu dut aurrean. Beltz zaharra zuen jantzia burutik oinetaraino, narratxa burua, eta gutziz karakatuta gona. Dirurik batere gabez, eta dena galdutzat emanik, noski, ez zuen ondikoakoak ezertariko gogorik, ezta kalean garbi agertzeko ere. Zerk euts lezake emakume cupidagarri hura bere hartan? Zer, heriotzaren beldurra ez bada?» (64. or.).

Are gehiago, harreman fisikoa abiatu ondoren, Leturia kezkatu agertuko da oso, Mirenen musuek ez baitute asetzen: «Harekin nagoenean, arrenkuratsu eta joranez beterik ohi nago; gehiago nahi bide dut, eskaintzen zaidana gutxi bailitzan, eta gehiago-behar horretan mugitzen naiz alai eta triste. Haren gorputza behar al dut? Ez, ez! Eta hargandik urrutzean, hura bai gogorra! Miren'ekin nagoenean bete eta kezkatu, Miren'engandik urrun huts eta hil» (65. or.). Oso esanguratsua da Mirenen gorputza horrela ukatzea, ondoren aipatuko dugun bezala motibo errekorrente izango dena nobelan zehar.

b) ZAPLAZTEKOA: Mirenekin harreman fisikoa abiatu eta egun gutxitara, Leturiak Miren bere lagunarekin ikusten du berriro ere, eta hargatik, Mirenek adierazitako sentimenduen inguruko kezka eta zalantza agertzen du, horiek guztiak lelo batera bilduz: «Aldakortasuna: emakume deritzu» (67. or.). Deigarria da oso aldakortasuna emakumearekin lotzea. Eta are deigarriagoa dena honako hau da, Leturiak dituen kezken ondorioz, erreakzio bortitza izatea: «Zerubiden ikusi dugu elkar. Ni iritsi orduko bazegoen han Miren. Eta atzo gauean hala erabakita, haren ondora joan eta hitzik esan gabe, zaplateko bat eman diot. Negarrari eman zaio gajoa, eta orduan konturatu naiz neure zakarrera latzaz. Berandu zen» (68. or.). Bortxaz jo ondoren Mireni, bere haserrea fisikoki adierazi ondoren, musu ematen dio kontsolatu asmoz, baina, berriro ere harreman fisiko horren desira sexual eza agerrarazten du: «Eman daitekeen musurik xamurrena eman diot masailean, batere haragikeriarik gabea, neure amari emango niokeen bezalakoxea» (68. or.).

Beraz, Leturiak bere jabetza aldarrikatzeko bidetzat du bortxa, Mireni bere jabetza dela adierazteko bidea. Adierazgarria da oso bortxazko keinu honen ondoren bihurtuko dela Miren Leturiaren emazte, Leturiaren jabetza. Zaplastekoa, beraz, ezkontza tradizionalak sortzen duen botere-harremanen ikurtzat har daiteke.

Ondorioz, Leturiak bere nortasunaz gogoeta egiteko erabili dituen ispilu-ei erreparatzean bilakaera konkretu bati erantzun diola ohartzen gara: lehenik,

naturarekiko harremana zehazten du; bigarrenik, jendearekiko harremana; hirugarrenik, gauzekiko harremana; laugarrenik, hitzarmen sozialarekiko harremana.

2. LETURIAREN ISPILUAK EZKONTZAREN ONDOREN

Aipatu bezala, ezkontzaren ondoren Leturiaren kezkek beste bide batetik joko dute, huts sentituko da, eta ez gogobeterik. Aipatu behar da, dena den, desira objektua lortu ondoren Leturiak bizi duen bilakaera kontatzeko desira lortu arteko bidean aipaturiko antzeko ispiluak erabiltzen dituela, baina oraingo honetan ispilu horietan beste modu batera islatuz.

2.1. Ezkonduak: hitzarmen soziala

2.1.1. *Miren emaztegaia emazte bihurturik*

Emaztegaia emazte bihurtzerakoan, jada Leturiak ez du desirarik sentitzen, eta gainera, desira objektu zenak ez du asebetetzen. Honela adierazten du Leturiak: «Larria da oso esatekoa: Miren'ek ez nau zoriontsu egiten. Ezkondu aurrean bezain tirrika nabil. Lehen eta noizik behin bakarrik, bera biziak itsututa, elkar ematen genuenean, zerua bera geurekin genuela zirudien: odol-itsutasuna eta zoriona nahasten genituen» [...] «Mitoa desegin eta tirrikazioak deuseztatuta, bihotza zipilduta, sakonago egin da hutsunea. Nekatu egin nau opa nuena eukitzeak» (80. or.).

Nobelaren hasieran egin bezala, ezkontzari buruz gogoeta egiteko, berriro ere Zerubiden ezkonberriak ikusi egiten ditu, baina oraingo honetan bere hausnarketek beste bide batetik joko dute, ezkontzaren inguruko ikuspegia ezkorragoa izango da, bere esperientziak ikusiarazitakoaren bidetik: «Bi ezkonberri etorri, argazki batzuk atera, eta joan egin dira» (82. or.).[...] «Berriz bururatu zaizkit egun hartako iduriak; behetik gora begiratzen nien orduan, goitik behera gaur. Haienganako mirespina zen hura, mirespen asaldatzailea alegia; kupida gaur arratsaldekoa. Aldapan gorakoan nekusen orduan lisuragaina; beherakoan gaur» (82. or.).

Are gehiago, ezkontzaren ikuspuntu jakin bat jorratzen du, seme-alabak izatean ezkontza ezin urra daitekeela dioen pasarte honetan adierazi bezala: «Semearen kontua duk hor, eta beti, gogorrena; honek ez beste baiezten dik ezkontzaren ezin urratzea» (83. or.). Ezkontzaren funtzio nagusia familia osatzeari begira jartzen du beraz, ugalketari begira. Baina, nahiz eta adierazpen horretan argi geratu jendartean funtzio nagusi hori ematen zaiola ezkontzari, Leturiak eredu tradizionalen ulerturiko ezkontzari kritika egiten dio, behin betiko hitzarmen sozial modura erroturiko ohiturari, behin-behinekotasunerako

premia ere ikusiz, ezkontzari egiten zaio honako kritika honetan adierazi bezala: «akats bat aurkitzen zioat ezkontzari: aurretik ezin probatzea. Nahi dutena esango ditek honi buruz zintzoez eta ortodoxoez; bainan beti izango duk hau mila okerren iturburua. Eta dirudienez, zuzendu ezinezko okerburua duk» (84. or.). Argi dago, hortaz, Leturiaren barne-gatazkan ezkontzak baduela lekurik, ezkontzak dakarren lotura motak eta harreman motak eragin dituela bere kezkarik nagusienak, eta ezinegon nagusienak.

2.1.2. *Leturiaren lagunak, ezkontzarik gabeko askatasuna*

Ezkontza ondorengo aldi honetan, Leturia ezkonduak bere lagun ezkongabeekin konparatzen du bere burua. Batez ere ezkondu ez den Mikelen egoerarekin, eta haren askatasunaz hausnarketa egiten du: «Bainan, sakonago aztertuz, libre al da? Ez aukeratzea aukeratu du, nire ustez, eta zentzugabeke-ria da hori. Bere burua engainatzea baino ez. Pentsatu ondoren hartu izan balu bederen bere bide hori... Bainan ez dut uste. Oharkabeen edo pentsatu gabez, aukeratu du itsutasunaren bidea; eta hau da hori: saldukeria, gizonak egin dezakeen saldukeriarik galduena. Mikel'ek jakinez eta burubidez, bizitza autentikoa hautetsi beharrean inautentikoa hartu du bidetzat» (87. or.). Eta bere lagunarekin egiten duen erkaketa honetan, bere barne-kontrajarpenak ager-razten dira, aukeratu izanaren mina, eta ez aukeratzeak dakarren koldarkeria. Jakina, berriro ere aukeratu beharra ezkontza-hitzaurrekin lotzen du, eta bakarrik hitzaurre sozial horrekin, ez besterekin.

2.1.3. *Mirenekiko harreman fisikoa*

«Udazken» ataleko alderdirik interesgarria, nire ustez, Mirenen gorputzaren inguruan eta harreman fisikoen inguruan egiten dituen gogoetak eta aipamenak dira. Are gehiago, Leturiaren nortasuna nobela honetan zehar, batik bat Mirenen gorputzarekiko sentimenduetan errotzen dela sendoen esango nuke. Bestelako kezka guztietan, badirudi Leturiaren ahotsa nortasun propio eta berezia duen pertsonaia gorputzeko baino, jendearen kezka orokorrak agerazteko aitzakia dela. Baina, Mirenen gorputzari buruz hitz egiten duenean, orduantxe bai, nortasun propioa duen pertsonaiaren ahotsa entzuten dugu.

a) *Mirenen gorputzasuna*: aipatzekoa da, lehenik, obsesio berezia sortzen zaiola Leturiari, ezkondu ondoren, eta gizon-emakumeen arteko harreman fisikoak gizonen arteko harreman fisiko modura irudikatzea jotzen du, eta zerbait nazkagarritzat jo. Kanean zehar ibilean doala, neska-mutil gazteak ikusi ditu musuka, eta honako burutapen hau du: «Bapatean neska-mutil guztiak gizaseme bilakatzen zirela bururatu zait. Zer infernu-ikusketa zen

hura? Goragaleak ere hasi zaizkit, nik uste. Hura ikustekoa!» (87. or.). Eta kalean izan duen ikuskizun irudikatu horren ondoren, gainera, Miren gizon irudikatuko du, eta are nazkagarriago egingo zaio: «Etxera itzulirik gogoeta hauek nerabilzkien gelan, eta ziplo, tximistak argituta bezala gizaseme bihurtuta ikusi dut Miren. Zabal eta borobilak jarri zaizkit begiak. Hura ikara! Banquo eta Macbeth'ena bera. Neure aurre-aurrean nuen Miren gizona, eta nazka-lotsa eraginda, atzera hasi naiz urrats txikiz» (88. or.).

Hortaz, emakumeak gizon bihurtzeko obsesio kontrolaezin horretan egon badago, esan bezala, Leturiaren nortasun propioa margotzeko printzarik. Kasu honetan, irakurbide berezia eskainiko lukeen obsesio batek biltzen du pertsonaia: gizonen arteko harreman fisikoak irudimenean iltzatzeko joera, eta joera horrek sorturiko nazka. Beraz, harreman homosexualen inguruan duen obsesio eta gaitzespenak ere ezkontzaren eta bikote harremanen eredu konkretu batera darama Leturia.

Dena den, kuriooa da gizonen arteko harremanek nazka eragin ez ezik, Mirenen gorputzasunak ere nazka eragitea. Are gehiago, badirudi gizonen arteko harreman fisikoak irudikatu egiten dituela, gorputzen arteko harremanak sortzen dion nazka transmititu asmoz. Horiek horrela, Mirenen gorputzak sorturiko nazkaz hitz egingo du: «Bi higuinaldi izan ditut orain arte Miren'ekin, eta biak izan dute oinarritzat gorputzasuna. Lehenbizi, oraindik ezkongai girela, atzerarazi ninduen batzutan bere gorputzasunak. Gauza harrigarria zen: gorputz zelako etsi-arazten bere gorputzak, gaizkoa zelako, mugatua eta pisua zelako. Gaitzi zitzaidan bolada hartan nire barneko lisura zoragarriak gorputzaren bidez azaldu beharra.

Orain, berriz, ez da inola berdin. Nekatuta nagoenean ez zait axolik bere gorputzasuna nire ondoan nabaitzea. Ez dago gorputzezko hesirik. Baina, noizean behin, odolak eraginda besarkatu eta nireganatu nahi dudanetan, nazka ematen dit bere gorputzasun horrek; ez alegia, ezkongai-aldikoagatik, neure grina, joera, eta senen jopu eta katigu naizelako baizik» (90. or.).

Beraz, harreman urrun eta idealizatu zena gorputzerakoan, harreman fisiko zehaztu bihurtzean desira objektu zitzaiona, nazka objektu bihurtu zaio. Argi asko adierazten du bilakaera hori pasarte honetan: «Nahikundeak eskatzen duena lortzen ez bada, nahikundearen almena edo joera gelditzen da erren eta gogotsu. Baina desira lortuz gero, izate osoa, nortasun osoa gelditzen da egarri bizian, osotara etsita, nora jo ez dakiela. Lehenbizikoan, lisura batek lurjotzen du; bigarrenean, gizon osoak. Honegatik, sakonago da nahikundeari darraikon tristura, nahikundeak betekizun gelditzeari darrikona baino. Hots, kaltegarriagoa da lortzea, ez lortzea baino» (101. or.).

b) Mirenekiko bortxa: Mirenen gorputzak sortzen dion nazka dela eta, Leturiari bortxarako gogoia sortzen zaio, Mirenen aurka egiteko gogoia, ondorengo amets honetan agertzen den bezala: «Lotan zegoen Miren, lo sakonean. Begiratu egin nion, nire odolak harrigarriro zirakiela. Azaldu ezinezko amo-

ruak harrapatu ni, eta lepotik heldu nion bi eskuez, bihurtzeko eran. Eta estutzen hasi nintzen, geroz eta bortitzago, batere gupidarik gabe. Eta nik estutu-ala, beroago eta lodiago egiten zitzaidan odola, eta zainetan zehar ibili eta ezin zitekeela zirudien. Beroaldiaren handia!

Zerbait esan nahi bide zidan Miren'ek: bere begi zoratueta ikusi nuen nik. Begirada triste haren irudia ez zait sekula itzaliko. Bainan une hartan, ni bigundu beharrean, ankerrago bihurtu ninduen, nolatan ez dakidala, eta indar berriak eman zizkidan bere ahultasunak» (103. or.).

Pasarte honetan argi geratzen da ezkonduen arteko botere-harremana, emaztearen ahuldadeak gizona indartsu bilakatu duena, bortizkeriara ere bideratuko den botere-harremana izateraino.

2.1.4. Mirenen gutuna, hitzezko komunikazioa

Nobelaren bigarren zati honetan, Miren da hitzez Leturiaren arreta bereganatu nahi duena, Leturia berriro ere bere egin nahi duena. Leturiari eskatzen dio bere ondora itzul dadila, maite duela. Oraingo honetan ere gutunak eragingo du Leturiaren itzulera, hitzezko komunikazioak eragingo du itzulera hori, baina, beranduegi izango da.

Gutun hori jaso ondoren, Leturiak Mirenen inguruan gogoeta egiten du, eta Miren *ona, bihozi, etxekoi* eta *zintzoa* dela adierazten du (91. or.). Badi-rudi ezkondu aurretik Miren emakume ahul, aldakor, kezkatu, eta kaletartzat zuela, eta ezkondu ondoren emakume sendo, zintzo eta kezkarik gabekoa, ezkontzak aldatu izan balu bezala, Mirenen buruan kezkarik edo zalantzarik ez balego bezala, eta ezkondu ondoren, Miren jada etxekoi bilakatu balitz bezala, parkean bakarrik ibiltzen den neskatxa izatetik ohean lotuta gaixorik dagoen emakume bilakatzen delarik.

2.2. Jainko-egarria: erlijioa

Leturiarengan Mirenek sortzen duen nazkaren ondorioz, eta Mirenek asetetzen ez duelako, Leturia aseko duenaren bila abiatzen da: «Nola bete nintzake emakume gajo batek? Nire egarri bera zuenak palakatuko ninduke agian? Nekez bete dezake mugadun sorkariak mugarik ez duen arrenkura. Ezin bete nintzake Miren'ek, ezta beste edozein emakume ere. Erlijiozkoa da gizonaren hutsunea, eta ez dauka mundu honetakoaz aseterik. Ez naiz, bada, emakumeaz nahastu, ez. Ziur dakit orain» (115. or.). Beraz, pasarte honetan jada Miren ez zaigu absolutu bilakatua agertzen, kontrara baizik, Miren gorpuztasuna da, sorkari mugatua absolutuaren aldean. Eta absolutua Leturiak erlijioan atzeman-go du, ez emakumean. Zilegi da esatea, beraz, Miren gizonarentzat (Leturiaren-

tzat kasu honetan) absolutuaren xedeaz beste ikur ere badela, ezkondu ondoko aldian argi geratu bezala. Ondorengo pasartean ere argi ikusten da, Miren hezur-haragizko pertsonaiatzat irudikaturik dagoela, eta are gehiago, hezur-haragizkoa delako ez duela asebetetzen Leturia: «Maitemintzen garenean, esate baterako, ez du ameskia andregaiak sortzen, gure Jainko-egarriak baizik. Horregatik aipatzen dute maite-mina andregaiak berak ez dituen gauzak, oharkabea, absolutuari datxezkion gaitasunak geuk ezartzen dizkiogulako. Eta hala izanik, aberatsa goa da askoz ere gure egarriari darion edertasuna (ukaeraz sortzen bada ere), neskak edo emakumeak duena baino» (116. or.).

2.3. Zerbitzari: jendetasuna

Leturiak absolutuaren edertasuna emakume batengan bilatzearen okerraz ohartu ondoren, bere jarreraz hausnarketa egingo du, Miren nola tratatu duen aztertu, eta honako ondorioetara helduko da: «Eta garaitu nuela esaten nuen nik neure eroegian. Bai, ordea, nire harrokeriak ni garaitu. Ni, ni, ni. Honatx korapiloa: neu nintzen kontutan eduki behar zen bakarra» (133. or.). Hortaz, berekoa izan dela ohartuko da, eta nobelaren hasieran bakardadearen behar hori, nor bere buruarekin bakarrik egoteko behar hori aldarrikatzen badu, nobelaren bukaeran beste jarrera bati lotuko zaio, besteengan pentsatzeko beharra aldarrikatuko du. Leturiak gainera, emakumeak hartuko ditu besteenganako pentsatze horren eredu:

«Maitetasunezkoa da haren elea (begira egiegun emakumeei), eta maitatzean aurkitzen ditu atsegin bizen eta osoenak: maitatzekoa eta sortzekoa.

Eta zer da maitasuna? Nor bere burua eman, nor bere buruaz ahaztu, nor bere burutik ateratzea. Beste batek gu aukeratzen uztea.

Gu zero-lurreko erdian jarrita aukeratu nahi banu adimenduak, geure burua eskaini nahi du berriz sentimenduak. Guztiz diferente dira bada bien jokaerak.

Bainan ustekabeak eta zoriak gidatu banaute orain arte, zein zaio gizonari bietan egokiena? Jainkotzat hartzen bide gaitu lehenengoak; sorkaritzat, ordea, bigarrenak. Hau dago, horretaz, besteak baino sustraizko egiatik bertago» (134. or.).

Erabatekoa da, bada, Leturiaren aldaketa. Zerubiden bakarrik eta bere buruari emana agertzen bazaigu, nobelaren bukaeran zerbitzari modura agertu nahi du bere burua, besteei emana, bere buruari egiten dion baieztapen honetan ikusi bezala: «Zein da nire Zerbitzaria» ez-bainan «zeinen Zerbitzaria naiz ni» galdetu behar dut. Honatx salbabidea» (135. or.).

Zerbitzari behar duela izan aitortu ondoren, bere buruari noren zerbitzari behar duen galdetzen dio, munduan behar duen lekua topatzeko asmoz:

«Horretaz, behar nauenaren zerbitzari naiz ni. Nolatan behar nauen ez du axolik; dena dela, gaur eta hemen, ni behar banau, zorretan nago harekiko, eta neure laguntza eskaini behar diot.

Zerbitzari naiz jaiotzez. Ez naiz gainera zerbitzari abstraktua, ondo konkretua baizik; neureen zerbitzaria bainaiz. Eta, nortzu dira «nire» horiek? Jainkokak neure ondoan jarri zizkidanak.[...] Miren'ek behar nau; nire aberriak behar nau; nireek behar naute. Berena naiz, eta berak gabe ezer ez naiz» (136. or.).

2.4. Miren ohean gaixorik: damua

Leturiak bizi duen aldaketa hau, jakina, Mirenen harremanean ere badu eraginik, ondoren adierazi bezala: «Bizi zaitez, Miren. Prest nago zure alde neure bizitza eskaintzeko. Zure zerbitzari osoa naiz. Zinez esaten dizut» (140. or.).

Senarrak aldaketa hau bizi duenerako Miren jada oso-oso gaixorik dago ohean. Leturiarengan damua nagusituko da, damua eta sakrifiziorako deia. Leturia Parisetik bueltatuko da Mireni behar duen maitasuna eta laguntza eskaintzeko asmoz, baina horren gaixorik ikusita, aztoratu eta mendi aldera doa. Hor zehar dabilela amildegitik behera doa.

3. LETURIAREN IRAKURKETA FEMINISTA

Aurreko bi ataletan ikusi dugun bezala, Leturiaren ispiluak oso bestelakoak dira ezkondu aurretik eta ezkondu ondoren. Azterketa horretan garbi ikusi da, hasieran esan dugun bezala, Leturiaren barne-gatazka ulertzeko ezkontza giltzarri dela, eta are gehiago, jendarte tradizionalen erroturiko ezkontzaren ideia hertsu hori da giltzarri dena. Ispiluen eskema honi begiratu baino ez dugu Leturiaren bilakaera horren aldeaz ohartzeko:

1. Leturiaren ispiluak ezkontzaren aurretik
 - *Iturria* (natura, parketasuna)
 - *Jendetasuna* (bakardadea, kezka, bere burua ezagutzea)
 - *Etxea* (gauzatasuna)
 - *Ezkonberriak* (aukera, bidea, bakea)- **EZKONTZA**
 - *MIRENen irudia* (lorea, deskribapen fisikoa)
 - Mirenen laguna (aukera egin, jabetu nahia)
 - Gutuna (uko egin, desoreka)
 - MIRENekiko harreman fisikoa (jabetza)
 - a) *musua* –zeharkakoa, zerutiarra–
 - b) *zaplasterkoa*

2. Leturiaren ispiluak ezkontzaren ondoren

- *Ezkonberriak eta bikoteak* (aukeraezin, lotura, nazka-iturri)
 - *Leturiaren lagunak* (harrokeria)
 - *MIRENekiko harreman fisikoa: Mirenen gorputza* (nazka)
 - Gutuna (oreka topatu)
- *Jendetasuna* (eromena; Jainko-egarria; harrokeria)
- *Zerbitzaria* (neureak: emaztea, aberria, familiaren zerbitzari)
- *Miren ohean* (heriotza, gaixotasuna, damua, bekatua, otoitza, sakrifizioa)

Eskema honetan ikusten dugun bezala, Leturiaren bidea naturan bakarrik abiatzen da, eta bakarrik dagoela bere buruari buruz gogoeta egiten du, baina Mirenekin harremanetan jartzeak eraldatuko du. Ezkondu ondoren, ezkonberriekiko bestelako sentimenduak izan ezik, jendetasuna ulertzeko modua bestelakoa izango da, eta garrantzitsuena dena, bakardadeaz gozatu beharrean, besteen zerbitzari izateaz gozatuko du. Lehen ispilua iturria da, uraren joanek denboraren joana ere irudikatzen duelarik, eta azken ispilua Miren da, ohean gaixorik dagoela, heriotzaren irudia. Hasierako eremu aske horretatik, parke-tasun horretatik, ohearen eremu hertsia eta itogarrira egiten du bidea. Hortaz, ispiluetan argi irudikaturik dago Leturiaren ibilbidea.

Behin eta berriro aipatu bezala, ibilbide honen nondik norakoek lotura handia dute genero-gatazkarekin, nire ustez. *Leturiaren egunkari ezkutua* irakurri izan denean, aipatu bezala, existentzialismoaren korronteez hitz egin da. Baina, ez korronte guztiez. Ez da Simone de Beauvoir aipatu, eta are gutxiago, ez da egin *Leturiaren gunkari ezkutua*-ren irakurketarik *Le Deuxième Sexe* (1949) liburuan esandakoak kontuan hartuz. Egia da, Simone de Beauvoir-en lan honek Frantzia ere 60ko hamarkadan izan zuela oihartzunik handiena, eta ziur asko, Txillardegik nobela hau idatzi zuen garaian ez zela oihartzun handirik helduko Hego Euskal Herrira. Baina, interesgarria da oso liburu horren arrastoan irakurtzea nobela honetako ideia asko eta asko, Simone de Beauvoir-ek garai hartako existentzialismoari eta bestelako korronte filosofikoei eginiko kritika hori ere nobela honetara lerra dezakegulako. Simone de Beauvoir-ek (1962) lan mardul hau abian jartzeko, baieztatzen du emakumea historikoki gizonak Beste absolutu bihurtu duela, eta *Bigarren sexu*an hori aztertzea doa. Eta azken batean, behin eta berriro aipatu bezala, horixe da Leturiak nobela honetan Mirenekin egiten duena, bere buruaren Beste absolutu hori bilakatzen du. Are gehiago, hasieran harreman pertsonala zirudiena, Leturia eta Mirenen artekoa, nobelak aurrera egin ahala, gizonen eta emakumeen arteko harreman orokor modura irudikatuz doa, jauzi semantiko hori eginez, eta emakume guztiei omen dagozkien ezaugarri batzuk baieztatuz (maitasunari buruz esandakoetan, kasu). Simone de Beauvoir-ek argi adierazten du zeinen zaila den emaku-

meentzat indibiduo izatea mundu patriarkalean, eta emakumeengan generikoak zama ikaragarria duela adierazten du. Horixe da Mirenen irudian ikusten duguna. Ez dago haren indibiduotasunaren ezaugarririk, eta Mireni buruz zer edo zer esaten zaigunean, bere generoaren ordezkariatza aurkezten zaigu, emakumeek egin ohi dituztenen eredu, ez indibiduo baten nortasunaren jarrera modura.

Hona hemen Simone de Beauvoir-en hitzak, Mirenen irudiaz hitz egiteko ezin proposagoak:

Todo sujeto se plantea concretamente, a través de proyectos, como una transcendencia (...). Cada vez que la transcendencia vuelve a caer en la inmanencia hay una degradación de la existencia en un «en sí», de la libertad en artificialidad; esa caída es una falta moral si es consentida por el sujeto; si le es infligida, toma la figura de una frustración y de una opresión: en los dos casos es un mal absoluto. Ahora bien, lo que define de una manera singular la situación de la mujer es que, siendo una libertad autónoma, como todo ser humano, se descubre y se elige en un mundo donde los hombres le imponen que se asuma como el Otro; pretenden fijarla como objeto y consagrarla a la inmanencia (...). El drama de la mujer es ese conflicto entre la reivindicación fundamental de todo sujeto, que se plantea siempre como lo esencial, y las exigencias de una situación que la constituye como inesencial. ¿Cómo puede cumplirse un ser humano en la condición femenina? (...) ¿Cómo encontrar la independencia en la dependencia? (Beauvoir 1962: 24-25).

Pasarte honetan *Leturiaren egunkari ezkutua*-n aurkezten diren egoera zenbait erretraturik ikusten dira. Batetik, Leturia da proiektuak dituena eta askatasuna duena, eta bere burua transzendentzia modura irudikatzen duena une oro. Bigarrenik, Leturiak hasieran transzendentziatza hartu badu Miren (bere buruaren isla modura), ezkondu ondoren inmanentziatza hartuko du (sorkari mugatu, dio berak), eta nazka hartuko. Hirugarrenik, Leturiak bortxaren bidez adierazten dio Mireni Beste absolutu hori dela, bortxazko harremanak agerrarazten du generoen arteko botere-harremana, subjektuen arteko harremanean dagoen desoreka.

Dena den, nobela hau ere bada kontzientzia hartze baten kontaketa, Leturiak bere botere jarrera horren kontzientzia hartuko baitu nobelan zehar, jendarteratze mota konkretua kontatuz, ezkontzarena alegia. Ondorioz, Leturiaren barne-bidaia honek ezaugarri hauek agerrarazten ditu, besteak beste:

- a) Giza existentziaren inguruko kezkez hitz egiten duela esan baino, orokorrean giza existentziaren ingurukoak direnez, zehaztu eta konkretatu daitekeelakoan nago: gizonaren kezkez ari da, zehatzago esanda, klase ertaineko gizon mendebaldarraren kezkez. Askatasuna eta auke-ratzeko gaitasuna ezkontzarekin baino ez ditu lotzen, hitzarmen sozial oso konkretuarekin, pertsonaia jendarte mota konkretu batean kokatuz bere burua, jendarte tradizional eta kristau batean.

- b) Leturiaren existentziak aurrera egiteko, bere idealizazio eta ametsak burutzeko Miren nola tratatu duen aztertzea komeni da: azken batean, bere existentziak aurrera egiteko, bere xedea lortzeko Miren objektu modura tratatu du Leturiak, baina, are gehiago, nobelak aurrera egin ahala, haren kontra bortxa erabili duela ere aitortuko du, eta horrek erreko dio bihotza. Erotismotik (desiratik) bortxara (nazkara) doan bidea da nobela honetan kontatzen dena, pertsonaiaren heriotza ere ekartzerraino. Azken batean, hasierako elementu guzti-guztiek, emakumea lore kontsideratzea, parke busti batean topatzeak, iturria... erotismoaren elementuak irakurtzera garamatza, esan daiteke, hasierako pasarteetan badagoela inplizituki agerturiko erotismo kutsurik, baina Mirenengana hurbildu ahala erotismoa itzali egiten da, gorputzari ere nazka hartzeraino, Miren hiltzeko gogoia izateraino. Leturiaren desira hori aurka etorri zaio.
- c) Aipatzekoa da Mirenek emakume abandonatuaren irudia osatzen badu ere, Leturiak berak aitortu egiten duela nobelan bere jarrera ez dela izan egokia, eta bere jarrera salatzen duela, bizitzerik merezi ez duela iradokitzeraino. Hortaz, badago kontzientzia-hartze garbia, eta botere-harreman horren salaketa ere.

Ondorioz, *Leturiaren egunkari ezkutua* nobelak badu ezaugarri berezi hori, Mirenen inguruko datu gutxi ematen bazaizkigu ere, haren ikuspuntutik eginiko irakurketa ere ahalbidetzen duela, isilduriko pertsonaia horren irudia sortzeko aukera zabalik uzten duela.

Bestalde, euskal nobelagintzari erreparatuz gero, nobela honek ere bada-
kar hausturarik generoaren ikuspuntutik, ordura arteko euskal literaturan generoen rola oso-oso markaturik baitzeuden (emakumea ahula –maitalea– edo sendoa –emaztea eta ama–), eta gizonaren ahotza zen epaile. Kasu honetan, gizonaren ahotsak hitz egiten digu, baina ez epaile modura, zalantzati hitz egiten du, kontraesan bez betetiko galderez osatzen du diskurtsoa, eta diskurtso horren ahotan irudikatzen den emakumearen irudia oraindik ere genero rol berberen arabera izan arren, gutxien-gutxien generoen inguruko diskurtso kontraesankor horretan, eta bortxazkoan, agerian geratzen da generoen artean ezarritako botere hori, bortxa hori.

BIBLIOGRAFIA

- AMORÓS, CELIA, *Hacia una crítica de la razón patriarcal*, Anthropos, Madril. 1985.
- TXILLARDEGI, *Leturiaren egunkari ezkutua*, Elkar, 1983.
- BEAUVOIR, SIMONE DE. 1962, *El segundo sexo*, Siglo Veinte, Buenos Aires.

TXILLARDEGI ETA (KRISTAU?) ERLIJOA

Sebastian Gartzia Trujillo

SARRERA

Egun on. Gaurko mintzaldi honetan honako tesi hauek aurkeztu nahi dizkizuet (I. DIAPOSITIBA)¹:

LETURIA-REN EGUNKARI EZKUTUA ETA ERLIJOA

- 1^a. Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, *idazle erlijiosoa?*
- 2^a. Leturiaren erlijiotasunaren urratsak
- 3^a. M. Unamuno Leturiarengan eragile?²
- 4^a. Existenzialismo *razionalista* ala *kristau* existenzialismoa?

Lau tesi horiek tesi irekiak dira. Eztabaidagarriak, beraz (hortixe galdera markak). Nik tesi horien aldeko arrazoiak ematen saiatuko naiz; badakit, hatik, beste iritziak ere defendagarriak direna. Gaur biltzen garen foro «informal» honetan, giroa aproposa da behin-behineko tesiei buruz iritziak emateko, elkarren osagarriak batzuen batzuk, elkarren kontrakoak besteren batzuk. Horixe da udako ikasturte hauek dakarkiguten abantaila... eta nondik mugituko garen argitu eta gero, goazen harira: Txillardegi eta erlijioa.

Galdetuko banizue zein den *Leturia-ren egunkaria ezkutua*ren gai edo eduki nagusia, zer erantzungo zenidakete?

- Maitasunezko historio erromatiko-tragiko bat?
- Leturiaren edota edozein gizakiren existentzia kezka zein goragaleari buruz barne-elkarrizketa bat?
- Gizakiaren eta Jainkoaren arteko erlazio arazotsuari buruz hausnarketa erlijioso bat?

¹ Ikus *Eranskina*.

² TXILLARDEGI, *Hitza hitz. Txillardegiren solasean*, Elkar, 1996, 54. or.: «Nire Unamunozaletasuna erakusten duen beste artikulu bat eman nuen argitara segidan (59, 1957. urtean), “Unamuno eragile” izenburuaz».

Bada hirurotatik bat aukeratu beharrea, nik *arazo erlijioa* aukeratu nuke *Leturia*-ren eduki nagusitzat, eta, Txillardegi literaturgile bezala (ez hizkuntzalari bezala, noski), idazle erlijiosoen artean sartuko nuke. Ez naiz bakarria. Irakurtzen baduzue Elkar argitaletxeko kritikariek Txillardegiren ezaugarri nagusiaren gisa azpimarratu dutena, hauxe topatuko duzue: «Sinesmenaren –diote– edo geroko bizitzaren arazoak nahiko kezkatzen du Txillardegi». Kokatze horretan Txillardegi bera ados legokeela uste dut, *Leturia* ere bai. Hona hemen frogak (II. DIAPOSITIBA):

LEHEN ZATIA

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, Txillardegi, idazle erlijioa

«Txillardegi idazle erlijioa» baieztapenari buruz, Leturiak

– *Egunkari-azpigeneroa zergatik aukeratu duen justifikatzerakoan, zera diosku*: «Munduan erlijiozko fedea galdu-ala kezka eta zalantza aunditu zaizkio egungo gizonari, ta aiekin batera, geroz eta gehiago ugaritu dira *barne-egunkariak*, benetako literatura-moda biurtu arte» (74)³.

– *Literatura korronteaz (existentzialismoaz, alegia) zera dakigu*: «La filosofía existencial (es) producto (reacción) de la inhibición religiosa (del racionalismo decimonónico)» (ZAMBRANO, M.)⁴.

– *Maitasunezko historia aukeratu dutenei Leturiak hauxe argitzen die*: «Maitemintzen geranean... ez du ameskia andregaiak sortzen, gure *Jainko-egarriak* baizik» (117).

– *Arazo erlijioa aukeratu dugunoi, ostera, Leturiak zera aitortzen digu*: «Argi ikusi dut gaur, eta bihotz-utsunearen sustraiari igarri diot: Jainkoaren egarria da gizonaren zorion-miña (117). «Jainkoaren bearra da gizonaren sustraia bera: gizona ukatu gabe, ezin diteke au uka» (121).

Beste literatura lanetan ere, arazo edo gai erlijiosoaz, behin eta berriz, espresuki eta bereziki aritzen da Txillardegi (III. DIAPOSITIBA):

– *Peru Leartzakoan* esaterako (1960), non, Txillardegik berak aitortzen digunez, gaurko agnostiko askori gogoko izaten zaien Jainkorik gabeko *erlijioa* den «budismoaren presentzia nabaria baita»⁵.

³ Horrelaxe, kako artean, alegia, *Leturia-ren egunkari ezkutua* lehen argitalpenetik ekarritako aipuak. Ikus 75. or. ere: «Orregatik, tristerik edo irrikitan gaudenean idatzi ohi dugu (*egunkariak*): emakume maitatuaren baietza entzuteña, Jainkoaren bidea aurkitu arte, egiteko gaizki dijoazkiguño, eta abar... ta auxe ikusten da garbiro *Leturia'ren Egunkarian*».

⁴ ZAMBRANO, M., *Unamuno*, Debate, Barcelona, 2003, 81.-90. or.

⁵ TXILLARDEGI, *Hitza hitz*, o. cit., 55. or. eta 136. or.. «Budismoaren tentaldia sumatzen du, baina bide erdian geratzen da eta etsipen osoan».

– *Elsa Scheleeni* buruz (1965) Mari Jose Olaziregik zera esaten digu: «Se nos presentan reflexiones referentes a la religión y la secularización (el problema de la secularización se ve reflejada en las dudas religiosas que presenta Munier tras haber conocido a Elsa)», eta Txillardegik berak haxe nabarmentzen du: «Meunier apaiz-ohiak bere buruan nortzen duen eliz-krisaldia, esate baterako, bizi-bizian zen Euskal Herrian 1967-ko urtean; baina, lehenago gertaturik, ez maila berean European edo Belgikan. Gogoan har, esate baterako, esaten dudanaren adierazgarri gisa, Rikardo Arregi-ren artikulu-andanak; edo-ta Mikel Urkola-ren “Sekularrak apaiztu” liburua. Gogoan har, ere berean, fede zaharra galdu eta berriak sendoturik, ezker abertzalearen multzo isiletara igaro zen “defroqué” mordo gaitza, eta mamitu zuen apostolutza harrigarria».

Horrez gain, Txillardegi behin eta askotan gai-erlijiosora itzultzen da idatzi dituen artikulu ugarietan:

- «Kierkegaarden hazia, Unamumoren lore (1955)» Txillardegiren *existentzialismoari buruzko* artilukua, esaterako, eta Budari buruzko «Mendeurren oargarri bat» (1956), eta «Fulton Sheen: Religión sin dios», *Egan*, 5-6 (1956), 155.-157. or. eta «Unamuno eragille» (*Egan*, 3-4, (1957), 170.-177. or., eta «Betikoaz agian», *Egan*, 1-2, 1958, 43.-47. or., eta «Sinistu ezinean iges egin behar», *Jakin*, 27-28 (1967), 16.-22. or., eta «Sartre: Lekuko eta gidaria» (1983)... eta prestatzen ari den saiakeren artean, «Erljioaz eta Antropozentrismoaz» arituko dela aurreratu digu in «Egunen harian», 05.10.26.
- *Zilegi bekit excursus labur bat*: Askotan esana da erlijio edo Jainkorik ez dagoela gaurko euskal literaturan. Ene ustez, ez da iritzi zuzena: Iratzeder, Xalbador, Lekuona, Gandiaga, Manex Erdozaintzi, X. Lete, JA Artze... gaur-gaurkoak ditugu eta, beste arlo batzuk landu badituzte ere, idazle erlijiosoak dira, eta Txillardegi bera, nire iritziz, eta idazle horietariko batzuek oso mezu jatorrak zein originalak azaldu eta adierazten dizkigute. Jainkoa edo erlijioarekiko kezka gutxitu da, bai, ia desagertzeraino ere, euskal literaturan 60ko hamarkadaren inguruan eta geroan jaiotako idazleengan: Atxaga, Sarrionandia, Saizarbitoria, Arrieta..., baina aipatu dizkizuedan lehendabiziko horiek gaurkoak ditugu, ez nolanhikoak gainera, eta arlo erlijiosoa landu dute, eduki interesgarrian eta forma ederrean.

Lehendabiziko ondoriok (IV. DIAPOSITIVA)

Txillardegiren literatura lanak, beraz:

1.a, Literatura erlijiosoan sar daitezke (non egokiago?).

2.a, Sartzekoak dira, esaterako, Charles Moeller-en *Literatura del siglo XX y cristianismo* moduko bilduma batean, hortxe agertu baitziren Txillarde-

gik «berrogeitamarreko hamarkadan gehien estimatu zituen idazleak»: Gabriel Marcel, Miguel Unamuno, Jean Paul Sartre, Simone de Beauvoir, Albert Camus, Carles Peguy⁶...

3.a, J. P. Sartre: «Badaude existentzialista talde bi: lehenak, kristauak direnak: talde honetan Jaspers eta Gabriel Marcel sartuko nituzke⁷; bigarrenak, jainkogabeak: Heidegger, Frantziako existentzialistak eta ni neu (Sartre)⁸».

Txillardegiren erlijiotasunari buruzko lehen atal hau Txillardegiren beraren aipu adierazgarri batekin bukatu nahi nuke: «Leturia idatzi nuenean, bere burua kristau existentzialistatzat jotzen nuen». Beraz, gaika antolaturiko euskal literaturaren argitalpen batean, Txillardegi inon kokatzeko, literatura erlijiosoa-aren barruan kokatu ahal izango genuke (behar nonbait), zer eta Txillardegi agnostikoa izanik, are eta ateoia nonbait. Baina azaleko kontraesan horrek idazle erlijiosoa zer den aztertzeraz garamatza zuzen-zuzen.

Zer da (idazle) erlijiosoa izatea? (V. DIAPOSITIBA)

Espezialista guztiek onartzen dute erlijioa zer den zehaztea ez dela erraza. Erlijiosoa, ez da *strictu sensu* berdintzen euskal literaturan horren ohikoak izan ditugun otoizgile edota sermogileekin. Otoizgileak eta sermogileak erlijiosoak izaten dira, noski, baina beroriek ez dute erlijio esparrua agortzen, ezta sinestunek ere. Nire ustez, erlijioaren paradigma ondoen betetzen dutenak; «zelariariak» dira..., talaiariak, alegia: «Begirale, ze gualdi dugu?» (Is 21 11)⁹.

Erlijiosoak, Diogenesen antzera, argiontzia eskuan, Jainkoaren: «Nun daude Zu? (123) edota gizakiaren misterioaz: «Nor naiz ni, bada?» (134) *galdezka* ibiltzen dira, harat-honat, gora ta behera: «Zerbait Absolutu bear nuen biotzak. Artan atsedena eta atsegiña edateko. Betetasun bear nuen, osotasuna, gelditasun osoa, pake egiazkoa, egia utsa, denetik dena» (117)¹⁰.

⁶ 1950 urtearen inguruan, Txillardegik honako idazle existentzialista hauek irakurri zituen: «Unamuno, Kierkegaard, Jaspers, Heidegger, Sartre, Camus eta Marcel; Marcel batez ere... Existenzialismoaren garaiak ziren eta gu garai hartako seme. Nolabait gure burua definitu izan behar banu, existentzialista abertzaleak ginela edo intelektual konprometituak izan nahi genuela esango nuke, Sartreren eraginagatik edo», in *Hitza hitz*, o. cit, 52. or.

⁷ Baita Kierkegaard, Chestov, Berdiaeff, Maine de Biran, Karl Barth, Blondel, Scheler, Charles Peguy...

⁸ Heidegger jainkogabea existentzialisten artean sartzen du Sartrek, arrazoiz, Heideggerrek atotzat jotzen baitu bere burua, eta, hala ere, O. PÖGGELER-ek *El camino del pensar de Martín Heidegger*, Madrid, 1986, 282. orrialdean, zera diosku: «El problema de Dios está desde el inicio en el camino del pensar de Heidegger».

⁹ *Eginak* (San Paulok), 17, 27-28: «Arek (Jainkoak) gizon bakar batengandik gizadi guztia egin dau... guztiak Jainkoaren *billa ibilli* daitezen eta *itsumustuan* izanda be aurkitu dagien, gutariko bakoxtagandik *urrun ez dago-ta*». Mistikoak «vigías del abismo» (J. OTON), «exploradores del infinito» (UNDERHILL, E.) eta abar; ikus in MARTIN VELASCO, J., *Mística y humanismo* PPC, Madrid, 2007, 247. or. (9) Ikus, nahi izanez gero, «Ohar osagarriak».

¹⁰ *Ibidem*, 97. or.: «La presencia del Misterio, centro del fenómeno religioso».

Zenbatu duzue zuetariko inork zenbat *galdera agertzen dira Leturiaren egunkari eskutuan*?¹¹: «Zein da gizonarentzat bere etorkizunarena baño buru-auste larriagorik? (123). Edozein fedek balio al du besteak aña?... Nork garamatzizke, ortaz, egiazko gure elburura? (125). Baiña, zein fede? Edozein? Zein bide? Zein absolutu? (128). Zertarako ainbeste lan eta neke? (129). Nori deituko? (131). Eta zer da maitasuna? (136). Nere onetan egoteagatik, ezetsi al nazake ausaz Jainkoak?» (138).

Eta zer galdera mota egiten dute (idazle) erlijiosok? Bada, gehien-gehienetan, *muga-galdera* deritzonak¹²:

- Martin Heidegger: Zergatik izakia eta ez ezereza?
- Ignacio Ellakuria: Zergatik ezereza: txirotasuna, zapalkuntza, heriotza... eta ez izakia = izatea? (galdera horretatik etikaren beharra sor dakiguke)¹³.
- Leturia: Non daude mugagabeko bide ezkutuak? (102) Nor naiz, ni, bada? Nola jaio nintzan? (134)...

Izan ere erlijiosok *bizitzaren* (heriotza barne) *zentzuaz* edota *norabideaz* galdetzen dute, behin eta berriz... eta berriz ere, erantzun osorik ez baitute inoiz aurkitzen¹⁴: «Guztiz egokia deritzat onengatik erlijioari, bestegatik ez ba litz ere. Gizonaren *elburua* Zeruan(?) jarritz, *bide* utsa bihurtzen du biziera, ta itxaropenak eta lillurak gordetzeko aukera bakarra ematen dio gizonari» (120).

Galdera edo kezka (VI. DIAPOSITIBA)

... eta Nori galdetu?: Sakratua, lilugarria (beldugarria ere, zenbait kultura eta agerpenetan) izan *litekeen* gutaz «beste» norbaiti: «Erlijiozkoa da berez gizonaren utsunea, ta ez dauka mundu onetakoaz asetzerik» (117).

¹¹ RODRÍGUEZ PANIZO, P, «Dios Misterio», *Sal Terrae*, 93, (2005) 241.-251. or.: «George Steiner ha llamado al ser humano un “imperativo de interrogación”, y Karl Rahner afirma que el hombre no tiene una pregunta, sino que él mismo es esa pregunta (Cf. Grundkurs, 23)».

¹² STEINER, G, *Presencias reales*, Barcelona, Destino, 1991: «Lo queramos o no, estas abrumadoras y tópicas inexplicabilidades y el imperativo de interrogación que está en el núcleo del hombre nos convierten en vecinos cercanos de lo trascendente. La poesía, el arte y la música son el medio de esa vecindad». GONZALEZ FAUS, J. I., *El rostro humano de Dios*, Sal Terrae, Santander, 2007, 5. or.: «Nuestras preguntas últimas o esa pregunta que nos constituye».

¹³ ELLACURIA, I., «Función liberadora de la filosofía», *Estudios Centroamericanos* 435-436 (1985), 50. or.: «Quizás en vez de preguntarse por qué hay más bien entre que nada, debería haberse preguntado por qué hay nada –no ser, no realidad, no verdad, etc.– en vez de ente». DERRIDA, J., *La religión*, PPC, Madrid, 1966, 43-46. or. «La religión es respuesta, es respuesta como responsabilidad».

¹⁴ TILLIC, P.: «Ser religioso significa plantearse apasionadamente el sentido de nuestra vida y estar abierto a las respuestas que incluso pueden llenarnos de estremecimiento». WITTGENSTEIN, L., «Podemos llamar Dios al sentido de la vida, esto es el sentido del mundo». (14)

Beste metaforaz ere balia gaitzke erlijioa zer den hurbiltzeko: *Radarraz*, alegia. Erantzunik ote? distirarik nonbait?¹⁵. Bizitzaren zentzuaz tentsio edo emetasunari eustea horixe dagokio erlijioari: «Non dago-ta nere irten-bidea?» (81).

«Erljio» hitza latinetik datorrigu: re-ligio < religio = (ber)lotu. «Erljioa erligazioa da, zehazkiago esanda, erligazioaren irudikatzea» (X. Zubiri). Erligazio horrek honako hiru ñabardura ditu:

- Bizitza-zentzumenaren *antsia* hori, zeini (zeri) lotu?
- Polo edo mutur bi behar dira: Gizakia eta...
- ... gizakiaz beste polo edo muturra, gizakia ez izateagatik, *nabari* ez zaiguna.

Polo edo mutur bi horiek ez dira, berez, maila edo *status* berberakoak izan behar: Prometeo edo Unamuno? edota gizaki modernoa ere (batzuen batzuk, behinik behin?) vs. Jainkoa¹⁶, esaterako. Areago ere. Gizakiok beste muturrari eskatzen diogun erantzun zein betetasunagatik, mutur edo polo bi horien artean, *desproporzio*¹⁷ halako bat dago(kee)la kontuan hartzekoa da: hortixe ez zaigu gazakioi beste polo edo mutur hori guztiz ulertu zein hartzerorik, hortixe betiko bilatze edo galdetzea, hortixe hurbiltze hutsa («Erantzi oinetakoak»¹⁸): «Nere bidea... Arkituko al dut!» (113).

Areago ere bai, nonbait. Bilatze horretan, kontrakoa iruditu arren, erlijio (sinesmen?) inizatiba beste mutur horri omen dagokio, eta ez gizakiari: «Quid eligimus, nisi primus eligamur?» (San Agustín, *Hitzaldiak*, 34 2.5). Baina, baliteke, dagoeneko, *sinesmen* mugan bertan ibiltzea.

- *Sinesmena*, erlijioaren ildoan sortzen bada ere, guztiz diferentea da. Sinesmenak muga-galderari *aurpegia* ematen dio. Sinesmenaren bidez, *pathoz bereziz* hornituriko «pertsona» baten irudipena agertzen zaigu (metafora, sinbolo edota analogia tarte): Jesusen Aita, esaterako, edo Ala; biak Jainkotzat onartuak, *biak ezberdinak*¹⁹.

«Jainkoaren *begiratzea* maitatzea da» azaltzen digu sinesmenaren esperientziaz Gurutzeko Joan doneak. Ikuspuntu hori hurbilago dago existentzialistotik, Aristoteles-en ontologiatik baino: «Ante la “causa sui” (uno) no puede caer... de rodillas, así como tampoco puede tocar instrumentos ni bailar ante este Dios (ontológico)»²⁰.

¹⁵ ... edota «ahotsa». GONZÁLEZ FAUS, J. I., *El rostro...*, o. cit., 57. or. «Una característica del Dios bíblico (es) que no revela como “objeto”, sino como “voz”. El objeto es dominable y manejable. La voz llama, anuncia o interpela, pero no puede ser poseída».

¹⁶ Gogoratu Jakobena eta Jaikoaren (aingeruaren) arteko burruka (Has 32, 5 eta j.).

¹⁷ Honetara, Pascal: *Pensees*, II, 72, Heidegger: *Identidad y diferencia*, Pfullingen, 1957, 62-63. or. (17)

¹⁸ Has 3 5.

¹⁹ GONZÁLEZ FAUS, J. I., *El rostro humano de Dios*, o. cit., 2007, atzeko azalean: «Llamar a Jesús simplemente “Dios” se presta a infinitos malentendidos que impiden conocer la revelación de Dios y evaporan la humanidad real de Jesús. El rostro es la mejor revelación de cualquier intimidad personal, y esto puede aplicarse también a la relación entre Jesús y Dios».

²⁰ HEIDEGGER, M., *Identidad y diferencia*, Anthropos, Barcelona, 1988, 153. or. PÖGGEDER, O., *El camino del pensar de Martin Heidegger*, Madrid, 1986: «Para Heidegger no es Dios

Simesmenak, haatik, ez du galderarik ezabatzen: «La tarea fundamental de una teología (fe) dispuesta a hacer frente a los desafíos que el mundo globalizado plantea al cristianismo (a toda creencia)... no consiste tanto en responder a estas preguntas como en impedir su olvido»²¹.

Gurutzeko Joan donearen esaldian, sinesmenaren hiru ezaugarri azpimarratzen zaizkigu:

- a) Sinesmenaren helburu edo muturra «Jainko Pertsonala» dela,
- b) Sinesmen prozesuaren ekimen edo inizatiba gizakiaz «Bestearena» omen dela: «Beste batek gu aukeratzen uztea» (136),
- c) Sinesmen prozesua ez dela arrazoimen hutsekoa, askoz konplexuago baizik: Maitatuak sentitzea ere sartu behar baitugu erlijio dinamika horretan: «Ni aukeratu ez-baña ni aukeratzea gertatu zaidalako» (137).

«Zein da, ortaz, fedearena baño egintza bidezkoago ta gizonezkoagorik?» (127).

Jakite ezberdinak (VII. DIAPOSITIBA)

Zientzia, filosofia eta erlijio jakiteak jakite ezberdinak dira. Bereizketa hori ez egiteagatik, behin baino gehiagotan, arazoak korapilatzen zaizkigu erlijioaz aritzen garenean (bai guri, bai Unamunori, baita Leturiari ere)²²:

Jakitearen *subjektuaren* eta *objektuaren* artekoegokitasuna²³.

– Zientziak *arrazoian* oinarritzen du eta *errealitate fisikoak* edo *banan-banakoak* aztertzen ditu²⁴.

– Filosofia ere, *arrazoian* oinarrituz, *errealitate orokor* eta *abstraktuez* aritzen da.

mismo quien está muerto, sino el Dios experimentado en la historia acontecida occidental, determinada por la metafísica» (teologiaz ere, zeren, Heideggeren iritziz: «Toda la teología (occidental) es metafísica y toda la metafísica es teológica».

²¹ METZ, J. M., *Memoria passionis*, Sal Terrae, Santander, 2007, 11. or.

²² Ikus horretaz, GONZÁLEZ FAUS, J. I., «Carta a José Antonio Marina», in *El rostro humano de Dios*, o. cit., 11-18. or. (22)

²³ Definizio klasikoaren arabera, «egia» *adaecuatio intellectus et rei* da. GONZÁLEZ FAUS, J. I., *Ibidem*. 28. or.: «Esa definición clásica de la verdad ha sido varias veces criticada (aunque no sé si superada) en la filosofía moderna: por ejemplo, en el opúsculo de Heidegger sobre la esencia de la verdad. Lo cual tampoco significa que esa concepción no tenga su dosis de validez... Esa validez podría ser recuperada si definiéramos la verdad como *correspondencia* (no adecuación) entre la razón y la realidad. La correspondencia es más modesta que la identificación: llega a la realidad, pero respetando su alteridad, no tragándosela. Y en ese respeto de la alteridad vuelve a aparecer la presencia del sujeto en el conocimiento y la relación entre ética y conocimiento».

²⁴ Gero eta gutxiago, omen. Ikus ESTRADA, J. A., *La pregunta por Dios*, Desclée de Brouwer, 384. or.: «Si la comprensión de un universo dinámico, con espacio y tiempo relativos, ha planteado problemas metafísicos, algo parecido ha ocurrido con la mecánica cuántica». (24)

- Erljioa, haatik, giza bizitzaren zentzuaz alde edo dimentsio askodun jakite konplexua omen da²⁵: a) «Emozio eta arrazoi osagaien arteko elkarketa, desira eta hausnarketa (Estrada), “intuizioa” eta sentimenduak (Leturia), “convicciones, certezas, creencias” diote teologoek, maite-edo herri-mina bezalatsukoa, munduaren eta gizakiaren *dimentsio enigmatikoa* eta misteriotsua errespetatzen duena»: «Es cierto que las creencias determina nuestros sentimientos, pero también lo es que nuestros sentimientos determinan nuestras creencias. Es esa interacción enrevesada, circular de los afectos y los conocimientos, lo que quería resaltar. Somos afectividades conscientes y pensantes. Separar el campo del afecto del campo de los conocimientos falsea la realidad»²⁶.

Heideggerrek jakiteen arteko bereizketa bera egiten du, subjektuen aldetik:

- «El pensador (el científico, el filósofo) dice el ser. El poeta (SG, el religioso) nombra lo sagrado. Es el poeta quien descubre la verdad última de este diálogo que es el hombre» (HEIDEGGER)²⁷;

baita Leturiak ere:

- «Noiztanik da gizona pentsakorra? (100) Bañan ulermena, argizagi itzalkorra da. (138). Buruari uko egiñez, bidean abiatzen naiz azkenik. Gora biotza!» (139).

Erljioaren eta sinesmenaren arteko erlazioak (VIII.DIAPOSITIBA)

Hori guzti hori dela eta, *erljioa* eta *sinesmena* erlazionatuta izaten dira:

– Guztiz arrazoizkoak ez dira:

- Batetik, erljio-objektuaren arrazoiarekiko desegokitasunagaitik: «Beti onartzen dira aurre-absolutuak. Ezin irten diteke utsetik. Gero piskanaka ta etendurarik gabe eraikitzen joate arren. Jauzi egin bear da beti asieran: “intuizioa” dela, edo nai dugun eran deitu dezakegun lenengo oinkada. Izenak ez du ajolik» (130); eta
- Bestetik: Objektuaren (Jainkoaren) ezin besarka-ezintasunagaitik: «Un Dios que tiene que hacer demostrar su existencia es en definitiva un Dios muy poco Dios y la demostración de su existencia a lo más que puede llegar es a una blasfemia» (NIETZSCHE).

²⁵ Ezagutza, maitasun, emozio eta sentimendu elkarren arteko eraginatik sortzen omen da giza ezaguera edo adimena (Pentsamendu sistemikoa). «A partir de un breve repertorio de habilidades afectivas, perceptivas y motoras edifica (el niño/niña) su propia *inteligencia* y el mundo». (25)

²⁶ Ikus ESTRADA, J. A., *Las imágenes de Dios*, o. cit., 21.-53. or.: «El lenguaje sobre Dios».

²⁷ «En la búsqueda de lo absoluto, ya lo señaló también Rafael Alberti, Juan Ramón (Jiménez) identificaba poesía y religión», in URKIZU, P., «Poesía y pensamiento poético», *Serta*, 9 UNED, 2006-2007, 372. or.

- Arrazoizkoak ez (guztiz edota bakarrik, behinik behin), «arrazoigarriak» (barka bekit neologismoa), ostera, bai: «Egon beti prest zeuen itxaropenaren arrazoa eskatzen dizuenari erantzuna emateko» (1 P., 3, 15).

Arrazoimen-arrazoigarritasun dinamika horretan, ez erlijioak, ezta sinesmenak ere, ezin dute arrazoimenaren kontrako ezer onartu, ezta defenditu ere, baina, erlijioaren edota sinesmenaren edukiaz... arrazoiak («sinesgarritasunaren zioak»? (erdaraz, «motibos de credibilidad») eman behar²⁸.

Eta horrekin lehen tesia bukatutzat jotzen dut, eta bigarrenera igarotzen naiz: Leturiaren erlijiotasunaren arrazoiak ematera, alegia.

Dena dela, horretan sartu aurretik, utz iezadazue gehigarritxo bat eranstean.

Erantzuteko formak (IX. DIAPOSITIBA)

Erljioak planteatzen digun galderei, era edo jarrera ezberdinez erantzun diezaiekegu:

- Erantzunik ez daukana → agnostikoa ei da. Agnostikoa
 - ... hertsia izan daiteke edo *eszeptikoa*. Ezin dela aurrera joan uste duena: «Oinarri nahikorik gabeko aukeratu beharra edota angustia» (dio SARTREk existentzialistei buruz)²⁹; edota
 - irekia izan daiteke: Galderari eusten diona edota adi adi irauten duena: «Bai... bai... Egia... Baña, Jainkoa?» (119).
- Galderari ezetz esaten dionari → *ateo* deitzen diogu; eta
- Galderarik ez daukanari → *indiferente*³⁰.

Ildo horretan, Leturia erlijiosoa dela esan dezakegu, baina *sinestuna* ote den ez dago hain garbi (X. DIAPOSITIVA):

²⁸ ESTRADA, J. A., «La crisis de la fe en Dios», *Selecciones de Teología*, 2007, Vol. 46, 182, 133. or.: «En un famoso debate entre el cardenal Ratzinger y el filósofo J. Habermas (Academia Católica, Baviera, 2004), el primero reconocía “que hay patologías de la religión que son altamente peligrosas y que hacen necesario considerar la luz divina que representa la razón como un órgano de control, desde el que y por el que la religión ha de dejarse purificar y ordenar una y otra vez”. Por el contrario, “hay que amonestar también a la razón a reducirse a sus límites y a aprender y a disponerse a prestar oídos a las grandes tradiciones religiosas de la humanidad”».

²⁹ LYOTARD, J. F., *Moralidades posmodernas*, Tecnos, Madrid, 1996: «El sufrimiento por la ausencia de finalidad es el estado posmoderno del pensamiento, esto es, lo que hoy se suele llamar su crisis, su malestar, su melancolía».

³⁰ MARTÍN VELASCO, J., *Mística y humanismo*, o. cit., 30. or.: «En relación con la indiferencia conviene anotar que, en primer lugar, no constituye, como pensábamos en otros tiempos, una situación intermedia entre fe e increencia, sino que es la más radical forma de alejamiento de la fe. Porque mientras el ateo sigue preocupado por el problema de Dios, aunque sea para negarlo, el indiferente ha dejado de ocuparse de Dios». (30)

– Leturia:

- Nun daude oñarri sendoak, aietan nik atsedena ar dezadan? Nun dago beren Iturria? Nun zaude Zu? (119).
- Fedearen bearra ta bidetasuna onela azaltzen ditut gaur; ez gizonaren aurkakoa bezela, gizonaren izanari lotutako bearra bezela baizik. Baña, zein fede? Edozein? Zein bide? Zein absolutu? (128).
- Ez zaitut nik zu beñere ukatu. (142).
- Bildur naiz. Otoitz egin naiko nuke. Nori, ordea, fedegabe gogor honek? (142).

– Txillardegi:

«Ni neu agnostikoa naiz. Egia da frankismoaren garaiko seme naizela, heziketa katolikoa jaso duena, baina ni ez naiz inoiz militante katolikoa izan, ez naiz Acción Católica eta horrelakoetan ibili»³¹.

Eta subjektuaren jarrerak finkatu eta gero, orain, bai, goazen, Leturiaren erlijiotasunaren arrazoiak aztertzeraz.

BIGARREN ZATIA

LETURIAREN ERLIJIOTASUNAREN URRATSAK: «APORTAZIOAK» eta «GABETASUNAK (?)» (XI. DIAPOSITIBA)

Leturiaren ustez,

1. Gizakia, batetik, *mugatua* da eta, bestetik, *osotasunaren* bila dabil, hastamuka: *Bakarrik* (eta) «*Zerubide*»n (21): «Zoriontasun-pitsak nere erraiteko erraiak berak sakon alaitu orduko, zoritzarreko aragiak loturik edo, lur bustiaren gañera etorri bear nuen berriz» (31):

Antinomia horiek nahastu egiten zaizkigu gizakiarengan: antsia bete ezina³² eta muga jasan ezina:

- batetik: *Contingentia* (Aristoteles, IV. mendean) ↔ *Heriotzarako gizakia* (Heidegger³³, XX. mendean): «No serás jamás otra cosa que lo que no eres, y la tristeza de ser lo que eres» (E. M. CIORAN), eta
- bestetik (une berean, haatik). «*Zorion* egarri sakona» (24, 100-101); «*Zorion* miña... Baztergabe-kutsua» (116).

³¹ TXILLARDEGI, *Hitza hitz...*, o. cit., 131. or.

³² MALHER, G., «La única trascendencia que queda es la del anhelo», in CASALS, J., *Afinidades vienesas*, Amagrama, Barcelona, 2003, 369. or.

³³ *Ser y tiempo* (1927). SARTRE, J. P.: *El Ser y la nada* (1943)

LETURIA (76)	MITXELENA (14)
«Gizon eria artzen omen da gaur literatura gizonaren eredutzat; eta joera onek iduri gezurrezkoa sortu duela diote sasi-baikor askok. Arrazoi pitin bat dutela ukatu ez arren, au esaten diegu oriei: zergatik ez ditu lau ostu irustak?».	Nolanai ere, eta aspaldidanik naiz iritzi ortakoa, Paradisu galduaren miña daukagu ezur-muiñetaraiño sartua eta beldur naiz ez ote geran beti ibilliko gaur-biarretako munduan <i>tanquam aduenae et peregrini</i> , errimiñak uzkurthurik dauzkan arrotz eta kanpotarren gisan.

Hazkuntza salda horretan sortzen da erlijioa? Baliteke. Dena dela, erlijioa sor dadin, une edota baldintzak oso *komplexuak* direla onartzen dute ikerlaririk gehienek. Gai eztabaidatsua, beraz, zeinetan gu ez baikara sartuko, une honetan. Txillardegi, zentzu onez, irekirik uzten du puntu hori: *Zeru-bidean* omen gaude, baina *Ibarluzean*, beldurrez edota goregalez; *zori(zeru)jibidean*.

Batzuen iritzi: Marx, Freud, Nietzsche... beldurra, babesaren beharra, dependentsia... dira erlijioa garamatzaten ohiko (gezurrezko) joerak. Besteren ustez, haatik, erlijioa gora (Santura edo autotranszendentziara) garamatzan antsia dugu eta gizakiengandik geure alderik onenak ateratzen dizkigu. Gizakiak guztiz osaturik sentituko balitz (ezinezkoa zaiguna), inoiz ez, auzaz, hasiko luke erlijio xendra edo prozesua. Arazoa ondo planteatuta dago *Leturiaren eunkarian*. Irteerarik, ostera, ez zaigu ageri³⁴.

2. Leturia gizaki modernoak da eta, hori dela eta, *arrazoizko absolutua* behar du³⁵ (XII. DIAPOSITIBA):

- «*Neure burua* aurkitu nai dut, nere gaitzerako ba da ere, naizena sakon aztertu ta miatzeko» (23).
- «Zertarako dut ulermena? Nire bidea billatzeko» (113).
- «*Absolutuak* zuzendu bear du nere bizitza; zer balio izan dezake bestela onek? Zertarako genduke adimendua? Zertarako poz-yorana?» (123).

3. Gizakiok, haatik, ez dugu, inoiz, erantzun (osorik) eskuratzen eta galderari (bideari, misterioari) eutsi behar diogu → existentzia mina? Kontrako badirudi ere, ez omen zaigu gizakioi gauza txarra misterioari eustea (eutsi beharra): «Misteriorik gabe bizitza arnastezina izango

³⁴ GONZALEZ FAUS, J. I., *El rostro humano de Dios*, o. cit., 13.-15. or.: «Como ejemplo de una verdad privada (convicción) la seguridad de que tu mujer te quiere (San Agustín: “con los ojos del cuerpo ves el rostro de tu amigo/a, con los ojos del alma ves tu propia fidelidad, pero la fidelidad del amigo/a no puedes amarla (SG, percibirla, experimentarla) si no tienes también la fe que te incline a creer lo que no ves” in *De fide rerum quae non videntur* I 1 eta 2). Semejante convicción no tiene menos nivel de verdad que el que la sal es cloruro sódico (SG, baina ezbestelakoa da)».

³⁵ Descartes: *Metodoaren diskursoa* (1637) Ideas claras y distintas. I. Kant: *Arrazoimen hutsaren kritika* (1781), *Arrazoimen praktikoaren kritika* (1788). Blaise Pascal: *Pentsamenduak* (1669).

litzaigu» (GABRIEL MARCEL, frantziar existentzialista) eta «Borondatea edo aukeramena daukagunok misterio bat dugu geure baitan (Nietzsche)³⁶.

Leturiak honelaxe darama bizitzaren misterioa:

- Nork bizitu du alaitasun osoa? Inork ez (75).
- Etorbizunaren bildur naiz. Nun dago-ta nere irten bidea? (81).
- Ondoan *bide-dugu* beti gure zorion-egarri sakona itzaliko duena (100).
- Oso erlatibuak dira absolutuak (126)
- Goragaleak ditut. Nazkatuta nago (101, 103).

4. Leturiaren ustez (XIII. DIAPOSITIBA), gizakiaren muga-galderei erantzuna gizakiari dagokio, lehenik eta behin, baita nagusiki ere, bakarrik ez bada. Erljioa gizakiaren inizatiba da. Prometeoren antzerakoa, jainkoen kontra definitzen dena: «Nun daude oñarri sendoak, aitean nik atsedena ar dezadan? Zutaz maitemindu nai dut. (123). Nori deituko? (131). «Au guzia egiteko nigan pentsatu dut bakarrik» (113). Modernitateak gizakiengana bildu zituen filosofiaren arazoak. Arrazoimena zein etika gizakien esfortzuan oinarritu behar dira: «Zertarako dut ulermena? Nere bidea billatzeko. Arkituko al dut!» (113). Eta Jainkoaren erantzunaren bila aritzerakoan, Leturiak «do ut des» moduko bat aurkezten edo exijitzen dio Jainkoari edo erlijioari:

«Jainkoa etzaitut nik zu beñere ukatu. Lagun zaizkit nere larrialdi onetan Miren biziko balitz → Maitasunaz jautuko ditut nere pekatuak» (142).

5. Ildo horretan, Leturiari erlijioa *funtzional* bihurtzen zaio → Erljiosoa bazara, hobeto biziko zara:
- Argi ikusi dut gaur, eta biotz-utsunearen sustraiari igarri diot. Jainkoaren egarria da gizonaren zorion-miña. Zerbait Absolutu bear nuen nere biotzak, Artan atsedena ta atsegiña edateko. Nola bete nintzake emakume gajo batek? (117).
 - Erljioari eskerrak, bizitzatik kanpora joan da gure lorkizuna (120).
 - Bizitza obakunde bat (proiektu) bat bezela jotzean, zer-egiña biurtzen da biziera, ots, bide bat, eta beste arrakasta aundi bat du au ere (121). Guztiz egokia deritzat onengatik erlijioari, bestegatik ez ba litz ere (120).

³⁶ *La ciencia gaya* (3, 546).

6. Hala ere, Leturiak, erlijioaren arloan, arrazoimenaren mugak, esperimentatu ez ezik, onartu ere egiten ditu (XIV. DIAPOSITIBA):
- «Egiak ez du gizonagan agintzen, baloreak baizik. Eta balore auek ez dira adimentuz aukeraten, joera, azikuntza, gizaroa, biotza, ta beste amailla eragiñen bidez baizik» (125).
 - «Biotza zegok buruaz gañera» (99).
7. Arrazoizko datu ziurrik gabe, gizakiak, galdera-mugak nahaspilatu egiten zaizkionean, *aukeratu* behar du, aurrera ibili, ez aukeratze bera, aukeratzea baita³⁷:
- Aldatzeak eta mugitzeak egiten dituzte zoriona eta atsekabea (119).
 - Ibiltzeak ez darama absolutorik bere sustraietan (122).
 - Ibilli egin bear da, ibiltzeak berak beteko ez gaituela jakinda ere; eta itsuka ibilli bear da, artutako bidea «a posteriori» baietsi ditekkelako konsolabide bakarrean. Ikusi ez arren, siñistu egin bear da; ta fede orri bizitza osoa lotu. (127)
8. Hautaketa horretan (XV. DIAPOSITIBA), gizakia sentimenduz edota, Pascalen esanetan, «bihotzaren arrazoiez» baliatu behar du «y es que- Unamunok esan zuen bezala, al Dios vivo, al Dios humano no se llega por el camino de la razón, sino por el camino de amor y sufrimiento. La razón nos aparta más bien de él. No es posible conocerle para luego amarle; hay que empezar por amarle, por anhelarle, por tener hambre de Él, antes de conocerle» («Del sentimiento trágico de la vida»): arrazionalismorik gorrietik → arrazionalismo gorrienera.
- Makurtu egin bear burua: ez daukagu egiara iristerik, jauzi baten bidez abiatu baizik. Eta gu geu ez gera gauza bearrezko jauzia emateko (131).
 - Biziagoa da zorion-egarria egia-miña baño (131).
 - Iñora ez darama adimenduak, bere eziña adiraztera baizik (136).
 - Sentimenduak ez du aditzen, eskatzen baizik (136).
 - Zoriona iristeko maitetasuna eskatzen digu... Eta zer da maitasuna?

³⁷ SARTRE, J. P., *El existencialismo es un humanismo*: «Tengo que saber que, si no elijo, también elijo. Esto permite comprender lo que se oculta bajo palabras un tanto gradielocuentes como angustia, desamparo, desesperación. El primer paso del existencialismo es poner a *todo* el hombre en posesión de lo que es, y asentar sobre él la responsabilidad total de su existencia».

- Gu zero-lurreko erdian jarrita aukeratu nai ba du adimenduak, geure burua eskeñi nai du berriz sentimentuak, besteentzat gu laguntza bihurtuz... Nik aukeratu ez-baña ni aukeratzea gertatu zaidalako (137).

Ondorioak (XVI. DIAPOSITIBA)

- Leturiaren erlijioarekiko jarrera *moderno*a da. *Credo quia absurdum* (Tertuliano, II-III. m.) vs. Sinesmenaren oinarria: arrazoia (Kant, Descartes, Leturia, ...): «Neure burua arkitu nai dut, nere gaitzerako ba da ere, naizena sakon aztertu ta miatzeko» (23).
- Bilatze horretan, haatik, Leturia ez da oso *zehatza*³⁸:
 - a) Ez du ondo bereizten *erlijioa* eta *sinesmena*, erlijio *naturala* eta *kristautasuna*. Horregatik Txillardegi existentzialismo arracionalistaz aritzen denean, kristau existentzialismoaz aritzen dela uste du; oker aritzen ere, nire iritziz.
 - b) Guztiz kontrajartzen ditu *arrazoia* vs. *sentimendua*: «Zorionetik (bizitzatik) kanpora igitzen da adimendua... Ulermena atzeman dezakean egia... zorionarekin zer-ikusirik ez du. Zertarako dut, hortaz, gidaritzat, adimendu aul au? Zergatik nere almen nagusitzat, neure aurka ba dago» (131). Gaur egunean, ostera, zientzilariak eta filosofoak jakite *sistemikoan* aritzen dira, gertakizunen faktoreaskodun azterketan, alegia: *Gizakiaren ezagutza ahalmen askoren sema/alaba da: ez buruarena ala bihotzarena, buru-bihotza eta beste alhalmen askorena baizik.*³⁹
 - c) Leturiak, ez du gainditzen, erlijiosook Platonengandik narrasean daramagun mundu bien arteko etendura (zeruaren eta lurraren artekoa, alegia): «Erljioari eskerrak, bizitzatik kanpora joan da gure lorkizuna» (120)⁴⁰.
 - d) Leturiak hipotesi asko planteatzen ditu: arrazoimenaren eta sentimenduen arteko oposizioa edo osagarritasuna, besteen (Miren...)

³⁸ Ez guke horretan oso zorrotzak izan behar. Kontuan izan behar dugu, berrogeita hamar urte direla, gauzak ez zeudela gaur bezain argi. Txillardegik egindako kritikei erantzuteko, azkenengo berrogeita hamar urteetan, burututako azterkertz balaitzen ari gerela. Gaur egun, datu gehiago ditugu guk geuk orain, berrogeita hamar urte direlako pentsalariek izan zituztenak baino *Uniquique suum*.

³⁹ Ikus MARINA, J. A., *Aprender a vivir*, o. cit., 25.-40. or.

⁴⁰ Alderantziz, ESTRADA, J. A., «Las crisis de la fe en Dios», o. cit., 136. or. «La "eternidad" no viene después de la vida terrena, sino que se anticipa en la temporalidad histórica».

zerua edo infernua⁴¹, giza-antsien iturria..., baina ez ditu tesi horiek ondo lantzen, ez ditu sakontzen. Sakontasunik ez horrek kalte egiten dio a) bai filosofia planteamenduari (garrantzi handikoa dena Leturiaren testuan) b) bai narrazioaren bilakaerari ere. Unamunok ez zuen horrelako putzura inoiz jausi: *San Manuel Bueno, martir* eleberrian, esaterako, narrazioa ondo lotzen zaio filosofia edo erlijio planteamenduari.

Eta horretan gaudela, goazen aztertzeraz, denboraren premiagaberik korrika bada ere, Unamunoren eta Leturiaren arteko eragina (bide nabar, gogora dezagun Txillardegik, 1957an, *Egan* aldizkarian, «Unamuno eragile» izenburuz, idatzi zuela artikulua).

HIRUGARREN ZATIA M. UNAMUNOREN LETUARIARENGAN ERAGILE? (XVII. DIAPOSITIBA)

Sartrek eta Unamunok: zeinek eragin zion gehien Leturiari? zeinek Txillardegiri?: «Nik bi izen eman behar banitu, ene bizia markatu duten bi gidariren izenak alegia, segundo batez ere zalantzarik egin gabe hauek emango nituzke: B. Rusell eta J. P. Sartre»⁴².

- Txillardegirengan Unamunoren eragina azpimarratu zuten bai Mitxelelak: «*Egunkari...* iturburuen billa asi ezkerro, arkituko genduke noski nor aipa. Euskaldun baten izena beñipen, Unamuno'rena, aise etorriko litzaiguke gogora» (10), bai Txillardegik berak ere: «Hasierako eragin nagusia Unamuno izan zen. Jean-Paul Sartrek gero izan zuen eragin handiagoa nigan, Frantzian bizi izan nintzen garaian»⁴³.
- Txillardegirengan Sartrearen eragina Frantziara joan aurretikoa omen da. Txillardegik 1956-7an idatzi zuen *Leturiaren egunkari ezkutua*; Frantziara 1961ean joan zen ihesi, eta Sartrearen eragina nabarmena da *Leturiarengan*: a) hautatu behar eta ezina: «Ibilkizuna bearrezkoa da; ta itsuka ibiltzekoa balitz gure betebearra» (Leturia, 123): «No podemos decir a priori lo que hay que hacer (elegir)» (Sartre); b) bizitzarekiko ilusiorik eza: «Nere bizitza betetezen zuen utsunea lekutu da. Badaukat bear nuena. Ta, zer?» (Leturia, 80): «Esto no quiere decir que yo no deba *obrar*, pero sí que no tendré ilusión» (Sartre); eta hala ere, c) ibili edo aukeratu beharra: «Ibilli egin bear da, bai; ez dago beste so-

⁴¹ Sartre «Infernua besteak dira». G. Marcel: . «Benetako metafisika besteak dira» (G. Marcel).

⁴² TXILLARDEGI, «Sartre: Lekuko eta gidaria», in *Pareteren kontra* (Mikel Lasak euskartua), Kriselu, 1983.

⁴³ *Berria*, 07.10.06

luziorik... bañan ibiltzea ez da elburua» (Leturia, 120, 122): «Sólo hay realidad en la acción» (Sartre); d) gizakia bertan behera utzirik sentitzea: «Ibiltzeak ez darama absolutorik bere sustraietan» (Leturia, 122): «El hombre está abandonado, porque no encuentra ni en sí ni fuera de sí una posibilidad de aferrarse» (Sartre); e) gizakiaren larrimina: «Gizonaren izanak eskatzen ditu nere ustez bidegabekeria ta larrimiña» (121): «El hombre es angustia» (Sartre) eta goragalea: «Goralaleak ditut! Nazkatuta nago» (Leturia, 101, 103...): «La Nausée»; f) askatua izatearen kondenaioa: «Illunpe batetik illunpe batera dijoan bidazti itsua naiz» (Leturia, 132): «El hombre está condenado a ser libre» (Sartre): «Bilbon nengoen ni orduan (1950, 1951az ari naiz), eta gero “Ekin” taldea sortuko genuenok, “existentzialismo” madarikatu (omen!) hura ikasteko erabakia hartu genuen. Eta Sartre-rekin egin genuen topo horretara; eta haren “en-soi” eta “pour-soi” delakoan laberintoan barrena abiatu ginen. Horra hor haseran ezagutu genuen Sartre»⁴⁴.

- Nire ustez, bereizi behar ditugu Sartrearen Txillardegirengan izandako eragin filosofikoa edota erlijiosoa eta eragin politikoa. Eragin politikoa Frankoren kontrako Burgosko Auziaren atarikoan gauzatu zen (1965-70)⁴⁵; eragin filosofiko edota erlijiosoa, haatik, lehenagokoa da, 1950. urtearen ingurukoa. Txillardegik, Iñaki Gaintzarainen eraginez, Unamuno, Kierkegaard, Sartre... idazle existentzialistak irakurri zituen: «Intelektuak konprometituak izan nahi genuen... Sartrearen eraginagatik edo»⁴⁶.
- Eraginak eragin, *Leturiaren egunkariari* begira, Txillardegi bera Unamunoren eraginaren aldera makurtzen ei da nabariago Sartrearen eraginari baino: *Leturiaren...* eleberrian «existentzialismoaren kezka eta problematika nagusia agertzen dira. Sinbolotan gauzaturik, aukeratu beharri lotutako ezinegonak azaltzen ditu, eta aukeratu ondoko egoera ezin aldatuari datzekion larridura berriak bigarren partean. Kierkegaard eta Unamunoren eragina bistakoa da»⁴⁷.
- Bistakoa bai, eragin horrek, haatik, ez du kentzen:
 - a) *Leturiaren* Sartrearen eragina nabaria izaterik, ezta
 - b) Leturiaren (Txillardegiren?) eta Unamunoren arteko aldeak nabarmenak izaterik ere.

⁴⁴ TXILLARDEGI, «Sartre: Lekuko eta gidaria», o. cit.

⁴⁵ *Ibidem*: «Sartre ez da sekula “la voz de su amo” izan. Eta inork baino hobeki dakigu abertzaleok: ETA krisi betean zegoelarik, eta Burgos-ko Auzi famatua PCEk bere alde manipulatzeko dena prest eduki uste zuenean, Gisele Halimi-ren libururentzako bete Hitzaurre bikaina idatziz, social-inperialismoaren joko agerian utzi zuen. Burgos-ko arazo historiko hura ezuntasun ia osoan bizi izan genuen abertzalekok betirako izango gatzakio Sartre-ri zordun».

⁴⁶ TXILLARDEGI, *Hitza hitz*, o. cit., 52. or.

⁴⁷ *Ibidem*, 54.-55. or.

M. UNAMUNO	J. L. ALVAREZ EMPARANTZA
1. Heziketa katolikoa: <i>militantea</i> ; mistikoa ⁴⁸ .	1. Heziketa katolikoa: <i>ez militantea</i> .
2. Prometeo: Jainkoaren <i>kontra</i> aritzea ⁴⁹ .	2. Prometeo ↔ Tantalo: «Jainkoaren <i>egarrria</i> , egiara iristerik ez daukagula» (142).
3. <i>Arrazioan</i> oinarrituriko fede ezina.	3. <i>Arrazioan</i> oinarrituriko fede ezina.
4. Sinistu <i>nahia</i> : Creer es crear.	4. Sinistu <i>nahia</i>
a) Sentimenduak ⁵⁰ .	a) Sentimenduak ⁵⁶ .
b) Ebangelioan agertzen den Jesus ⁵¹ .	b) Ez dago Jesusi buruzko aipamenik ⁵⁷ .
c) Otoitzea ⁵² .	c) Ia ez dago otoitzik: narrazioa ⁵⁸ .
5. Agnostiko irekia: Sinestuna? Fedegabea?	5. Agnostikoa? Sinestuna? Fedegabea? ⁵⁹ .
6. Prozesu luzea eta sostengatua ⁵³ .	6. Prozesu laburra eta bat batean bukatua.
7. Nitasuna ⁵⁴ .	7. Nitasuna ⁶⁰ .
8. Heriotzaren ondorengo <i>biziraupena</i> .	8. <i>Absolutuaren</i> beharra ⁶¹ .
9. Lirikoa ⁵⁵ .	9. Intelektuala.
10. Agonia.	10. Asperdura.

⁴⁸ UNAMUNO, M. de, *Recuerdos de...*, o. cit.: «Fui de chico devoto en el más alto grado, con devoción que picaba en lo que suelen llamar... misticismo... ¿Quién no ha soñado, al menos una vez con ser un santo?». (48)

⁴⁹ UNAMUNO, M.: «Este buitre voraz de ceño torvo / que me devora las entrañas fiero / y es mi único constante compañero / labra mis penas con su pico corvo».

⁵⁰ MOELLER, Ch., o. cit., 130. or.: «La fe unamuniana (bizitzaren bigarren zatian) se incribe en la línea de la *confianza*, de la entrega a la persona de Jesús, aspecto un tanto descuidado en la teología corriente de la época. Ente elemento se repite en la parte valedora de la definición de *Nicodemo el Fariseo*: “La fe no es una mera adhesión del intelecto a un principio abstracto, a una fórmula sin contenido ya acaso; no la afirmación de principios metafísicos o teológicos; no, sino un acto de abandono y de entrega cordial de la voluntad, una serena confianza”. La insistencia (de Unamuno) sobre la plegaria y la oración como medios de alcanzar la fe sitúa la búsqueda en la órbita de la reacción contra la inflación apologética y especulativa».

⁵¹ *El Cristo de Velázquez, San Manuel Bueno, martir...*

⁵² UNAMUNO, M.: «¿Por qué te escondes? ¿Dónde estás, mi Señor? ¿Acaso existes? Di el por qué del por qué, Dios del silencio.» *Diario*: «Dame, Jesús mío, que te vea nacer en mí, y me olvidaré de tanta angustia... Sencillez, Jesús mío, sencillez».

⁵³ Ikus MOELLER, Ch., *Literatura del siglo XX y cristianismo*, Gredos, Madrid, IV, «Miguel de Unamuno y la esperanza desesperada», I. El misticismo infantil, II. La voracidad intelectual. Cap. II. La razón atea. I. Racionalizar la fe. III. Dios inaccesible.

⁵⁴ Ez Unamunok ez Leturiak ez dituzte, G. Marcel-ek egin zuen bezala, 'besteak giza arazoan integratu. G. Marcel: «La metafísica son los otros». Sartre: «El infierno son los otros». Eta hala ere, SARTRE, *El existencialismo es un humanismo*: «Debo comprometerme... no es necesario tener esperanzas para obrar. Esto no quiere decir que yo no deba pertenecer a un partido, pero sí que no tendré ilusión y que haré lo que pueda».

⁵⁵ UNAMUNO, M.: «Sufro yo a tu costa, / Dios no existente, pues si tu existieras / Existiría yo también de veras».

⁵⁶ LETURIA (131, 136...): «Bihotzean dauka bere katadera, ta ark kilikatzen gaitu zorionmiñaren bidez, gure eragille biurtuz. Zorionaz eta atsekabeaz ukertzen du bakarrik; eta baloreak mallatzeko uste dugun baño gehiago laguntzen du neurri bakar orretaz baliaturik».

⁵⁷ Aipu bakarra eleberri osoan. *Leturiaren...*, 142, or: «Nork itzegiten zuen bati maitasunaz? Aitortzeko bildur nais: Cristo! Zu al zera egiaz “Egia ta Bizitza”? Ez nuen uste, baña zure ondoan nintzan».

⁵⁸ Azken azkenengo orrialdean: «Aspaldidanik sentitzen ez nuen gogoak ikutu nau gaur: otoitz egitekoak».

- Unamunok erlijio esperientzia sakona bizi izan zuen. Erlijio erregistro guztiak dardaratu zitzaizkion Miguel ume eta gaztetxoari⁶². Sinesmena galdu zuenean (joan zitzaionean?), Unamuno «dardara» horren «nostalgian» bizi izan zen: «Señor si puedes recuerda / que un día de los que pasan / –no por Tí, sino que quedan– / con mano de luz me hiciste / y en esa tu pobre tierra / me dejaste al albedrío / del ángel y de la bestia./ Desde entonces busco loco / tu mano de luz que espera / y que ante mí como sombro / tiende la esperanza cierta. / Señor, que te arrepentiste / de habernos hecho, recuerda / que en un rinconcito oscuro / me dejaste, tu poema» (16, de marzo, 63 urte zituela)⁶³. Leturiak? (Txillardegik?) ez omen zuen horrelako esperientziarik bizi. Hori dela eta, erlijio-kezka artifizialago eta laburrago antzematen diot Leturiari (Txilladegiri), Unamunori baino.
- Erlijioarekiko inplikazio handiago horrek erreakzio bortzitzagoa sorrarazten dio Unamuno sinesgabekoari Leturiari (Txillardegiri) baino. Galdutakoaren balioa ondo dazagunari erdiragarriago agertzen zaio galera hori (olerkietan, «nivoletan», saiakeretan, eskutitzetan...), gutxiago dazagunari baino. Txillardegik ez dio tonu bortitzari eusten Unamunok bezain ugaritan, luze eta zoli. Hori dela eta, askoz sarriagotan agertzen dira Unamunoren inprekazioak edota «Jainkoarekiko elkarriketak, erreguak, otoitzak eta abar: «Padre nuestro que estás, ¿cómo eres? / No tu estado, tu ser es mi vida; / haz que quiera, Señor, lo que quieres; / dame al fin, si es que quieres, salida... Ay, pero siempre lo que queda y dura / será en nuestra agua la sal de la amargura»⁶⁴, Leturiarengan baino.
- Jesusen edo Aitaren agerpenak (Jainkoaren irudi maitagarria, alegia) askoz ugariagoak dira Unamunoren, Leturiarengan baino. Tratamendu diferen-

⁵⁹ *Leturia*, 142. or.: «Jainkoa: etzaitut nik zuk beñere ukatu. Otoiz egin naiko nuke. Nori, ordea, fedegabe gogor onek?».

⁶⁰ *Leturia*, 113. or.: «Gaistoa naiz badakit; au guzia egteko nigan pentsatu dut bakarrik. Baña burubideak ala eskatzen zidan. Zertarako ulermena. Nire bidea billatzeko. Arkituko al dut!». TXILLARDEGI, «Sartre: Lekuko eta gidaria», o. cit.: «Sartre, José Azurmendik ongi seinatu izan duenez. Nitasunaren aztertzaila da, subjektuaren silosofoa; eta honetan Marxengandik urrum egon da beti».

⁶¹ JAUREGIZAR, A., «Joseba Leturia, Boluetatik Parisera Bilbo zapaldu barik». (61)

⁶² Hamasei urte bete berriak zituela joan zen Unamuno Madrilera joan zen: (Durante el primer año de su carrera) «iba a misa todos los días y comulgaba mensualmente». SCHÖKEL, L. A., *Mensajes de los profetas*, Sal Terrae, Santander, 1991, 89. or.: «Unamuno conoce bien los mitos clásicos grecolatinos y la Biblia, y ambos le proporcionan material para crear sus símbolos».

⁶³ UNAMUNO, M. de, *Poemas y canciones de Hendaya I (1928)*, 41. Eta beste olerki askoren artean, CXI. Soneto: «En la caverna de la vida oscura / me hiere gota a gota la sustancia / que me hace hueso al alma y es ganancia / del peso del pensar que me tortura. / Clepsidra es de la fe que me depura; / me cuenta eternidad a la distancia, / y en el último vaso se me escancia / licor del sueño que soñando dura. / Crezco, hueso desnudo, estalagmita, / con el goteo que mi otro posa / en su busca, celeste estalactita; y con mi ángel, de la nebulosa, / al juntarme columna, resucita / sin fin linaje que hace de Dios cosa».

⁶⁴ UNAMUNO, M. de., *Cancionero espiritual en la frontera del destierro*, 14 de abril, 1928.

te horrek sintonia ezberdinetan kokatzen du Unamunoren eta Leturiaren Jainkoarekiko diskurtsoa. Unamunoren diskurtsoa kristaua (izandako?) batena da⁶⁵. Ikus, esaterako, Unamunoren *Salmos I-III, Libertate, Señor, La hora de Dios, En el desierto...* «Méteme, Padre eterno, en tu pecho, / misterioso hogar, / dormiré allí, pues vengo desecho / del duto bregar». Leturiaren diskurtsoa, ostera, erlijio filosofo (zientzilari) batena da: «Nik beti aitortu izan dut Heidegger-en *El ser y el tiempo* edo Sartreren *El ser y la nada* irakurri bai, baina ez ditudala tutik ulertu. Nahiago izan ditut fisika edo, oro har, zientziei buruzko gaiak»⁶⁶. Sintonia horretan, Leturia hurbilago dago Sarterengandik. Unamunorengandik baino.

- Bai Leturiak eta bai Unamunok (beronek, batez ere) berdintzen arteko lehia planteatzen dute Jainkoarekiko; jo eta ke ahaleginean dihardute biek ala biek, etsita bukatu arte. Sartrek, bere aldetik: «no es ateo en el sentido de que se extenué en demostrar que Dios no existe; tampoco es que crea que Dios existe, sino que piensa que el problema no es el de su existencia; es necesario que el hombre se encuentre a sí mismo y se convenza de que nada puede salvarlo de sí mismo»⁶⁷. Jainkoarekiko ez-axola horrek ez du adierazten Sartreren moduko existentzialisten (ateoen?) bizitza lasaiagoa denik, Unamunoren moduko existentzialistena baino: «El existencialista [sartreano] piensa que *es muy incómodo* que Dios no exista, porque con él desaparece toda posibilidad de encontrar valores en un cielo ininteligible»⁶⁸. Baina bizitzaren urratua ez zaio Sartreri Jainkoarekiko lehiaren ondorioa izaten, Unamunoren eta Leturiaren kasuan bezala, munduan bere burua *abandonaturik* sentitzearena baizik.
- Unamunoren kezka nagusia *biziraupena* izan zen: «Quién me libraré de ese fantasma de muerte, de ese yo con que me ha cargado el mundo?» (Diario). Leturia, ostera, kezkatuago dago bizitzaren oinarri *absolutuaren* topaketan. Arrazoi hutsaren bitartez askaezinak zaizkigun bi kezka horiek kutsu ezberdina ematen diote bizitzari: Unamuno *agonian* bizi den bitartean⁶⁹, Leturiak edota Sartrek bizi-*asperdura* eraman behar dute (deserosotasuna, babesgabetasuna, larritasuna⁷⁰).

⁶⁵ MOELLER, Ch., o. cit., 74. or. «Unamuno se proclamará “cristiano” en todo y contra todo; pero éste término iba a cobrar más tarde, bajo su pluma, un sentido bastante analógico».

⁶⁶ TXILLARDEGI, *Hitza hitz*, o. cit., 55. or.

⁶⁷ SARTRE, J. P., *El existencialismo es un humanismo*. Testu jatorrean, bigarren esaldian pluralean dago. SCHELLENBERGER, B., «Hablar de lo inefable: ¿Cómo se puede hablar hoy de Dios?», *Geist und Leben*, 79 (2006) 81-88. Itzulpena in *Selecciones de teología*, 2007, Vol. 46, 182. zk., 119-124. or.: (Esto nos) «lleva inevitablemente a la conclusión de si Occidente acaso no ha ido demasiado lejos cuando pretendía saber sobre Dios».

⁶⁸ SARTRE, J. P. *Ibidem*.

⁶⁹ UNAMUNO, M. de: «Señor, no me desprecies y conmigo / lucha; que sienta al quebrantar tu mano / la mía, que me tratas como a un hermano, / Padre, pues beligerancia consigo / de tu parte; esa lucha es la testigo / del origen divino de lo humano. / Luchando así comprendo que el arco / de tu poder es de mi fe el abrigo. /

⁷⁰ SARTRE, *El existencialismo es un humanismo*.

– Egunkaria idatzi zuten Txillardegik: *Leturia-ren egunkari ezkutua*, Unamunok: *Barneko Egunkaria*, Sartrek: *Goragalea*, Kierkegaardek: *Seduzitzaile baten egunkaria*, *Barneko Egunkaria...* *Leturiaren egunkaria* hurbilagoa dago Sartreren edo Kierkegaarden egunkarietatik Unamunoren egunkaritik baino. Sartrek (Antoine Roquentin), Kierkegaardek (Johannes) eta Txillardegik (Joseba Leturia) *izenordez* baliatzen dira (beren?) bizi-esperientziaz *eleberri* bat idazteko. Unamunoren *Barneko Egunkarian*, ostera, protagonista idazlea bera da (izenez eta izatez) eta ez da eleberri bat idazten, egunkari hutsa baino.

– Unamuno? Sartre? Zeinengandik hurbilago Leturia? Bada:

- Unamuno eta Leturia agnostikoak dira (sinestunak ote? noizbait behinik behin) eta Sartre ateoa⁷¹.
- Unamuno eta Leturia, dudaz eta galderaz josita daude. Sartre, ostera, nahiko seguru dago bere ezetzean. Bestetara esanda, Unamuno eta Leturia burrukan daude Jainkoarekiko, Sartre, ostera, ez dio Jainkoari *chancerik* ematen: «El existencialismo (sartreano) no es de este modo un ateísmo en el sentido de que se extrenuaría en demostrar que Dios no existe. Más bien declara: aunque Dios existiera, esto no cambiaría»⁷².
- Arrazoiren sinesmenarekiko mugak urratzeko, Unamuno eta Leturia *sentimenduen* laguntzaz baliatzen dira. Sartreren iritziz, haatik, arrazoien alboko errekurtsioek (oro har, «sentimenduak» deituek) ez dute baliorik: «Gide ha dicho muy bien que un sentimiento que se representa y un sentimiento que se vive son dos cosas casi indiscernibles: decidir que amo a mi madre quedándome junto a ella o representar una comedia que hará que yo permanezca con mi madre, es casi la misma cosa»⁷³ (SG, benetan?).
- Txillardegik behin baino gehiagotan azpimarratzen du Sartreren eragina, baina, kasurik gehienetan, eragin hori «politika» arloan gauzatzeko omen zen gehiago erlijio arloan baino, eta Leturiarengan ez da, nondik inora, politika dimentsio edota ardurarik agertzen.

Ez da erraza, beraz, bereiztea zeinek (Unamunok) baino zeinek (Sartrek) markatu zion nabarmenkiago Leturiari (Txillardegiri). Biak daude Leturiarengan. Dena dela, azpimarratu nahi dut, nik neuk bederen, Unamunoren eragina guztiz diluiturik nabarizten dudala Txillardegiren idazkietan, urrutik, oso urrutik datorkidan noizbehinkako oihartzun bailitzan bezala... eta izatekoan ere, ez du Txillardegiren ardurak Unamunorenak dituen alde polidrikorik, ezta sakontasunik adierazten.

⁷¹ *Ibidem*: «El existencialismo ateo que yo represento».

⁷² *Ibidem*.

⁷³ *Ibidem*.

- Txillardegik, azkenean, Leturia kristau existentzialismoaren barruan kokatzen du. Horretan, nik uste, Txillardegi oker dago, argi eta garbi. Leturiarengan ez dago kristau existentzialismoaren zantzurik. Unamunorengan, oster, bai. Jainko, Aita bezala agertzen zaio Unamunori. Unamunok Jainkoari otoiz egiten dio behin eta berriz, grinaz behin baino gehiagotan. Leturia, haatik, askoz hotzagoa da, Sartrearengandik hurbilagoa edo. Ikus dezagun azken puntu hau bukatu baino lehen.

LAUGARREN ZATIA EXISTENTZIALISMO RAZIONALISTA ALA KRISTAU EXISTENTZIALISMOA?

Txilladegik *Leturiaren...* kristau existentzialismoaren barruan sartzen du: «Leturia idatzi nuenean oraindik *kristau existentzialistatzat* nuen neure burua... eta segidan, ezari-ezarian, agnostizismora jo nuen» (Txillardegi). Zer esan baieztape horretaz?

- Lehenik, existentzialismoa erlijiotik oso hurbil dagoela, existentzialisten kezkarik gehienak erlijioarekikoak baitira: Kant, Hegel, Nietzsche, Heidegger, Sartre⁷⁴: filosofia → erlijioa: «Los ataques a la metafísica y a la filosofía (positivismo, materialismo y pragmatismo) llevaban oculto, como siempre, un ataque a la religión, al sedimento religioso oculto en ellas como ya Nietzsche con su habitual perspicacia, anotara... La filosofía en el idealismo alemán o pretendía ser religión, o se confundía con ella, sin que declarara este empeño» (ZAMBRANO, M.)⁷⁵.
- Bigarrenik, egiaztatze horretatik ezin dezakegu atera existentzialismo guztiak kristauak direnik, erlijio guztiak kristau erlijioa ez diren moduan. Existentzialismo mota bat baino gehiago daude. Zer da kristau existentzialismoa? Horretaz aritzeko, hona hemen erlijioarekiko erlazioei buruzko gure tarteko filosofia eskola ezberdinen laburpen bat (XVIII eta XIX. DIAPOSITIBA):

⁷⁴ *Ibidem*: «Si Dios no existe... el hombre está abandonado, porque no encuentra en sí ni fuera de sí una posibilidad de aferrarse».

⁷⁵ «El conflicto: filosofía y religión», in *Unamuno*, o. cit. 81-90. or.

Esentzialismo erlijiosoa	Existenzialismo agnostikoa	Kristau existenzialismoa
Esentzia edo definizioa ⁷⁶	Existentzia edo historia ⁷⁷	Existentzia edo sinestun(ar)en «historiak» edo esperientziak ⁷⁸ .
Fisika → METAFISIKA	Fisikoa → GIZAKIA	Jainkoaren <i>Erreinua</i> edo <i>Proiektua</i> . Creatio continua: in fieri edo prozesuan.
Logika edo eskolastika	Fenomenologia ↔ Arrazoi Hutsaren Kritika	Esperientziak → LILURA ⁷⁹
Razionalismoa	Arrazoi nahikorik gabeko aukeratu beharra	Kristoren / lehen kristauen esperientzia
Jainkoarenganako <i>arrazoizko</i> «viak»	Nahia eta ezina	a) Bihotzaren <i>arrazoia</i> ⁸⁰ b) Jainkoa = Jesukristoren aita hautatu(a) izanaren arrazoia ematea.
Kontzeptuak	Sinboloak (Heidegger: Poesia)	Sinboloak + Jarraitzea (Leturia, Sartre: Ibiltzea) ⁸¹
Kontzeptuaren eta errealitatearen korrespondentzia	Desproporzioa edo Muga (meta)fisikoa → Arrazoirik ez edo Misterio ⁸² .	<ul style="list-style-type: none"> Misterio edo gau beltza⁸³: <i>Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu? gehi</i> Konfiantza: <i>Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia</i>⁸⁴.

⁷⁶ Aristoteles: Homo: Animal rationale, animal religiosum.

⁷⁷ Heidegger: Gizakia: Heriotzarako izakia. Sartre: Gizakia: Alferrikako grina..

⁷⁸ SCHELLENBERGER, B., o. cit.: «No se puede hablar correctamente de Dios, sólo se puede narrar cómo actúa en los seres humanos y los bienes que comunica. No se puede hablar (SG, sólo?) académicamente y abstractamente de él, sino sólo de manera *existencial*, histórica y biográfica. Por eso en todos los libros del AT y del NT se narran historias o se cantan canciones para el camino».

⁷⁹ *Ibidem*: «Es mucho más correcto (SG, aproximado?) cantar al Absoluto, danzar y jugar, alabar y celebrarlo, que hablar de Él. Por eso los místicos expresan con poemas, cantos, imágenes, historias y paradojas de lo que le ha pasado» (79).

⁸⁰ Kristau existenzialisten aurrelaria izan zen Pascalek «llevaba un fragmento de papel cosido en el forro de su chaqueta: FUEGO. Dios de Abraham, de Isaac, de Jacob, no de los filósofos y de los sabios. Certeza, certeza, sentimiento. Alegría, paz, Dios de Jesucristo. Alegría, alegría, alegría, lágrimas de alegría». (80)

⁸¹ Heidegger, M: «Ser poeta en una época de penuria significa: reparar cantando en las huellas de los dioses huidos». Jakite espekulatibo (eskolastikaren «unibertsalak») edo abstratuaren aurretik, existenzialistek jakite dinamikoa edo «in fieri» gurago dute. SARTRE, in el *El existencialismo es un humanismo*: «El hombre no es otra cosa que lo que él se hace». (81)

⁸² MARCEL, G.: «Sin el misterio la vida sería irrespirable». RAHNER, K.: «Al final sólo queda el misterio. Pero es el misterio de Jesús».

⁸³ San Joan Gurutzekoaren «gau iluna» edota San Teresa Lisieuxkoren zerurainoko «horma gaidiezina» (C Eskuizkribua), noiz sinesmena «sinetsi nahi» formapean agertzen zaigun.

⁸⁴ Zein izan zen Jesusen fedearan (Jainkoarekiko erlazioaren) azalpen edota esperientzia nabarmenena: egia (*ikusten ez duguna* sinestea), itxaropena, maitasuna, kupida, etika? GONZÁLEZ FAUS, J. I., *El rostro humano de Dios*, o. cit., 54. or.: «La verdad bíblica (SG, hebrea) tiene mucho más que ver con el modo de mirar al objeto que con el desvelamiento del mismo». (84)

Esentzialismo erlijiosoa	Existenzialismo agnostikoa	Kristau existenzialismoa
Jainko: Izate (ens) hutsa, Egia, Lehen Motorra edo Lehen Kausa, Azken Kausa ⁸⁵	Jainko helezina (Unamuno) Jainko baliorik gabeko hipotesia (Sartre)	Jainko eskainia, «jeitsia», «Errebelatua?», «ezereztua», «hustua» (Fil 2, 6-11) ⁸⁶ .
Gizakia: <i>animal rationale</i>	Heriotzako izakia (Heidegger)	Materia biziaren autotranszendentzia
Heriotza: Arimaren betiko biziraupena.	Biziraupena nahia tea ezina	Jainkoaren esker ona eta dohainikoa.

Ondorioa:

Item horiei guztioi begira, Leturia askoz hurbilago omen dago existentzialismo agnostikotik edo filosofia erlijiotik (erlijio filosofiatik?), kristau existentzialismotik baino.

- Lehenik, *Leturiaren egunkari ezkutuan* Jesusen aipu edo Jesusekiko erreferentzia gutxi agertzen zaizkigu; hiru edo: Jauna (127), Kristo! (142), Egia ta Bizitza (142)... Zelan kristaua izan Jesukristorik gabe? *Ex paritate cordis os non loquitur*. Unamunoren kasuan, ostera, Bibliako edota Jesusekiko erreferentziak ugariago eta nabariagoak dira (eta ez naiz soilik *El Cristo de Velázquez* liburuaz ari⁸⁷). Leturia filosofo da, *Absolutuaren* bila dabilena. Kristau existentzialistak ostera, *Aita* baten bila dabilta.
- Hori dela eta, Jainkoarekiko erlazioetan (erlazio zailetan ere) Jesusek eta Bibliako pertson(a)iek filosofia galde gutxi egiten dituzte. Kristau existentzialistaren esatea *otoitza* da gehiago barne bakarrizketa baino, *arnegua, oihua, erregua edo protesta*. Horrek ez dio arrazoibideari lekurik kentzen. Baina arrazoibidearen eta otoitzaren arteko oreka ez da Biblian edota kristau existentzialismoaren testuetan *Leturiarenean* bezalakoa (ezta Unamunoren testuetan ere⁸⁸). Inondik inora.

⁸⁵ HEIDEGGER, M., *Identität und Differenz (1956-1957)*, 153: «A este Dios, el hombre no puede ni rezarle ni hacerle sacrificios. Ante la causa sui no puede caer temeroso de rodillas, así como tampoco puede tocar instrumentos ni bailar ante este Dios».

⁸⁶ «Kristo Jesusek, Jainko izaerako izanik, ez zion gogor eutsi nahi izan jainkozko bere mailari; bestela baizik, hustu egin zen bere handi-izateaz eta esklabu-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Gizaki huts bezala agertuz, apaldi egin zuen bere burua, heriotzaraino menpeko eginez, gurutzean hiltzeraino».

⁸⁷ UNAMUNO, M. de, *Poemas y canciones de Hendaya I*, 7, 14, 15, 16, 19, 25, 29, 32, 39, 44... *Cancionero espiritual en la frontera del destierro. Poemas y Canciones de Hendaya II, San Manuel Bueno, mártir... De nuevo en España...*

⁸⁸ Sinesmenaren krisi hasieran, Unamunok ere, arrazoi-bideak arakatu zituen, gehienik. Ikus MOELLER; CH., o. cit. 78. or.. «Como muchos espíritus juveniles, que desean certezas matemáticas incluso en el dominio de la fe, Unamuno persiguió sin duda una especie de evidencia racional del hecho de la revelación».

- Izan ere, kristau sinesmena (itxaropena, existentzia...), esentzialismo platonikoak (Plotino-k) eta gnostikoak (Marcion-ek) kutsatuta geratu aurretik⁸⁹, existentzia erro-errotiko honako galdera bi hauek markatua zegoen: 1.a Zelan elkartu sufrimendua, errugabeena batik bat, eta ona eta ahalguztiduna omen (sinesten dudan) den Jainkoa?; eta 2.a: salbamenaren eta historia erlazionatzen dituenen: Zergatik ez dator? Baliteke galdera bi horien oihartzuna Leturiarengan aurkitzea. Baina, Biblia eta kristau tradizioan, galdera bi horien ardura, haatik, ez da, nagusiki bederen, indibidualista izaten, besteengana irekia baizik: «Metafisika besteak dira» (G. Marcel). Leturiaren eta Unamunoren kezka, oster, oso indibidualista izaten da; ez dira biak ala biak besteengana irekitzen, eta hori kristau existentzialismoan ezinbestekoa (izan behar) da.

AZKENA
EXISTENTZIALISMOAREN EKARPENEN BATZUK
GAURKO KRISTAUTASUNERAKO
 (XX. DIAPOSITIVA)

Existentzialismoa eliza katolikoak «kondenatua» (baztertua, hobe?) izan bazen ere⁹⁰, oro har, *positiboa* (eskertzekoa) izan da bai Elizarentzat eta bai sinestunentzat ere.

1. Existentzialismoari esker, Bibliatik datozkigun *sinesmenaren jatorrizko markaren* batzuk (adierazgarrienak?) berreskuratu ditugu; hots: auhen, oihu, itxarote ez lasaituaren formapeko sinesmena vs. Atenasen Eskolako filosofoek erakutsitako ataraxian dirauen Jainko justu eta ahalguztidunaren irudipena: pertsonaiak, animaliak eta izadi fenomenoak kontrolatzen dituenen, ulertzen ez dugun (onartu behar, haatik) forma txundigarri baten arabera⁹¹.
2. Existentzialistei (Nietzsche, Heidegger: *Ser y tiempo*) esker, sinestunok existentzia zehatz eta mugatuari: *gizaki historikoari*, alegia, balioa ematen ikasi dugu⁹²: «Lo distintivo de la idea bíblica (SG, y existencialista) de Dios (es) la intuición de que la salvación no tiene una esencia intemporal, sino más bien *temporal*» (*hinc et nunc*, alegia).

⁸⁹ METZ, J. B., *Memoria passionis*, o. cit., 25. or., eta 231.-238. or. (89)

⁹⁰ Arrazoi guztiz bitxiakatik. Pio XII.aren *Humani Generis* entzikikak (50.08.12) existentzialismoa ezin dela dogma katolikoarekin egokitu aldarrikatzen du «tanto si (el existencialismo) defiende el ateísmo como si al menos *impugna el valor del raciocinio metafísico (porque rechaza las esencias inmutables de la cosas y no se preocupa más que de la existencia de cada una de ellas*» (eskolastika hutsa).

⁹¹ SCHELLENBERGER, D, o. cit: «Entonces la divinidad ya no es responsable de nada, porque ella lo soporta todo». (91)

⁹² *Ibidem*, 154. or.: «Heidegger cuestionó las premisas de una metafísica (SG, de una teología, religión, fe...) intemporal».

3. Gizakien existentzia historikoa errekupeatzaren ildoan, existentzialistek (lehen) *sinestunen historien* garrantzia ohartarazi digute⁹³: Teologia narratiboa edo esperientzia teologia vs. teologia espekulatiboa edo eskolastika: «Aquí hemos de hablar otra vez de la transición del lenguaje imposible sobre Dios al lenguaje posible sobre los efectos de Dios en el ser humano»⁹⁴.
4. Existentzialismoak bultzaturiko gizaki historikoa errekupeatzek⁹⁵ *Jesus historikoa* (existentzialista?: duda-mudak, tentaldiak, heriotzaren beldurra, «utzia» izanaren (absurdoaren) sentzazioa...) errekupeatzea ekarri du «uno de los logros más decisivos de la cristología de estas últimas décadas»⁹⁶.
5. Ezur aragizko gizakien existentzia errekupeatzek *denbora* edota historia errekupeatzea dakar: «Todos los enunciados bíblicos son portadores de *un índice temporal*, de una nota postrimera»⁹⁷. «¿Noiz arte hori, Jauna» (Is 6, 119). «¿Se acabará el combate, Señor, con la victoria? (Unamuno)». Zatoz, Jesus Jauna! (Ap, 22, 20)
6. Hilemorfismo planteamendu esentzialista gainditu eta gero, sinestunok biziraupenean sinesmenaren «arrazoi existentzialistak» topatu behar ditugu. Heriotza ez omen dagokigu gizakioi: geurez, izaki hilkorrek baikara. Heriotzaren ondorengo biziraupena, izatekotan, dohain hutsa izango zaigu: *existitzen* diren (g)izaki guztien mesederako egindakoarengatik Jainko Aitaren esker ona⁹⁸.

* * *

Badago beste eragin positibo asko erlijio zein sinesmenerako existentzialismotik sortu zaiguna, baina, gaurkoz, ez dugu gehiagorako astirik eta bukatu behar dut. Zuen arreta eta pazientziagatik, eskerrik asko.

⁹³ Ikus SCHILLEBEECKX, E., *Jesus. La Historia de un Viviente*, Ediciones Cristiandad, Madrid, 1981 eta TORRES QUEIRUGA, A., *Repensar la cristología*, EVD, Estella (Navarra), 1996, 61.-156, batez ere, 74. or.: «El interés fundamental de Schillebeeckx radica en reformular hoy la *experiencia cristiana original*». Planetamendu hori hurbilago dago existentzialisteen esperientziatik, eskolastikoen tesietatik baino.

⁹⁴ SCHELLENBERGER, D, o. cit.

⁹⁵ SARTRE, J. P.: «El hombre, tal como lo concibe el existencialista, si no es definible, es porque empieza por no ser nada. Sólo será después, y será tal como se haya hecho».

⁹⁶ LOIS, J., «Balance de los logros de la reflexión cristológica en los últimos 25 años», *25 años de teología: balance y perspectivas*, PPC-Fundación Santa María, Madrid, 2006, 128. or. JEREMIAS, J., *Abba. El mensaje central del Nuevo Testamento*, Sígueme, Salamanca, 1981, 212. or.: «El esfuerzo por llegar al Jesús histórico es la tarea central de la investigación acerca del Nuevo Testamento». (96)

⁹⁷ METZ, J. B., *Memoria passionis*, o. cit., 132. or.

⁹⁸ TORRES QUIERUGA, A., *¿Qué queremos decir cuando decimos «infierno»?*, Alcance, Sal Terrae, Santander, 1995, 91. or.

Ohar osagarriak

(9) NIETZSCHE, F., *Honela mintzo zen Zaratustra*, IV. zatia, «Kanta hordia»: «Oi gizona» Hago adi! Gauerdí sakonak zer ziok». Entzun ere, MAHLER, G., *III. Sinfonia*, 4. mogimendua.

(12) DUCH, LI., *Un extraño en nuestra casa*, Herder, Barcelona, 2007, 22-23. or.: «Según nuestro parecer, más que las *respuestas*, lo que constituye el meollo de la cuestión de Dios (SG, de la religión) es la *pregunta*. Una pregunta insistente, inscrita, a menudo, dramáticamente, en las profundidades de ese ser finito con apetencias de infinito que es el hombre, cuyas respuestas, positivas o negativas, siempre se hallarán afectadas por la provisionalidad que lo caracteriza. Porque este extraño ser que, según feliz expresión de Rainer Maria Rilke, siempre se encuentra despidiéndose, nunca podrá dejar de interrogarse sobre de dónde viene y a dónde se encamina: ¿hay alguien que nos espera en la otra orilla del río? (Unamumo), ¿se reduce el conjunto de la existencia humana al azar?, el ser humano, ¿está completamente abandonado a su suerte? En un tiempo de banalización creciente de lo humano, la persistencia, la tozudez de los interrogantes fundacionales del ser humano, al margen del contenido de las respuestas, también muestra la seriedad con que se ha de plantear la existencia humana más allá de los tópicos y las modas de nuestro tiempo».

(14) Ikus TORNOS, A., «La filosofía del cristianismo y de la religión en Wittgenstein», in *Pensamiento*, 46 (1980), 181. or.: «Para comprender el significado de tales expresiones conviene añadir que lo que atribuye Wittgenstein a los que creen en Dios no es comprender el sentido de la vida, sino la comprensión de la pregunta por el sentido de la vida, y que tales afirmaciones remiten al orden de lo místico (SG, religioso), un orden del que es «preciso callar». Ikus in MARTIN VELASCO, o. cit., 223. or.

(17) TORRES QUEIRUGA, A., *El problema de Dios en la modernidad*, EVD, Estella (Navarra), 1998, 24. or.: «Al no tener suficientemente en cuenta la diferencia ontológica, Dios aparecería reducido a ser la causa primera: en definitiva, el *ens infinitum* al lado o por encima del *ens finitum*, una realidad (todo lo grande que se quiera *junto a* las otras realidades. Será Heidegger quien denuncie con insistencia este hecho, pero en su efectividad histórica ha estado acompañando decisivamente todo el proceso del pensamiento moderno (Kant eta Nietzsche barne)».

(22) Fausek «conocimientos» eta «convicciones» bereizten ditu («verdades inter-subjetivas o públicas» eta «verdades privadas», J. A. Marinaren esanetan; ikus *Por qué soy cristiano*, Anagrama, Barcelona, 2005). «Conocimientos» axioma nabarmen, logiko, matematikoetan edota esperimantu fisikoetan oinarritzen dira; «convicciones», ostera, barruko esperientzia, intuizio edota zantzuen elartze edo bat egitean «que son menos transmisibles y menos formulables, por válidas que puedan ser».

(24) *Ibidem*: «La mecánica cuántica ha supuesto un duro golpe a la concepción tradicional de la naturaleza, es decir, a la idea de una física con leyes naturales, universales, regulares y constantes, que permitan la inteligibilidad del mundo y hacían posible una epistemología realista. El principio de incertidumbre o indeterminación de Heisenberg y los distintos experimentos de la escuela de Copenhague, obligan a una revisión radical de nuestra concepción de la física y de la ontología y epistemología clásicas. En lugar de la perspectiva objetiva y estable, se pone en primer plano el ca-

rácter dinámico y potencial de la realidad, que revaloriza la posibilidad respecto de la facticidad, que sólo podemos constatar a posteriori».

(25) Ikus MADINA, J.A., *Aprender a vivir*, Ariel, Barcelona, 2005, «La aventura de crecer», 25-40. or. Ikus Eibl-Eibesfeldt, I., *Biología del comportamiento humano. Manual de Etiología humana*, Alianza, Madrid, 1993, Shaffer, D. R., *Psicología del desarrollo. Infancia y adolescencia*, International Thomson Ed., México, 2000, 405. or.; Santrock, J. W., *Psicología del desarrollo de la infancia*, McGraw-Hill Interamericana de España, Madrid, 2003: Después, sobre todo en la cultura racionalista occidental, es la razón la que, aparentemente, al menos, asume casi el protagonismo exclusivo del conocimiento. Sin embargo en las formas más básicas del conocer (enamoramiento, amor filial y/o maternal, amor a nuestro pueblo, etc.) aflora la raíz «sapiencial» (sapere, saborear) o sistémica (interacción de diversos sistemas, fuentes o formas de conocer) del conocimiento humano. También en el conocimiento religioso. ESTRADA, J. A., *la pregunta por Dios*, Desclée De Brouwer, Bilbao, 2005, 44. or.: «De ahí su enorme potencial motivador, inspirador y generador de conducta, ya que saca lo mejor y lo peor del hombre. En esto supera a la filosofía, que se basa en la racionalidad y valora lo abstractivo y reflexivo, sin atender ni valorar la importancia de las necesidades emocionales, expresivas y existenciales, que son las que la religión, juntamente con el arte, canaliza y asume».

(30) MARTÍN VELASCO, J., *Mística y humanismo*, o. cit., 30. or.: «El indiferente sería, en imagen muy precisa de Simone Weil, quien, teniendo hambre, logra convencerse de que no la tiene, con lo que está condenado por necesidad a morir de inanición». Habermasek bere burua indifentetzazt jotzen du «sin oído musical para la religión».

(48) MOELLER, Ch., *Literatura del siglo XX y cristianismo*, Gredos, Madrid, 1960, 65. eta 71. or.: «El libro de actas, con fecha 21 de diciembre de 1879, registra el nombre de Unamuno como secretario; él mismo cuenta cómo esas elecciones provocaban cada vez intrigas y «cabildos», en que se mezclaban incluso, por parte de los «paganos de fuera», acusaciones de carlismo («un niño me dijera que todos los congregantes éramos unos carlistones»). La elección de Unamuno fue discutida, pero ejerció su secretariado hasta abril de 1880; el 1º de octubre de 1880 se dirigió a Madrid, y su firma ya no aparece en los registros. Durante su adolescencia, Unamuno iba a misa todos los días y comulgaba una vez al mes».

(61) «Eleberri guztian zehar, pertsonaia nagusiak (Leturiak) lau bilaketa nagusi egiten ditu: lehenengoa, udalenean hasten du Zerubiden, bertako bakardadea bide, absolutua eskura dezakeela uste duelako. Bigarrenean, udan, Mirenganako maitasunaren bitartez absolutuaren jabe egingo dela pentsatzen du eta hirugarrenean, udazkenean, Parisen adimendua lagun duela bere helburua lor dezakeela uste du. Alabaina, usteak erdia ustel izan ohi duenez, Leturiak egiten dituen lehenengo hiru saiakeretan huts egiten du, ez haatik etsi. Laugarren saiakeran, neguan, Mirenen laguntza-deiari erantzun eta horrela ere absolutua aurkitzen ez duenez, laugarrenez kale egitea da Joseba Leturia behin betiko etsitzera eramaten duena. Azkenean, bere buruaz beste egiten du».

(79) Gauza bera gertatzen zaigu «maiteminduen arteko erlazioaz» dihardugunean. Horretarako, askoz adierazgarriagoa da hizkuntza poetikoa edota dantza... ezen ez psikologia edo anatomia traktatuak baino. MARTÍN, C., *La alegría del evangelio*, 89. or.: «Podemos interrogar a los Doce: ¿qué significó para ti aquel paso? Creo que in-

sistirían en la experiencia de salir de sí. y lo explicarían como un enamoramiento, como un sentirse irresistiblemente atraído por alguien». METZ, J. M., *Memoria passionis*, o. cit., 21. or.: «Quien, por ejemplo, formula el discurso sobre el Dios de Abraham, Isaac y Jacob de tal manera que resulta inaudible el lamento de Job –su queja (SG, existencialista): «¿cuánto durará esto todavía?», ése no hace teología, sino mitología».

(80) METZ, J. B., *Memoria passionis*, o. cit., 57. or.: «No se trata de incitar a la teología a que interprete esta famosa distinción del *Memorial* de Pascal –“el Dios de Abraham, de Isaac y de Jacob, no el dios de filósofos y eruditos”– como si el dios bíblico fuera un Dios de las negaciones espirituales e intelectuales, el Dios de la estricta antimetafísica».

(84) Ildo bertsutik? SOBRINO, J., *Jesucristo liberado. Lectura histórico-teológica de Jesús de Nazaret*, San Salvador, 1991, pp. 103 ss, y Madrid 2001: «Fuera del seguimiento no se tiene la suficiente afinidad con el objeto de la fe para saber de qué se está hablando». *Fuera de los pobres no hay salvación*, Trotta. Madrid, 2007, 126. or.: «El seguimiento asegura que en ella están presentes los dos elementos fundamentales del misterio de Dios: “ser Padre” y “seguir siendo Dios”. Mantener dialécticamente ambas cosas hace que la experiencia sea, y tiene que ser, proceso, como lo fue para Jesús. Es el “caminar” con Dios en justicia, amor y ternura, y es el caminar hacia Dios sin llegar a estar en posesión de él». Ildo beretik, Javier Garrido teologoaren «Vivir en proceso. Un modo de plantearse la vida» liburua, in Frontera-Hegian, ITVR-EBTI, Gasteiz, 2006.

(85) Fedea, itxaropena eta karitatea dira Jainkoarekiko birtuteak (virtudes teológicas). Hiru birtute horien mixing-a edo agerpena, neurri batean, kulturala edota siko-logikoa omen da. Ez omen dira berdinak europar (greziar edo erromatar) kulturaren, eta ekialdeko (juduen) kulturaren. Jesusen unerik sakonetan ba dirudi Jainkoarekiko esperientzarik nabarmenena ez zitzaiola arrazoaren bidez gauzatu (arrazoia kontuan hartzen bazuen ere), adorazioaren bidez baizik (Gure Aita, zeruetan zarana, Santu izan bedi zure izena...), gizaki txikitutasun esperientzaren bidez (Emoiguzu gaur... parkatu gure zorrak... eta ez gu tentaldira eroan...), (ez)itxaropen bidez (Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia), (ez)maitasun bidez (zergatik utzi nauzu?), galileo bati zegozkion esperientzarik nabarmenenak omen: «El discurso sobre el Dios de Abraham, de Isaac y de Jacob, que también es el Dios de Jesús, no es expresión de un monetismo cualquiera, “fuerte”, abstracto y ahistórico, sino de un monetismo “débil”, vulnerable, caracterizado por la empatía (SG, existencialista?). Se trata, en esencia, de un discurso sobre un Dios sensible al sufrimiento», ikus METZ, J. B., *Memoria passionis*, o. cit. 163. or.

(89) DUCH. LI., o. Cit., 34. or.: «Con frecuencia, se ha supuesto que las «raíces cristianas» de nuestro país (SG, continente) eran un punto fijo que nada ni nadie podrían desvirtuar o anular. Nos parece indiscutible que nuestra historia y nuestra cultura resultan totalmente incomprensibles si, para bien y para mal, no se tiene en cuenta la presencia y la acción en ellas del mensaje cristiano y de sus diferentes formas de institucionalización a lo largo de los siglos, pero también nos parece cada día más indudable que la fijación de esas raíces cristianas en el corazón de los habitantes de este país no ha sido tan firme ni tan profunda como se había supuesto».

(91) Olibondoko ortuan, Jesus askoz existencialistago agertzen zaigu Sokrates (hau ere gezurrez kondenatu eta zigortua), Atenaseko espetxean, astaperrexila hartu zuenean baino. METZ, J. B., *Memoria passionis*, o. cit., 153. or.: «El neoplatónico

Plotino, cuya influencia, que en la filosofía cristiana de la religión se extiende por lo menos hasta Hegel (SG, hasta el nacimiento del existencialismo), sometió repetidamente a la teología al yugo de un estricto pensamiento de la identidad... el axioma gnoseológico de que “sólo lo semejante conoce a lo semejante” inició su anónimo imperio en la teología cristiana. Pero este axioma representa el más alto escalón reflexivo de la intemporal autorreflexión del Absoluto: en sí mismo, el tiempo (SG, la vida histórica, el yo reivindicado por el existencialismo) no tiene la más mínima autorreflexión del Absoluto. El originario axioma gnoseológico de la idea bíblica de Dios debería rezar, por el contrario, como sigue: “Sólo lo que es diferente entre sí puede conocerse mutuamente desde el reconocimiento”. Admiración, expectativa, curiosidad (SG, lamento, canto...); todo ello pertenece a la estructura cognitiva de una teología comprometida con la idea bíblica de Dios».

(96) GUIJARRO OPORTO, S., «Jesús, el hombre: investigación histórica», in *Jesús de Nazaret. Perspetivas*, PPC-Fundación Santa María, 2003, 5-6. or.: «Se trata, efectivamente, de un tema central para una disciplina –la exégesis y, en última instancia, la teología– que quiere dialogar con la cultura en la que vive».

TXILLARDEGI ETA (KRISTAU?) ERLIJIOA

Donostia, 2007.07.18

I. diapositiba.

LETURIA-REN EGUNKARI EZKUTUA ETA ERLIJIOA

- 1^o. Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, *idazle erlijiosoa?*
 - 2^o. Leturiaren erlijiotasunaren urratsak
 - 3^o. M. Unamuno Leturiarengan eragile?
 - 4^o. Existenzialismo razionalista ala kristau existenzialismoa?
-

II. diapositiba.

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, Txillardegi, *idazle erlijiosoa* (I)

1. Leturian...

- ✓ *Literatura azpigeneroa*. Munduan erlijiozko fedea galdu-ala kezkak eta zalantzak aunditu zaizkio egungo gizonari, ta aiekin batera, geroz eta gehiago ugaritu dira *barne-egunkariak*, benetako literatura-moda biurtu arte" (74).
- ✓ *Literatura korrontea*: "La filosofía existencial (es) producto (reacción) de la inhibición religiosa (del racionalismo) (ZAMBRANO, M.).
- ✓ *Maitemintzen* geranean, esate baterako, ez du ameskia andregaiak sortzen, gure Jainko-egarriak baizik (117).
- ✓ Argi ikusi dut gaur, eta bihotz-utsunearen sustralari igarri diot: Jainkoaren egarria da gizonaren zorion-miña. Jainkoaren bearra da gizonaren sustrala bera: gizona ukatu gabe, ezin diteke au uka (117, 121).

III. diapositiba.

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, Txillardegi, *idazle erlijiosoa* (II)

2. Beste literatura lanetan...

- ✓ *Peru Leartzako* (1960): non (Txillardegik dio) "budismoaren presentzia nabaria baita", gaurko agnostiko askoren horren gogokoa Jainkoaren gabeko erlijioa.
- ✓ *Elsa Scheleen* (1965): "Se nos presentan reflexiones referentes a la religión y la secularización (el problema de la secularización se ve reflejada en las dudas religiosas que presenta Munier tras haber conocido a Elsa) (Olaziregi, M. J.).
- ✓ *Artikuluak*: "Kierkegaarden hazia, Unamumoren lore", Budari buruzko "Mendeurren oargarri bat" (1956), "Fulton Sheen: Religión sin dios", *Egan*, 5-6 (1956), "Unamuno eragille", *Egan*, 3-4, (1957), "Betikoaz agian", *Egan*, 1-2, 1958, 43.-47. or. "Sinistu ezinean iges egin behar", *Jakin*, 27-28 (1967), Prestatzen ari den salakeren artean, "Erljioaz eta Antropozentrismoaz" arituko dela aurreratu digu in "Egunen harian", 05.10.26

IV. diapositiba.

LEHENDABIZIKO ONDORIOAK

Txillardegiren literatura lanak:

- 1.a, Literatura erlijiosoan sar daitezke (non hobe?)
- 2.a, Sartzekoak dira, esaterako, Charles Moeller-en Literatura del siglo XX y cristianismo moduko bilduma batean: Gabriel Marcel, Miguel Unamuno, Jean Paul Sartre, Simone de Beauvoir, Albert Camus, Charles Peguy ...
- 3.a, J. P. Sartre: "Badaude existentzialista talde bi:
 - Lehenak, kristauak direnak: talde honetan Jaspers eta Gabriel Marcel sartuko nituzke,
 - Bigarrenak, Jainkogabekoak: Heidegger, Frantziako existentzialistak eta ni neu" (Sartre).
- 4.a, Txillardegiren iritzia: "Leturia idatzi nuenean oraindik kristau existentzialistatzat nuen neure burua... eta segidan, ezari-ezarian, agnostizismora jo nuen".

V. diapositiba.

ZER DA (IDAZLE) ERLIJIOSOA IZATEA (I)

1. Ereljiosoa: $\left\{ \begin{array}{l} \neq \text{Otolzglea, sermogillea...} \\ \neq \text{Sinestuna} \\ = \text{Zelataria: Begirale, ze gaualdi dugu? (ls 21 11)} \end{array} \right.$
2. Muga-galdera:
 - Martin Heidegger: Zergatik izakia eta ez ezereza?
 - Ignacio Ellakuria: Zergatik ezereza eta ez izakia = izatea? (Etika)
 - Leturia: Non daude mugagabeko bide ezkutuak? (102)
3. Zertaz galdetu? *Bizitzaren* (heriotza barne) zentzua edota *norabideaz* alegia:

"Gutziz egokia deritzat onengatik erlikioari, bestegatik ez ba litz ere. Gizonaren elburua Zeruan(?) jarriz, bide utsa bihurtzen du biziera, ta itxaropenak eta lillurak gordetzeko aukera bakarra ematen dio gizonari" (Leturia).

VI. diapositiba.

ZER DA (IDAZLE) ERLIJIOSOA IZATEA (II)

4. Nori galdetu?: Sakratua, lilugarria (beldugarria, zenbait kultura eta agerpenetan) den edo izan daitekeen gutaz "beste" bati: "Erlijiozkoa da berez gizonaren *utsunea*, ta ez dauka *mundu onetakoaz* asetzerik" (117).

5. *Radarra*. Erantzunik ote? distirarik?: Tensio edo ermetasunari eustea: "Non dago-ta nere irten-bidea" (81).

Erljio < *Re-ligio* < *Re-ligo* = (*ber*)lotu

Sinesmena

Erljioaren dinamikan (begiratu, entzun), sinismenak muga-galderei *surpegia* ematen die: "Jainkoaren begiratzea maitatzea da" (Avilako Santa Teresa):

"Ni aukeratu ez-baña ni aukeratzea gertatu zaidalako" (137)

VII. diapositiba.

ZER DA (IDAZLE) ERLIJIOSOA IZATEA (III): Jakite ezberdinak

Jakitearen *subjektuaren* eta *objektuaren* arteko (des)egokitasuna

Zientzia : → Arrazola → Errealitate fisikoak: banan-banakoak

Filosofia : → Arrazola → Errealitate orokorrak eta abstraktuak

Erljioa : → Alde edo dimentsio askodun jakite konplexua (> Sapere):

"El pensador dice el ser. El poeta nombra lo sagrado. Es el poeta quien descubre la verdad última de este diálogo que es el hombre" (HEIDEGGER).

Noiztanik da gizona pentsakorra? Bañan ulermena, argizagi itzalkorra da. Buruari uko egiñez, bidean abiatzen naiz azkenik. Gora blotza! (100, 138, 139).

VIII. diapositiba.

ZER DA (IDAZLE) ERLIJIOSOA IZATEA (IV): Jakite ezberdinak

Erljioa → Sinesmena:

- ✓ Arrazoizkoa ez dela (no racional):
 - Batetik, Arrazoiarekiko erlijio-objektuaren desegokitasunagatik: "Beti onartzen dira aurre-absolutuak. Ezin irten diteke utsetik. Gero piskanaka ta etendurarik gabe eraikitzen joate arren. Jauzi egin bear da beti asieran: 'intuizioa' dela, edo nai dugun eran deitu dezakegun lenengo oinkada. Izenak ez du ajolik" (130).
 - Bestetik: Objektuaren (Jainkoaren) ezin besarka-ezintasuna: "Un Dios que tiene que hacer demostrar su existencia es en definitiva un Dios muy poco Dios y la demostración de su existencia a lo más que puede llegar es a una blasfemia" (NIETZSCHE).
- ✓ 'Arrazoigarria' bai (sí razonable): "Egon beti prest zeuen itxaropenaren arrazola eskatzen dizuenari erantzuna emateko" (1 Pedro, 3, 15)

IX. diapositiba.

ERANTZUTEKO FORMAK (I)

- ✓ *Erantzunik ez → Agnostikoa:*
 - Hertsia = Eszeptikoa. Ezin da aurrera joan. Ezin da ezer frogatu: "Oinarri nahikorik gabeko aukeratu beharra edota angustia" (SARTRE).
 - Irekia: Galderari... eustea. Adi egotea...: Bai..., Bai..., Egia... Baña, Jainkoa? (119)
- ✓ *Galderari ez → Ateoa*
- ✓ *Galderarik ez → Indiferentea*

X. diapositiba.

ERANTZUTENeko FORMAK (II)

Leturia, erlijiosoa bai, sinestuna ez (?)

Leturia:

- Nun daude oñarri sendoak, aietan nik atsedena ar dezadan? Nun dago beren Iturria? Nun zaude Zu? (119).
- Fedearen bearra ta bidetasuna onela azaltzen ditut gaur; ez gizonaren aurkakoa bezela, gizonaren izanari lotutako bearra bezela baizik. Baña, zein fede? Edozein? Zein bide? Zein absolutu? (128).
- Ez zaitut nik zu beñere ukatu (142).
- Bildur naiz. Otoitz egin naiko nuke. Nori, ordea, fedegabe gogor honek? (142).

Txillardegia:

Ni neu agnostikoa naiz. Egia da frankismoaren garaiko seme naizela, heziketa katolikoa jaso duena, baina ni ez naiz inoiz militante katolikoa izan, ez naiz Acción Católicaa eta horrelakoetan ibili.

XI. diapositiba.

LETURIAREN ERLIJIOTASUNAREN URRATSAK: 'APORTAZIOAK' eta 'GABETASUNAK' (I)

1. Gizakia mugatua, osotasunaren egarria: *Bakarrik nago Zerubiden* (21)

- a/ *Contingentia* (Aristoteles) → *Heriotzarako gizakia* (Heidegger)
b/ Gizonaren *zoribidea* oarrez bizitzera noa (107).

LETURIA (76)	MITXELENA (10)
Gizon eria artzen omen da gaur literaturan gizonaren eredutzat; eta joera onek iduri gezurrezkoa sortu duela diote sasi-baikor askok. Arrazoi pitin bat dutela ukatu ez arren, au esaten diegu oriel: zergatik ez ditu lau ostoa irustak??"	Nolanai ere, eta aspaldidanik naiz iritzi ortakoa, Paradisu galduearen miña daukagu ezer-muñetaraño sartua eta beldur naiz ez ote geran beti ibilliko gaur-biarretako munduan <i>tanquam aduenae et peregrini</i> , errimiñiak uzkuriturik dauzkan arrotz eta kanpotarren gisan.

XII. diapositiba.

LETURIAREN ERLIJOTASUNAREN URRATSAK (II)

2. Gizaki modernoa, absolutua behar du:

- *Neure burua aurkitu nai dut, nere gaitzerako ba da ere, naizena sakon aztertu ta miatzeko*" (23).
- *Zorion egarri sakona*" (24, 100-101)
- *Zertarako dut ulermena? Nire bidea billatzeko* (113)
- *Absolutuak zuzendu bear du nere bizitza; zer balio izan dezake bestela onek? Zertarako genduke adimendua? Zertarako poz-yorana?* (123)

3. Erantzun (osorik) ez → Galderari (bideari) eustea: Existentzia mina?

- *Nork bizitu du alaitasun osoa* (75).
- *Etokizunaren bildur naiz. Nun dago-ta nere irten bidea?* (81).
- *Ondoan bide-dugu beti gure zorion-egarri sakona itzaliko duena* (100).
- *Oso erlatibuak dira absolutuak* (126)
- *Goragaleak ditut. Nazkatuta nago* (101; 103).

XIII. diapositiba.

LETURIAREN ERLIJOTASUNAREN URRATSAK (III)

4. Gizakiaren ekimena edo inizatiba (Prometeo):

- *Jainkoa etzaitut nik zu beñere ukatu. Lagun zaizkit nere larrialdi onetan Miren biziko balitz → Maitasunaz jautuko ditut nere pekatuak.* (142).

5. Erliijo funtzionala:

- *Argi ikusi dut gaur, eta biotz-utsunearen sustraiari igarri diot. Jainkoaren egarria da gizonaren zorion-miña. Zerbait Absolutu bear nuen nere biotzak, Artan atsedena ta atsegiña edateko. Nola bete nintzake emakume gajo batek?* (117).
- *Erliijoari eskerrak, bizitzatik kanpora joan da gure lorkizuna* (120).
- *Bizitza obakunde bat (proiektu) bat bezela jotzean, zer-egiña biurtzen da biziera, ots, bide bat, eta beste arrakasta aundi bat du au ere* (121). *Gutziz egokia deritzat onengatik erliijoari, bestegatik ez ba litz ere* (120).

XIV. diapositiba.

LETURIAREN ERLIJOTASUNAREN URRATSAK (IV)

6. Arrazoiaren muga

- Egiak ez du gizonagan agintzen, baloreak baizik. Eta balore auek ez dira adimentuz aukeratzen, joera, azikuntza, gizaroa, biotza, ta beste amaila eragiñen bidez baizik (125).
- Biotza zegok buruaz gañera (99).

7. ibiltzea → Aukeratzea

- Aldatzeak eta mugitzeak egiten dituzte zoriona eta atsekabea (119).
- Ibiltzeak ez darama absolutorik bere sustraletan (122).
- Ibilli egin bear da, ibiltzeak berak beteko ez gaituela jakinda ere; eta itsuka ibilli bear da, artutako bidea 'a posteriori' baietsi ditekkelako konsolabide bakarrean. Ikusi ez arren, siflistu egin bear da; ta fede orri bizitza osoa lotu. (127)

XV. diapositiba.

LETURIAREN ERLIJOTASUNAREN URRATSAK (V)

8. Arrazoiaren kontra? Sentimenduak → Maitasuna

- Makurtu egin bear burua: ez daukagu egiara iristerik, jauzi baten bidez abiatuak baizik. Eta gu geu ez gera gauza bearrezko jauzia emateko (131).
- Biziagoa da zorion-egarria egia-miña baño (131).
- Iñora ez darama adimenduak, bere eziña adiraztera baizik (136).
- Sentimenduak ez du aditzen, eskatzen baizik (136).
- Zoriona iristeko maitetasuna eskatzen digu... Eta zer da maitasuna?
- Gu zeru-lurreko erdian jarrita aukeratu nai ba du adimenduak, geure burua eskeñi nai du berriz sentimentuak, besteentzat gu laguntza biurtuz... Nik aukeratu ez-baña ni aukeratzea gertatu zaidalako (137).

XVI. diapositiba.

LETURIAREN ERLIJOTASUNAREN URRATSAK (VI)

Ondorioak:

- ✓ **Moderno.** Credo quia absurdum vs. Sinesmenaren oinarria (harria): "Neure burua arkitu nai dut, nere gaitzerako ba da ere, naizena sakon aztertu ta miatzeko" (LETURIA, 23).
- ✓ **Ez da zehatza:**
 - a) Ez du ondo bereizten erlijioa eta sinesmena, erlijio naturala eta kristautasuna.
 - b) Kontrajartzen ditu arrazoiak vs. sentimendua: "Ulermena atzeman dezakean egia... zorionarekin zer-ikusirik ez du. Zertarako dut, hortaz, gidarizat, adimendu aul au? Zergatik nere almen nagusizat, neure aurka ba dago" (131).
 - c) Erlijioari eskerrak, bizitzatik kanpora joan da gure lorkizuna (120).
- ✓ **Hipotesi asko Planteatzen ditu (arrazoimenaren eta sentimenduen artekoa, kasu), baina ez ditu ez lantzen, ez sakontzen.**

XVII. diapositiba.

M. UNAMUNOREN TXILLARDEGIRENGAN ERAGILE?

M. UNAMUNO	J. L. ALVAREZ ENPARANTZA
1. Heziketa katolikoa: <i>militantea</i> .	1. Heziketa katolikoa: <i>ez militantea</i> .
2. Prometeo: Jainkoaren <i>kontra</i> aritzea.	2. (Prometeo) ↔ Tantalos: "Jainkoaren egarria, egiara iristerik ez daukagula" (142)
3. <i>Arrazoi</i> an oinarrituriko fede ezina.	3. <i>Arrazoi</i> an oinarrituriko fede ezina.
4. Sinistu <i>nahia</i> : Creer es crear <ul style="list-style-type: none"> a) Sentimenduak b) Ebanjelioko Jesus c) Otoitza 	4. Sinistu <i>nahia</i> <ul style="list-style-type: none"> a) Sentimenduak b) Ez dago Jesusen aipamenik c) Ia ez dago otoitzik
5. Agnostiko irekia? Sinestuna?	5. Agnostikoa? Sinestuna?
6. Prozesu luze eta sostengatua	6. Prozesu labur eta bat batekoa
7. Nitasuna	7. Nitasuna
8. Heriotzaren ondorengo <i>biziraupena</i>	8. <i>Absolutu</i> aren beharra.
9. Lirikoa	9. Intelektuala
10. Agonia	10. Asperdura

XVIII. diapositiba.

EXISTENTZIALISMO RAZIONALISTA ALA KRISTAU EXISTENTZIALISMOA? (I)

Esentzialismo erlijiosoa	Existenzialismo agnostikoa	Kristau existentzialismoa
Esentzia edo definizioa (META)FISIKA	Existentzia edo historia GIZAKIA <i>in fieri</i>	Existentzia edo sinestun(ar)en 'historiak' Jainkoaren <i>Proiektua</i> . <i>Creatio continua, in fieri</i>
Logika edo eskolastika	Fenomenologia ↔ Arrazoi Hutsaren Kritika	Esperientziak → LILURA
Razionalismoa	Arrazoi nahikorik gabeko aukeratu beharra	Kristoren / lehen kristauen esperientzia
Jainkoarenganako arazoizko viak	Nahia eta ezina	a) Bihotzaren arazoak b) Jesukristoren aitak hautatua izanaren arazoak ematea

XIX. diapositiba.

EXISTENTZIALISMO RAZIONALISTA ALA KRISTAU EXISTENTZIALISMOA? (II)

Esentzialismo erlijiosoa	Existenzialismo agnostikoa	Kristau existentzialismoa
Kontzeptuak Kontzeptuaren eta errealitatearen korrespondentzia	Sinboloak (Poesia) Desegokitasuna edo Muga (meta)fisikoa →	Sinboloak + Jarraitzea (Sartre, Leturia: Ibiltzea) • Misterio edo gau beltza: <i>Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?</i> • Konfiantza: <i>Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia.</i>

XX. diapositiba.

EXISTENTZIALISMO RAZIONALISTA ALA KRISTAU EXISTENTZIALISMOA? (III)

Esentzialismo erlijioso	Existenzialismo agnostikoa	Kristau existentzialismoa
Jainkoa: Izate hutsa, Egia, Lehen Motorra edo Lehen Kausa, Azken Kausa	Jainko helezina (Unamuno) Jainkoa: Baliarik gabeko hipotesia (Sartre)	Jainko eskainitakoa, jeltsia, errebelatua, ezereztua, hustua.
Gizakia: <i>animal rationale</i>	Heriotzako izakia (Heidegger)	Materia biziaren autotranszendentzia
Heriotza: Arimaren betiko biziraupena.	Biziraupena nahia eta ezina	Jainkoaren esker ona eta dohainikakoa.

XXI. diapositiba.

EXISTENTZIALISMOAREN EKARPENAK GAURKO ERLIJIOTASUNERA

EXISTENTZIALISMOAREN EKARPENAK GAURKO KRISTAUTASUNERA

- ✓ Existenziaren (zoriontasunaren) balioa vs. *Contemptus mundi*
- ✓ Historiaren ([lehen] sinestunen historien) garrantzia (Teologia narratiboa) vs. Teologia espekulatibo edo eskolastikoa.
- ✓ Esperientzia → aurkitze 'in fieri'.
- ✓ Jesus historikoaren esperientiaren garrantzia.
- ✓ Ez jakitearen (misterioaren) garrantzia (Teologia apofatikoa).
- ✓ Azalpena vs. frogapena, arrazoizkoa vs. 'arrazoigarria'.
- ✓ Bizitzaren ondorengo bizia ez omen dagokio gaizakioi, izatekotan dohaina da (*existitzen* diren guztien mesederako egindakoari Jainkoaren esker ona).

XXII. diapositiba.

LETURIAREN UDA EZKUTUA «Uda» atalari buruzko iruzkinak

*Karlos Otegi,
EHU/UPV*

0. ATARIKOAK

Leturiaren egunkari ezkutua 1957an argitaratu zen lehenengo aldiz. Harrezkero berrinprimatze ugari izan ditu. Hemen 1983koa erabiliko dugu, Elkar argitaletxeak egindakoa.

«Uda» kapituluari buruz arituko gara: atalak, laburra izanik ere, iruzkinerako gai aski eskaintzen baitu.

Lan honi jarri diogun izenburuak, «Leturiaren uda ezkutua», kapitulu honetan eta eleberriaren tituluan du oinarri edo aitzakia. Nola edo halako uz-tarketa edo hitz jokoa egin dugu: Leturiaren egunkaria «ezkutua» da eta uda partea ere ezkutua. Biak, nahita, gordeak. Egunkaria, azken finean, ezaguna, argitaratua, edonork irakurgarria. Uda sasoikoa ez; udak ezkuturik dirau.

Gure asmoa, hala ere, ez da ezkutuki hori argitzea. Ez gara eleberrigile, ez eta asmatzaile, eta eleberri hau, bere testua, burutua da aspaldi. Autoreak berak ez badu argitu guk, behintzat, ez dugu egingo.

Kapitulu hau berezia da eleberrian: teorikoa neurri handi batean. Leturiak ez du ezer idatzialdi honetan, baina atalaren taxuketak eta edukiak puntu giltzarri zenbait lantzeko, osatzeko eta eztabaidatzeko bide edo laguntza eskaintzen dute. Testu akuilagarria da.

Testuari hurbiltzeko aukerak ugariak badira ere, oraingoan bizpahiru ardatz besterik ez dugu jorratuko. Banaketa ohikoa –berez artifiziala baina metodologikoki baliagarria, eta barkagarria– erabiliz:

1. NOLA: adierazpen edo formaren harian. Testuak, «Uda»k, nobelaren konfigurazioa, hau da, «nola» dagoen antolatuta ulertzeko argibideak ematen ditu.
 - 1.1. Egunkari egitura: «Uda» atalean eleberria egunkari bat dela berresten da.
 - 1.2. Biltzailea: «biltzaile» figura txertatzen da, obran josten diren instantzien, ahotsen, joko edo eskema osatuz.

Bi osagai hauek, egunkari eta biltzailearena, kontalari-pertsonaiarena-ekin –azken hau jadanik maiz aztertua beste zenbait toki eta alditan– originalak dira euskal nobelaren sisteman, eleberri honetan esperimintatzen dira aurreneko aldiz.

2. ZER: edukiaren harian. Testuak dioena eta, bereziki, idazte ekintzaz biltzen diren azalpenak, arrazoiak.

1. NOLA. ADIERAZPENAREN HARIAN: EGUNKARI EGITURA ETA BILTZAILEA

1.0. Sarrera

Badakigu: Txillardegi autoreari ez zaio interesatzen, bere nobelagintzan, helburu nagusi gisa, forma, teknika, gertakari edo istorioen kontaketa. Berezi-ki axola zaiona da edukia, mezua, ideiak, gogoetak, errealitatearen inguruko arazo existentzialak, historikoak, linguistikoak, politikoak, eta abar. Txillardegiaren nobelak, hein handi batean, kontaketa ideologikoak dira, tesi nobelak, ideiez mamituriko kontakizunak.

Maiz azpimarratu izan du idazleak berak joera hau egin izan zaizkion elkarriketa eta holakoetan. Hona hemen bizpahiru adibide:

- *Leturiaren egunkari ezkutua* eta *Peru Leartzako* nobelekin helburua «nobela filosofiko bat egitea» zen. (*Berria*, 2004-7-29a)
- «Nik bat egiten dut ikuspegi honekin [existentzialismoaz ari da], eta nobelaren bidez hori adierazten saiatu nintzen, ez dakit zer arrakastarekin... Baina ez zen izan “Madame la Marquise est sortie à cinq heures” estiloan idatzitako nobela, besterik gabe gauzak kontatzen dituen nobela bat, pasadizoen kontaketa hutsa.» (*Berria*, 2006-10-29a)
- «Gure aportazioa gaiaren aldetikoa izan zen; ez teknika aldetik. Alde horretatik nik Unamunoren eragina izan dut. Hark esaten zuen: «Txanpon batean garrantzitsua ez da txanponaren balioa, baizik eta nire eskuak ematen dion berotasuna.» Nik ere hori egia dela pentsatzen dut. Formari ematen zaion balioari ez diot garrantzirik ematen. Nire asmoa nobela ideiaz jostea da.» (*Euskaldunon Egunkaria*, 1999-1-3a)

Hain zuzen ere, egiatan, 1957an, *Leturiaren egunkari ezkutua* agertu zenean, nobelak sorrarazi edo eragin zuen ustekabea, harridura, miresmena edo arbuioa, tematikaren aldetikoa izan zen batik bat, hots: arazo existentzial, erlijioso, ideologiko, filosofikoaren azaltze larri, gartsu, zirrargarria.

Horrela, topiko bihurtu zen esatea, eta oraindik ere ez da arraroa entzutea, Txillardegi euskal eleberrigintza gaiaren, tematikaren, aldetik berritu zuela, eta beste batzuek, aldiz, formaren, espresioaren, aldetik.

Bereizketa artifizial hau gorabehera, eta Txillardegik egiten duen aitopren «kontenidista»z gain, forma, teknika edo istorioaren nagusitasunaren aurrean azaltzen duen errezeloz gain, esan behar da gure autoreak teknika, forma, ere landu, landu egiten duela. Eta hori, bereziki, *Leturiaren egunkari ezkutua* nobela honetan. Adierazi nahi duen edukiaren araberako espresio moldea, generoa, hautatzen du eta jorratu. Egia da, nobelan, kontaketa bera urri samarra dela, baina adierazte mailan, landu egiten du nobelaren egitura, ikuspuntu edo fokalizazioa, lexikoa, esaldi moldea, tonua, pertsonaiaren eraikitzea, eta abar. Ez da ideien kontua soilik.

1.1. Egunkari egitura

1.1.0. Planteamendua

Leturiaren egunkari ezkutua nobelari hurbiltzen gatazkiarekin, konturatzeko gara egunkari bat izateko asmoz, egunkari moldean hartua izateko intentzioz, konfiguraturatua izan dela, aurren-aurrea, izenburuagatik beragatik: *Leturiaren egunkari ezkutua*. Titulu honek eraginik, nobela egunkari gisa irakurtzera prestatzen gara (egunkari baten izaerari buruzko aurretiko ezagutza oinarritzeko baldin baditugu, noski).

Irakurtzeari ekin eta, hasieran jadanik, ohartzen gara nobelak ez duela egunkari ohiko, prototipo, baten itxurarik. Hasiera edozein kontakizunena izan daiteke; ez derrigorrez egunkari batena.

Baina bizpahiru orri pasa eta pertsonaia-kontalariak, Leturiak, honela mintzo zaigu:

Eta inork ezagutu eta ulertzen ez nauenez gero, «Eguneroko» honetan ipiniko ditut neure aurkikunde guztiak, gaur bezala, geroan neure animak nekez goldatutako ildoari jarraitu ahal izateko. Egunkari hau izango da, bada nire kezka guztien kutxa (27. orr.).

Eta hurrengo orrialdeetan:

Hemendik aurrera hona etorriko naiz, eta honetaraten naizenetan ez ditut koartillak ahaztuko. Hauek izango ditut gaurgero, neure bihotzaren adiskide min eta leialak. Haiei kontatuko dizkiet neure penak oro (28-30. orr.).

Azalpen edo asmo hauek irakurri eta, aurrerantzean, irakurleak eleberria egunkari gisa ulertzeari, jasotzeari, konfiantza edo sineste handiagoz ekingo dio.

Hala ere, zilegi zaigu galdetzea: oinarritzeko eraketari, molde orokorrari, begira, *Leturiaren egunkari ezkutua* benetako egunkaria ote da? Izatekotan, zein neurritan, zein zentzutan?

Galdera hauei erantzun taxuzkoa bilatzeko, aurretik egunkariaren teoria orokorra landu, egunkari motak bereizi eta egunkariak sorrarazten dituen zenbait arazo korapilatsu argitu beharko genituzke. Baina teoria honek guztiak urrutira eramango gintuzke. Ez da hori lan honen helburua. Dena den, ohar labur batzuk.

1.1.1. Egunkariak ohar batzuk

Egunkaria Niaren idazkien multzo zabaleko praktika bat da. Egunkaria-ekin batera, Niaren diskurtsoaren konfigurazioak dira, adibidez: autobiografiak, memoriak, aitorpenak, gutun bildumak, dietarioak, blogak, eleberrri eta poema autobiografikoak, eta abar. Gaurkotasun handiko diskurtso mota da, bai erabilera ugariak delako, bai, azken aldi honetan, arretaz eta oparoki aztertzen ari den korpusa osatzen duelako.

Ezaugarri oinarrizko zenbait kontuan hartuz, hona hemen «egunkaria»ren definizio edo deskripzio generiko bat: egunkaria idazki bat da, non egunean egunean gertaerak eta bizipenak, sentsazioak eta barne egoerak jasotzen diren, beti idazten ari denaren ikuspuntutik bilduak.

Lan honetan, ezaugarri horietako bakar batzuk besterik ez ditugu ikusiko, aztertuz ea zein neurritan eta nola betetzen dituen *Leturiaren egunkari ezku-tuak* egunkari estandarren alde komunak eta zertan bereizten den alde komun horiekiko.

Bestalde, argigarri gisa, egunkari moten artean axola zaizkigun bi bereizketa:

- a) Bereizi ohi da, batetik, egunkari erreala, erreferentziala, eta, bestetik, egunkari fikziozkoa.

Ez da erabateko banaketa, muga ez baita zehatza. Ez dago soil-soilik erreal den egunkaririk, ez eta soil-soilik fikziozkoa denik. Errealak badu fikziotik, eta baita fikziozkoak errealitatetik ere. Horregatik, bereizketa zuzenago formulatuz: batetik, fikzioz baino gehiago errealitatez osatuak dauden egunkariak, errealagoak direnak alegia, F. Kafka (1910-1923) edo A. Gide-ren (1889-1945) egunkariak esaterako; eta, bestetik, nagusiki fikziozkoak direnak, B. Stoker-en *Drakula* (1897), J.-P. Sartre-ren *Goragalea* (1938), edo P. Highsmith-en *Edith-en egunkaria* (1977) lanekoak, esaterako.

- b) Bereizi ohi da, bestalde, egunkari intimoa, barnekoa, eta egunkari agerikoa, kanpoko. Lehenengoan, barne gogoeta, sentimendu, bizipen eta balioespen pertsonalak, barru-barukoak, jasotzen dira, batez ere: H.-F. Amiel-ena (1839-1881), adibidez. Bigarrena, agerian ikus daitezkeen esperientziei lotuagoa, dietario modukoak, besteak beste.

Bien arteko muga, hemen ere, ez da zehatza. *Leturiaren egunkari ezkutua* errealagoa baino fikziozkoagoa den egunkaria da; agerikoa baino intimoagoa izan nahi duena.

1.1.2. «*Leturiaren egunkari ezkutua*» *egunkari gisa*

1) *Subjektua*

Egunkariaren ereduan, prototipoan, Ni adierazle, enuntziatzaile, batek enuntziatu, testu, dokumentu, idazki bat sortzen du, lehenengo pertsonan.

Egunkariak, oro har, ez du apenas elkarrizketarik izaten; bakarrizketa moduan garatzen da, barne bakarrizketan –adiera klasikoan ulertua, hau da, diskurtso jarraitu, logiko, nahasketarik gabekoa, eta ez kontzientzia korronte («stream of consciousness») zentzuan.

Ezaugarri hau zeharo betetzen da *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberrian. Fikziozko Ni batek, Leturiak, fikzioz testu bat sortzen du, lehenengo pertsonan. Kontalariak lehenengo pertsonan hitz egiten du.

2) *Objektua*

Ni adierazleak nagusiki, beste ezeren gaineratik, bere buruaz idazten du, bere ikuspuntu edo barne fokalizaziotik.

Nia, subjektu enuntziatzailea izateaz gain, enuntziatuaren objektua da, objektua zeini buruz bere berbaldi propioak diharduen. Subjektua bera da, bakarra, bi instantzian jokatzeko duena: Ni enuntziatzaile gisa (kontalaria) eta Ni enuntziatu gisa (pertsonea).

Honela gertatzen da, baita ere, gure egunkari-nobelan. Leturiak bere bizi-erria propioa kontatzen du, lehenengo pertsonan. Bera da diskurtsoaren objektua: bere historia pertsonalaren kontalari bihurtzen da. Egunkaria Leturiak bere buruarekin duen erlazioaren adierazpidea da.

Ezaugarri honekin harremana duen beste arazo bat, oso eztabaidatua egunkari errealean, ez horrenbeste, begi bistako arrazoiengatik, fikziozkoetan, honako hau da: egunkarian irudikatutako, jasotako, Ni objektu hori, zein neurritaraino etortzen den bat benetan Ni errealean existenterekin, errealki egunkaria idatzi duen autore enpirikoarekin. Egunkariaren egiazkotasunaren eta zintzotasun edo sintzeritatearen auzia da hau.

Egunkarian, Niaren destolestea, bitan banatzea, gertatzen dela nabarmendu ohi da. Are gehiago: Niaren destoleste plurala, bitan baino gehiagoko banaketa. Abiapuntuan jada, Ni erreala, edozein pertsona, egunkari bat idatzi edo ez, Ni ugariz dago osatua; Ni anitz eta desberdinez eratutako subjektua da. Jarraian, subjektu poliedriko hori, idatziz azaldu edo jarri nahi izatean, ez da

iristen benetakoa Ni guzti horiek jasotzera. Ametsa, ilusioa da uste izatea gure idazki pertsonaletan –berdin bestek gutaz idatzitakoetan– gure Nia, gure Ni askotarikoa jasotzen dugula. Autofikzioa, lilurakeria da. Eta areago: ondoren, egunkarian, gorago aipatu den beste destolestea gehitzen zaie aurreko bie: Ni adierazlearen eta Ni adieraziaren, kontalariaren eta pertsonaiaren arteko banaketa. Subjektuaren eszizio, zatiketa, biderkatua, beraz.

Egunkaria destolestea pluralaren ondorioa izanik, zaila da, ia-ia ezinezkoa, egunkariari erabateko egiazkotasuna aitortzea. Nahiz eta Ni idazlea saiatu benetakoa izaten, zintzotasuna arduraz zaintzen.

Leturiaren egunkari ezkutua fikziozkoa den neurrian –ez gezurra, ez irreal, hori beste arazo bat baita– ezin da zehazki Niaren, Leturiaren egiazkotasunaren edo zintzotasunaren irizpidea aplikatu. Ezin da kontrastatu. Aukerakoa da, librea.

Kontu desberdina litzateke alderatzea, *Leturiaren egunkari ezkutua* erreala den neurrian, Ni horren (Leturiaren) eta eleberrigilearen Niaren (Txillardegiren) artean dagoen korrespondentzia, egiazkotasun harremana. Badira hurbilpen hau garatzeko euskarriak.

Batetik, J.L. Zabalak *Berrian* (2006-10-27, 28 eta 29a), Txillardegik 2006an El Ferrolin egindako bisita jasoz, argitaratutako elkarrizketa edo kronika luzea. Txillardegik, 1956an, 27 urte zituelarik, El Ferrolen egin zuen soldaduska. Elkarrizketa horretan *Leturiaren egunkari ezkutua* nobelaren iturburua, eragina edo hasiera eszenikoa osa dezaketen xehetasun «errealak» ageri dira.

Bestetik, Txillardegik Leturia «nire anaia bikia» deitu izan du. Ez da zaila ahaidetasunak aurkitzea Leturiak garaturiko ideologia edo gogoeta filosofikoaren eta Txillardegiren pentsaeraren artean.

Eta abar. Beraz, badago, historia fikziozkoa izan arren, Leturiaren eta Txillardegiren arteko lotura arakatzeko oinarriak.

3) *Edukia*

Egunkarian, Niak bere buruaz idatzi ohi du, edo, bestela esanik, bere esperientzia pertsonalaz, bere eguneroko bizimoduaz. Egunkariak egun bakoitzeko gertakariak jaso ohi ditu: tankera pertsonalekoak, familiarakoak, lantokikoak, harremanetakoak, eta abar, ikuspuntu pertsonalez fokatuak. Horixe da egunkari estandar baten eduki oinarritzkoa.

Zertxobait gehiago zehaztuz: egunkariaren prototipoan, motarik ohikoenen, «intimo» adjektiboz ezagutzen den egunkarian –«egunkari intimoa»– Niak, bereziki, bere bizitza barrukoaz, gordeaz, idatzi ohi du, barne gorabeheraz. Egunkari prototipoak, besteak beste, eduki intimoak bildu ohi ditu, hau da, besteak ikusi ezin dituzten Niaren desira, sentipen, gogaldi, bizipen, gogapen, asmo, proiektu, fantasia, amets, ... barnekoak, intrapertsonalak.

Leturiaren egunkari ezkuaren edukiak, apenas du zerikusirik eguneroko bizimoduarekin, egunerokotasunaren gertakariekin: film edo abestiren bat, dantzatokiren bat, amona gajo bat, agure konkor bat, ezkontza jai bat, Montmartreko giroa, eta askoz gehiagorik ez. Apur bat «Udalehen» atalean, eta hortik aurrera gero eta gutxiago; gero eta murgilduagoa barne arazoetan.

Gure egunkari hau, nagusiki, Leturiaren bizitzaren pare bat hari giltzarri-etara murrizten da. Krisialdi existentzial batean polarizatutako egunkaria da. Dena den, azaldutako arazoak intimoak dira. Alde honetatik, Leturiaren egunkari intimoz hitz egin genezake. Mitxelenak berak, hitzaurrean: «ez dugu sekula egin, hitz batean esateko, Leturiarena bezalako ibilaldirik gogo-bideetan barrena» (11. orr.).

Bestalde, Leturiaren egunkaria «ezkutuzat» aurkezten bada ere, ezku izate horrek ez du, berez, «intimo» esan nahi. Ezkutuak irakurria ez izatearekin, gordea izatearekin, aurkitu gabe edo galdua izatearekin, du zerikusirik. Isilpekoa, ezkutua, ez da, berez, eduki intimoa. Isilpeko egunkaria norberarentzat bakarrik idatzia, ez argitaratzeko asmoz egina, da.

4) *Kontaketaren denbora*

Egunkarian, Niak bere eguneroko bizimodua, bere eguneroko gertakariak, denborazko berehalakotasunetik jasotzen ditu, hots, aldi berean edo, gutxienez, denborazko hurbiltasun estutik. Niak orainaldian eta orainalditik idazten du, edo, bederen, gertakarietatik oso hurbil dagoen geroalditik, idazketa unetik oso hurbil dagoen iraganaldiaz.

Hortaz, esperientzia edo gertakariaren unearan eta idazketa denboraren artean, kontatuaren eta kontaketa egintzaren artean, ez dago denborazko distantziarik, edo, baldin badago, txikia da. Bi ekintzak batera edo ia-ia batera gertatzen dira. Idazketa kasik gertakaria bizi den une berean ematen da. Aldibereko kontaketa, edo geroagokoa izatekotan hurbila, da.

Aldiberekotasun hori, besteak beste, aditz formetan adierazten da. Irakurleak aditz forma horien bidez antzematen du aldiberekotasuna. *Leturiaren egunkari ezkutu*an, eta oro har egunkari batean, erabiltzen diren aditz forma nagusiak dira:

- a) Orainaldi burutugabe puntukaria: bereziki egunkariaren hasieran, «Udalehen» kapituluan, eta Pariserako bidean, Leturia trenean doala. Horrela: «Bakarrik nago Zerubiden» (25. orr.), «neure etxeko leihoan nago» (49. orr.), «orain irribera dago goiza» (48. orr.), «Lur hezea usnatzen ari naiz» (65. orr.), «Ibarluzeko komentura noa» (138. orr.), eta abar.
- b) Orainaldi burutua: forma burutuan, baina orain dela gutxi, idazteko momentutik oso iragan hurbilean, gertatutakoa adieraziz. Esaterako:

«nahita etorri naiz» (25. orr.), «Keparekin egon naiz» (56. orr.), «Nekez ahaztuko zait gaurko eguna» (62. orr.), «Barkapena eskatu diot behin eta berriz» (68. orr.), «Astiro aztertu dut neure egoera» (104. orr.), eta abar.

Bestelako aditz formak ere badira: «nentorren» (36. orr.), «Pentsatu izan banu» (44. orr.), «agertu izan banintzaio» (44. orr.), «Eztitsu zitzaidan haren doinua» (45. orr.), «etsita nengoen» (46. orr.), ... Kopuruz, ordea, askoz gutxiago.

Beraz, berehalakotasuna adierazten duten aditz formak.

Gertakariak, esperientziak, ia-ia aldi berean, burutzen ari diren une berean edo berehala kontatuz, tartea arras gutxituz, egiantzekotasuna, «egia» tankera bilatu nahi da. Ni kontalaria eta ni jardulea aldikideak dira. Ematen du ez dagoela distantziarik gertakariaren eta testuaren artean. Irakurleak bertatik jasotzen du gertatua.

Kontaketaren denboran, beraz, *Leturiaren egunkari ezkutua* ohiko molde estandarrekoa da.

5) *Maiztasuna*

Niak maiztasun handiz idatzi ohi du egunkarian, eta hurrenkera kronologikoan. Oro har, egunero idatzi ohi da, eguneroko maiztasunez. Inoiz, gainera, egunean behin baino gehiagotan. Eta egunero ez bada ere, ia-ia egunero, sarritasun handi eta erregularrez. Izaten dira, noski, aldaerak, etenaldiak, hutsu-neak, baina egunean egunekoa idaztera jotzen da.

Gure egunkariaren kasuan zaila da zehaztea nolako maiztasunez dagoen idatzia, nola dagoen antolatua denbora kronologikoan. Ez dakigu zehazki nolako tartea dagoen idaztaldi batetik bestera. Egunkarietan, maiz, datak, egunen datak, jarri ohi dira. Leturiarenean ez dago datarik.

Leturiaren egunkarian denborazko markak eskasak, orokorrak, lausoak dira. Zehaztasunik gabeko erreferentzia kronologikoak: «Bihar» (36. orr.), «Beste egun bat joan zait» (41. orr.), «Bart» (43. orr.), «Atzokoa izan da» (46. orr.), «Gaur arratsaldean» (51. orr.), «Denbora luzea da lerrorik batere zirrimarratzen ez dudala» (79. orr.), «Orain aste batzuk» (80. orr.),... Lau kapituluetakoa izenburuak, lau urtaroeetakoak, ez dagozkio denbora kronologikoari, barne bilakae-raren denbora psikologiko edo sinbolikoari baizik. Tartekatzen diren datu apurrez, suma daiteke istorioak bi urte eta lau bat hilabete edo irauten duela, gutxi gorabehera: maiatzetik handik bi urteko iraila arte, Leturiak egunkarian idazten duen azken eguna –1956ko irailaren 30a– arte.

Hau da, *Leturiaren egunkari ezkutua* maiztasunaren aldetik, ez dirudi egunkari ohikoa, ez dirudi maiztasun handiz idatzita dagoenik. Ez du ematen egunkari bat bete nahi denik, barne krisi baten, garapen ideologiko baten

historia azaldu nahi dela baizik. Eta historia hori mailatan antolatu, zatitan destolestu, arotan banatu, egunkari moldez janzteko. Barne gorabeheren azalpen librea da, krisiaren araberakoa. Ez egunkari estandar bat.

Barne denbora psikologikoan, edo sinbolikoan, jokatzen denez, datu kronologikoak eta lau kapituluaren izenburuak, urtaroak, ez datoz bat. Fikzioa da. Bilakaera sinbolikoa. Ez zaio kronologia zehatzik axola. Ez da hori bere helburua.

6) *Hedadura*

Egunkari baten egileak bere egunkaria bizitzaren aldi luze batez mantendu ohi du; denbora tarte zabal batez eutsi ohi dio bere egunkariari. Inoiz, egunkari errealetan bereziki (Amiel-en kasuan esaterako), ia-ia bizitza osoan. Sarriago, bai errealetan, bai fikziozkoetan, bizitzaren aldi giltzarri batean zehar (nerabezaroa, bidaia bat, krisialdi bat, esperientzia zirraragarri bat, eta abar).

Leturiaren egunkariak ez du oso aro luze bat besarkatzen. Barne krisialdi bati dagokion tarte bakarririk. Alde honetatik mugatua da. Ez dakigu ezer haren familiaz, lanbidez, haurtzaroz, ikasketaz,... Soil-soilik krisialdia. Hori da xedea.

7) *Egitura zehaztugabea*

Egunkari estandar bat, oro har, aurretik zehaztutako, erabakitako, egiturarik gabe garatu ohi da. Noski, egunkarietan lantze handiago edo gutxiagoko mailak daude. Fikziozkoetan, eskuarki, lantze hori zainduagoa da. Dena den, berez, egunkariari ez dagokio erabateko egiturarik. Egunean egunean birplan-teatzen, berrasten den idazketa da. Gainera, egunkari moldea irekia da. Idazki mota oro beregana, irents dezake. Edozein testu bihur daiteke egunkari baten eduki. Oronen ontzi hartzailea da.

Horregatik, egunkaria, bere horretan, ez da jarraitua edo zuzena, etena edo zatikakoa baizik; txatalez edo mikrokontakizunez osatua, «collage» baten moduan. Hortik, orobat, egunkarian nabari ohi diren errepikatzeak eta, maiz, hauek eransten dioten monotonia kutsua. Egun bakoitza beste baten antza izan ohi du, sarritan.

Leturiaren egunkari ezkutua fikziozkoa denez eta –nahiz eta fikzioan ez– jatorriz argitaratua izateko idatzia denez, landua da espresioz. Egia da zatiz, txatalez, kontakizun laburrez eraikia dela eta, nolabait, ez jarraitua. Baina aurretik hausnartutako, erabakitako planteamendua, lotura, progresioa nabari zaio. Benetako ohiko egunkarian eremu ezezagunerantz egiten da aurrera, kontrolatu ezin den esparruan. Hemen, egitura garbia antzematen da: krisi baten areagotzea aurreikusitako, bilatutako amaiera logiko baterantz. (Ik. Lejeune: 2007)

8) *Idazketa moldeak*

Egunkariak baditu zenbait mekanismo edo idazketa molde tipiko.

- a) Egun edo idaztaldi bakoitzeko testu zatien luzera aldatu egiten da egun batetik bestera, idazle batetik bestera, gertakarien ugaritasunaren eta garrantziaren, edo subjektuaren barne tenorearen arabera. Badira oso luzeak, oparoak, baina baita labur-laburrak, minimoak ere. F. Kafkak, adibidez: «Ezer ez» (1922-5-1a); «Triste» (1922-5-17a). Edo W. Gombrowicz-ek bere egunkariaren (1953-1969) hasieran: «Astelehena: Ni. Astearta: Ni. Asteazkena: Ni. Osteguna: Ni.»

Leturiaren egunkaria luzeran aldakorra da, baina horren barruan nahiko homogeneoa, ez gorabehera handikoa.

- b) Oro har, kontatera uneak, pasadizoak, barrurako diskurtsoa baino urriagoak izaten dira. Maiz ez da ezer berezirik gertatzen.

Leturiarenean ere halaxe da: barne gogoetak, introspekziozko tarteak, dira nagusi.

- c) Egunkarian, mintzaira lagunartekoa, kolokial antzekoa, erabili ohi da: errepikak, elisioak, esaldi laburrak, esaldi hautsiak (marratxoak, parentesiak, hiru puntuak,...), ohartxo laburrak, zirriborroak edo inpresio azkarrak, estilo nominala,...

Honetan, *Leturiaren egunkari ezkutua* ez da estandarra. Egunkari landua, kalkulaturia, zaindua da. Ez da, espresio bakanen bat salbu, egunkari espontaneoa, naturala. Ez da egunkari arrunta, soltea.

- d) Egunkarian, sarritan, idazkera kriptikoa erabili ohi da: klabe edo ezkutuko kodeak, siglak, inisialak, eta abar. Honez gain, inplizituak garrantzia handia hartzen du.

Leturiarenean arazo sakonak ukitzen dira baina edukia gehienbat esplizitua da. Ez dago argitu beharreko koderik, klaberik, «opakotasunik», ez bada bukaeran, protagonistaren heriotzaren inguruan, non anbigotasunak agintzen duen.

- e) Egunkarietan, detaileen, xehetasunen presentzia nabarmena da. Xehetasun gratuitoak, funsgabeak, sarritan, egunerokotasun arruntari lotutakoak.

Leturiaren egunkarian apenas ematen da ezaugarri hau. Egunerokotasun arrunteko zantzuak, naturaren aldetikoak ez badira, urriak dira. Bakar batzuk «Udalehen» atalean; hortik aurrera, gorago esandakoa errepikatuz, gero eta gutxiago. Leturiarena barne krisialdiaren, bizipen existentzialaren urrats nagusiak erakustera dago bideratua, nagusiki.

Beraz, laburbilduz, ondorioz:

- *Leturiaren egunkari ezkutua* ez ditu egunkariaren benetako prototipoa den egunkari erreal, anonimo, ohiko, espontaneoaren oinarritzko ezaugarri tipiko guztiak.
- Egunkari fikziozkoa da, literarioa, aukera ireki eta askekoa. Jomuga jakin baterantz zuzendua, behar ideologiko eta introspektiborako antolatua, egunkari generotik jasotako zenbait ezaugarri edo baliabide oinarritzko hartu eta erabili egiten ditu, bere helburuetarako moldatuz.
- *Leturiaren egunkari ezkutua*, hortaz, nola edo halako egunkaria da, forma hibridoa, saiakera eta egunkariaren nahastea, gurutzaketa; ezkutu edo sekretu gisa aurkeztua, baina, sorreran, argitaratzera bideratua.
- Egunkari honek txertatzen dituen aldakien edo berezitasunen artean, bat, «Uda» atalean sarrarazia: «biltzaile» instantzia. Honetaz hurrengo puntuan.

1.2. Biltzailea

1.2.0. Eleberriaren instantziak

Narratologiaren sail batek kontakizunean partaide izan daitezkeen subjektuak, instantziak eta ahotsak aztertzen ditu.

Instantzien eskema aplikatuz, *Leturiaren egunkari ezkutuan* honako hauek agertzen dira:

- a) Autore enpirikoa: Txillardegia. Bere ahotsa jasota dago liburuan; ageri da, bai, baina, berez, lanetik kanpo: «Euskaltzale guztiei eragin nahian, bihotzez Egileak» (5. orr.).
- b) Autore inplizitua: Txillardegia literatura-lanean, nobelan, adierazten edo manifestatzen den moduan; bere proiektio literarioa, alegia.
- c) Pertsonaia-kontalaria: Joxeba Leturia, kontalari instantzia gisa. Bere ahotsa ia-ia etengabe hedatzen da nobelan zehar.

Kontalari hau, historian duen parte-hartze edo kokatzearen ikuspuntutik begiratuta, kontalari homodiegetikoa da, kontatzen den historian jokatu, parte hartu, egiten baitu; zehazkiago, kontalari autodiegetikoa, ez baitu parte hartzen gertakarien lekuko soil gisa, edo bigarren mailako pertsonaia baten moduan, pertsonaia nagusi, protagonista bakar gisa baizik. Kokatzen den narrazio-mailaren ikuspuntutik begiratuz, berriz, kontalari estradiegetikoa da, bere historia maila estradiegetikotik, lehen graduako kontakizunetik kanpotik kontatzen baitu.

Fokalizazioaren aldetik, barne folkalizaziozko kontaketa da, gertakariak Leturiaren barnetik ikusiak eta epaituak baitaude. Horrela, kontalaria –funtsean– berdinjakilea da: ez du Leturia pertsonaiak dakiena baino gehiago adierazten. Honek ez du esan nahi kontalariak Leturiak dakien guztia esaten duenik, ez eta Leturiak bere burua erabat ezagutzen duenik. Berdinjakilea da, baina modu neurtuan.

- d) Kontalari-pertsonaia: Joxeba Leturia, protagonista nagusia, pertsonaia instantzia gisa.
- e) Irakurle implizitua: *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriak eskatzen duen irakurle ideala, egokia; nobela ahalik eta osokien jaso eta interpretatzeko gai den irakurle teorikoa.
- f) Irakurle enpirikoa: nobela hau egiatan irakurri edo irakurriko duen edonor.

Instantzia hauek guztiak –eta euren beste zenbait xehetasun osagarri– irakurleak nobelaren irakurketan murgiltzen den unetik ezagutzen edo jakintzat ematen ditu. Baina «Uda» atalera iristean, datu berriekin egiten du topo.

Batetik, irakurle implizituari buruzko lehenengo erreferentzia zuzenak, testualak, agertzen zaizkio: irakurle implizitua –orain arte testuan zuzen edo zeharka adierazi gabea– une honetan kodetuta ageri da, testual bihurtzen da, izen komun funtzional batez, hots, «irakurle» izenaz: «Badakigu, eta irakurlea bera konturatuko da honetaz berehala!» (73. orr.); «Hamaika dira hau probatzeko aipa genitzazkeenak; eta, agiritzat, irakurleak ezagutzen dituen bi gogoraziko dizkiogu: Kafka eta Amiel» (74. orr.); «Pentsa beza irakurleak gogoko duena» (75. orr.).

Bestetik, eta hauxe da orain gehien axola zaiguna, instantzia berri bat agertzen da: «biltzailea». Autorearen eta obraren, egunkariaren argitaratzearen, arteko figura bitartekaria.

1.2.1. «Biltzaile» instantzia

«Biltzaile» instantzia ez da kontakizunerako ezinbesteko kategoria. Aukerakoa da. Autore sortzaileak erabakiko du haren txertatzea eta erabilera, obrarako duen funtzionaltasun edo pertinentziaren arabera.

Biltzailea autorearen eta testuaren argitaratzearen artean tarteka daitekeen figura bitartekarietariko bat da. Figura horietako batzuk dira: paperen aurkitzaile, bilatzaile soila; paperen aurkitzaile eta biltzailea; transkribatzailea; antolatzaile edo moldatzailea; erredaktorea; editorea; eta abar.

Figura bitartekariaren txertatzea testuan, espresuki kodetuak, ez da baliabide oso erabilia. Kontagintzan, usuena da autoreak ez sarraraztea horrelako

figurarik. Ohikoena ez da egotea bilatzailea bezalako instantziarik, paperak aurkitu, bildu eta argitaratzeari ematen dion autorearen eta edizioaren arteko figurarik.

Egunkari errealetan, idazlea bera izan ohi da bere paperak, nahita edo norbaiten eskariz, argitaratzerako ematen dituena. Egia da beste zenbait bitartekari ere ager daitekeela: paperen gordetzailea, moldatzailea, zuzentzailea, itzultzailea, editorea,... Hauek, ordea, ez dira testuan txertatutako instantziak izaten; obratik kanpokoak baizik. Fikziozko egunkarietan ere, ohikoena biltzaile edo bitartekari bat ez erabiltzea da. Horrela, adibidez, G. Bernanos-en «Landa-apaiz baten Egunkaria» (1936).

Baina, inoiz edo behin, *Leturiaren egunkari ezkutuaren* kasuan bezala, tarteko figura hau teknika narratibo gisa erabili ohi da, fikziozko baliabide testual moduan.

Literatura unibertsalean ez dira adibideak falta. Egunkari errealen arloan, formalki testuan kodetu gabe, esaterako: A. Frank-en *Egunkariaren* (1942-1944) moldatzaileak, edo Kafkaren *Egunkariaren* biltzaile eta moldatzaileak. Egunkari fikziozkoetan berriz, jadanik testuan zeinu formalez kodetuak, adibidez: B. Stoker-en *Drakula* edo J.-P. Sartre-ren *Goragalea* egunkari-nobelatan, hasierako ohar paratestual batean, euren eginkizuna zein izan den adierazten duten editoreak.

Egunkariak ez diren kontakizun fikziozkoetan ere (gutun bildumak, tankera desberdinetako eskuizkribuak,...), txertatu ohi da inoiz mota honetako figura bitartekariren bat: editore bat, J. W. Goethe-ren *Werther gaztearen zorrigaitzaren* (1774); aurkitzaile, itzultzaile eta transkribatzaile eginkizunak betetzen dituzten bi figura, J. Potocki-ren *Zaragozan aurkitutako eskuizkribuan* (1797); aurkitzailea, N. Hawthorne-ren *Hizki eskarlatan* (1850); gordetzaille bat, eta transkribatzaile-moldatzaile bat C.J. Cela-ren *Paskual Duarteren sendian* (1942); eta abar.

Euskal kontagintzan, *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriaren ondoren, erabili izan dira inoiz figura bitartekari hauetariko zenbait. Hiru, adibide moduan. P. Urkizuren *Etsipenez. Jon Chahoren memorioidunak* (1984) eleberrian, Robert Lassalt-ek Jon Chaho protagonistaren kaier batzuk jaso eta bidali egiten dizkio editore bihurtu den bati, argitara eman ditzan. J.L. Zabalen *Zigarrokin ziztrin baten azken keak* (1985) nobelan, Marc Outryve-k bulegari anodino baten eskutitz anonimo batzuk jasotzen ditu eta argitaratzea erabakitzen du. B. Atxagaren «Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena» (1988) ipuinean, ni kontalari batek erretore jaunaren etxean topatutako fikziozko gutun baten transkribatzaile, eta moldatzaile, gisa jokatzen du.

1.2.2. «Leturiaren egunkari ezkutua»ko biltzailea

1) *Ezaugarriak*

Bestelako bitartekari testualak alde batera utziz eta soilik «biltzailea» kontuan hartuz, hauek dira figura honen berezitasunak gure nobela honetan: fikziozko instantzia da, obran txertatua, kodifikatua, ez zati paratestual edo puntual batean, baizik nolabaiteko luzera duen testuan; bete-betean dago txertatua obran, historia jadanik aurreratua dagoela, historia nagusiaren zati zabal bat garatu eta gero; izen arrunt funtzional batez, ez bereziz, «biltzailea», aurkeztutakoa, nor eta nolakoa den zehazki ez dakigula. Instantzia honen bidez ezagutarazten zaigu –fikzio mailan– Leturiaren egunkaria figura horrek aurkitutako paperen artean dagoela: «Leturiaren paperak bilatzen asko ahalegindu arren, ez dugu aztarnarik ere aurkitu «uda»ko bere sasoi honi buruz» (73. orr.). Bera da, azkenean, Leturiaren paperak, egunkaria, ediren eta argitararaziko dituen.

Kontalariari dagokion terminologia estrapolatu eta erabiliz gero, ikuspuntu batetik, biltzailea, pertsonaia-kontalariaren antzera, instantzia, ahots, estradiegetikoa da, ez baitu kontaktzen edo informatzen historiatik beretik, lehen graduko kontakizunetik, Leturiaren kontakizunetik, kanpotik baizik. Hala ere, beste ikuspuntu batetik hartuta, eta, oraingoan, pertsonaia-kontalaria ez bezala, biltzailea instantzia ez homodiegetikoa baizik heterodiegetikoa da, ez baitago presente, ez baitu parte hartzen, eragile gisa, kontaktzen den historian, Leturiaren historian. Kanpotiko harremana du soilik, kokatzailea, esplikatiboa. Bizpahiru gertakariaren inguruko informazioa eskaintzen du, gertakarien lekuko izatera iritsi gabe. Bukarera bakarrik, dena amaitu eta gero, tartekatzen da historian zeharka, eranskin moduan, gertakarien eszenatokia ezagutzera hunkituta hurbiltzen denean.

Beraz, ahots hau ez da autore errealaarena, ez eta kontalariarena, baizik eta biltzaile instantzia fikziozkoarena, nobela-munduaren barruan kokatua.

2) *Esku-hartze maila*

Zein neurritaraino hartzen du esku biltzaileak egunkarian? Noraino iristen da? Historia baldintzatu eta interpretatzeraino? Ala esku-hartze neurritsukoa, apalekoa da?

Berez, erabiltzen bada, autorearen eta argitaratzearen arteko fikziozko instantzia bitartekari testualak –ez bakarrik «biltzailea»k– lortutako paperen gainean esku-hartze gutxi-asko erasokorrez joka dezake, leun-leuna izatetik oso bortitza izateraino:

- a) Paperen aurkitzaile, jasotzaile edo gordetzaile soila, bere lana argitaratzeari ematean mugatzen dena, besterik gabe, testuan eskua ezertarako sartu gabe. Kasu honetan, transmititzaile hutsa da. Halaxe, adibidez, Cela-ren *Paskual Duarteren sendian*, Joaquín Barrera López Jauna, paperen gordetzailea.

- b) Aurkitzaile eta gainera biltzaile aktiboa, paperen biltzailea, alegia. Hemen, bitartekariaren parte-hartzea paperak batzean, jostean, datza. Baina testua ukitu gabe. Horrelakoa da gure «biltzailea».
- c) Transkribatzaile soila, hots, aurkitutako edo jasotako paperen kopia-tzaile leiala. Inoiz, hondatutako testua garbira pasatzen edo beste norbaiten diktaketaz kopiatzen duena. Honela Potocki-ren *Zaragozan aurkitutako eskuizkribuako* paperen transkribatzailea.
- d) Editore leiala. Horrelakoak dira, esaterako, Sartre-ren *Goragaleako* editoreak. Halaber, Urkizuren *Etsipenezean*, editore bihurtu den laguna, eta Zabalaren *Zigarrokin ziztrin baten azken keaken* Marc Oustrye, berak aitortzen baitu «Aurkezpen hitzaurrea»: «Argitarapen honetan, beraz, nik jasotako gutunen testuak biltzen dira, hitzez hitz eta inolako aldaketarik gabe emanak.»

Beste maila batean, testuan esku hartuz, jadanik:

- a) Testuan ukituak edo zenbait aldaketa egiten, testua apur bat orrazten duen transkribatzailea. Hala *Paskual Duarteren sendiako* transkribatzailea, edo Atxagaren «Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena» eta Pio Barojaren *Itsas zabaleko pilotuak* (1929) lanetakoak.
- b) Itzultzailea, hots, paperetako jatorrizko testua hartu eta beste hizkuntza batean jartzen duena, derrigorrez moldaketak eginez. Honela, adibidez, *Zaragozan aurkitutako eskuizkribuan*, dokumentua frantsesetik itzultzen duena.
- c) Moldatzaile orokorra, esku-hartze handikoa, jadanik testuak ordenatu, egokitu, berregokitu, zenbait pasarte berridatzi edo interpretaziorako oharrak ere ematen dituena. Egunkari errealean arloan, Kafkaren egunkarian, Max Brod-en moldaketak, bere edizioan zatiak kenduz, izen bereziak ezkutatu, eta abar.
- d) Erredaktorea. B. Atxagaren *Soinujolearen semeakoak* (2003) badu honen zantzurik. Josebak Davidek idatzitako memoriale eskuratu eta honela dio nobelaren hasiera aldean: «liburu bat egin nahi nuen «Soinujolearen semea» aintzat harturik. Beste modu batera esanda: Davidek idatzitako memoriak berridatzi eta zabaldu nahi nituen».

Leturiaren egunkari ezkutua eleberrian, bitartekariaren, biltzailearen, esku-hartzea neurtua, ez gehiegizkoa edo erasokorra, dela deritzogu. Testua bere horretan argitaratu duela dirudi, aldaketa edo zuzenketarik egin gabe. Ez du historiari buruzko azalpen ugari eta erabakiorrik ematen. Bi unetan besterik ez du parte hartzen eleberrian. Bi agerraldi egiten ditu.

Lehenengoa «Uda»n, funtsean esateko, soilki egiaztatzeko, ez duela uda aldiko eskuizkriburik aurkitu, eta, jarraian, gertakari edo egiaztatze horren

interpretazioa: luze samarra baina gertakari puntual horri buruzkoa bakarrik. Agerraldi honetan «gu» batez mintzo da, pluralean, berez subjektu bakar bati dagokion pluralean. Pluraltasun fikziozkoa da, begiratua, diskretua, neurri batean bere hitzen erantzukizuna urtzea, bere tonua apaltzea, bilatzen duena.

Bigarren agerraldi edo esku-hartzea, goraxeago aipatua, nobelaren bukaeran gertatzen da. Egunkaria amaitua, etena, delarik, «Biltzailearen oharra» izenburuaz, adierazi egiten zaigu, besteak beste, «Altzuraingo Deia» kazetak berri hau ekarri zuela: gizon bat aurkitua zutela Imiriozko leizean; Leturiaren gorpuzkinak «nonbait» (141. orr.). Hemen, biltzailea ez da «gu» forma pluralerik ari, singularreko «ni» izenordainez baizik, modu aktiboago, pertsonalago, hurbilago batez, gertakarien eszenatokiaren lekuko bihurtzen baita.

Eta besterik ez. Hauxe da biltzailearen esku-hartzea. Ez da egunkarian sartzen, ez du egunkaria gidatzen edo interpretatzen, irakurlea eskutik eramanez. Ez du ezer moldatzen edo zuzentzen; ez eta Leturiaren heriotzan ere. Bildu eta kito.

Heriotza gogora ekarri dugunez, bide batez, galdera bat: Leturiarena buruhiltzea izan ote zen? Bere buruaz beste egin ote zuen Leturiak?

Nobela hau aztertu izan denean, ohikoa izan da Leturiaren heriotza buruhiltze moduan interpretatzea. Iruzkinlariek, oro har, historiaren bukaeran Leturiak bere burua hiltzen duela irakurri dute. Ikus, esaterako: J. Amenabar (1982: 79), N. Arrizabalaga (1999:53) edo M.J. Olaziregi (2002: 77-78).

Baina, benetan bere burua hil ote zuen Leturiak? Bide ematen al du testuak interpretazio hori egiteko?

Testuaren irakurketa arretatsuak, aurreiritzi saihesturik gabekoak, neurri batean, interpretazio ambigua, bikoitza, onartzen du. Baina interpretazio horietako bat aukeratzekotan, testuak modu nahiko argiz Leturia istripuz, zoritxarreko istripuz hil zeneko hipotesiaren alde egiten du. Xehetasunen batek edo buruhiltzearen susmoa indar dezake, baina istripuaren hipotesia sendoa da.

Buru-hiltzearen alde: jarrera etsia, «Hain nago etsita, edozein astakeria egiteko prest nagoela» (138. orr.), eta agurra, «Agur!» (139. orr.), «Agur Altzurain bihotzekoa» (140. orr.). Baina agur hori, ez tragikoa, eleberriarren beste zenbait unetan ere ematen da: «Agur, Altzurain! Agur, denoi!» (106. orr.), Paris aldera ateratzean, edo «Agur, hiri zoragarria! Agur!» (137. orr.), Paristik abiatzean. «Agur» hau, gainera, ohikoa da Txillardegiren beste eleberrietan ere; eta ez da nahita bilatutako heriotzan amaitzen.

Istripuaren alde, berriz: testuak berak dioenaren irakurketa arretatsua, besterik gabe. Leturiak, azkenean, bere bizitzari bidea, zentzua, ematen dion ideia aurkitu du: «Nork bere burua eman, nork bere buruaz ahaztu» (134. orr.), besteen zerbitzari bihurtu. Mirenen eta aberriaren zerbitzari (136. orr.). Ez da

logikoa, koherentea, une honetan, hain zuzen, nahita bere burua hiltzea. Absurdua litzateke, ilogikoa, ez egiantzekoa, ez beharrezkoa.

Leturiak, orduan, Miren salbatzen saiatzen da, eta testuan hauxe dio: «Ibarluzeko komentura noa. Urruti dago, bai; bainan ni geldieraz nazakeen eragozpenik ez dago gaur. Oraintxe noa, arratsa ilundu aurretik ahal bada. Aita Damaso bisitatzera noa: sendaketa harrigarriak egin omen ditu belarren bidez, eta saiatzea behintzat ez zait faltako. Ia Imiriozko menditarte malkarretik egunez igaro ahal nintekeen» (138-139. orr.). Hitz hauek irakurriz, ez dirudi Leturiak bere burua hiltzeko asmoa duenik. Proiektuak baditu. Otoitz egiten du: «Senda zazu Miren, eta hil nazazu ni» (140. orr.). Hurrengo egunerako ere asmoak ditu: «Bihar argituko dut hau behar bada, Ibarluzetik itzultzean...» (140. orr.).

Berez, istripuaren antza du. Testua, bere horretan, azalpen horren aldekoa dela dirudi. Biltzaileak jasotzen duen kazeta oharra ere istripuaren hipotesia sendotzen du: «Gizon baten gorpuzkina aurkitu da Imiriozko leizean. Amildegitik erori bide zen» (141. orr.).

Dena den, biltzailearekin batera, utz dezagun soluzioa, gutxienez, airean: «Hemen bukatzen da Leturia zorigaiztokoaren egunkari hunkigarria. Zer gertatu ote zitzaion gero? Beharbada hau ez da sekula jakingo» (141. orr.). Geldi dadila zintzilik. Testuarekin leiala ez dena da esatea, besterik gabe, ziurtatz joaz: «Leturiak bere buruaz beste egiten du». Testuan oinarririk gutxien duen hipotesia baita.

Ikusten denez, auzi honetan ere, biltzailearen esku-hartzea leuna da. Interpretazioa erabaki gabe uzten du. Bukaera anbigua, irekia, eskainiz.

3) *Funtzioa*

Atal honekin bukatzeko: zein da biltzaile instantziaren funtzioa?

Berez, biltzaileak, testu barruan, autorearen ordezkari gisa, autorearen figura txertatzeko bitarteko konbentzional moduan, jokatzeko du. Biltzailea autore implizituari, edo honen aldaki edo bertsio bati dagokio, hau da autore implizitu errepresentatua, testuan adierazia, kodetua. Biltzailearen gibelean autorea dago. Alde batetik, autorea urruntzea, ezkutetzea, bilatzen da; bestetik, trebeki, abileziaz, disimuluan bezala, sarraraztea.

Biltzailearen funtzioa izan daiteke, orobat, historiari, egunkari formulari, egiantzekotasuna ematea, benetakotasun itxura eranstea. Biltzailearen ahotsa entzunez, paper aurkituak eta arakatuak direla, eta historia amaiturik gertakarien eszenatokian bertaratu dela ziurtatuz, benetakotasun inpresioa indartzen da, fikzioa izaera murriztuz.

Irakurleak, noski, badaki istorioa fikzioa dela. Hala ere, fikzio itun bati esker, nahita eta tarte baterako, zintzilik, parentesi artean, jartzen du, eten

egiten du, bere sinesgabetasuna, onartezintasuna. Konfiantza handiagoz sartzen da fikziozko jokoan, eta amore ematen du: onartu egiten ditu biltzailearen hitzak, historia gertagarritzat jotzen, eta egunkaria, paperak, benetakoak balira ikusten. Irakurleak badaki fikzioa dela, errealitate itxuran, errealitate moldean, gauzatua. Errealitatea eta fikzioa, fikzioa eta errealitatea, batera.

2. ZER. EDUKIAREN HARIAN: EGUNKARIA IDAZTEKO ETA ETETEKO GOGALDIAZ

NOLA harian, espresio eta egitura mailan, osagai nagusi bi landu ondoren, segidan, edukiaren aldetiko puntu batzuk. Zer esaten du biltzaileak «Uda» atal honetan, Leturiaren uda ezkutu horren inguruan?

2.1. «Uda» atalaren edukia

Aurrena, testua bera. 1983ko edizioan 71-76. orrietan aurkitzen da. Lerroz zenbatuz gero, testuak 92 lerro ditu.

Hiru gune nagusitan desglosa edo bana daiteke (zenbakiak lerroei dagozkie):

- A) Biltzailea, hasteko [2-7], datu bat emanez, egiaztapen batetik, abiatzen da: ez du ezer aurkitu «uda» aldiari buruz Leturiaren paperen artean; egunkarian hutsune bat nabari da, ezkontzaldiari dagokiona.
- B) Ondoren, [8-72, 76-80], bigarren gune batean, luzeena, biltzaileak datu, gertakari, konstatazio horren azalpena, zergatia, ematen saiatzen da:
 - 1) Lehendabizi (8-17) (eta 70-72, 76-80), hutsune horren zergatia.
 - a) Hipotesi moduan: ez da ezer topatu Leturiak ezer idatzi ez zuelako (12-14).
 - b) Ez zuen idatzi idazteko tankeran, tenorean, ez zegoelako (15-17) (eta 9-11, 70-72, 76-80).
 - 2) Jarraian, (18-69), zergati honen azalpena, justifikazio teorikoa.
- C) Azken gunean [73-75, 89-92], bukaera aldera, iradokizun bat eta ohar zenbait.

Banaketa gunez gune, urratsez urrats osatuz:

A) urratsean, biltzaileak ematen duen datua onartzea, informazioa zuzentzat hartzea, besterik ez zaigu gelditzen.

B1a) urratsean, biltzailearen hipotesia, alegia, ez duela ezer aurkitu Leturiak ezer idatzi ez zuelako, onargarria, bidezkoa dirudi, Leturiaren beraren

hitzek ere hipotesia berresten baitute. «Uda» ondoren, «Udazken» hasieran, egunkaria baztertuta eduki eta gero, berriro ekiten diola adierazten du: «Ahaztu egin zait idazten. Denbora luzea da lerrorik batere zirimarratzen ez dudala; eta gaur, ohitura galdurik (...)» (79. orr.).

Baina interesgarriena, aberatsena, hemendik aurreragokoa: hipotesiaren justifikazioa, azalpena.

Azken finean, zergatik ez du Leturiak idatzi «Uda» sasoiari? Zein edo zeintzuk dira egunkaria eteteko zergatiak, eta, aldi berean edo bidenabar, egunkaria idazteko zergatiak, idatzi edo idatziko duenean?

B)1)b) eta B)2) urratsetan, biltzaileak gaur egun «Literaturaren Teoria» izenez ezagutzen dena praktikatzen du. Teoriaren alderdi bat lantzen du: idaztearen zergatien teoria, idazlearen egoera animikoari, gogo aldarteari buruzko hausnarketa.

Biltzaileak, urrats hauetan, «metaliteratura» egiten du, hots, sortze literarioaz, gertakari literarioaren alderen bati buruz diharduen diskurtso literarioa; literatur testu batean gertakari literarioari beraren gainean osatutako gogoeta. Biltzaileak, hemen, Literaturaren Teoria egiten du, teorizatu, idaztearen zergatien buruz, edo, zehazkiago nahi bada, idazteko gogo aldarde egokiari buruz. Noiz, zergatik, zein barne egoeratan idazten den eta, orobat edo zeharka, ez den idazten. Ez da teoria arauemailea, egiaztatzea bilatzen duena baizik. Aurrerago ikusiko denez, partziala, ez osoa.

2.2. Hiru teorizatze maila

Bada, ordea, biltzailearen jardun hau jarraitzeko eta ulertzeko, egitea komeni den beste bereizketa bat. Biltzaileak bere teorizatzea hiru maila edo hedadura gradutan garatzen du, fokatzaren irekidura gero eta gehiago irekiz:

1) Maila mugatuan, Leturia pertsonaiaren mailan.

Biltzailea, B)1)b) urratsean, esaten digu zergatik ez duen Leturiak idatzi, zein gogaldi zela eta idazteari utzi zion: ez zegoen idazteko tankeran, tenorean, zoriotsu baitzen. Eta, zeharka, zergatik, bai, idatzi edo idatziko duen.

2) Maila generikoan, egunkari generoaren mailan.

Biltzaileak, B)2) (18-39) urratsean, hedatu egiten du teorizatze eremua eta zergatik, zein gogo aldartetan, bai, idatzi ohi den egunkari bat –ez Leturiarena soilik– azaltzen du. Eta, zeharka, baita ere, zein barne egoeratan ez den egunkari bat idazten.

3) Maila zabalean, literatura maila orokorrean.

Areago oraindik, biltzailea, B)2) (40-69) urratsean, noiz, zein gogaldi, barne tenore, jasatean ez den literatura –poesia, zehazkiago– idazten esatera iristen, ausartzen da. Eta, orobat, noiz, bai, idazten den, zein den gogo aldar-terik aproposena poesia idazteko.

Noski, hiru mailok loturik daude era koherentean, batak besteari elkarri eutsiz. Gure testuan hirurak txirikordaturik daude, nahasian. Teorizatzea da baina ez artikulu tekniko, tratatu teorikoa, nobela bat baizik. Hala ere, hiru maila horiek bereiztea ez da zaila.

Guretzat zenbat eta maila orokorragoan jardun, orduan eta interesgarri-
goa biltzailearen teoria.

Ikus ditzagun, beraz, idaztearen azalpenaren, justifikazioaren, hiru mailok gertuagotik.

2.2.1. *Leturia pertsonaiaren mailan*

Zergatik ez zuen Leturiak uda aldian idatzi? Zein izan zen egunkaria eteteko haren gogo aldar-
tea, egunkariaz ahaztea esplikatzeko zuen barne egoera?

Biltzailearen aburuz, Leturiak ez zuen idatzi uda partean sasoi horretan zoriontsu zelako. Zoriontsu zen eta ez zegoen idazteko tenorean. Horixe da arrazoia.

Ez idazteko arrazoi honek bat egiten du, ongi josten da, Leturiak berak egunkara idazteko adierazten duen motibazioarekin: «Eta inork ezagutu eta ulertzen ez nauenez gero, “Eguneroko” honetan ipiniko ditut neure aurkikun-
de guztiak, gaur bezala, geroan neure animak nekez goldatutako ildoan jarrai-
tu ahal izateko. Egunkari hau izango da, bada nire kezka guztien kutxa» (27. orr.). Udan, nonbait, kezkarik ez, beraz, egunkaririk ez.

Eta aurrerago: «Hemendik aurrera hona etorriko naiz, eta honetaraten naizenetan ez ditut koartillak ahaztuko. Hauek izango ditut gaugerero neure bihotzaren adiskide min eta leialak. Haiei kondatuko dizkiet neure penak oro» (28-30. orr.). Udan, dirudienez, penarik ez, hortaz, egunkaririk ez.

Ulertzekoa, orduan, Leturiak, zoriontsu izanik, ez idaztea uda aldian. Ez zuen egunkariaren beharrik; ez zegoen egunkarirako gairik. Biltzailearen azalpe-
na, funtsean, onargarrizat jo daiteke, lehenengo maila honetan. Biltzaileak ongi justifikatzen du zergatik Leturiak eteten duen, aldi baterako, bere egunkaria.

Dena den, maila konkretu honetan, guztia ez dago argi eta ñabardurak erantsi behar dira.

- a) Leturiaren udako zoriontasunaz, esaterako. Biltzailea ez da ziur protagonista zoriontasun honetaz.

Batean baiezkotan da: «Zoriontsu izan al zen Leturia aro honetan? Baiezkotan gaude» (9-10). Baina ez ziur. Ezta ere balizko zoriontasun honen mailaz: «Ez dakigu zehatz pozez beterik, ala alai samar bakarrik bizitu ote zen bera» (10-11).

Aurrerago, ustea da: «Horretaz, zoriontsu izan zen Leturia ezkondu eta gero hilabete batzutan, hori adierazten du bere isilaldiak, gure ustez» (70-72).

Eta, azkenik, ustezko zoriontasun honen berririk ez: «Badirudi hobeto ezagutzen dugula Leturia tristea, Leturia zoriontsua baino. Baina, izan al zen azken hau? bestea izan zena eskierki dakigu; alabainan, zoriontsuaren berririk ez» (76-79).

Beraz, zalantza, ustea, baieztatze ziurrik ez. Eta biltzailea zoriontasun honetaz ez bada ziur, ezin zoriontasun hori egunkaria ez idaztearen justifikazio erabatekotzat aurkeztu. Kontraesan zantzuak nabari dira.

Areago, korapilatsuago, Leturiak, geroxeago, egunkariari berriz ekitean hau dioenean: «Tarteka izan naiz zoriontsu» (79. orr.). «Ozta-ozta hitz egiten dugu elkarrekin. Nork esan zezakeen hau gure eztaialdi irribera hartan?» (98. orr.).

Anbiguitasun, hipotesi, uste edo aieruen esparruan jokatzen du biltzaileak.

- b) Beste ñabardura bat. Jo dezagun Leturia zoriontsu izan zela udan. Egunkaria penak, kezkak jasotzeko zenez, ez dirudi egunkarirako aukerarik zegoenik. Baina, bestalde, Leturiak bere egunkaria aurkeztean hauxe zioen: «“Eguneroko” honetan ipiniko ditut neure aurkikunde guztiak» (27. orr.).

Ez al zuen Leturiak «aurkikunderik» egin uda aldian? Aurkikunde ideologikoez gain, irudimenezkoak, afektiboak, harremanezkoak,... ere izaten dira.

Bide batez, hasieran, «Atarikoak» atalean, esandakoari berriro helduz, lan honen izenburua irakurri, «Leturiaren uda ezkutua», eta, agian, irakurleari burura etorri zaio orrialde hauen gaia Leturiak uda aldian egin zuena azaltzea izango dela. Tituluak, alde batetik, horixe iradokitzen baitu.

Ariketa interesgarria izan daitekeen arren, ez gara horretan murgilduko. Hala ere, garatzen ari garen puntu hau, Leturiaren idazketaren etetea udan, aproposa da horretaz zertxobait bederen esateko. Lan honen izenburuaren alde anbiguo hori nolabait zurrizteko behintzat.

Zer egin zuen bada Leturiak udan? Zer sentitu, zer pentsatu zuen? Ez al zuen aurkikunderik izan?

Ez nobelagileak, ez biltzaileak, ez digute ezer konkreturik argitzen. Esan dugu: gu ez gara eleberrigile; bai, ordea, irakurle. Eta irakurlearen eginkizun, aukera, eskubide edo joeretariko bat da, historian, obran, ageri diren hutsuneak, gune zehaztugabeak, bere ahalmen, irudi, esperientzia eta abar pertsonalez baliatuz, betetzea, garatzea.

Gainera, biltzaileak bere oharraren bukaera aldean horixe bera egitera gonbidatzen du irakurlea: «Zer egin ote zuen denbora honetan guztian [Leturiak]? Ez dakigu; agian, hau ez da behin ere jakingo. Pentsa beza irakurleak gogoko duena» (73-75).

Argi dago. Behin ere ez da jakingo. Testua, artefaktua, itxita dago jadanik. Baina bakoitzak, bere erara, testuko argibideak jarraituz –testua eta irakurlea batera–, testu hori interpreta dezake. Beraz, ariketa horretara bultzatuz, uda ezkutu hori osatzeko ohar batzuk, iradokizun, galdera soil moduan.

Nolakoia izan zen ezkontzaren prestaketa? Ezkontza eguna, epaitegiko ekitaldia, elizakoa, ezteietako bazkaria, nola gertatu ziren? Ohiko ezkontza, tradizionala, ala ezberdina, lagunarte girokoa, izan ote zen? Nolakoia eztei bidaia, egin bazuten? Nolakoak izan ziren bikotearen elkar bizitzaren lehenengo egunak? Zer aurkitu, sentitu, zuen Leturiak lehenengo sexu harremanetan? [«Udazken»ean zera aitortuko du: «Orain aste batzuk, irrikaz beterik itxaroten nuen gauaren etorrera; bainan ez nintzen ni zai zegoena, nire gorputza baizik.» (80. orr.).] Nola eta zertan hasi ziren harremanak okertzen? Nola eta zertan hasi zen Leturia espero zuena ez zela gertatzen sentitzen, hutsunea berriro nabaritzen? Prozesu honetan guztian, zein izan zen Leturiaren gogo aldartea? «Udazken» atalean, tarteka zoriontsu izan zela eta ezteialdi irribera, aipatzen du. Baina bere barne sakonean nola aurkitzen zen? Eta abar.

Iradokizunak, besterik ez. Agian, horietako batzuk ez pertinentekak, barne krisialdi bat adieraztea helburutzat duen nobela bati ez dagozkionak.

Harira itzuliz. Kontraesanak kontraesan, zalantzak zalantza, biltzaileak Leturiaren ez idaztea, kasu konkretu hau, azaltzeko ematen duen argudioa balekotzat har genezake. Leturia zoriontsu izan zen eta ez zuen egunkariaren beharrik izan.

Beste kontu bat da, biltzailea beste bi mailetara, teorizatze orokorragora, pasatzen denean. Leturiarekiko argudioa hobeto oinarritzeko, egunkari bat, eta areago, literatura, poesia, zein gogo aldartetan idatzi ohi den esplikatzeko saiatzen da. Alor eztabaidagarrian sartzen da.

2.2.2. Egunkari generoaren mailan

Leturia pertsonaiaren mailan, biltzaileak Leturiak zergatik ez duen idazten azaldu du, bereziki. Hemen, beste ikuspuntutik: zergatik edo noiz, bai, idazten den. Noiz idatzi ohi da egunkaria, egunkari bat? Zein egoera animikotan?

Biltzailea bi egoerez mintzo da, funtsean, tankera bertsoak. Egunkari bat idatzi ohi da:

- a) Barne arazo gogorak izatean (21-22): barnekoiek, neurotikoek, paranoikoek idatzi ohi dituzte egunkariak. Eta froga gisa, bi. Bata: munduan fede edo ideologia kezka, krisia, ugaritu ahala, hedatu egin da egunkarien praktika. Bestea: Literatura bera, Literaturaren historia, idazle ospetsuen adibidea (27-32), Kafka eta Amiel-ena, esaterako.
- b) Egunkari bat idatzi ohi da baita ere, belzturak, ilunaldiak, arima goi-beltasunez betetzen duenean (34-39). Eta froga gisa: esperientzia, denok izan baitugu inoiz egunkariaren aroa, denok igaro baitugu aro ilunen bat, krisialdiren bat.

Bigarren maila honetan, biltzaileak ematen dituen azalpenak, argudioak, zuzenak dira: egunkaria idazteko arrazoi, egoera animiko benetakoak aipatzen ditu.

Gizarte krisiari gagozkiola, 1957an, *Leturiaren egunkari ezkutuaren* agerraldian, fede, ideologia eta abarri buruzko kezka areagotzen ari zen. Egunkariaren ugaltzea ez zen harriztekoa. Asko dira orduko adibideak. Gaur egun ere kezka, larritasuna, zalantza, nahasmena –ñabardura desberdinekoa– ez da apalagoa behintzat. Egunkariak sortu eta lantzeko lur ongarritua. Hor dago, esaterako, blogen fenomenoak: euskaraz ia 5.000 sortu omen dira. Ph. Lejeune-k (1997:373) kultur praktiken inguruan Frantzia egindako bi inkesta ofizial aipatzen ditu: bata 1988koa, non biztanleriaren %7ak egunkaria idatzen zuen; 1995koa bestea, non %3ak. Murriztu beharreko ehunekoia izanda ere, Frantziako biztanleria kontuan izanik, ez da kopuru makala. Bai, gizarte giro nahasia, krisialdi kolektiboa, egunkariaren, Niaren idaztearen eragile da.

Zer esan adibide adierazgarri gisa aurkeztutako Kafka eta Amiel idazleei buruz? Oro har, hemen ere, biltzaileak arrazoi duela.

Henri-Frédéric *Amiel-en egunkaria* (1839-1881) ezagutzen den egunkari intimorik luzeena omen da: 16.867 orrialde, 100 orrialdeko 174 koadernoetan banatuak. Amiel neurotiko, izaera depresibokoa kontsideratua izan da. Obsesiboa, hipersentibera, kezkek eta erantzukizunek abaildua; zalantzata, erabakiak gerorako uzteko joerakoa, ezkontza gaietan, esaterako. Bere egunkarian, bai: irakurketak, behaketak, gizartearekiko kritikekin batera, inpresio larriak, saminaldiak, herrak, eta horrelakoak adierazten dira sarritan.

Desberdintasunak desberdintasun, tonu edo erregistro literario zorrotzago eta sendagoz, gogaldi paretsukoak Kafkak. Bere egunkarietan, Pragan bizitutako gertaera edo ekintza kulturalak komentatzen ditu, egindako irakurketak aipatu, sortutako literatur zati zenbait bildu, eta abar. Baina barne jarrera nagusia ezkorra da, deprimigarria. Kafkaren gogo aldartea iluna da. Bere burua, behin eta berriro, honela ikusten du: zoritxarreko, zalantzati, ezgauza, triste, bere baitan itxia, jendearekin elkarrekin bizitzeko ezgai,... Bizi duen barne egoera honelako terminoz adierazten du: nekea, gainbehera, ahulezia, bizitza-

rekiko nazka, apatia edo gogorik eza, urduritasuna, ziurtasunik eza, asegabetasuna,... Hitz batean, ezkortasun existentziala, bizitza jasateko ezintasuna.

Hala ere, salbuespenak besterik ez badira ere, une zoriontsurik ez da falta. Behin edo behin aipatzen ditu lagunekin, maite duen norbaitekin, edo Marienbaden izandako egun zoriontsuak. Gehienbat, ordea, gogaldi goibela Kafkarena. Batzutan, egunkarian idazten ez duenean, ordea, ez da izaten zoriontsu delako, baizik nagikeriaz, nekatuta edo beste zenbait lan neketsutan murgilduta dagoelako.

Dena den, Amiel eta Kafka ez dira egunkari egile bakarrak. Bi dira, adierazgarriak, bai, baina ukitzen ari garen arazoari begira, nahiko muturrekoak. Badira, ugari, horienak bezalakoak, baina baita egunkari argitsuak baiko-rrak, ere: bidaia egunkariak, kronika egunkariak, egunkari mistiko intimoak, zoriontasunez eta proiektuz betetako egunkariak, egunkari ironiko burlazkoak (J. Genet-en *Lapurrraren egunkaria*, 1949), egunkari intimo amodiozkoak (J. Swift-en *Stellarentzako Egunkaria*, 1710-1713), egunkari liriko estetikoak (R.M. Rilke-ren *Egunkari Florentziarra*, 1898), eta abar.

Gogaldi ilunez bakarrik ez, aldarte argitsuz ere idatzi ohi dira egunkariak, zirrargarrienak lehenengoak badira ere. Ez dugu esaten biltzaileak azal dutako gogaldia nagusienetarikoa ez denik, egunkari askoren –agian, gehientsuenen– sorrera unean ez dagoenik, baina ez da arrazoi, egoera animiko, bakarra. Azalpena ez da osoa; partziala, murriztailea, baizik.

Zeren eta egunkari bat –erreal edo fikzioskoa– idazteko zergatiak, gogo aldarteak, bat baino gehiago izan daitezke. Bat, bai, neurosia edo goibeltasuna. Egunkaria txira moduan, kezka edo saminen adierazpide gisa erabili ohi da. Orduan, egunkaria babesleku bihurtzen da; bakardadean, barne oinazearen, frustrazioen aurkako euskarri, sostengu. Terapia funtzioa betetzen du: hustuketa, lasaigarri, lagun min edo konfidente papera jokatuz.

Baina zergati, funtzio, gogaldi honekin batera, beste batzuk ere izan daitezke egunkari baten abiarazle. Esaterako:

- a) Denbora joateari eustea: denbora menderatu, denboraren errota mantso nahi izatea; bizitza finkatzea, bizitutakoa erabat desager ez dadin. Argazki bat ateratzean, bisitatutako lekuen postala edo argazki liburuak erostean, etxeko bideo bat filmatzean bezala. Hauetan une goibelak baino gehiago une zoriontsuak jaso, erregistratu ohi dira.
- b) Oroitzapena: gertakariak, bizipenak, egunkarian jaso, gero oroitu, biziberritu ahal izateko. Idazleak bere iragana gogora ekar dezan, bizitzaren haria berrar dezan.
- c) Testigutza: egunkaria besteei esperientzia, bizitza baten lekukotasuna, uzteko ere idatzi ohi da; adiskideei, etxekoei, gizarteari, idatzizko arrastoa lagatzeko. Esperientzia pertsonal, profesional, zientifiko eta abarren testigutza uzteko.

- d) Ezagutza eta gida: norbere burua behatu, argitu eta hobeto ezagutzea. Egunen eta aldien balantzea egin, bizitzarako ordena edo gida bat aurkitu edo ezartzea. Leturiak berak ere zergati eta gogaldi hau iradokitzen du: «“Eguneroko” honetan ipiniko ditut neure aurkikunde guztiak, gaur bezala, geroan neure animak nekez goldatutako ildoari jarraitu ahal izateko» (27. orr.).
- e) Plazer bilaketa: egunkaria idazteko barne egoera gozamen bilaketa ere izan daiteke. Hausnartzean, bakardadean edo bizipenak eta gertakariak jasotzean lortzen den plazera. Eta idaztean iristen den plazera. Maiz egunkaria idazketa lantegi edo tailerra izan ohi da, idazketa ariketa. Bertan testuak, askotarikoak, zirriborratuz, esperimentatuz, garatuz, zuzenduz, landuz,...

Eta abar. Zergati edo gogo aldarte ugari. Ez bakarrik tristurazkoak. Egoera pozgarriak, lorpenak, barruko kontu afektibo atseginak, pozbide eta satisfakzioak, eta horrelakoak ere egunkari eragile, egunkari bat idazteko barne tenore izan daitezke. Bai egunkari errealean, bai fikziozkoen eragile.

2.2.3. Literatura maila orokorrean

Leturiaren egunkari konkretuaz eta egunkaria bera genero gisaz aritu ondoren, hirugarren maila batean, beste urrats bat emanez, biltzailea literatura maila orokorrean kokatzen da. Oraingoan (40-69), literatura, poesia, idazteko eta ez idazteko gogo aldarte, gai egokienari buruz mintzo zaigu. Literaturaren Teoriaren aldetik parterik mamitsuena.

Bertan ezartzen den printzipio nagusia, bi aurpegikoa:

Iluna de poesia. Alaia ez da poesigarri (40).

Jarraian, azalpena, parafrasia. Nekez azal daiteke munduko alaitasuna: osoa ez delako, noski, ez gaitu sakon hunkitzen (41-42). Alaitasuna antzu eta urri da burutapenetan. Aldiz, tristura bihotzeraino sartzen zaigu (43). Tristura aberats eta oparoa da burutapenetan, gogoetetan.

Azkenik, ondorioa. Horregatik: tristerik eta irrika gaudenean idatzi ohi dugu (61-62). Askoz ere gehiago eta ederkiago izkiriatu du olerkariak tristurari buruz, betetasunari buruz baino (56-58).

Teoria honen osagarri, euskarri, gisa, egiaztapen bat: bizitza honetan ez dago zoriontasun, alaitasun osorik; puskaka soilik. Tristura, ase ezina, denok ezagutu dugu, osotoro maiz.

Guri, orain, literaturari buruzko erreferentzia zuzen hori axola zaigu, iruzkin bat edo beste egiteko.

Badugu, hemen ere, kontraesan zantzu bat. Biltzaileak esaten du tristura, larriunea, bete ezina, denok ezagutu dugula, hain osoki ezagutu gainera ezen haietaz mintzatu ere nahi ez dugula (51-53). Nahi ez bada tristura eta horrelako gogaldirik aipatu, nolaz idatzi da horrenbeste tristurari buruz, goibelaldiak eraginik (56-57)? Nolaz idatzi du Leturiak bere egunkaria, larri dagoela eta bere larritasunaz?

Testuak berak bere burua desegiten, deseraikitzen duela dirudi. Testu honek, testuak berak, hankaz gora jartzen duela bere burua esango genuke, gune finkorik gabe utziz.

Dena den, biltzailearentzat, berriro, tristura, gogo aldarte goibela, kezka, larritasuna, irrika eta horrelakoak dira egoera animiko aiposenak literatura idazteko. Ez zorientasuna, poza eta antzekoak.

Aurreko mailan, generikoan bezala, oraingoan ere, ez dugu ukatuko tristura, irrika, ase ezina, poesiaren eragile, gogaldi aproposak, beteak izaten direnik. Erantsi nahi duguna da: alaitasuna, poztasuna, betetasunak ere, osoa ez bada ere –tristura osoa izaten al da bada, beti triste ote gaude?– poesia ederra sorrarazi duela. Ezin duguna onartu, honela formulatuta behintzat, da: «Iluna da poesia. Alaia ez da poesigarri» (40) printzipioa. Honen absolutuki bederen ez.

Noski, irrikak, desirak, ez zaizkigu inoiz asetzen. Baina noizbait, maila batean, asetzen zaizkigu. Eta une horiek ere poesigarri bihur daitezke. Pozik, aseta, posible den neurrian, ez al da idazten? Gainera, pertsona, idazle bakoitzaren esperientzia berezia da.

Betetasunetik, gogaldi argitsu eta bozkariotsutik, baikorretik, sorturiko poesiaren adibideak ez dira gutxi. Besteak gehiago direla, ederkiago izkiriaturik daudela? Behar bada. Baina distiratik, poztasunetik, sortuak ez dira falta. Bakar batzuk aipatuko ditugu.

– *Kantarik Ederrenatiko* zenbait pasarte, esaterako:

Nola sagarrondoa basazuhaitz artean, / hala ene maitea mutilen artean. /
Zein atsegin haren itzalean esertzea, / Zein gozo haren fruituak jatea!

– Omar Jayyam-en *Rubayatak* bildumatik zenbait. Adibidez:

Bai egun pozgarria: ez berorik ez hotzik! / Hodeia lorategiaren aurpegia
ari da garbitzen / Urretxindorra gartsuki txorrotxio bat eskaintzen ari zaio /
Arrosa horiari. Kanta eta edan dezagun ardo!

– Haiku ugari. Bat, adibidez:

Oreinkumeak / gaineratik tximeleta bat kendu / eta lo jarraitzen du.

– Garcilaso de la Vegaren «Eglogak».

– San Juan de la Cruz-en *Maitasunezko gar biziako* abesti zenbait.

– Walt Whitman-en *Belar hostoak*.

– Emily Dickinson zenbait poema. Adibidez, 1472.a:

Udako zerua ikustea / poesia da, hori liburu batean inoiz ez badago
ere- / egiatzko poemak ihesi doaz.

– Lizardiren «Bultzi-leiotik», «Sagar-lore», «Baso itzal», «Eusko- bidaz-
tiarena», «Izotz-ondoko iguzki», eta abar.

– Paul Eluard-en poema ugari, askatasunaz eta amodioaz, esaterako.

– Saint-John Perse-ren *Laudorioak*:

Poza! Oi poza, zeru goreneta askatua!

esaldian, adibidez.

– Pablo Nerudaren soneto eta oda ugari.

– Pere Gimferrer edo Jorge Riechmann-en amodiozko poemak.

– Bitoriano Gandiagaren *Elorritiko* zenbait poema: «Zorionsu nazan,
itaundu deustazu» bertso-lerroz hasten dena, adibidez.

– Juan Ramon Madariagaren *Argia sortzen den izartegia* poemarioa.

– Eta abar.

Beraz, errepikatuz: bai, tristura, irrika, ase ezina edo oinazea literatura iturri oparo dira, baina baita alaitasuna, poza, betetasuna ere. Hauek ere badi-
ra poesiarako sorburu.

Aipagarria biltzaileak psikoanalisiaz egiten duen erreferentzia (66-69).
Bere ikuspuntu sendotzeko psikoanaliaren planteamendua gogorarazten du.

Bai, psikoanalisira jo gabe ere, barne esperientzia psikologikoari errepa-
ratuz gero, tristurak, frustrazioak, larriuneak, paperean idatzita jartzeak lagun-
du egiten du baretasuna, lasaitasuna lortzen, barne tentsioa apaltzen. Biltzai-
learen azalpenak bat egiten du, puntu honetan behintzat, psikoanalisi
freudiarraren ikuspegiarekin.

Psikoanlisi freudiarraren arabera, arte sortzaileak, idazleak ere bai, bere
desira ez gauzatuak sorkuntza artistikoan, fantasiaren laguntzaz bideratzen
ditu; bere amets betegabeei sortze lanean ematen die irteera. Asegabetasuna
da sorketa artistikoaren iturburua. Freudek «Poeta eta fantasia» lan teoriko
giltzarrian, honela dio: «Baiezta daiteke pertsona zorionsua ez dela inoiz
fantasian aritzen; bai asegabea, eta hau bakarrik, hain zuzen.» Asegabeko
instintuak dira fantasien –egun argiko ametsen– eragileak, eta fantasiak desiren
asetze bat. Beraz, irrika, asegabetasuna, dago poesiaren, sortze literarioaren eta
batez ere –Freudentzat– tragedia klasikoaren erroetan. Idaztea, sortzea lasaibi-
dea da, desirak nolabait gauzatu egiten baitira.

Hortaz, psikoanalisiak biltzailearen azalpenaren aldekoa: asegabetasun gogaldian idatzi ohi da gehienbat. Gai interesgarria, ñabartzea, eztabaidatzea, iruzkin zabalagoa mereziko lukeena.

Laburbilduz: Leturiak barne goibeltasunetik idazten du, baina egunkari bat, literatura, poesia, gogaldi mota ugarian sortzen da, ez bakarrik ilunean, aproposenetarikoak haxe bada ere.

* * *

*Leturiaren egunkari ezkutua*k, gaur egun ere, merezi du irakurtzea eta aztertzea. Ez bakarrik euskal nobelagintzaren, euskal literaturaren historian mugarri bat delako, baita ere, berez, oraindik ere, pasarte irakurgarriak eskaintzen dituelako: hasiera, adibidez, eta, bereziki, «Udazken» atala, lortuena, gure ustez.

Bestalde, pentsamendu ahuleko garaiotan, galdera sakon askotarako akuilu izan daiteke. Hausnarketarako ariketa lagungarria, eragingarria.

ERREFERENTZIA ZENBAIT

- AMENABAR, J., *Euskal nobelaren azterketa*, Izarraizpe Irakaskuntza Kooperatiba, Azpeitia, 1982.
- ARRIZABALAGA, N., «Txillardegi nobelagile», *Jakin*, 114, 1999ko iraila-urria, 47-65.
- BOU, E., *Papiers privés. Assaig sobre les formes literàries autobiogràfiques*, Edicions 62, Barcelona, 1993.
- DIDIER, B., *Le journal intime*, Paris, PUF, 1976.
- LEJEUNE, PH. (biltz.), «*Cher cahier...*» *Temoignages sur le journal personnel*, Paris, Gallimard, 1990.
- «Tenir un journal. Histoire d'une enquête (1987-1997)», *Poétique*, 111, 1997, 359-381.
- «Le journal comme "antifiction"», *Poétique*, 149, 2007, 3-14.
- OLAZIREGI, M. J., *Euskal eleberraren historia*, Bilbo, Labayru Ikastegia / Amorebieta-Etxanoko Udala, 2002.
- Revista de Occidente*, 182-183, 1996: «El diario íntimo. Fragmentos de diarios españoles (1995-1996)».
- TORTOSA, V., «La literatura pública como una forma de intervención pública: el diario», *Signa*, 9, 2000, 581-619.

ERANSKINAK

NEREKIN YAIO NUN. TXILLARDEGIRI OMENALDIA LIBURUAREN AURKEZPENEAN

Donostian, Dr. Camino Aretoan, 2005eko irailaren 20an

Henrike Knörr

Hona non omenaldi-liburua, Txillardegiri eskainia, haren 75. urtemugan aterea. Azkenean hemen da, mamitsua, interesgarria, dotorea, 31 ikertzailek ondua.

Liburua eskuan dugularik, burutapen hau izan dut: omenduak erabili dituen gaietatik oso gauza gutxi gelditzen dira kanpoan. Zeren gramatikaz zabal idatzi baitu Txillardegik. Dialektologiaz ere bai. Ahoskeraz eta fonetikaz



Ezkerretatik eskuinera: Ludger Mees (Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreordea), Txillardegi, Andres Urrutia (euskaltzainburua), Henrike Knörr (Euskaltzaindiaren Ikersailburua), André Breton (Paris 8 Unibertsitateko irakasle emeritua).

berdin. Soziolinguistikaz zer esanik ez. Dialektologiaz orobat., eta historiaz, eta literaturaz (literaturagile izateaz gain)... Irakasle, pentsalari, saiakeragile, hegada handiko eta alor anitzetako idazlea dugu Txillardegi. Haren bibliografia guztiz ugariari so egitea aski da haren kezken ibai oparoaz jabetzeko.



Langile porrokatua, izan ere, Txillardegi, langile argi nekaezina, euskararen mina eta grina gazte-gaztetik zekarrena. Euskararik gabe, gure Herria hondamendirira joango zela garbi zekusana. Baina beste kezka asko izan ditu Txillardegik: gizakia bera, gizakiaren duintasuna, eta gizartea gizakiro moldatu beharra.

Bide luze horretan Txillardegi ez da sekula izan moden jopu ez morroi. Aitzitik: bere-bere iritziak zituen, eta horiexek defendatu ditu beti, kosta ahala kosta.

Eta bide luze horretan, ehunka, milaka euskaldun, izan gara eta gara Txillardegiren irakurle.

Pilartxo Etxeberriak eta biok gidatu dugu liburua, Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen babesarekin. Eta gure esker ona agertu behar dugu, zin-zinez, bi erakundeen aldetik izan dugun laguntzagatik, lehenik, eta liburuan parte hartu dutenei gero. Eta gure esker ona ere, modu berezian, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekari. Liburua ontzen eskuzabal jarduteaz landa, Txillardegiren idazlan zerrenda ederki bildu du. Zerrenda hori iaztik dago, osoa (edo), Euskaltzaindiaren web-gunean. Orain, paperean, liburu honetan, bibliografia akademikoa ageri da, bai eta bestelako idazlanak, itzulpenak batetik, eta omenduak hautatu beste zerbait, bere bizitzan agian mugarri esanguratsuenak.

Goresmenak, bada, Txillardegiri.

TXILLARDEGIRI OMENALDI-LIBURUA

Pilartxo Etxeberria

Donostian, Txillardegiren omenaldi-liburuan ezin izanez, hiru alderdi nahi nituzke gure adiskidearen lanean nabarmendu:

- a) Gerra ondoko belaunaldi berriko gaztea izanik, garaiz asko jabetu zen desagertzeko zorian zegoen herri eta gain behera egiten zihuan hizkuntza bateko semea zela. Hizkuntzaren eta aberriaren egoera makurrak sorrazten zion kezka eraman zuten aberriaren aldeko lanera. Euskara ardatz eta zimentarri harturik, bizitza osoan jardun du eta dihardu euskararen alde: ezagutza hobetzen, lantzen, sakontzen eta atze-aurreak arakutzen.
- b) Euskararen Batasuna. XIX. mende bukaeran koka badaitezke ere euskara batasun bidean jartzeko saio aipagarriak, ezin aipatu gabe utzi



Ezkerretik eskuinera: Txillardegi, Andres Urrutia, Henrike Knörr, André Breton.

alor honetan Txillardegik egindako lana. Autore klasikoak arakatzuz, izkribu zaharrak aztertuz, euskalki bizien ezagutza areagotuz, ... eta lan teorikoetan oinarrituta proposamen zehatzak egin zituztenen artean garrantzizkoak dira 1958tik aurrera Txillardegiren ekarpenak.

- c) Euskal fonetika, fonologia eta prosodia gaitzat harturik egiten dituen arakatzeko-lanak aurreko lanen osagarri eta Ahoskera Batuaren euskarri izango dira. Beste zenbaiten artean Txillardegi dugu ahoz eta idatziz behin eta berriz aldarrikatuko duena Ahoskera batuaren beharra. Ugari dira Euskara Batuaren Ahoskerari eta prosodiari buruz azaltzen dituen irizpideak eta argitaratzen dituen lanak. Ezagunenei so eginez, aipa daitezke: 1978an «Fonetika baturantz»; 1979an «Euskara normalizatuaren ahoskatzeaz»; 1980an *Euskal Fonologia*; 1984an *Euskal Azentuz* ...

Horra, bada, gogoan nituenak nolabait zirriboratuak. Aipatzen ditudan puntuak ezagunak dira oso eta erruz zabal daitezkeenak. Bestalde, aspergarri deritzot bibliografian xehetasun osoz agertzen diren artikulu-liburuen izenak berriz aipatzea nahiz eta gai jakinei lotutakoak izan. Halaber, edukietan sakontzea. Azken buruan, bere bizitzan zimentarri sendo izan diren euskararen eta aberriaren aldeko lana goraiatzea litzateke nire asmoa.

À MON AMI TXILLARDEGI

André Breton,
Professeur émérite à l'université de Paris 8 (Vincennes-St Denis)

Monsieur le Président, Messieurs les Académiciens, Chers Collègues, Chers auditeurs.

Laissez-moi vous dire combien je me sens honoré d'avoir été prié de présenter mes hommages à J. L. Txillardegui, mon ami depuis dix ans, le jour où lui est remis le volume *iker-17* destiné à le célébrer. Ce sera pour moi l'occasion de souligner combien nos vies, similaires par leurs voies de l'exil et de l'enseignement, nous ont menés à une convergence spirituelle allant de l'étude des langues à celle de la relation entre toute langue et sa communauté ethnique; ce qui mène les esprits libres à cette lutte, permanente et universelle, pour la défense des unes et des autres, que j'ai baptisée l'«*ethnopolitique*».

Je n'ai certes pas une expérience de l'exil comparable, en durée, en changements et en insécurité, à celle de Txillardegui. Mais, néanmoins, j'ai dû, très jeune, quitter illégalement ma patrie qui prétendait me faire participer à la guerre qu'elle menait contre l'indépendance de l'Algérie. Ce qui m'a mené en Inde, le pays qui avait inauguré la «décolonisation» à l'issue d'une longue lutte fondée sur la pratique de la non-violence. Pour, ensuite, choisir de passer la plus grande partie de ma vie d'enseignant en différents pays d'Europe, d'Asie, d'Afrique et d'Amérique.

Et, aujourd'hui, devant vous, c'est précisément certaines leçons à tirer de l'exemple de l'Inde que je vais m'efforcer de développer. L'Inde est, sur le plan de l'histoire comme de la préhistoire, très proche de notre univers linguistique et culturel. Car vous savez que la majorité des langues d'Europe est apparentée à celles qui couvrent la plus grande partie du sous-continent indien et qu'ensemble elles constituent la grande famille indo-européenne. À part le basque, qui appartient à cette autre couche de langues, précisément «pré-indo-européennes», dont on retrouve aussi un reste en Inde, avec le burushaski, dans le haut Himalaya.

Je ne m'étendrai pas ici sur les liens si flagrants unissant le sanskrit, le grec classique ou le latin, ni sur les parentés de civilisation si touchantes entre mes ancêtres celtes et les traditions aryennes des Indiens. Je m'en tiendrai aux enseignements que l'Inde du XXI^e siècle peut fournir à nous autres Européens.



Ezkerretatik eskuinera: Ludger Mees, Txillardegui, Andres Urrutia, Henrike Knörr, André Breton.

Ce que je vois principalement sur deux plans; celui du traitement du paysage linguistique et celui des méthodes politiques de lutte.

Sur le plan de la politique des langues, l'Inde est pour l'Europe un modèle. Face au milliard d'habitants de l'Union Indienne, les 450 millions de ressortissants de l'Union Européenne constituent un bloc comparable par son ampleur : après le milliard trois cents millions de Chinois, ils sont le deuxième et le troisième ensemble humains de la planète, bien avant le quatrième, celui des 300 millions de citoyens des États-Unis. Mais, surtout, l'Inde et l'Europe sont analogues par leur diversité linguistique. Alors que si la Chine a bien une cinquantaine de langues vivantes, seule l'une d'elles, le chinois, maternel pour plus de 90% des habitants, est langue officielle, comme seul l'anglais l'est aux États-Unis.

À l'opposé, le régime fédéral de l'Union Indienne édicte dans sa Constitution de 1950 que toute langue autochtone a droit au développement, et, s'il spécifie que parmi elles, l'une, le hindi, est officiel au niveau de l'Union, devant l'anglais, langue officielle seconde, il précise que vingt-deux autres langues ont, jusqu'à nos jours, été inscrites comme langues «constitutionnelles» et sont officielles au niveau des États et Territoires de l'Union, qui, eux-mêmes ont été en général dessinés à partir des principales aires linguistiques. Tandis que la

centaine d'autres langues autochtones peuvent être enseignées aux citoyens qui le demandent.

Cette acceptation par l'Inde sa diversité linguistique traduit la disposition pluri-millénaire de sa civilisation à reconnaître et protéger la variété de l'humanité, de ses cultures et de ses pensées de tout ordre, y compris religieuses; comme de célébrer la richesse de toute vie manifestée dans la nature. De même que l'hindouisme esquisse une multiplicité de figures divines laissées au choix de la vénération de chacun, il a toujours toléré les autres cultes comme les pensées non religieuses. Jusqu'à ce que l'impérialisme anglais, en dressant musulmans et hindous les uns contre les autres, leur ait enseigné, à la veille de l'Indépendance, à s'entre-tuer et à s'expulser en masses. Mais, depuis, tout monopole de la pensée comme de l'expression est redevenu difficilement concevable dans l'Union Indienne, État expressément laïc.

Ce qui explique parfaitement que plusieurs décennies avant que l'Union Européenne adopte sa devise «Unie dans la diversité», l'Union Indienne l'avait la déjà choisie : «*United in Diversity*». Sur le plan des langues, l'Europe peut-elle suivre le modèle indien ? À partir d'une diversité comparable –une cinquantaine de langues autochtones pour un demi milliard d'habitants– elle a commencé à s'acheminer vers une similitude de statut.

l'U.E. actuelle reconnaît les vingt et une langues officielles de ses vingt-cinq États. Avec les sept derniers États des Balkans aspirant à accéder à l'U.E. et les trois États ayant préféré se contenter de participer à l'Association Européenne de Libre-Échange, on aboutit à une Europe à trente-cinq États ayant vingt-sept langues officielles pour cinq cents trente millions d'habitants. Plus la vingtaine de langues autochtones des «peuples sans État» ou «sans territoire», qui ne sont nulle part officielles, mais que l'U.E. comprend parmi les langues «régionales et minoritaires» qui, selon la Charte les protégeant doivent recevoir l'aide dévolue aux langues «moins répandues».

On aboutirait ainsi à une cinquantaine de langues reconnues dans un ensemble d'un demi-milliard de personnes, nombre analogue à la centaine de langues du milliard d'Indiens. Resterait aux Européens à faire s'accomplir cette promotion des langues minoritaires, que tant d'États avaient, jusqu'il y a peu, refusée, en s'attachant, au contraire, à les rabaisser, voire, même, à les éradiquer. Pratique visant à réduire la diversité culturelle que j'ai bien particulièrement connue en France ; mais que j'ai pu analyser aussi aux États-Unis, où grâce à deux bourses Fulbright, j'ai vu, par exemple, le demi-million de francophones de Louisiane se voir interdire le français à l'école et s'y faire punir pour y prononcer des mots de leur langue maternelle.

Mais l'Inde offre, aussi, à l'Europe une autre grande leçon morale, cette fois dans la lutte politique : celle de la non-violence. Grâce à l'enseignement de Gandhi, la plus grande figure du XXe siècle, les Indiens ont prouvé que l'on pouvait gagner un combat pour la liberté en refusant, délibérément, toute

lutte armée. Il leur a fallu, certes, plusieurs décennies pour que leurs masses triomphent du plus puissant impérialisme de la planète, mais ils ont ainsi montré au monde leur supériorité morale face à l'oppression militaire. Et ont donné, dès 1947, la preuve que l'ère de la colonisation était révolue et que tous les peuples pouvaient s'affranchir de la tutelle que d'autres leur imposent. Mais il est vrai que les méthodes de la lutte non-violente ont mis longtemps à se généraliser dans toutes communautés opprimées et que beaucoup de mouvements de lutte ont eu du mal à suivre l'exemple indien et à sortir des pratiques d'une humanité encore trop marquée par toutes les pratiques de la force. Que malheureusement les Européens ont fort bien illustrées en passant des siècles à s'entre-tuer et finir par déclencher les deux guerres mondiales.

C'est pour cela que la voie non-violente choisie par notre ami Txillardegi, comme par une majorité de Basques, Irlandais, Bretons, etc., retient notre admiration et accroît notre espoir de voir se constituer un monde vraiment meilleur, où chaque communauté pourra obtenir pacifiquement sa reconnaissance par toutes les autres. Mais ce combat n'est jamais achevé et, à notre âge où l'éméritat nous a été conféré, nous savons que notre enseignement par la parole et l'écrit doit continuer bien au-delà des universités, afin que les nouvelles générations poursuivent mieux cette recherche d'une humanité pacifique et généreuse, que notre vie au XXe siècle a été loin de nous faire connaître et savourer.

Et c'est sur ce message d'espoir que je clos cette évocation de notre vie commune de lutte parmi les lieux, les hommes et leurs pensées.

II

IKERKETA-ARTIKULUAK

MATERREREN 1623KO *DOTRINA CHRISTIANA*

Aramaio, 2007-IV-05

Patxi Salaberri Muñoa

Petulantzia-punttua barkatzen bazait, harrotasunez aitortuko dut bat natorrela Larramendi *beltzak* E. Materre frantziskotarrak darabilen hizkuntzari buruz dioenarekin, hots, zuzena bezain ederra, egokia eta estimagarria dela haren *Doctrina Christianan* utzi zigun euskara (1). Antzeko balorazioa azalerratu zuten Julien Vinsonen hitzek ere XVII. mendearen hasierako euskaldun berri haren idazlanaz mintzatzean:

parmi les vieux livres basques les plus intéressants, mais les plus rares et les moins connus, il faut faire une place à part à l'ouvrage d'un Cordelier, le P. Étienne Materre (Vinson 1905, 218).

Baina tratamendu linguistikoaz gainera, betidanik iruditu zait baduela frantziskotarrak *plus* berezi bat, hau da, gainerako idazlan kontrarreformistek eskaintzen ez duten informazio ohargarria, hala literatura kontuez (Salaberri 2002, 79-81) nola garaiko pentsamendu eta gizartearenez (Salaberri 2005). Eta –zergatik ez aitortu?– betidanik gustatu izan zait zazpi «bekatu mortal buruzagi» omen direnen atalean erremedioak emateko erakusten den freskotasuna, besteak beste, Axularren obraren akuilu gisakoa ikusi nahi izaten dudalako nagitasunaren bekatuaren ezabaketa tipografiko nabarmen hori (2).

Agian arrazoi horiexengatik guztiengatik jotzen dut gehiagotan haren liburura garaiko beste katixima idorretara baino. Betiere, esan dezadan, ene fedea gehiegi ez kutsatzeko zuhurtasunak uzten didan heinean.

(1) Egia esan, kalifikatiboetan –ezen ez estimazioan– zertxobait murriztago izan zen andoaindarra: «Volumen en 12 que contiene la Doctrina Christiana, muchas Oraciones, y uno, como Directorio de Marineros en Bascuence hermoso, qual es el de Sara en Labort, y tanto mas estimable, quanto su Autor, no siendo Bascongado, aprendió la Lengua con toda perfeccion» (Larramendi 1745, xxxv. or.).

(2) Nahasketa-ezabaketa hura («Hasserretassunaren contra, Diligencia, erne eta iratçarri içaitea» –28. or.– delakoaren barnean ematen dena, alegia) tipografoen akats larria izan arren (eta hala gertatu zela dirudi), inor ez bide zen ohartu edizioa geldiarazi eta zegokion zuzenketa egiteko. Arimen zainketa baino gauza biziki arruntagoez arduratzen garenon kontsolamendurako, edonola ere.

Nolanahi ere den, frekuentazio neurtu hori eta Vinsonek bere *Bibliographie* delakoan ezarritako oharño bat izan dira, azken batean, honako lerro hauek idaztera ekarri nautenak.

1. Gauza onartua da autoreek berek kontrolatutako edizioak ohi direla –literarioki, behinik behin– interesgarrienak, eta ez bestek geroago apailatuak, berauek ere, bestelako arrazoiak medio, aintzat hartzekoak badira ere.

Guk dakigularik, Materreren *Dotrina Christiana* lanaren lehen argitalpen «kontrolatua» 1617koa izan zen. Alabaina, patu gaiztoaren eraginez nonbait, galdu egin bide ziren edizio hartako ale guztiak.

Zorionez, autoreak «kontrolatutako» bigarren argitalpen bat ere ezagutu zuen haren *Dotrinak* 1623an, eta hartatik bai, hartatik ale bat iritsi zaigu, bakarra, egun Oxford-eko *Bodleian Library* delakoan (3) gordetzen dena.

Guk, ale bakan horren mikrofitxetatik aspaldi ateratako kopia inork oharrezaturikoen fotokopiez (4) baliatzeko aukera izan dugu lerro hauek erredaktatzeko. Eta horrexegatik hain zuzen nahiago izan dugu ibilaldi errazagoa ahalbidetzen duten liburuaren egituraketa eta edukietatik gainerakoetan ez murgiltzea, alboratu alor horietako hainbat alderdik ere argi nahikoa ekar lezaketen arren lehen eta bigarren edizioen inguruko eztabaidara.

2. Adierazi bezala, Materreren obraren *bakantasun* horrek eta hain aurkitzeko eta erabiltzeko arraro eta zail izateak literatur arloko jendearentzat ere ezezagun samar mantentzera kondenatu izan du luzaroan (5). Eta, jakina, inor gutxi dendatu ahal izan da Vinsonek, mende pasatxo duela, luzatu zuen hipotesia egiaztatzen, garatzera edo, kasurik txarrenean, gezurtatzera. Gaiari berrikiago heldu zion Bozas-Urrutiak ere gaztelaniara itzuli –eta, agi denez, onartu– besterik ez zuen egin Vinsonek idatzita utzi zuena (ikus Bozas-Urrutia 1968, 194).

Parada egokia gurea, hortaz, ikertzaile paristarrak XIX. mendearen amaieran zioena berriro irakurtzeko.

(3) Hari zegokion signatura ere utzi zigun Vinsonek idatzita: «Cote 8° M.30» (1891-1898: 1984, 52).

(4) Gurean erabili izan den kopia akastuna dela eta, iritzi hedatua da euskaltzaleen artean 258, 259, 260 eta 261 orrialdeak falta zaizkiola Bodleian Libraryko aleari (ikus, esaterako, www.armiarma.com edota Oihartzabal 1996, 62: 7. oharra). Vinsonek, ordea, besterik idatzi zuen liburu honetaz: «*il est complet et en assez bon état, sauf qu'il est très rogné et que les coins d'un certain nombre de feuillets on été déchirés*» (1891-1898: 1984, 52; gurea da letrakera etzana). Geronek egiaztatua ahal izan dugunez, arrazoi zuen paristarrak, Oxfordeko aleak orrialde guztiak baititu (aurki faksimil «osatua» in <http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/MaterreDotrina.pdf>).

(5) Bost argitalpen izan arren (ik. Bozas-Urrutia 1968), Materreren obra doi-doi iritsi ahal izan da ikerlarien eskuetara. Egund, halere, bigarren edizioaren bertsio informatiko eguneratua kontsulta daiteke www.armiarma.com webgunean.

**DOTRINA
CHRISTIANA**

in ling: catalana
BIGARREN IM-
pressionean debocinozco
othoitz eta Oracino
batuez berreturic.

Aita ESTEVE MATERRE
San Franciscoren Orde-
naco Fraideac hirur
partetan eguina.



BORDELEN

JACQUES MILLANGES
Erregueren Imprimacail-
learenean. 1623



Hona Vinsonek luzatu hipotesia edo, nahiago bada, iradokizuna:

La p. 176 n'a que six lignes imprimées et tout le reste y est blanc. Un ancien propriétaire a écrit son nom dans cet espace blanc de la manière suivante: «Francis de Esparbem guataluna de Murguy. 1617». Cette date de 1617 est singulière, puisque le livre est de 1623. Serait-ce 1637? ou 1757 (akatsa dirudi, «1657» esan nahi zuela ematen baitu)? ou avons-nous à faire un exemplaire formé de deux autres dont l'un serait de la première édition? Si la date de 1617, pour cet ex-libris, est exacte et authentique, elle peut aussi s'expliquer d'une autre façon: elle prouverait en effet que l'édition de 1623 n'est pas à proprement parler un nouvelle édition, une réimpression de celle de 1617, mais que pour la faire on aurait repris les exemplaires restants de la première dont on aurait refait le titre et auxquels on aurait ajouté les p. 177 et suivants (Vinson 1891-1898: 1984, 52).

Galdera-baieztapenotan gehiegi ez korapilatzeko, hel diezaiogun atalka ahapaldiaren hari nagusiek diotenari.

Lehenik eta behin, eta *Dotrinaren* 176. orrialdean eskuz idatzitakoaz Vinsonek burutu zuen irakurketa zuzentzeko asmorik gabe bada ere (eta baluke zer zuzendurik, ziurrenez (6)), onartu behar dugu gure kopian nekez ikusten dela dataren ezker aldeko bi zenbakiak besterik: 16. Beraz, ez litzateke arazo handiegia izango bertan agertzen den oharra 1637koa zein 1657koa dela onartzea. Are gehiago, okerreanean, neke larregirik gabe onar liteke 1617ko data bera ere, urte horrek horrela, bestelakorik gabe eta huts-hutsean harturik (7), ez bailuke, gure ustez, ezer funtsezkorik aldatuko.

Alabaina, onargaitzago dirudite frantses ikertzailearen bigarren galdera-aieruak («avons-nous à faire un exemplaire formé de deux autres dont l'un serait de la première édition?») eta, nola ez, hurrengo iradokizunak ere («Si la date de 1617, pour cet *ex-libris*, est exacte et authentique, elle peut aussi s'expliquer d'une autre façon: elle prouverait en effet que l'édition de 1623 n'est pas à proprement parler un nouvelle édition, une réimpression de celle de 1617, mais que pour la faire on aurait repris les exemplaires restants de la première dont on aurait refait le titre et auxquels on aurait ajouté les p. 177 et suivants»), eta ez, hain zuzen, XVII. mendeko inprimatzaileen artean horrela jokatzeko aukera, premia edo ohiturarik ez zelako, ez (8).

Ezin uka bide daiteke hipotesi gisako horiek planteatzeko oinarriak, izan ere, argitaratzean bakoitzak 16 orrialdexka emango dituzten pleguak trinko

(6) Nola jakin liteke Vinsonen «un ancien propriétaire a écrit son nom» hura egia den ala ez? Ez litzateke lehen aldia izango non liburu-jabeak berea ez den izen bat idazten duen oroigarri-edo gisa.

(7) Zail samarra da *ex libris* dirudienaren atzean dauden motibazioen berri izatea. Besterik litzateke, esate baterako, liburuaren jabe izan zela egiaztatzeaz gainera, idatzitakoaren egilea 1637. urtea baino lehen hil zela deskubrituko balitz.

(8) Distantziak distantzia, aurretik inprimaturik zegoen materiala aprobetxatzeko jokamolde horren lekukoa genuke Axularren *Gero* liburuaren ale ezagun bat (ik. Salaberri 2007).

eta ezin hobeto neurtuta agertzen baitira liburuia atontzeko unean: hamaika plegu oso (hamar gehi bat, alegia), «A» letratik «L» letraraino, eta guztiak beterik, orrialde zuririk gabe, testu gutxien duena (Vinsonek dioen legez, sei lerro baino ez) bigarren partearen azken orrialdea («176» zenbakia daramana) delarik.

Baina Materereren liburuaren kasuan garbi baino garbiago dago liburuaren lehen 176 orrialde zenbatuak ezin direla 1617ko ediziotik (edo plantxetatik, nahi bada) ateratakoak izan.

Gehienik ere, zenbatu gabeko hasiera-hasierako orrialde edo atal gutxi batzuk besterik ez luke liburu horrek lehendabiziko ediziotik zuzenean jasoak (9). Zehatzago ikus dezagun!

3. Zeintzuk ezin dira 1617ko ediziotik hartutako atalak izan?

3.1. Bistan da liburu hasierako orriaren alde biak (zenbatu gabeko I eta II or.) 1623ko edizioari dagozkioa, lehen orriaren aurreko aldean idazlanaren izenburua baitugu («bigarren impressionea» dela adieraziz eta argitaratze data berria ezarriz) eta ifrentzuan edizio berriari buruzko informazio argigaria) (10):

LIBURU HUNEC hirur parte ditu.

Lehenbicioan ibenitcen da Guiristinoac iaquin behar duen Doctrina declaracino gabe. Bigarreanean Doctrina declaracinoa galdeguitez eta ihardetsiz eguina. Hirugarreanean eçarten dira debocinozco othoitz eta Oracino batçuc bere demboretan eguin eta erran behar direnac» (zenbatu gabeko II or.).

Gauza bera esan beharko litzateke zenbatu gabeko xxv. orrialdetik xxvii.era dagoen «Iracurçailleari» zuzendutako atarikoaz: 1617. urtea baino beranduagokoa da eta, aurrerago zehaztuko diren inprenta kontuak direla medio, liburuaren lehen parteia baino lehenago erantsi ziren aparteko lau orrialdetan inprimatua dago, hain zuzen ere lehen ediziokoak (horiek bai!) izan zitezkeen zortzi orrialderen ondoan.

Halaber, azalpen-jauzi bat eginez, aurreratu behar da argi dagoela «Hirugarren parteia. Debocinozco othoitz eta oracino batçuc bere demboretan eguin eta erran behar direnac», hots, «M» letra daraman plegutik aurrerako guztia ere (177. orrialdetik 384. orrialde bitartekora gehi «Thaula» izeneko aurkibidea, alegia) edizio berrirako osatua eta taxutua izan zela. Zeharo berria, beraz.

(9) Lehen edizioaren plantxetan erreinprimatuak (?) edo saldu gabeko aleetatik jasoak izan zitezkeenak, alegia.

(10) Aurrerantzean, Materereren hitzak aipatzean, zuzendurik emango dira akats tipografiko nabarmen direnak, hala nola, «ibenucen», «igaadetsiz», «iracurçailleari», «circla», «hrl», «renoni» eta beste («ibenitcen», «ihardetsiz», «iracurçailleari», «cirela», «hei», «neroni»...).

Hori bera jakinarazi zion Materrek «Iracurçailleari» 1623an zuzendu zion hitzaurrean:

eta ceren añhitz baita Euskalherrian iracurtcen daquienic, baiña ez Euscara baicen bertce hitzcunçaric aditcen, halatan eguin ditut halacoençat Euscaraz debocinozco othoitz eta Oracino batçuc, goicetan, arratsetan, eta bertce añhitz demboratan eta ocasinotan eguin eta errã ahal ditezqueyenac (11), ceinetçaz eguiten baitut hirugarren partea (zenbatu gabeko xxvii. orria).

Argitalpen zaharraren aprobetxamenduaren auzia, bada, lehendabiziko bi parteetara mugatuko litzateke, 177. orrialdean amaitzen diren horietara.

Materrearen liburuaren irakurketak, halere, besterik erakusten du, hots, ez dela horretan Vinsonek iradoki bezalako aprobetxamendurik, ezin argiago azaltzen baita lehen parte bien erredakzioa berria edo, gutxienez, aski egokitua izan zela eta, ondorioz, aurrerago ikusiko den atal fimiñoren bat izan ezik, nekez balia zezaketela lehen edizioan inprimatutako materialik bigarreneako.

1623ko *Dotrina Christianaren* orrialdeak lekuko, jakina.

Alde batetik, Materrearen hitz ezagunak ditugu lehen parteen taxuketa berria dela jakiteko bidea. Honela mintzo da liburuak izandako harreraz eta ingurukoen aldetik jaso zituen aholkuez:

[...] beha egotu naiz ea cer erraiten çuten iendec nic cenbait urthute duela esquirribatu nuen Guiristinoaren Dotrinaz, eta ediren dut ecen batçuen artean hartçaz cebilan solhasa, eta erraiten cena cela Dotrina eta Dotrinaren declaratinoa ez elkarrequin, baiña beregainqui eta bereciqui bi partetan ibeni behar cirela (zenbatu gabeko xxv-xxvi or.).

Ondoren etorri zen liburuari emango zion egituraketa berriaren erabakia:

bada halaco hei atseguin eguiteagatic, eta neroni ere eztela gaizquiago idurituric *bereci ditut elkarganic, eta eguin bi parte* (zenbatu gabeko xxvi or.; gurea da letrakera etzana).

Hortaz, ezinbestez egokitu beharko zuen egileak liburua, zeren eta, hark zioena aintzat hartuz gero, pentsatzekoa baita otoitzak eta formulak (dotrina, alegia) hurrengo argitalpenean «deklaratinoa» bihurtuko zenarekin nahasiak zeudela lehen edizioan (12).

(11) Zenbatu gabeko 2. orrialdean eta hirugarren partearen izenburuan (177. or.) ez bezala (atal horietan «eguin eta erran behar direnac» idazten baita), «Iracurçailleari» luzatutako gutun honetan «eguin eta erran ahal ditezqueyenac» (xxvii. or.) idazten da.

(12) Lapurteraren esparrutik atera gabe, planteamendu «nahasi» horretako alea genuke, esate baterako, Argaignaratzek 1665.ean argitaratu *Devoten Breviariora* delakoaren amaieran erantsi zuen *Dotrina christiana*. Bertan ikus daitekeen bezala, «dotrina» eta «dotrinaren declaratinoa» elkarrekin edo, nahi bada, nahasirik eskaintzen dira, hots, otoitzak eta formulak galdera-erantzunen gorputzaren barnean tartekatuturik, Materrek lehen edizioa taxutu omen zuen gisan.

Beti argumenta liteke, noski, gauza bat dela hitzaurrean esaten dena eta beste bat, batzuetan guztiz desberdina, gero liburuan barrena jartzen dena eta, nola ez, azkenean argitaratzen dena (13).

Kontrargumentazioa, edozelan ere, testuak berak eskaintzen digu ezin era argiagoan.

Lehen orrialde zenbatuan bertan («1» or.) ekiten zaio 1617ko *Dotrinak* ez bide zuen lehen partearen taxuketari: «Guiristonac iaquin behar duen doctrina declaracino gabe». Halaber, 36. orrian aurkituko du irakurleak «Bigarren parte», azpi-izenburu gisa honako azalpen hau daramana: «Guiristinoac iaquin behar duen Doctrinaren declaracinoa, galdeguinez eta ihardetsiz eguinea».

1617ko argitalpenarekiko lehen egitura-doikuntza burutua agertzen da, hortaz, bai testuan eta bai, suposatzekoa den bezala, orrialdeen ondozkapenean.

Are gehiago, bada testuan bertan etengabe tartekaturiko ohar gisako albiste zenbait, non atzera ere egokitzapenaren berri ematen baita. Eta bitxia irudi badakiguke ere, normalean *ihardespena* burutuko duen giristino ikaslearen ezpainetarako –eta ez *galdegitearen* eginkizuna duen eta liburu-egilearen tokia hartzen duen apaizarenetarako– uzten du Materrek testu-egokitzapenaren albistea emateko ardura.

Honela dio, esaterako, *Kredo* delakoari dagokion hasierako pasarte batek:

Ihar. [...] Bada oray errepartimendu haur hunela ikussiric ditçagam declara *Credo, Pater noster, Aue Maria, Salue Regina*, Manamenduac, Sagaramenduac, eta bertce gainçeraco lehenbico partean declaratu gabe utci ditugun gauçac (48-49 or.).

Hurbil da hurrengo pasarte ere:

Galde. Non daude sinhetsi behar ditugun gauçac?

Ihar. Credoan laburzqui bilduric, (lehenbico partean eçarria den beçala): Ceren hartan edireiten dira articulu fedezcoac (51 or.).

Eta irakurlea gal zedin beldur balego bezala, hurrengo orrialdean ostera azpimarratzen du liburuaren banaketarena:

Galde. Norc eguin du Credo?

Ihar. Hamabi Apostoluec eguin çuten, eta den beçala ordenatu, eta halatan da hamabi articuletã errepartitua. Eta hamabi hautan sartcen da cenbait bertce ponturic ere, lehenbico partean erran den beçala (52 or.).

Berdintsu jokatu du Materrek aurrerantzean ere. «PATER NOSTERaren declaracinoa»-ri eskainitako kapituluari, adibidez, honela mintzo da:

(13) Zama horrekin bizi izan da luzaroan Axularren *Gero* liburu ere.

Galde. Cer dira behar ditugun gauça hec?

Ihar. Pater nosterean dauçanac, liburu hunen lehëbico partean eçarria den beçala: Eta oracino hartan edireiten dira gauça hec guztiac laburzqui (76 or.).

«AVE MARIAREN, eta Salue Reginaren declaracinoa» delakoari dago-kionez, honako hau aurkituko du irakurleak:

Galdeguitea. Cer oracino erraiten ohi duçu Pater nosteraren ondoan?

Ihardestea. Andra dana Mariaren salutacinoa, cein deitzen baita, *Aue Maria:* Eta guero bertce oracino bat ere bai, cein baita, *Salue Regina*, liburu hunen lehëbico partean diren beçala (91-92 or.).

«ELIZACO SAGArarenduen declaracinoa» denaz bezainbatean, hona Materrek lehendabiziko parteari buruz eskaintzen duen erreferentzia:

Galde. Erran baita lehenbico parteã ecen Bathayoa dela lehen Sagaramendu-a: Cer erran nahi du Bathayoa hitz hunec? (116-117 or.).

Ildo beretik segitzen du frantziskotarrak «PERFECTIONECO conseilluen declaracinoa» izeneko atalean:

Galdeguitea. Erran da lehenbico partean ecen perfet içaiteco conseiluac direla hirur [...] (146 or.).

Eta berdin «ESPIRITU SAINduaren dohaiñen declaracinoa» delakoan ere:

Galdeguitea. Certaco dira Espiritu sainduarê çazpi dohaiñac lehenbico partean eçarriac direnac? (152 or.).

Eta orobat aurrerago, «ESPIRITU SAINduaren contraco becatuen declaracinoa»-n:

Galde. Nola aditu behar dira hitz hauc?

Ihar. Becatu hetaric batçuec (lehenbico partean eçarriac baitira guztiac) eztirela barcatcê, eta bertceac nequez barcatcen direla (174 or.).

Eta, zalantzarik egon ez dadin, honela amaitzen du Materrek bigarren partea:

bertce gaiñeraco lehen partean diren gauçec eztute declaracinoric behar. Halatan hemen akabatcen da Doctrina Christianaren bigarren partea (175-176 or.).

Lekukotasun hauetatik guztietatik atera daitekeen ondoriorik nabarmena, beraz, ezin hau besterik izan: Materrek 1617ko testu osoa birmoldatu behar izan zuela 1623ko edizioa kaleratu ahal izateko.

3.2. Jakina, gizakiak lana ekonomizatzeko duen joera dela eta, zilegizkoa litzateke pentsatzea birmoldaketa, handia zein txikia izan arren, lehen partea osatuko zuten otoitz eta formulek utzitako hutsuneetan eta haien inguruan

burutuko zela nagusiki. Baina bada aztarnarik testuaren erredakzioan ere ukitu zenbait jazo zirela pentsatzeko (14).

Izatez, arras berria zen hirugarren partearen erredakzioak lehenengo bietara hainbat aldaketa ekarri zituela atzematen uste da bertan.

Azal dezagun laburkiro.

Hirugarren parte horretan Materrek «Debocinozco othoitz eta oracino batçuc bere demboretan eguin eta erran behar direnac» eskaini zizkion giristinoari.

Otoitz edo formula horietako batzuetan, ezaguna da, latinezko hitz bat(zu)en bitartez eman ohi zen amaiera, baita otoitzak euskaraz zein beste hizkuntzetan emanak zirenean ere. Aski da garaiko katixima gehienak ikustea.

Beherago erakutsiko den bezala, pentsatzekoa da antzera jokatu zuela Materrek ere lehen edizioan, euskarazko otoitzen amaieran latinezko «Amen» delakoa erantsiz.

Bigarren argitalpenean, berriz, aldatu egin zuen jokamoldea. Eta ausartuko ginatke esaten hirugarren partearen erredakzioaren eraginez erabaki zuela lehen parteko otoitzen amaierak ere egokitzea eta euskarazko amaiera-loturekin eskaintzea. Izan ere, latinaren presentzia aurreko parteetan ez bezalakoa da hirugarrenean (anekdotiko samarra izatetik –otoitzen izenburuak, gehienik ere–, berrogei bat orrialde betetzeraino iritsi baitzen azken partean, orrialdeen %20 inguru), eta hizkuntza desberdinen erabileraren «kontzientzia» hori izan zen, ustez, gure autorea hizkuntza bakoitzean idatzitakoari tratamendu desberdina ematera bulkatu zuena.

Lehen adibidea «*Eta guero othoitz hau latinez*» (210 or.) idatzi ondoren agertzen zaigu. Logikoa-edo zen bezala, latinezko leloarekin bukatu zuen latinezko otoitz luzea: «*In saecula saeculorum. Amen*» (211 or.).

Nonbait orduan otu zitzaion justu ondoren euskaraz jarri zuen otoitz luzea euskarazko hitzekin amaitu behar zela, eta ez, luzaroan ohiko izango zen bezala, latinezkoekin. Eta hala eman zuen, 212. orrialdean hasita, hamaika (hamar gehi bat, alegia) orrialdez luzatzen den otoitzaren amaiera euskaraz: «*Biz hala*» (222 or.).

Zinez erantsi genezake kontzientzia berberarekin amaitu zituela, orobat, hurrengo otoitz guztiak ere: euskarazko hitzekin euskaraz erredaktatuak eta latinezkoekin latinezkoak.

(14) Badirudi eliz etsaminatzaileek baimendua zen lehenengo edizioan ez zegoen akatsik ere burutu zela gero bigarren argitalpenean. Lan honetako bigarren oharrean agertutakoa, esaterako, nekez igaro zitekeen lehenengo ediziotik bigarrenean, larri samarra baitzen bekatu-nahaske-ta hura 1617aren ondoko sei urteetan oharkabean geratzeko. Edonola ere, inprimatzaileen akatsa izan bazen, ostera ere edizio berri batez mintzatzen ari garela esan nahiko luke horrek.

Pare bat lerro gorago aipatutakoaz gainera, hona euskarazko beste otoitzak oro, guztien amaiera, esan bezala, «Biz hala» delakoarekin lotuak:

COFESSATU Ondoan eguiteco Othoitça ere (ik. 246 or.), «GORPUTZ SAINdua errecibitu baiño lehen eguiteco *Othoitça*» (ik. 257 or.) eta ondoko guztietan (ik. 268 or., 274 or., 280 or., 286 or., 292 or., 298 or., 306 or., 317 or., 322 or., 323 or., 332 or., 337 or., 344 or., 353 or. eta 362 or.).

Kopuruz gutxiago dira latinezko otoitzak; denak, ordea, «Amen» delakoarekin bukatuta (ik. 340 or., 341 or., 352 or., 357 or., 373 or. eta 384 or.).

Itzul gaitezen orain lehendabiziko eta bigarren parteetara, gorago iragarri ditugun ustezko erredakzio-aldaketarako zantzuak zertan dautzan azaltzeko.

Lehen parteko deklarazio gabeko dotrinari dagokionez, bertan agertzen diren otoitz eta formulen amaiera «Biz hala Salbatçaillea» (ik. 2 or., 3 or.) eta «Hala da salbatçaillea» (5 or.) eta «Biz hala» (35 or.) moldeen bidez burutzen da. Edo beste modu batez adieraziz, «Amen» bat bera ere ez dago lehen parte guztian zehar.

Bigarren partean, berriz, bada «amen»-ik. Lehendabizikoa «Guiristinoaren seiñaleaz» diharduen atalean dugu. Baina testua euskaraz badago ere, «seiñalea» egin bitartean esan behar omen dena latinez ematen da, betiere latinezko atal bakoitzaren ondoren zeinua egiteko azalpenak euskaraz eskaintzen direlarik: «*In nomine Patris [...], Et Filii [...], Et Spiritus Sancti [...], Amen Iesus*» (42 or.).

Hurrengo «amen» delakoa, halere, «CREDOAN dauden articulu fedezcoen declaracinoa» dela-eta agertzen zaigu, eta, zalantzarik gabe, lehen partearen barnean dagoen «CREDO IN DEUM» delakoa erreferentzia harturik eta haren «declaracinoa» burutzeko xedearekin.

Edo beste hitz batzuekin adieraztearren, argi esan daiteke bigarren parteko «declaracinoa»-k lehen partean argitaratutako kredoa hitzez hitz desglosatzen duela (15) eta hartan dauden hamabi artikulua ezin modu zorrotzagoan zehazten dituela. Deklarazioa delakoa bukatzeko, baina, bada aipatu kredoa agertzen ez den hitz bati buruzko galdera:

Galde. Cer erran nahi du AMEN hitz hunec? (73 or.).

(15) Azalpen hauetan, harrigarriro, hamaikagarren artikulua «declaracinoa» falta da, «haraguiaren piztea»-ri legokiokeena eta 73. orrialdean egon beharko lukeena. Liburu guztian barrena duen erreferentzia bakarra lehen partean dago, «Articulu fedezcoac» izeneko ataleko amaierako zatian, Bertan «Hamalaur articulu hauquen gaiñera eman ahal ditezque oraiño bortz gehiago Credotic atheraric» (15. or.) esanez, honela jarduten du aipatu gaiiaz: «Laugarrena, munduaren azquen finean guztioac piztu beharco dugula» (16. or.). Nolanahi ere den, oker ez bagabiltza, Axularren liburua ere Materreren eskolakoa da teologi arazo larri honi dagokionez, behin ere ez baitu aipatzen katolikoentzat fedezko artikulua den gizakien berpiztearen kontua.

Egia esan, gorago adierazi legez, erreferentziatzen hartutako euskarazko kredoaaren amaieran «hala da salbatçaillea» baino ez da azaltzen. Beraz, «hitz hunec» tokiz kanpo dagoen zerbait da, hots, testu berriaren harira ez datorren zerbait.

Galderari ematen zaion erantzunak ere hori bera iradokitzen du:

Ihar. Leku hunetan hābat nola, hala da eguiazqui. Edo, hala sinhesten dut nola erraiten baitut (73-74 or.).

«Leku hunetan», hau da, 5. orrialdean dagoen otoiitzean ez da «AMEN» bezalako hitzik. Dagoena, esan bezala, euskarazko ordaina da.

Konklusiorik atera baino lehenago, ikus dezagun beste adibide bat, hots, lehen partearen hasiera-hasieran dagoen «Pater noster» (16) delakoari buruzko azalpena edo «deklaracinoa».

Aurrekoan bezalatsu, bigarren partean ere hitzez hitz desglosatzen da hasierako «aitagure» guztia. Hitzez hitz eta, zati bakoitza, dagokion galderari erantsirik: «cergatic erraiten da oracino hunen hastean, gure Aita cerūetan çaudena?» (76-77 or.), «cer errā nahi du lehenbico othoitçac, erraiten deneā: Erabil bedi sainduqui çure icena?» (78-79 or.), «cer erran nahi du, ethor bedi çure erresuma?» (79-80 or.), «cer erran nahi du, Eguin bedi çure borondatea cerūan beçala lurrean ere?» (80 or.), «cer erran nahi du, Iguçu egun gure eguneco oguiā?» (81 or.), «cer erran nahi du, Barka diatçaguçu gueure çorrac, guc gure gana çordun direnei barkatcen derauztegū beçala?» (82-83 or.), «cer erran nahi du, ez caitçaçula utz tentamendutā erortcera?» (84 or.) eta, azkenik, «cer erran nahi du, Aitcitic beguira gaitçaçū gaitcetic?» (85 or.).

Arazoa, «kredoa»-ren amaieran bezalaxe, «aitagurea»-ren bukaeran aurkezten da, era berdinean planteatzen baitira edizio berriaren harira ez datozen galdera eta erantzuna:

Galde. AMEN hitz hunec cer erran nahi du Euscaraz?

Ihar. Leku hunetan hābat nola, hala biz. Edo, hala guertha daquidala nola othoitz eguiten baitut (85-86 or.).

Begi-bistakoa da –hala deritzogu guk, behinik behin– azken bi «amen» horiek lehenengo edizioko otoițetako amaiera-hitz izan zituela Materrek.

Bestelako katiximetan bezala ziurrenik, erantsi beharko genuke, errazagoa baitzen ohiko formula fosilduak aplikatzea, alde guztietatik arraro samar

(16) Hona hemen «Pater noster» delakoa Materreren bertsoian: «Gure Aita certietan çaudena, erabil bedi sainduqui çure icena; ethor bedi çure erresuma: eguin bedi çure borondatea, cerūā beçala lurrean ere: iguçu egun gure eguneco oguiā: eta barka diatçaguçu gueure çorrac, guc gure gana çordun direnei barkacen derauztegun beçala: eta ez-caitçaçula utz tentamendutan erortcera: aitcitic beguira gaitçaçū gaitcetic. Biz hala Salbatçaillea» (1-2. or.).

gertatuko ziren formulazio berrietan ahalegintzea baino (17). Alabaina, bigarren edizioa prestatzen ari zelarik, Materrek hirugarren parteko euskarazko otoitzak eta latinezkoak libururatu behar izan zituenean, bakoitza zegokion hizkuntzan kaleratu nahi izan bide zuen. Horrek lehen edizioko otoitzak eta formulak egokitzera bultzatuko zuen frantziskotarra, edizio berrian lehen parte osatuko zuten otoitz eta formulen bukaerak hain zuzen.

Horrela, hasieran dotrinaren azalpenekin nahasirik zeuden otoitz eta formula egokituok parte batean jarriz eta benetako «declaracinoa» bigarrenean, Materreri azken parte honetako testua orraztea baino ez zitzaion geratzen. Eta halaxe egin gogo zuen nonbait, baina ez zuen guztia orrazterik lortu, ukitzeke –oharkabean, seguru asko– igaro baitzitzaizkion deklarazio-testuetan zehar ez harentzat ez orduko inorentzat arraroak ez ziren otoitz-amaiera latinezkoak, lehen parteko euskarazko formula berriztatuetan tokiz kanpo geratuak zirenak, hain preseski.

4. Zeintzuk izan litezke 1617ko ediziotik hartutako atalak?

Deskartaturik hirugarren, bigarren eta lehen parteak eta azken honen aurre-aurrean ezarri zitzaion «Iracurçailleari» izeneko hitzaurre berria, oso murrizturik geratzen da 1617ko ediziotik bigarreneko har zitezkeen atalen kopurua.

Atzekoz aurrera eginez gero, «Examinaçaleen Approbacinoa» delakoa genuke lehendabiziko ediziotik (edo sobratutako aleetatik) hartzeko moduko atal bat. Bigarren edizioari dagokion informazio berririk ez dakar eta, aurreko orrialdearen azpian agertzen den «EXA» hitz zatiak adierazten duenagatik (18), atal hori plegu desberdin batean inprimatua izan zela esan liteke (zenbatu gabeko xvii-xxiv or.).

Horren aurretik dauden lehendabiziko zortzi orriek plegu batetik, beretik, atera ohi den kopurua osatzen dute (hamasei orrialdeko koadernotxoak, alegia). Lehendabiziko orrialde biak kenduta (zenbatu gabeko I. eta II.a), lehen ediziokoa bide den testu pare eskaintzen zaigu bertan. Salbuespena, esan bezala, lehendabiziko orria da, baina horrek konponketa erraza zuen lehendabiziko edizioko materiala erabili nahi bazen bigarrena apailatzeko: lehen orri hori

(17) «Amen»-zale dira, esaterako, Betolaza (1596), Zannetto editoreak *Symbolum Apostolorum* delakoan argitaratu kredoa (1614; ik. Salaberri 2006a), Kapanaga (1656) eta N. Zubia (1691; ik. Mitxelena 1964, 162). Egokitzapenaren aldeko, berriz, Beriain (1626) eta Argañaratz (1665). Carlos Labaien inprimatzaileak 1614.an argitaratutako liburu baten azalean erantsirik agertu dotrina zatietan «amen» zein «ala dela» agertzen dira (ik. Salaberri 2006a); Isastik jasotako «Salve Regina», berriz, «Amen, ala biz» esanez amaitzen da (Mitxelena 1964, 164-165). Honetaz guztiaz, gure «Interestualitatean barrena. Kontrarreformako kateketika» (2006b).

(18) Gogora bedi plegu bakoitzetik ateratako orri-multzoak edo koadernotxoak elkarren artean egokitzeko eta ondozkatzeko erabiltzen zela bide hori, hau da, koadernotxoaren azken leerroaren azpian hurrengo koadernotxoaren lehen hitzaren lehen silaba edo silabak idatzi ohi ziren, orri berrian zegokien letra motarekin (etzanak, bertsalak, etab.).

hautsi eta berri bat erantsi. Eta baliteke horrela jokatu izana... baldin saldu gabekorik geratu bazitzaie inprimategian.

Edo beste modu batez adieraziz, liburuaren lehen koadernotxoa (aipatu lehen orriaren salbuespenarekin) berdin-berdin mantendu izan zezaketen bigarren ediziorako (iii-xvi or.). Gauza bera esan liteke xvii-xxiv. orrialdeez, baina, oraingoan, argi utzi beharko litzateke bigarren koadernotxoaren erdia baino ez dutela osatzen.

Handik aurrerako guztia –guzti-guztia, alegia– 1623ko argitalpenerako bereziki moldatua edota prestatua izan zen.

Ondorioztatu beharrekoak, bada, nekez abia daitezke Vinsonek iradokitakoetatik zehar, edizio berria prestatzerakoan inprimatzaileei ezinezko gertatu baitzitzaie aurreko argitaraldiaren plantxarik erabiltzea (19) edota gorago aipatu atal bakanez gainerakorik aprobetxatzea.

Eta hori guztia hemen jorratu ez den hipotesian sartu gabe, izan ere, lehen liburu kontrarreformista sendoa –formalki zein kontzeptualki– izanik eta, nonbait, lehen edizioaren *tirada* bostehun aletik gora igaroko ez zela oharturik, nekez pentsa baitaiteke honelako materialaren «egarria» zuen gizartean ale bat bera ere sobratuko zitzaie sei bat urte beranduago han-hemenka baliatua izateko eta edizio berriko aleak osatzen aritzeko. Hipotesi hori, dena den, beste baterako utz daiteke. Hala biz!

AIPATUAK

ARGAINARATZ, 1665, *Doctrina christiana*, in *Devoten Breviarioa*, B. Bosc, Baiona (ikus <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/ArgainartzDevoten.htm>. Bertan da, halaber, RTF formatuan).

BERIAIN, J., 1626, *Doctrina Christiana*, Carlos Labayen, Iruñea.

BETOLAZA, J., 1596, *Doctrina Christiana* (ikus L. Mitxelena, 1955: 1988, «La *Doctrina Christiana* de Betolaza [1596]», *ASJU* II, 43-60; orain Michelena: *Sobre historia de la lengua vasca*, Donostia, 824-837.)

BOZAS-URRUTIA, R., 1968, «Un “Materre” de 1704», *BRSVAP*, Año XXIV, Cuaderno 2º, 191-205.

KAPANAGA (= M. Ochoa de Capanaga), 1656, *Exposición breve de la Doctrina Christiana*, Juan Azpiroz, Bilbo.

(19) Irarkoletako premiek –eta ekonomiak berak– errotik eragozten zuten letra-moldeak eta tipoak sei urtez geldirik gordetzeko ahalegin oro. Hilabetera ere ez zen iristen, oro har, liburuak inprimatzeko osatzen ziren plantxen iraupena.

- LARRAMENDI, M., 1745, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence, y Latin*, B. Riesgo y Montero, Donostia.
- MATERRE, E., 1623, *Dotrina Christiana*, Jacques Millanges, Bordele (ikus <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MaterreDotrina.htm>. Bertanda, halaber, RTF formatuan).
- MITXELENA, K., 1964, *Textos arcaicos vascos*, Madril.
- OIHARTZABAL, B., 1996, «Eratorbidea E. Materre-ren *Dotrina christiana-n* (1617)», *Lapurdum* I, 37-71 (Orain in http://www.iker.cnrs.fr/pdf/Oyhar_Materre_Hitzeratoriak.pdf).
- SALABERRI, P., 2002, *Iraupena eta lekukotasuna. Euskal Literatura idatzia 1900 arte*, Donostia.
- , 2005, «Axular Jekyll, Axular Hyde» in P. Etxeberria eta H. Knorr (ed.): *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*, *Iker* 17, Bilbo, 413-430.
- , 2006a, «Labaieren eta Zannetoren formulen karietara» in Beatriz Fernández & Itziar Laka (arg.): *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 855-868.
- , 2006b, «Intertestualitatean barrena. Kontrarreformako kateketika», *Egan* LIX-3/4, 51-84.
- , 2007, «Axularren *Gero* liburuaren ale kasi birjinaleko “M” pleguaz», *Fontes Linguae Vasconum* 105, 303-323.
- VINSON, J., 1891-1898: 1984, *Bibliographie de la Langue Basque (Volúmenes I y II)*, Donostia (1891eko *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* eta 1898ko *Complément et Supplément* liburuen edizio bateratua).
- , 1905, «Notes de bibliographie basque. Le Livre du P. Materre», *Revue de Linguistique et de Philologie comparée* XXXVIII, 218-237.

III
LIBURU-AIPAMENAK

***SPRACHPOLITIK UND GESELLSCHAFTLICHE
ALPHABETISIERUNG,
Jakin-iturri eta bide-erakusle***

Mikel Zalbide

Hizkuntza-soziologiaz han-hemen argitaratzen diren lanak irakurri eta iruzkinak egitea ez da eginkizun erraza. Aztergai konkretuaz dugun ezagutza, hasteko, aski mugatua izaten da askotan. Eguneroko lan-jardunak, bestalde, ez digu sarri hartarako astirik ematen. Mugak muga eta nekeak neke, horretan saiatu nahi nuke ordea, aldian behin, *Euskera* honetan. Jagon Saila ez ezik Iker Saila ere gogoan dut, bide horri heltzerakoan. Teorian eta teoriatzko ikerketan daukagu hutsunerik nabarmenena, izan ere, soziolinguistikaren alorrean dihardugunok. «egin eta egin» daramagu berrogei bat urte, egiten dugun horren noranzkoaz eta irismenez, bere muga-ahalmenez eta orain arteko emaitza enpirikoez, gogoeta teoriko handirik egin gabe, azken mende-laurden honetan (1). Akademiaren esparruan sartzen da gogoeta-lan hori, bete-betean sartu ere, eta hartarako akuilu izan nahi luke nire ekarpen xumeak. Besteren esan-eginak arakatu eta baloratzen saiatzea ez dugu, berez, gogoeta-saio horretarako lanabesik okerrera. Hona gaurkoan aipagai hartu dudan ikerlana, doktore-tesi izan ondoan egileak liburu moduan argitara emana:

Izenburua: *Sprachpolitik und gesellschaftliche Alphabetisierung. Zur Entwicklung der Schreibkompetenz in Katalonien seit 1975.*

Egilea: Christian H. Münch.

Argitalpena: 2006. Frankfurt am Main. Peter Lang argitaldaria. ISBN 3-631-53763-8

Liburu berria atera da helduen alfabetatze-lanaz. Ez dago horretan nobedade partikularrik: argitalpen askotxo dira, aldez edo moldez, langintza hori aztergai dutenak. Kataluniako helduen alfabetatzeaz, Alemanian eta alemanez, liburu osoa argitaratzea ez da ordea hain eguneroko kon-

(1) Badira noski salbuespenak: norbanako jakinen (Txepetxen eta haren aurreko zein ondoko norbanakoen) hainbat ekarpen erakargarri, unibertsitate alorreko zenbait azterketa, tesi-tesina eta argitalpen, herri-aginteetatik bultzaturiko zenbait jardunaldi eta ikerlan, han-hemengo ikastaro espezializatuak eta BAT aldizkaria ditugu, besteak beste, saio horien lekuko. Ez dira, inola ere, gutxiesteko ekarpenak. Joera nagusiari dagokionean ez dut uste, ordea, hain oker nabilenik.

tua (2). Salbuespen miragarria ere ez, halere. Euskalaritzak ez bezalako indarra eta hedadura du katalanistikak mundu zabalean, Europan eta Europatik kanpora. Osagarritzko datua erantsi behar zaio horri, kasu honetan eta beste zenbaitetan: hizkuntza eta kultura katalanak bilgune bizia eta agertoki zabala dute Frankfurt-eko Goethe unibertsitatean, Tilbert D. Stegmann irakaslearen eta bere *Biblioteca Catalana* famatuaren eskutik. Frankfurt-eko giro horretan ernetako hazia da, hain zuzen, aipagai dugun lan hau. Giro horretan jasoa du Christian Münch-ek bere formazio unibertsitarioaren zati handia: han jasotzen hasia du eta, hangoa inoiz eskutik utzi gabe, Bartzelonan garatua (3). Bere doktore-tesiaren laburpen eguneratua da oraingoan aipagai dugun liburua (4).

Izenburuak argi azaltzen duenez, helduen alfabetatzeaz dihardu azterketa honek. Ez nolanhiko alfabetatzeaz ordea: *hizkuntza-normalkuntzaren* inguruan garaturiko alfabetatze-saioa aukeratu du berak aztergai. Hori da bere lanaren berezitasun argia (5). Ezinbestekoa gertatu zaio, horregatik, hizkuntza-normalkuntzaz hitz bi esatea: hitz bi kontzeptuaz eta, nola ez, Katalunian izandako garapenez. Erabiliaren erabiliaz aski etxeratua badaukagu ere kata-

(2) Linguista alemanak ez dira atzean gelditu izan inoiz, soziolinguistika lantzeko orduan. Hogei urte bete berri dira alemanezko soziolinguistikak bere aldizkari ezaguna paratu zuenetik: *Soziolinguistik. Ein internationales Handbuch zur Wissenschaft von Sprache und Gesellschaft* Ulrich Ammon, Norbert Dittmar eta Klaus Mattheier (arg.) (1987). Geroztik badakigu bertako beste hainbat argitalpenetan ere bere lekua duela enfoketuzko soziolinguistikoak.

(3) Münch-ek berak argi azaltzen duenez Alemaniako DAAD eta Kataluniako *Institut d'Estudis Catalans* batetik, eta *Consell Interdepartamental de Recerca i Innovació Tecnològica (CIRIT)* bestetik, izanak ditu Bartzelonan urte biz egindako ikerlan horretarako beka-emaile.

(4) Ikasle-garaian, hasteko, Bartzelonako Unibertsitatean egin zuen urtebete, 1991-92an. Handik zenbait urtera Katalunian bertan egindako ikerketa-lanean oinarritua dago bere doktore-tesia, orain liburu moduan kaleratu duena. Kataluniako Generalitatearen *Consorti per a la Normalització Lingüística* (CPNL) izan du Münch-ek, neurri zabalean, bere azterlan enpirikoaren aplikazio-gune nagusi. *Generalitatek* sortutako *Institut de Sociolingüística Catalana*rekin batean jardundakoa da, bestalde, lan hori egiteko orduan. Instantzia ofizial horiezaz gainera *Universitat Oberta de Catalunya* (Miquel Strubell irakaslea), *Universitat de Barcelona* (Emili Boix, Albert Bastardas eta Joan Solà irakasleak) eta *Universitat Pompeu Fabra* (Daniel Cassany irakaslea) bide-erakusle izanak ditu. *Junta Permanent de Català* (Carme Bover, Toni Soler eta Lluís Ràfols Ràfols) oso bertatik ezagutua du orobat. Esan dezagun, bidenabar, euskaldunok in ere izana duela Christian Münch-ek harremanik, lana amaitu aurreko fasean. Katalunian eta hemen (IRALEn, HABEn, IVAPen) zer neurritan bide beretik genbiltzan, eta zer neurritan bestelako jokamoldez geniharduen, berariaz aztertu nahi izan zuen Münch-ek. Gogoan dut elkarrekin izandako lan-bilerak eta harreman-segida. IVAPeko Jesus Eizaguirrekin eta HABEko Pello Esnalekin izandako harremanak ere bai. Ez dugu beraz ezezaguna gure artean, ikasbideari dagokionez. Neskalgun (honez gero emazte?) euskalduna izateak sendotu baizik ez ditu egin, jakina, harreman-lotura horiek.

(5) Aparteko gertakaritzat har liteke, hainbatean, Münch-en ikerlan hau. Aparteko gertakaria da, lehenik eta behin, Kataluniako hizkuntza-politika instituzionalaren ebaluazio-saioa egiten saiatzen delako, ekimen horren argi-itzalak kanpotik eta barrutik begiratzuz aldi berean. Horrelakorik gutxi ikusten da oro har, gure aldeotan; are gutxiago, doktore-tesietan. Aparteko gertakaria da bere azterketa, bestalde, helduen katalanezko alfabetatze-lana *acquisition-planning* eta *status-planning* aldetik arakatzten saiatzen delako aldi berean. Aldi-berekotasun hori Münch-en lanaren aldeko ezaugarritzat har liteke orobat.

lan-euskaldun-galegook, hitz berria da berez *hizkuntza-normalkuntza*. Aracil valentziarrak orain dela berrogei urte inguru sortua eta Franco hil ondoan, 1980tik hona bereziki, Espainiako herrialde beregain askotan (gaztelaniaz aparteko hizkuntza propioa dugunetan) lege-aitormenez zurkaiztua. Berria izateaz gainera, hizkuntza-normalkuntza hori definizioz eta irismenez zehazteak lana eman ohi du (6). Ez da hain gauza erraza, hizkuntza-normalkuntza zer den (edota zer izan behar lukeen) definitzen. Hori baino lan delikatuagoa da, ordea, orain arte aplikatu den hizkuntza-normalkuntza konkretua zer emaitza modu eskaintzen ari den zehaztu, argitu eta baloratzea. Zer ari gara lortzen, eta zertan ari gara huts egiten, hizkuntza-normalkuntzaren bidez? Sarritan galdetu ohi diogu horrelakorik geure buruari, lanbidez horretan ari garenok bederen. Gutxitan argitara ohi ditugu, ordea, galdera horiek geure baitan eragiten dituzten usteak eta nola-halako neurketa-emaitzak. Guk baino ondotoxoz tradizio sendoagoa dute, gogoeta-lan horretan, katalanek (7). Ondo trebaturiko buru-langileak dituzte, hasteko, bertako unibertsitateetan eta instantzia instituzional espezializatueta. Handik kanpora ere eztabaida-gune eta agertoki ederrik ez zaie falta, gainera. Etxe barruko galderagile zorrotzei kanpoko adituak erantsi dizkiote, bestalde, azken hamarkadotan. Guregana baino ondotoxoz sarriago hurbildu dira katalanezko hiztun-elkartera, galdera horiei zientzi arauzko erantzuna bilatu nahi lieketen espezialista jakitunak (8). Bai galdera osoaren erantzun betearen bila ari direnak eta bai, kasu honetan bezala, galdera osoaren alor batean zentratu nahi izan dutenak (9).

Galdera-alor argia hautatu du Münch-ek, bere ikerlanaren oinarri: *zer fruitu eman du Katalunian mende-laurdeneko Hizkuntza Normalkuntzak, bertako helduen idazmena landu eta garatzeari dagokionez? Noraino dira bertako herritarrak katalanez (katalan jasoan zein arruntean) erraz, jori eta zuzen idazteko gai? Zer albo-ondorio ekarri du, halakorik ekarri baldin badu, katalanezko alfabetatze-lan horrek?* Galdera-alor hori hartu du aztergaiaren muin, eta saiatu ere galdera-muin horri erantzuten saiatu da ikertzaile alemana. Jakintza-alor batetik baino gehiagotatik edan behar izan du horretarako. Hizkuntza-soziologiari leku zabala eskaini dio bere ikerketan; linguistika tradizionala, hizkuntzaren historia soziala, hizkuntzen ontogenesia eta hizkuntzalaritzaren

(6) Inon baino saio ausartagoak egin izan dira Katalan-herrietan, hasieratik beretik, kontzeptua mugarriztatze aldera. Albert Branchadell-en 1987ko «Normalització Lingüística: el concepte» ez da, inola ere, diogunaren adibiderik hutsalena.

(7) Ikus, esate baterako, Münch-ek beraraiz aipatzen dituen aditu katalanok: Joan Argenter (1991), Albert Branchadell (1987 eta 1996), Francesc Vallverdú (1995), Bernat Joan i Marí (1996) eta Miquel Strubell (1999).

(8) Georg Kremnitz baten jarduera, ez bakarria izanik eta ez, agian, lehena, paradigmaticoa da nolanahi ere.

(9) Ez dugu euskaldunok halako kanpo-adituen barne-lan sendo eta jarrai handirik, hizkuntza-soziologiaren sailean bereziki. Aldian behingo erdal kazetari oro-jakileen sinplekeriak maizago entzun edo jasan behar izaten ditugu, kontzeptu teorikoz eta jakite enpirikoz ondo landutako aztertzailer kanpotarren emaitza kritiko sakonak baino. Azken era horretakoa da, katalanen onerako eta gure inbidiatarako, aztergai dugun ikerlana.

egungo zenbait ildo berri ere aski kontuan izan ditu. Hizkuntza-soziologiaren aldetiko ekarpenak hartu nahi nituzke gogoan, iruzkin honetan.

Gorago esanenez, hizkuntza-normalkuntzaren alor konkretu bati heldu dio ikertzaile alemanak, ez hizkuntza-normalkuntzari bere osoan. Hizkuntza-normalkuntzaren kontzeptuak eta bere gorabeherak inon baino gogoeta sakonagorik egin den herrialdean heldu dio langintza horri, eta horren eragin nabarmen antzematen da bere ikerbidean. Katalanaren historia sozialak eta katalanaren *acquisition planning* delakoak aski leku zabala dute bere jardunean. Hori guztia horrela izanik ere, Kataluniako gaur eguneko mintzajardunaren gizarte-moldaera du Münch-ek aztergai. Mintzajardun horren idaz-langintza, bereziki: nola doa helduen katalanezko alfabetatzea, Katalunian? Zergatik saiatu da hainbat katalan heldu, zahar eta berri, katalanez alfabetatzen, lehendik gaztelaniaz irakurtzen eta idazten ongi baldin badaki? Zer leku izan dute jarduera horretan ikasketari helduon motibazio integratiboak eta instrumentalak, intrintsekoak eta estrintsekoak? Nola uler litezke motibazio horiek, 1975etik honako hizkuntza-politikaren eta kontestu ideologiko berriaren argitan? Zertan egin da aurrera gizarte-bidezko alfabetatze-lanean, eta zerk huts egin du?

Gai-multzo zabal horri heltzean, ikertzaile alemana ez da *vacuum* batean lanean ari izan. Euskaldunok gehiegi enteratu ez bagara ere eztabaida teoriko sakona, oinarriak astin-astin egiterainokoa, jasanya du Katalunian Hizkuntza Normalkuntza osoak, 1980ko eta 90eko hamarkadetan (10). Astinaldi horrek aieka bat baino gehiago izan du. Hizkuntzaren barne-egitura eta kanpo-erabilera lotzeko saioa izan da horietariko bat. *Processos de normalització lingüística: l'extensió d'ús i la normativització* eman zuten argitara 1991n, ikuspegi hori artean zuela, Joan Martí i Castell-ek eta beste zenbaitek. *Normalkuntz* eta *normatibazioa*. Hizkuntzaren erabilera zabaldu nahi du lehenengoak (normalizazioak): hiztun-kopuruz, jardun-gunez edo bietara zabaldu. Hizkuntza zuzen-egokiaren eredia sortu, ezagutarazi eta zabaldu nahi du bigarrenak (normatibazioak). Batak besteari mesede egiten al diote, edo traba? Noiz bata (mesede) eta noiz bestea (traba)? Bata bestearen kaltean ari direnean, zeinek behar du lehenasuna, ahuldutako hizkuntza indarberitzea baldin badugu helburu? Hobe al da katalan *light*-ez egitea, erdaraz egitea baino, eta beraz bultzatu egin behar al da horrelako hizkera moldea? Hizkuntzaren herio-aurreko ataria al da hori, eta beraz alde batera utzi beharrekoa, nahiz eta ordainetan «hainbat hiztun» galdu? Horretara ere zabaldua du katalan-munduak bere kezka-esparrua (11). Haiantzat ez ezezik, guretat ere erakargarri dira galdera horiek: «pixka bat ez mucho» leloa kaleratu berri den honetan ezin esango dugu, noski, urruneko kontuak direnik.

(10) Ez da harritzekoa, horregatik, Euskaltzaindiaren pareko-edo den *Institut d'Estudis Catalans*-ek ere osoko bilkuran aztertu izana hizkuntza-normalkuntzaren gaia (1990eko apirilaren 18ko batzarrean egin zen hori, oker ez banago).

(11) Ikus, esate baterako, Joan Martí i Castell (arg.) (1991) eta Joan Solà (1985). *L'ame-
naça del català light* delakoaz ikus, adibidez, Maria-Lluïsa Pazos i Noguera (1990).



Aski zuzenean eragiten digu euskaldunoi, bistan denez, Christian Münch irakaslearen aztergaiak. Alfabetatze-euskalduntze lanaz, batez ere helduen alfabetatze-euskalduntzeaz, arduratzen garenok aski kontuan hartzekoa dugu azterlan hori. Idatzita dagoen hizkuntza (alemana) eragozpen larria da gure artean, badakit. Larria izanik ere ez luke erabateko eragozpen izan behar: irakurtzeko gaitasuna mintzamen-idazmenak baino ondotoz hedatuago egon ohi da gure artean. Ikusi besterik ez dago, ingelesezko bibliografia teknikoarekin zer gertatzen den. Espero dezagun, hortaz, gure arteko hainbat profesional gai izango dela lanaren muinera iristeko. Hartarako zailtasuna lukeenarentzat, lagungarri izan nahi luke iruzkin xume honek. Ez ditut liburuaren zoko-moko guztiak arakatuko: ondotoz orrialde gehiago behar genituzke horretarako. Funtsezkoak iruditu zaizkidan puntuetan zentratuko naiz, hortaz.

I. LIBURUAREN ZENBAIT EKARPEN

Badago Christian Münch-en liburuan, euskaldunontzat ere, zer aztertua eta zer ikasia franko. Honako motibo hauengatik diot hori, besteak beste: gizarte bidezko alfabetatze-lana bere ingurumen soziopolitikoan kokatzen du lan

horrek, hasteko; eskolako gutxietsi gabe helduaroko alfabetatze-bidean zentratzen du, bestetik; azkenik, konstruktu teoriko erakargarriaz hornitu du ikerlanaren dokumentazio-atala. Banan bana azalduko dira, gaingiroki bada ere, hiru puntu horiek.

I.1. Gizarte bidezko alfabetatze-lana, hizkuntza-normalkuntza asmo izanik

Hona Münch-ek alfabetatze-lana nola deskribatzen duen. Gaztetan eskuratzen da, normalean, irakurtzeko eta idazteko gaitasuna. Gaitasun hori ez da, hala uste izan ohi bada ere sarri, trebetasun grafomotorrera eta zeinu-sistema semiotikoa eskueran izatera mugatzen. Hizkuntza-norma bat eskuratzea ere bada, izan, alfabetatze-lanaren helburu. Horrek, berriz, bere jira-bueltako ortografia-arauak, baliabide lexikalak eta gramatikalak bezala, erraz eta eroso erabiltzen ikastea esan nahi du. Eskola-garaian eskuratzen da gaur egun, oro har, trebetasun- eta ezagutza-multzo hori (horren parterik handiena). Alfabetatze-lana ez da ordea eskola-garai horretan amaitzen: hiztunaren lanbide-giroak eta bizitza pribatuak zeresan handia dute trebetasun horien garapenean edo atzerantzko galbidean.

Aparteko lekua du, alde horretatik, helduen alfabetatze-lanak. Lanbidezko hizkuntza-eskakizunek berariazko eragina izaten dute horretan. Trebetasun horien guztien sorrera, garapena eta kontsolidazio-finkapena prozesu sozial konplexu baten atal dira, hainbatean. Oinarri instituzionala izan ohi du prozesu horrek, partez. Giza arteko interakzio sozialaren fruitu ere bada, ordea. Alfabetatze instituzionalak eta gizarte bidezkoak uztardura konplexua dute, hori guztia dela medio. Gizarte bidezko alfabetatze-lana hartzen du Christian Münch-ek aztergai nagusi, bide instituzionala tartean sartuz. Hizkuntza bat baino gehiago aurrez aurre dauden gizarteetan, hizkuntza bakoitzak bere esparru fisiko eta soziofuntzionala izan ohi du maizenik. Hori dela-eta, idatzizko jarduna hizkuntza baten (gehienetan, estatuko hizkuntza nagusiaren) atributu izaten da maiz. Salbuespen dira, alde horretatik, konpartimentazio soziofuntzional hori kolpean eten eta ordura arte idatzizko esparrutik baztertua zegoen hizkuntzari (funtsean, bere hiztunei) hartarako atearak zabaltzen zaizkien kasuak. Horren adibide aparta da gizarte katalana, azken mende-laurdenean, eta horretan zentratu da ikertzaile alemana.

Hizkuntza-politika eta gizarte bidezko alfabetatze-lana uztarri berean lotzen ditu ikertzaile alemanak: bien arteko lotura moldea du liburuak aztergai. Izenburuaren bigarren zatia bereziki argigarria da, xede-helburuei dagokienez: «Zur Entwicklung der Schreibkompetenz in Katalonien seit 1975». Hots, katalanez idazteko gaitasunak 1975etik hona gizarte-bizitzan izan duen bilakera. Katalanezko alfabetatzeak mende-laurden honetan izan duen bilakera soziala, eta saio horrekin lortu diren idazmen-emaitzen argi-ilunak: kontu

horiek arakutzen dira lan honetan. Ikerlanak ez du, soil-soilik, ikasketari jakinen alfabetatze-moldea eta horri buruz beraiek ageri duten jarrera aztertzen. Gizarte-prozedura horrek eskueran izan dituen lagungarriak eta han-hemen agertzen ari zaizkion eragozpen-traba orokorrak analizatu nahi izan ditu, aitzitik. Hala jardun du Münch irakasleak, linguistikaren esparrutik abiatuz baina soziolinguistikaren alorrean sartuz bete-bete. Aparteko garrantzia du luze-zabaleko alfabetatzearen gai horrek, Europako eta XXI. mendeko hiztun-herri txikiontzat. Hitzeko jarduna da orain ere nagusi, han eta hemen, hiztun-talde gehienon batez besteko jardunean. Gero eta beharragoa dugu ordea, zenbaitean, idatzizko jarduna. „Idatzizkoa« diogunean, jakina, bere esanahi soziolinguistikoa hartu behar da gogoan: irakurketa eta idazketa biltzen dituen transmisio-bide zabala, soziokulturalki landua.

I.2. Alfabetatze-bideak: eskolakoa eta helduarokoa

Argibide artezak eskaintzen ditu Münch irakasleak, alfabetatze-bide nagusiez. Oso deigarria gertatzen da, alde horretatik, eskola-bide formalaren ondoan instituzionalki babesturiko alfabetatzeak liburu honetan ageri duen leku zabala. Gure arteko HABE eta gainerako euskaltegien jardun-sarea: hori (sare horren Kataluniako uztarkidea) hartzen du berak ikergune nagusi (12). Badago horretan zer ikasia franko. Kataluniako egoeratik arras urrun gaude euskaldunok demolinguistikaz, tradizio literarioaren zabalaz eta, nola ez, hango eta hemengo hizkuntzen *Ausbau/Abstand* izaera kasik antagonikoaz. Aldeak hain handiak izanik ere uhin berean gabiltza, ordea, maiz. Eskola bidezkoa ez bezala, lanbide-esparruko irakurketa «markatu»an (kasik ezinbestekoan) elikatzen da gizarte bidezko alfabetatze instituzionala. Administrazioari hizkuntza-eskakizunak bultzatua da hein batean, han eta hemen. Ikasketarien motibazio instrumentala oso agerian dago ikerlaneko galdekizunari ikasketarietako emandako erantzun askotan. Administrazioaren jardun-esparru gehienetako formulario eta dokumentu ofizialen hizkuntza-moldera oso pegatua egon ohi da sarri, bestalde, beraien idazmen-lanketa.

Bigarren mailakoa da zenbaitentzat, eskolan lortzen den oinarrizko alfabetatzearekin konparatuta, euskaltegi edo irakastegi bidez lortzen dena. Ez da horrela: «lanbidearen beharretan zentratutako» alfabetatze hori funtsezkoa da, han eta hemen, geure hizkuntzan erraz irakurtzeko eta lasai idazteko gaitasun funtzional-aktiboa eskuratuko badugu. Ez da egia, nolana ere, eskola bidezko alfabetatzea euskaltegi edo irakastegi bidezkoa baino nabarmenki sendoagoa denik. Eskola-maisu euskaldun gehienek ongi asko dakite, egia hori zein den garrantz eta gordin: etxetik euskaldun diren haurrek 14 edo 16 urte D ereduko ikastetxean eginik ere, «hainbateko»

(12) IRALEREen baliokide zuzenik ez dago han, eta ez du beraz halakorik aztertu. Atera dituen ondorioak esparru horretarako ere baliagarriak dira ordea.

alfabetatzea lortzen dute sarri: osin handia egon ohi da askotan, euskaraz «hainbatean» idazteko gai izate hutsaren eta hartan jarduteko gaitasun funtzional-aktibo osoaren (inoiz «beregaintasuna» deitu izan diogun horren) artean. Euskaraz «hainbatean» idazten jakitetik «osorik» jakitera zenbateko tartea dagoen ez dugu, ene ustez, azken mende-laurden honetan behar bezain serio aztertu eta baloratu. Münch-en liburuak duen merezimenduetako bat horixe da hain zuzen: «hainbatean» alfabetatua egotetik euskaraz erraz irakurtzeko eta zalu-zorrotz-zuzen idazteko gai izatera dagoen tarte handiaz ohartzen lagun diezaguke. Ez da mesede kaxkarra etxeko zapi zikinak, arrotzen aurrean astintzea komeni ez delako aitzakiaz, hain isilpean gordezen ohiturik gaudenontzat.

1.3. Lanaren konstruktua teorikoa

Katalanez alfabetatzen ari diren ehunka ikasketari aztertu ditu Christian Münch-ek. Galdeketa estandarizaturik egin die horretarako, besteak beste. Noiz eta non jaiotako diren, etxean umetan eta orain katalanez edo gaztelaniaz egiten duten, formazio akademikoaz zer diren, zertan lan egiten duten, zer mailatako alfabetatze-ikastaroa egiten ari diren, eta abar. Horrelako galderak egin eta emandako erantzunak jaso ditu, batetik. Bestetik, berriz, *kommunikative Profile* edo *komunikazio-moldeak* sortu ditu eta ikasketarien hainbat erantzun bertara irauli. Badute aparteko interesik, lan horretarako prestatu dituen *kommunikative Profil* horiek. Oinarri teoriko ohargarritz eraikitako konstruktua dira *Profil* horiek, hainbat bereizkuntza (normalean, ez beti) dikotomikotan oinarrituz sortuak. Ikus dezagun nola:

- a) Ohiturik gaude, betidanik, ahozko eta idatzizko jarduna bereizten. Aho batez onartzen dugu, era berean, batak (ahozko jardunak) eta besteak (idatzizkoak) bereizgarri nabarmenak dituztela. *Medioa* esaten zaio horri soziolinguistikari, eta hala ageri da ikerlan honetan ere. Medio bakoitzaren bereizgarriak zein diren zehazterakoan sortzen dira nekeak eta, inoiz, kontraesanak. Eragozpen horiek gainditu nahirik, atal biko partiketaren ordean lau ataleko zati-banaketa proposaturik dute Peter Koch eta Wulf Oesterreicher irakasleek (Koch eta Oesterreicher 1985, 1990). Ohiko kategoriari, *medioari* alegia, beste kategoria bat (*kontzepzio* deitzen dutena) erantsi diote. Kategoria bi (medioa eta kontzepzioa) hartzen dituzte hortaz ikertzaileok oinarri, eta kategoria bakoitzean bi atal bereizten. Medioan, ohiko dikotomia mantentzen dute: ahozkoasuna batetik, eta idatzizko jarduna bestetik. Kontzepzioan, berriz, *hurbil/urrun* dikotomia aplikatzen dute. Lau ataleko sare-koadroa ateratzen zaie horrela. Münch-en beraren hitzetan esateko, lau *Bereiche*-ko modeloa da bere ikerlanaren jatorrizko matrizea:

C	D
A	B

- A: ahozko jarduera hurbila
 B: ahozko jarduera urruna
 C: idatzizko jarduera hurbila
 D: idatzizko jarduera urruna

Labur bilduz, *hurbil/urrun* dikotomia erantsi diote Peter Koch-ek eta Wulf Oesterreicher-ek ohikoari: *Nähebereich* eta *Distanzsprache* arteko bereizketa egin dute, bai ahozko jardunean eta bai idatzizkoan. Hori da eredu honen bereizgarri handi bat (13): bai aho-hizkuntzan dago mintzamolde urruna (ohiko mintzamolde hurbilaz gainera), eta bai hizkuntza idatzian dago idazmolde hurbila (ohiko urrunaz gainera). Lau ataleko zatiketa honek ez du, bistan denez, Fishman-en *elebitasun/diglosia* banaketa laukoitz famatuarekin zerikusirik. Gizarte edo hiztun-talde osoen karakterizazioarako konstruktua da hura. Hizkera-molde batean edo bestean alfabetatzen ari den gizabanakoaren mintzamen-idazmenak deskribatzeko formulazioa da hau.

Une bateko egoera deskribatzea ez da aski. Gaitasun-bilakaera nondik nora doan argitu beharra dago, alfabetatze-lana zer fruitu ematen ari den aztertu nahi bada. Denbora-ardatzaren kategoria dinamikoa sartu da horrela, bere elementu dikotomikoak *lehen/orain* izanik. Lau ataleko sare-taula zortzi elementuko matrizea bihurtu du zehaztapen horrek. Azkenik, ele biko hiztunaz ari garenez bikoiztu beharra ikusi da zortzi atal horiek, batean katalanerako eta bestean gaztelaniarako ezaugarriak txertatuz. *Hizkuntza* kategoriak egiten du bikoiztapen hori, zortzi ataleko taula 16 atalekora eramanez. Hiztunak bere mintza- eta idatz-jardunean bizi dituen *Wandelprozesse* edo bilakaera moduak zehazteko konstruktua da, horrela, hamasei ataleko sare-koadro hori.

C4	C2	D2	D4
C3	C1	D1	D3
A3	A1	B1	B3
A4	A2	B2	B4

Ez gara hemen atal bakoitzaren esplikazio zehaztutan sartuko, luzeegi joko bailiguke eta gaurko iruzkinaren asmoa besterik baita. Diogun, halere, 16 ataleko konstruktua horretan oinarritu duela Christian Münch-ek bere ikerlana, Kataluniako alfabetatze-bidearen analisi partikularrak modu uniformean egituratu eta azken ondorioak kontzeptualki sostengatzeko. Konstruktua teoriko

(13) Gauzak xeheago analizatze aldera *Nähesprachliche Praxis* edo *Gesprochene Näheprache* aipatzen da batetik, eta *Distanzsprachliche Praxis* edo *Geschriebene Distanzsprache* bestetik. Dikotomia ez da, esan bezala, ahozko/idatzizko adierazpideen artekoa.

horren argitan deskribatu ditu hainbat kasu partikular, eta kasu horietatik abiatuz gizarte mailako ondorioak ateratzen saiatu da.

I.4. Neurketa-lanaren zenbait ondorio

Zer ondoriotara iritsi da ikertzailea, Kataluniako Generalitat-en *Consorti per a la Normalització Lingüística (CPNL)* direlakoetan katalanez alfabetatzen ari ziren hainbat ikasketariri betearaziz bere galdetegia? Honako ondorio hauetara, besteak beste:

- a) Mintzajardunaren bestelakotze edo eraldatze-bideak aski ugariak eta diferentek dira, egungo Katalunian, idazmen-garapen horren ildotik. Idazmen-lanketak badu, hiztun horien mintzamoldean ere atzera-eraginik. Jakin beti jakin izan dugu hori: alfabetatu ahala gure «betiko mintzamoldea» bestelakotu egiten dela. Bestelakotze hori nolakoa, nongoa eta zenbatekoa den zehazten lagutzen du ordea konstruktuhonek: hori du bere abantaila. Orain xehe-xehe eman ezin ditugun (baina, gauza bera izan gabe ere, *language maintenance*, *spread*, *shift* eta *loss* kategoria soziolinguistikozentraletatik hain urrun ez dauden) *Kontinuität*, *Einrücken*, *Ausrücken* eta *Wechsel* elementu dinamikoez esplikatzeko dute, konstruktuhorren arabera, alfabetaturiko hiztunen bestelakotze hori (14).
- b) Bestelakotze horren ondorio nagusietako bat zera da: hizkuntza hotz-urruna espazio intimo-barrenkoietara zabaldu da, alfabetatze-lan hori delarik tarteko. Hori dio Münch-ek, zenbait adibide konkretu hartuz oinarri, sintesi moduko azken azalpenean: «Mit dem Einrücken in die Distanzsprachliche Praxis im Katalanischen ist grundsätzlich auch der Weg frei für einen wachsenden Einfluß der Distanzsprache auf die nächsprachliche Praxis (Münch, 2006: 223). Kontua ez omen da berria, ez eta Kataluniakoa soilik. Hala gertatu izan omen da lehenago, Europako beste hainbat hizkuntzatan ere: idazmolde hotz-urrunak bere eragina izan omen du eguneroko mintzamolde hurbilean, bertako hiztun-talde xeheak (ordura arte idatzizko harreman-sareetatik aski deskonektaturik bizi ohi zirenak) luze-zabal alfabetatu ahala (15).

(14) Orain arte ikusitakoaren arabera, *language maintenance* eta *Kontinuität*, *language spread* eta *Einrücken*, *language shift* eta *Ausrücken* eta, azkenik, *language loss* eta *Wechsel* dira kasuan kasuko uztarkideak. Berririo diogu, ordea: formalki antzekoak (oso antzekoak) izan arren, alde handia dago kategoriatu-multzo batetik (gizartekotik) bestera (norbanakora). Multzo biak nahasteak erabat desitxuratuko luke konstruktuhonea, eta ateratako ondorioek ez lukete behar bezalako oinarri empirikorik.

(15) Bere hitzetan esanik, «So führte die allgemeine gesellschaftliche Alphabetisierung schon in vielen Sprachen Europas zu einer mehr oder weniger stark ausgeprägten Reorganisation des Nähebereichs im Sinne einer stärkeren Orientierung an der Distanzsprache, auch in den, eigentlich, der gesprochenen Nähesprache zuzuordnenden kommunikativen Bereichen.»

- c) Lehendik gaztelaniaz irakurtzen eta idazten ikasiak izaki orain (1990eko hamarkadan) katalanez alfabetatzen saiatu diren gehienak, uste izatekoa zen baino eragozpen gehiago topatu omen dute horretan saiatu diren milaka katalan helduek. Alfabetatze-lan horrek izan dituen eragozpen horien iturri bila hasita, elementu ideologikoak aurkitu ditu batetik Münch-ek: askok diotenez, Kataluniako herri-aginteez behartu egiten dituzte katalanez idazten ikasi eta hizkuntzazko gaitasun-agiri bat (16) ateratzera. Hori dute motibo bakarra, edo nagusia, alfabetatze-ikastarora joan eta azterketara aurkezteko. Ez da hori, ordea, aurkitu uste izan duen eragozpen bakarra. Beste arazo-iturrietako bat zera omen da: hizkuntza katalan idatzi egokiaren norma estandarra «gora-egi» jarria dagoela. Orain arte nagusiki ahoz erabili izan den hizkuntzari ezarri zaion urrun-kontzepzio preskriptiboak markatuegi omen dago azterketen *ongi/gaizki* muga, eta kontzepzio horren nagusitasun gehiegizkoak ekartzen omen dizkio Kataluniako alfabetatze-bideari (bestelakoak aski izan ez eta) emendiozko zailtasun-nekeak. Etxetik katalan diren eta eguneroko mintzajardunean katalanez diharduten hiztun gehienek beren ahozko mintzamolde hurbilean duten gaitasun horri ez omen zaio behar lukeen zukua ateratzen horrela, eta erdi-bidean zintzilik gelditzen omen dira katalan-hiztun asko, bestela erraz jauzi egingo luketenak ahozko jardunetik idatzizkora. Hizkuntza idatziarentzat emandako zuzentasun-arauak, hori dela bide, lagungarri ordez enbarazo gertatzen ari omen dira Kataluniako alfabetatze-lanarako. Katalan *heavy/light* eztabaida osoa arazo horrekin loturik omen dago, horrekin bakarrik ez bada ere.
- d) Mintzamolde urrun-hotz horrek ez omen du, bestalde, jatortasun-marka gotorrik egungo eguneko katalan-hiztunengan. Ez omen dira katalan idatzi urrun horrekin behar adina identifikatzen. Ahozko mintzamolde hurbila omen da, funtsean, benetan berea sentitzen dutena. Beste hitzetan esanik, katalan urrun hori eskuratzeak ez omen die gainerako hiztunok bezala hain beharrezkoa duten jatortasun-oinarria nabarmenki indartzen.

II. HANGO ETA HEMENGO GERTAKARIEN KONPARAZIO-SAIOA

Zer esan dezakegu horretaz guztiaz, Euskal herritik begira? Ba ote dago Münch-en aurkikuntza horietan, guretzat ere argigarri den konturik? Antzera ote dira hemen ere kontuak, edota ba ote dago motiborik gurea «beste zerbait» dela uste izateko eta, beraz, ondorio horiei kasu handirik ez egiteko? Goazen pausoz pauso. Horrela,

(16) Bereziki *Nivell C* delakoa, oker ez banago Europako Erreferentzia Markoan ageri denarekin bat ez datorrena.

II.1. Aldeak

Bistan da, hasteko, hango eta hemengo egoera ezin direla erabat konparatu. Ez gizarte-egoerari dagokionean eta ez, bereziki, *language acquisition* delakoaren ikuspegi intralinguistikotik. Kataluniako alfabetatze-saio horietan behin eta berriz agertu diren ortografia zuzen erabiltzen ikasteko zailtasun-eragozpenak ez dira, hemen, urrundik ere maila berekoak. Aitzitik, sintaxiari ez zaio han aparteko garrantzirik ematen, Münch-en arabera: gaztelaniatik katalanera dagoen jauzia hain txikia izanik alor horretan, ulertzekoa ere da hori. Euskaraz idazten ikasi behar duenak, aldiz, bai etxetik euskaldun (nola-halako euskaldun) denak eta bai, bereziki, euskaldun berriak esfortzu handia egin behar du euskaraz (bai idatz-hizkera urrunean eta bai, agian nabarmenago, hurbilean) erraz eta zalu jarduten ikasteko. Alde horretatik, eta beste zenbaitetatik, oso kontuz ibili behar genuke hango emaitzak gure artera estrapolatzeko orduan. Zer gertatzen da, ordea, kontsiderazio intralinguistiko konbentzionaletatik ikusmolde sozio-linguistikoago horretara (Münch-ek bere analisiaren ardatz aukeratu duen horretara) hegaldatzen garenean?

II.2. Adierazmolde urruna mintza- eta idaz-molde hurbila jaten ari?

Egia ote da hemen ere, Katalunian bezala, eguneroko mintzamolde hurbila «hotz-urrun» bihurtzen ari zaigula? Egia ote da hizkuntza idatzia- ren zuzentasun-arauak gatz-piperrik gabeko hizkera-moldea indartzen ari direla? Ez nuke ezetz esango. Ez, behintzat, osorik eta erabat. Beldur naiz, guri ere ez ote zaigun beste horrenbeste gertatzen ari. Euskara hotz, urrun, inon-inoizkoa ez den bat eraiki dugu hainbat hamarkadaz, hobe beharrez. Hori eraiki dugu eta eguneroko mintzajardun arruntaren gozoa eta sotila, bizia eta malgua galdu dugu bidean. Ez da halako adibiderik bilatzea nekez. Ez da hori, ene ustez, gure arteko alfabetatze-lanaren berariazko ekarpena: ez da bere erru espezifikoa, inola ere. Alfabetatze-bideak ere, eragotzi ordez, indartu eta zabaldu egin du ordea joera hori. Milaka ikasleren (zehazkiago esanik, EGA edo HE2 aurrez eskuratua duten milaka irakasle euskaldunen) irizpen asmozko idazlantxoak irakurria naiz urteetan, oharrak ere jasoak eta idatziz emanak ditut hainbatean, eta ez dut uste ametsetan nabilenik. Münch-ek Katalunian antzeman duen fenomenoak ez da gure artean arrotz.

- a) Ondorio horretara iristeko ez daukagu, gainera, azterlan enpiriko sako- netara jo beharrik ezinbestean. Bilakaera horren oinarritzko zertzeladez jabetzeko, bederen, ez dago hain sistematikoki begiratu beharrik: egu- neroko esperientzia pertsonaletik eta eguneroko harreman-sareetan bizi dugun interakzio modutik hastea aski da, hainbatean. Garo-usainetik

urrundu beharrak (17) (eta inor gutxik ukatzen du euskarak, hainbatean, usain-gabetze horren beharra zuenik) beste punta-muturrera eraman gaitu sarri: idatzizko jardun inpersonal espositiboak bereak dituen esaldi modu eta joskerak ahozko jardunean txertatzera. «Egunero erosten duzun egunkariak zer esango zenidake» xumetik salto ederra egin dugu, alajainkoa, iaz irakurritako inkesta hartara, oker ez banago «egunerokotasuneko aldizkari-erosketarekiko zure irizpena» eskatzen zuen hartara. Eguneroko mintzamoldetik hurbil behar luke luze-zabaleko inkestak, benetako euskaldun-jendeak entenditu eta itxuraz erantzungo badu. Badirudi, ordea, errazegi «gainditu» dugula argi-errazulergarriaren koska hori. Ugari sortzen dugu esamolde bihurritik, hori dela-eta, behar denean eta ez denean. Etxerako ere aski gogoan hartze-koak dira, Münch irakasleak auzorako esandakoak. Zuzena da beraz, hainbatean, ikertzaile alemanaren diagnostiko hori (18): distantziazko jaso-formalean irabazi duguna eguneroko mintzamolde hurbilaren gazi-gozaan galtzen ari gara hainbatean.

- b) Zuzena izanik ere diagnostikoa, baliteke egiaren erdia baizik ez izatea diagnostiko hori. Gure artean zabaltzen ari den hizkera (eta idazkera) distante-hotz-katramilatua badu, izan ere, bigarren iturbururik: erdaratiko interferentzia. Adibide xume bati helduko diot berriro ere, buruan dudana hitz bitan azaltzeko (19). Aurtengo sagardo-garaia orain hasten dela-eta, hor egin du Euskadi irratiko esatariak bisita Astigarraga aldera. Bertara joan eta sagardogile bati egin dio elkarrizketa: aurtengo sagardoa «gorputz onekoa, aromatikoa eta gardena» izango den itxaropenik ba omen du honek; sagardo-edatera datorren «lagunen gehiengoa» gustura uzteko modukoa izango den esperantza omen du. «Aromatiko» kontua oraingoz alde batera utzita, bistan da sagardo «gardena» eskolak eman diola Astigarragako sagardogileari, ez gura-soetatik jaso duen hitz-altxorak eta bere adineko herritarren harreman-sare arruntean nagusi dabilen euskara-moduak. «Eskola» dioda-

(17) Gogoratu K. Mitxelaren esaldi famatua, euskararen batasuna zela-eta Arantzazuko biltzarerako prestatu zuen txostenaren sarrerakoan iltzatua.

(18) Horrek guztiak, azken ondorio gisa, guretzat ere kontuan hartzekoa iruditzen zaidan gogoeta-bidera ekarri du liburu-idazlea: «So wird auch heute von Schreibern des Katalanischen, trotz der, durch die Sprachpolitik herbeigeführten Repositionierung des Katalanischen in der Gesellschaft, und trotz ihrer eigenen Fortschritte im Bereich der graphischen Distanz des Katalanischen, die gesprochene Nähesprache von vielen als Inbegriff katalanischer Sprache, Kultur und Lebensart empfunden, die es auch wie vor sowohl gegenüber der Dominanz des Spanischen als auch gegenüber der katalanischen Distanzsprache zu bewahren gilt». Hots, katalan idatziak ez omen du, katalan alfabetatuen artean ere, katalanezko mintzoaren pareko balio-indarrik hizkuntzaren bidez katalan kultura eta bizimodu berariazkoa (hots, katalanezko jatortasun etnokulturala) aditzera eman eta sentiera biziz jasotzeko orduan.

(19) Atzo ilunabarrean Euskadi irratian entzundakoa da kasu hau. Atzoko kontua izanik, entzundako hitzartea osorik jaso dudala esango nuke. Aurrekoa ez bezala irratiko dokumentazio-gunean konprobatzerik balezake, seguruenik.

nean, irratiz hor nonbait antzeman zaion adin-buelta kontuan izanik «alfabetatze-lana» esan nahi dut bereziki: euskaltegiak, egunero (edo aldian behin) irakurtzen duen euskal egunkariak edo bataz zein besteak eskuratu dioten alfabetatzea. Münch-en karriletik genbiltzake, beraz, horraino: bere gurasoek nekez entzundako eta (sagardo konturako behintzat) inoiz erabili gabeko «garden» erantsia lioke, euskara idatzi jaso-urrunaz eskuratu duen ezagutza lagun, Astigarragako sagardogile horrek bere mintzamolde hurbilari. Zertara dator ordea, eta zergatik, horren ondoren ezpainetaratu duen «lagunen gehiengo» hori? Hori ere euskara idatzi hotz-urrunaren irrupzioa ote da? Hitzun garbia izanik gizaseme hori (20), eta hainbatean alfabetatua, zergatik ez du besterik gabe «lagun gehienak» esan? Ez dakit Euskal herri osoan gauzak nola diren. Astigarragan bai: erdarazko «la mayoría de X» euskaraz adierazteko, «X gehienak» esatearekin aski izan da orain arte testu-inguru horretan. Hots, «la mayoría de los marineros se ha quedado en tierra» adierazteko aski izan da orain arte «marinel gehienak lehorrean gelditu dira» esatearekin (21). Orain sortu zaigu joera, Astigarragan eta nonahi, «marinelen gehiengo» gora eta «marinelen gehiengo» behera jardutekoa.

- c) Zergatik? Seguru al gaude joera horren iturburua zein den? Egia ote da, Münch-ek esandakoaren ildotik, euskal «geschriebene Distanzsprache» dagoela joera horren iturrian, eta urrundik urrunerako idatz-hizkuntza hori ari zaiola ohiko (orain gutxira arte, kasik erabateko) euskal «gesprochene Nähesprache» delakoari (aurrez aurreko mintzoera arruntari) gaina hartzen? Ez ote genuke horrelakoetan, euskararen beraren barneko berrantolaketa baino gehiago, erdaratik interferentziaren eragin biziak hitz egin behar? Ez ote dugu gaztelania (urruna zein, bereziki, hurbila), ez euskara jasoa (nola-halako aldaera jasoa), gure mintzamolde arrunta erasaten ari zaiguna, lehenik eta behin (22)?

Nik baietz esango nuke, goiko kasu horretan eta horrelako beste hainbatetan. Hala esango nuke, eta ez nintzateke batere harrituko katalanarekin ere lautatik bitan halakorik gertatzen ari izatea. Katalan hiztunen elkarriketak (liburuak ugari biltzen ditu halakoak) berriro irakurri ahala ondorio horretara iritsi naiz. Eztabaidagai da hori, jaki-

(20) «Hitzun garbi»aren egungo eguneko langa orain dela ehun urtekoaren parekoa ez dela jakinik noski, aski euskaldun garbia iruditu zitzaidan Astigarragako gizasemea. Euskaldun zahar alfabetatua, nolabait esan.

(21) Ez naiz hemen euskalki batzuetan *gehien* hitzak (izana) duen hedadura semantikoaren kontuaz ari, hegoaldeko eta oraingo euskaldun gehienon mintzamolde arruntean hitz horrek duen esanguraz baizik.

(22) Ez dakit noiz konturatzen hasi behar dugun, euskarari leku gehien jaten diona ez dela gaztelania jaso-idatzia, hurbil-ahozkoa eta, beste maila batean, hurbil-idatzia baizik. Kontu horrek *Umgangssprache* delakoarekin duen harremanaz ikus, esate baterako, Holtus eta Radtke (1984).

na: ez naiz ikertzailearen ondorioa alderik alde dudatan jartzen ari, hainbat kasutan fenomeno bat baino gehiago lanean ari izan litezkeela iradokitzen baizik. Litekeena da, A ala B fenomenoak gertatzen ari izan ordez A eta B fenomenoak gertatzen ari izatea aldi berean. Interferentziak euskara urrunean eragin al du lehenik eta gero, Münch-ek dioen bidetik, interferentziaren ondorio hori mintzamolde hurbilera zabaltzen ari al da? Edota alderantziz? Denbora-pasa merkea irudituko zaio gogoeta moduko hori bati baino gehiagori. Ez naiz ni iritzi horretakoa: uste baino garrantzi handiagoa du mintzamolde arruntaren gesaltze-bidea nondik norakoa den jakiteak.

Mintzamolde urrun-hotz horrek berekin duen lotura afektiboa, eta pizten duen nortasun-jarrera, baliteke Katalunian bezala diferentziala izatea hemen ere. Jatortasun-marka, egungo egunean ere, baliteke ahozko euskara hurbilean kokaturik egotea eta hura izatea, funtsean, euskaldun-jendeak etnokulturalki «bere» sentitzen duen aldaera nagusia. Garrantzizko ondorioa da hori, guretzat ere, egia izatera. Bertsolaritzak gure artean (bi mende luzez bederen) izan duen eta egungo egunean ere euskaldun (batez ere euskaldun zahar) askoren artean duen arrakastaren iturburuetako bat hor legoke. Euskaldun-jende arrunta, ez ezinbestean elite intelektuala edo eskola-munduko profesional multzo jakina, liburuak baino gehiago erakartzen du orain ere kantuak, bertsoak eta mintzoak. Azken mende-laurden honetan alfabetaturiko euskaldun-jendeak ere lehentasun-molde hori duela uste dut nik, funtsaren funtsean. Hitzaren xarma hori ez da, Münch irakaslea mintzo, euskararen berezitasun huts. Guk baino tradizio literario zahar-aberatsagoa, eta guk baino alfabetatze-ohitura zabalduagoa, izandako Katalunian ere halako arrasto zabala aurkitu uste du berak. Ez genioke, hortaz, ondorio horri ere muzin egin behar.

Labur bilduz: on genuke guztiok, Christian Münch-en hipotesi horiek kontuan hartuz, mintzamoldearen eta idazmenaren berritze- edo bestelakotze-kontuok zertxobait zorrotzen, eta aldaera bakoitzaren argi-ilunak zehazten, saiatuko bagina. Arazo bat konpondu nahi denean, izan ere, diagnostiko zuzena egitea funtsezko aurrelana da.

III. MÜNCH-EN ZENBAIT BALIOESPEN SOZIOLINGUISTIKO

Katalan zahar eta berrien idazmena izan bada ere ikertzaile alemanaren aztergai nagusi, liburuak ez ditu alfabetatze-saio instituzionalaren emaitza linguistikoak (*acquisition planning* alorrekoak eta sortuz doan hizkera/idazkera molde urrunaren ezaugarriak) bakarrik analizatu. Hortik aurrera ere jo du berak, gorago aipatu dudanez, eta soziolinguistika katalanari errepasoa ere eman nahi izan dio. Aski errepaso kritikoa, egia esango badugu. Horrelakoetan maiz gertatu ohi denez konforme nago bertan esaten duen hainbat gauzarekin, eta dudatan utzi nau edo ez nau asebeste beste zenbaitetan. Aldeko eta kontrako

iritzi-ohar soilak eskaini nahi ditut hemen, kontuok zertxobait argitzen haste aldera. Konforme nago, oro har, Christian Münch-en balioespen biokin:

III.1. Aho-hizkuntza izandakoa idatz-langintzarako estandarizatzea (oro har, corpus-plangintza osoa) zeregin estralinguistikoa da aski neurri zabalean

Estandarizatze-lanaren eta *corpus-plangintza* osoaren atal estralinguistikoa berari azpimarratzen du liburugile alemanak. Horretan oinarriturik gogor kritikatzeko dituzte, une batez, Katalunian (eta, handik bueltan, hemen) indar berezia izandako ikuspegi teoriko batzuk. Hala dio 33. orrialdean: «die Tatsache, daß jede Norm nur dann erfolgreich sein kann, wenn sie durch ihre Sprecher angenommen ist und allgemeine Verwendung findet». Arrazoi osoa du horretan, nire iritziz: hizkuntza baten arau ortografiko, lexiko, foniko edo morfosintaktikoen arrakasta ez du arau horien «ontasun» intralinguistikoa (bakarrik, edo nagusiki) determinatzen, bere gizarte-onarpenak baizik. Arauak arrakasta izango badu, onartu egin behar dute hiztunek. Araua ikasi egin behar dute, eta luze-zabal erabili: minoria soil baten jarduna ez da horretarako aski. Horrek, jakina, zehaztapen intralinguistikoez gainera kontsiderazio soziolinguistikoa eta glotopolitikoak aintzakotzat hartzea eskatzen du.

Status-plangintzatik aparte garaturiko corpus-plangintza orok berekin duen arriskua erabatekoa da: paperean, paper hura idatzi duenaren lotsagarri, iltzaturik gelditzeko arriskua, hitzun gehienek ezpain-lumetan txertatu gabe. Ninyoles-en 1971ko aipamen famatu batean oinarrituz, Fishman-en aspaldidandiko argudio nagusietarikoa zurkaizten du Münch-ek: alferrik da «hizkuntza ederrak honelakoa, horrelakoa edo halakoa» izan behar lukeela esatea eta «hizkuntza eder» horren eredu teorikoa eskaintzea, eredu horretaz baliatu behar lukeen hiztun-elkarteak (horren beharrik handiena duen elkarte horretako zenbait harreman-sarek eta hiztun-idazle multzok bereziki) eredu hori gogoko ez badu, zuzen erabiltzen ikasten ez badu eta, bereziki, eguneroko jardun arruntean halaxe egiten ez badu. Joera handia dugu euskaldunok, are hizkuntza-soziologiaren alorrean dihardugunok, egia zorrotz hori alde batera utzi eta araguitzaren kontua, langintza horren parte zentrala eta ia bakarra, hiztegiak, gramatikak eta estilo-liburuak egin eta argitara ematea dela uste izateko. Garrantzitsua hori dela eta hortik aurrerakoa gauza xumea dela uste izan ohi dugu sarri. Xumea eta, beraz, adituon interesa eskatzen ere ez duena.

Ederra litzateke kontua, jakina, gauzak horrela balira: dagokionak (Euskaltzaindiak, azken finean) erabaki bitza erabaki beharrekoak (ortografia, hitz-altxor orokor eta espezializatua, gramatika eta ahoskera) eta euskaldunok, zintzo eta fite, hark erabakitakoak bete ditzagun bururik buru. Horra hor arazo guztiak konpondu. Ederra litzateke. Kontuak ez dira horrela, ordea, ez gure artean eta ez mundu zabalean. Münch-en irakatsiak lagundu egiten digu

egia horretaz jabetzen. Lehendik jakiteko motibo sendorik bagenuen ere, ezizusia egiten diogun egia latz hori begien bistaratzen digu berak, katalan-hizkuntza eta hango alfabetatze-saioa hizpide harturik. Hizkuntza baten normatibazioa ez da arauak eman eta argitaratzea soilik. Hori baino mila aldiz konplexuagoko fenomeno soziokultural eta politiko-instituzionala da, gehiegiatan ahazten badugu ere, hizkuntzaren barne-normaltze hori.

III.2. *Normalització lingüística*-ren mugak eta flakeziak

Katalanek sortua da, gorago esan denez, *Normalització lingüística* delakoa: bai hitza eta bai, bereziki, kontzeptua. Haien zordun gara gu, bete-betean, *hizkuntza-normalkuntzaz* dihardugunean. Erreferentziazko kontzeptu zentrala izan da *normalització lingüística* hori, Katalan-herrietan eta gure artean. Egia da Georg Kremnitz batek aspaldi azertu zuela kontzeptua, eta bere zenbait muga agerian jarri. Azken urteotan ugaritu egin dira ordea, aleman-hizkuntzako mundu akademikoan, gaiari aurrez aurre heldu eta balioespen kritikoak erantsi dizkieten adituak. Horietarikoa dugu, bete-betean, Christian Münch.

- a) definizioaren lausoa: Katalanistikaren esparruan hizkuntza-normalkuntzak izandako zenbait formulazio ahul definiturik dago, bere ustean. Definizioaren ahulaz edo, zehazkiago, lausoaz kexatzen da bera. Ninyoles hartzen du berriro aipagai, soziolinguista valentziarraren esaldi honen lausotasun kontzeptuala azpimarratuz: «la normalització comporta sempre la consciència d'aquella distància que cal recórrer, d'un camí que (...) ens porta d'»allò que som» a «allò que deuriem esser» (23). Zer da ordea, praktikan, «allò que deuriem esser»? Nora eramango gaituen ez dakigun trena hartzea noraino da zuhur? Ez zaio arrazoirik falta, hainbatean: hizkuntza-politikaren bizkarrezur osoa *hizkuntza-normalkuntzan* oinarritzen baldin bada, han (Katalunian) eta hemen, eta ekimen horren helburua zehaztu gabe baldin badago propos, zertarako balio digu bizkarrezur horrek? Badago hor koska bat, errazegi gainditu uste ohi duguna baina eguneroko praktikan, besterentzat bezainbat guretzat, behaztopa-harri sakon gertatu ohi dena. Inportantea da, zinez, hizkuntza-normalkuntzaren hainbat definizioen izaera lauso horretaz jabetzea eta definizio horietan «self-fulfilling prophecy» direlakoek duten lekuaz jabetzea, zertan ari garen, zergatik eta zertarako, begien bistatik galduko ez badugu. Arrazoi ematen diot horretan.

Nik ez dut uste halere, eta baliteke horretan Münch-ekin bat ez etortzea, lausotasun hori ahuldadea denik ezinbestean. Ez beti, behintzat. Konstruktu teoriko horrek gizarte-giroa du oinarri, ezinbestean. Gizar-

(23) Ikus Ninyoles 1976, 76. or., in Münch, 2006: 34.

te-giro hori ez da inoiz uniforme, batetik. Gizarte horretan eragiten duen *Zeitgeist* delakoa ere aldatuz joan ohi da, bestetik: hizkuntza-normalkuntzari buruzko iritzi-jarrerak eta jokamolde nagusiak ere aldatuz joan ohi dira, hori guztia dela medio. Gizarte-giroa aldatzen den neurrian, irismena eta orientazioa ere gutxi-asko aldatu beharra du lekuan lekuko hizkuntza-normalkuntzak, bide-bazterrean galdurik geldituko ez bada. Aldatuko bada, berriz, lagungarri ordez enbarazo ditu azken helburuen definizio zurrun-zehatzak. Ahuldade-arriskua bezainbat malgutasun-iturri ere bada, hortaz, lausotasun hori. Malgutasun-iturri da eta ez da, besterik gabe, gutxiestea komeni.

- b) Konfliktu-burrukaren formulazioak ahuldu egin ditu gainerako azterbideak. Hizkuntza-normalkuntzak bezala, aparteko lekua izan du *language conflict* kontzeptuak Katalunian oro har, eta bertako soziolinguistikan bereziki. Oso erakargarriak dira, alde horretatik, Jordi Bañeres-en eta Joan Maria Romani-ren testu jakinak aipatuz Münchek (2006: 35) esaten dituenak. Funtsezkoa iruditzen zait bereziki, bere ikuspuntuaren abiaburu delako, Argenter-ek 1991n, *Institut d'Estudis Catalans*-en osoko bilkuran, azaldutako hura: «Fins i tot el desplegament d'una disciplina com la sociolingüística catalana s'ha centrat obsessivament en l'anàlisi del conflicte català/castellà o català/francès i de categories que en deriven; poc ha contribuït en canvi a fornir-nos un coneixement científic de les diverses varietats del nostre repertori verbal i de l'estratificació sociolingüística de la nostra comunitat» (Argenter, 1991: 15).

Ez du Argenter-en esaldi horrek, nire ustez, *language conflict* kontzeptuaren garrantzia eta izaera ezabatzen. Bai, ordea, aztertu beharreko gauzak asko direla gogorazten, eta azterbide osoa puntu batean zentratzea kaltegarri izan litekeela azaltzen. Arazoen aniztasunaz jabetu beharra, eta horretarako ikuspegi zabalaz jokatu nahia, oso da arrazoizko. Hala da oro har, hizkuntza-politika aztertzerakoan. Halaxe da esparru konkretuagoak ikertzerakoan ere: helduen alfabetatze-lanaren zergatikoak, zertarakoak, nolakoak eta norainoakoak oso dira berariaz landu beharreko gaiak. Gure alorreko alfabetatze-esparrura etorritz, adibidez, ikasketarien eta agiridunen kopuru-kontuen analisia ezinbestekoa da, langintza osoaren gizarte-dimentsioa begien bistatik galduko ez bada. Análisi kuantitatibo hori hankamotz gelditzen da, ordea, lortzen ari diren emaitza kuantitatibo horiei balorazio kualitatiboa eransten ez bazaie. Balorazio kualitatibo horretan zentratzen da, hain zuzen, München lana. Zer-nolako katalan alfabetatuak ari gara sortzen? Zertarako gai dira katalanez, eta zertarako gaztelaniaz, beren idatzizko jardunean? Zer-nolako katalana sortzen ari da horien lumatik? Zer eragin du katalan idatzi «berri» horrek katalan-jendearen ohiko mintzajardunean? Zer-nola eragiten dio horrek, azkenik, alfabetatu berri horien katalan-hizkuntzarekiko atxikimendu-moldeari?

IV. ASEBETE EZ NAUEN ZENBAIT PUNTU

Normala ere denez, liburua irakurtzerakoan ez naiz beti-beti konforme sentitu egileak bertan dioenarekin. Iritzi diferenteren bat azaldu dut dagoeneko, puntu jakinen batean edo bestean. Bada ordea liburuan, ohar xume horiezaz gainera, printzipiozko desadostasunik eragin didan konturen bat edo beste. Horren berri eman zahi nuke hemen, iruzkinari amaiera eman aurretik.

IV.1. Soziolinguistika ez omen da hizkuntza idatziaz ezer asko arduratzen

Bere hitzetan esanik, «Schreiben und Schriftlichkeit sind keine traditionellen Themen der Soziolinguistik (24)». Ez nuke nik horrelakorik hain erraz esango. Egia da soziolinguistikak (batzuek, Fishman-en bidetik, *hizkuntza-soziologia* deitu ohi dugunak) mintzajardunaren gizarte-moldaera duela aztergai nagusi. Hori duela aztergai nagusi eta, horren barruan, oso berariaz ikertzen duela nork-norekin-noiz-zertaz darabilen hizkuntza edo aldaera bat, eta noiz bestea. Egia da orobat, Münch-ek zuzen dioenez, hizkuntzaren forma normalduarekin (idazterakoan nagusi den forma batu edo estandarrekin) aski nola-halako ezkontza (bai eta ezkon-ondoko egonezina) duela hizkuntza-soziologiak. Ez da harritzekoa: jendeak *egiten duena* hartzen badugu soziolinguistok aztergai nagusi (ez *egin behar lukeena* edo *oinarri-oinarrian*, *bera konturatzen ez bada ere*, *egiten ari-edo dena*) ahozko jarduna aztertu beharko dugu lautatik hirutan. Lautatik hirutan edo, segun noiz-nola, hamarretatik bederatzietan. Hizkuntza idatzitik oro har, eta hizkuntza idatziaren forma bateratutik bereziki, urundu egin du eskakizun horrek hizkuntza-soziologia.

Urruntzeak ez du esan nahi, ordea, hizkuntza idatziari (idatziari oro har, eta forma idatzi kanonikoari bereziki) bizkar ematen dionik soziolinguistikak. Ez zion bizkar eman lehen, hasierako urteetan: aizu bekit hemen Münch-ek, zergatik ez dakidala, bazterrera utzi dituen Heinz Kloss, Einar Haugen eta Uriel Weinreich aipatzea (25). Eta ez dio bizkar eman geroztik ere: aparteko atentzioa jasoa du idazlangintzaren gizarte-moldaerak, 1964ko Bloomingtongo bileraz geroztikako soziolinguistika akademikoaren jardunean. Tesigileak puntu horretan dioena orpo orpo onartzeak *corpus planning*-en hainbat ekarpen eder alde batera uztea eskatuko luke: barrenak ez dit halakorik

(24) Itzulpen libreaz, «idazte-lana eta idatzizko jarduna ez dira soziolinguistikaren aztergai mami izan»

(25) Bazterrera utzi izate hori are da nabarmenago ikertzaile «zahar» horien lanak hizkuntza-normalkuntzaren pareko (edo ez oso bestelako) kontestu geo-linguistikoetan oinarritu zirelarik eta, beraz, Kataluniako azterlanaren konparazio-gune balios gerta zitezkeelarik. Kontua are da harrigarriago aurrelari horiek kultura alemanean edo, oro har, germanikoan txertaturik daudenez. Izango du kontuak, seguru nago horretan, bere motiboa: nire ezjakinak ez du, noski, aparteko baliorik.

agintzen. Baliteke Münch-ek esan nahi izan duena nik gaizki ulertu izana. Neurea litzateke kasu horretan okerra. Esan nahi duena ongi jaso badut, aldz, ez nago esaldi horrekin konforme.

IV.2. Soziolinguistika katalanaren motibazioak

Inork ez du ukatzen, ez hemen eta ez Europan, soziolinguistikak harrigarriko garapena izan duenik Katalunian. Arrazoizkoa da, horregatik, garapen horren zergatikoak argitu nahi izatea. Zergatik hainbat garatu den edo, gutxienez, garapen hori zerekin lotuta ageri den. Christian Münch-en ustean (2006: 34-5) Kataluniako gizarte-bizitzan hizkuntza-politikak hartutako pisua izan da soziolinguistika katalanaren garapen akademiko horren motibo nagusi.

Ez nago batere seguru, soziolinguistikak Katalunian izan duen garapen akademiko-unibertsitario (bere esanean) harrigarriak motibazio politiko-instituzional hori izan duenik batik bat. Hizkuntza-politika eta hizkuntza-normalkuntza askotan elkarren eskutik dabilta. Baina horrek ez du esan nahi, soziolinguistikak Katalunian izan duen garapen akademiko-unibertsitarioak motibazio hori izan duenik justu-justu. Ez daukagu urrutira begiratu beharrik, puntu horretan epaia errazegi eman dela ikusteko. Hemen gaude euskaldunok, aski antzeko inguramen politiko-instituzionalean eta han bezain hizkuntza-kontu larriarekin. Ezin esango dugu polarizazio politikoa nabarmenki txiki-agoa denik hemen: diferentea bai, agian, hainbat ikuspegitatik begiratzen bada kontua; txikiagoa, ordea, nekez. Herri-aginteen baliabide material eta instituzionalak ez dira hemen han baino ahulagoak, kontzertu ekonomikoa dela medio.

Han posible izan dena ezinezkoa gertatu da, ordea, hemen: ez soziolinguistika-instituturik sortu dute EAEko herri-aginteeek, eta ez hangoen usainik ere lukeen hizkuntza-soziologiazko katedra-sararik sortu da hemengo unibertsitate publiko eta pribatueta. Ez dakit zerk esplikatzen duen ongien, katalan-herrialdeetako loraldi soziolinguistiko unibertsitario-akademiko handia eta gure (haien aurrez aurreko) lehorte. Zergatik gertatu den ez dakit. Azken mende-laurdeneko instituzionaltze politikoaren ondorio huts ez dela izan uste izateko badugu, hori bai, behar adina elementu.

V. AZKEN OHARRAK

Aski luzatu naiz dagoeneko, eta horrela beharko du gaurkoz. Argitalpen inportante bat dugu eskuartean. Egia da ez dela gutaz mintzo, katalanez baizik. Egia da, orobat, Kataluniako gertaera soziolinguistikoren atal bat aztertzen duela nagusiki, ez egoera osoa. Erakargarria da, ordea, Münch-ek egin duen azterlana eta handik atera duen zenbait ondorio. Egin dizkiodan puntualizazio-

ek ez dute, bistan da, bere ekarpenaren mamia indargabetzen. Zer pentsatua ematen dute, oro har, bere ikuspegiak eta zenbait ondoriok. Hemen ere halako azterbideak bultzatzeko gogoia pizten dute, bestetik.

Hizkuntza-normalkuntzaren gaineko eztabaida teoriko sendoa izan da (eta egungo egunean ere ari da gertatzen) Katalunian, bertako adituak, normalkuntza-zaleak, detraktoreak eta herri-agintarien artean. Eztabaida eta buru-lantze horien jakitun da Münch; horien zordun ere bai. Bere liburuan oihartzun ozena dute kontu horiek guztiek. Oihartzun ozena dute eta, funtsaren funtsean, kezka bizi baten lekuko ditugu: katalana indarberritzeko saioa, 1980tik aurrera instituzionalizatua, nahi eta uste bezain ondo ez doan seinale (26). Aparteko garrantzia aitortu behar genieke, horrexegatik, adituen arteko eztabaida horiei. Atentzio handiz aztertu behar genuke batzuen eta besteen argudio-bidea, geure burua itsutu nahi ez badugu eta besteren bizkar ikasten ahalegintzeko prest baldin bagaude. Gu baino aurrerago doaz katalanak hizkuntzaren gizarte-dimentsioari dagozkion hainbat gauzatan, eta haien argi-itzalak bide-erakusle izan behar genituzke. Ez dago honetan ere, egia da hori, mimetismo hutsez jokatzetik. Uste baino tarte txikiagoa dago gainera, hainbat alorretan, haien eta gure ekimenen artean. Badago zer ikasia ordea, ugari, eta ez genuke aukera eder hori alde batera utzi behar. Münch-en lana, beste hainbatena bezala, lagungarri ederra dugu horretarako.

BIBLIOGRAFIA LABURRA

- AMMON, ULRICH, NORBERT DITTMAR eta KLAUS MATTHEIER (arg.) (1987) *Soziolinguistik. Ein internationales Handbuch zur Wissenschaft von Sprache und Gesellschaft*. 1. alea. Berlin: de Gruyter.
- ARGENTER, JOAN (arg.) (1991): *Debat sobre la normalització lingüística. Ple de l'Institut d'Estudis Catalans (18 d'abril 1990)*. Barcelona: Institut d'Estudis Catalans / Secció Filològica.
- (2000): «Kodifikations- und Normalisierungsprozesse. Wechselverhältnisse und Widersprüche», in *Grenzgänge. Beiträge zu einer modernen Romanistik* 7, 96-115.
- AZEVEDO, MILTON, ALBERT BASTARDAS, EMILI BOIX eta PAUL O'DONELL (arg.) (1995-1997): *Sociolinguistics*, North American Catalan Society (= *Catalan Review* IX, 2)
- BADIA I MARGARIT, ANTONI (1969): *La llengua dels Barcelonins. Resultats d'una enquesta sociològic-lingüística*. Barcelona: Edicions 62.

(26) Ikus, beste askoren artean, Albert Branchadell (1996), Maria-Lluïsa Pazos i Noguera (1990), Miquel Strubell (1999) eta Francesc Vallverdú (1995).

- BRANCHADELL, ALBERT (1987): «Normalització Lingüística: el concepte», in: *Límits* 3, 21-43
- (1996): *La normalitat improbable*. Barcelona: Empúries.
- GÜNTHER, HARTMUT eta OTTO LUDWIG (arg.) (1994): *Schrift und Schriftlichkeit. Ein interdisziplinäres Handbuch internationaler Forschung*. 1. alea. Berlin: de Gruyter
- HOLTUS, G. eta E. RADTKE (1984): «Der Begriff «Umgangssprache» in der Romania und sein Stellenwert für die Iberoromanistik», In Holtus, G. eta E. Radtke (arg.). *Iberoromanistik in der Romania. Festschrift für Heinz Kröll*. Tübingen, 1-22.
- JOAN I MARÍ, BERNAT (1996): *Les normalitzacions reeixides. Aproximació a l'estudi de la construcció de llengües nacionals a l'Europa del segle XX*. Barcelona: Oikos-tau
- KOCH, PETER eta WULF OESTERREICHER (1985): «Sprache der Nähe – Sprache der Distanz. Mündlichkeit und Schriftlichkeit im Spannungsfeld von Sprachtheorie und Sprachgeschichte», in *Romanistisches Jahrbuch* 35, 15-43.
- (1990): *Gesprochene Sprache in der Romania: Französisch, Italienisch, Spanisch*. Tübingen: Niemeyer.
- (1994): «Schriftlichkeit und Sprache», in Günther/Ludwig 1994, 587-604.
- KREMnitz, GEORG (arg.) (1979): *Sprachen im Konflikt. Theorie und Praxis der katalanischen Soziolinguisten. Eine Textauswahl*. Tübingen: Narr (=Tübinger Beiträge zur Linguistik, 117)
- MARTÍ I CASTELL, JOAN (arg.) (1991): *Processos de normalització lingüística: l'extensió d'ús i la normativització*. Barcelona: Columna.
- MÜNCH, CHRISTIAN H. (2006): *Sprachpolitik und gesellschaftliche Alphabetisierung*. Frankfurt am Main: Peter Lang.
- NINYOLES, RAFAEL LLUIS (1971): *Idioma i prejudici*. Palma de Mallorca: Moll.
- PAYRATÓ, LLUIS (1996): *El català col.loquial. Aspectes de l'us corrent de la llengua*. València: Universitat de València
- PAZOS I NOGUERA, MARIA-LLUÏSA (1990): *L'amença del català light*. Barcelona: Tibidabo.
- RUIZ, FRANCESC eta BESTE (1996): *Història social i política de la llengua catalana*. Barcelona: Eliseu Climent

- SOLÀ, JOAN (1985): *Del català incorrecte al català correcte. Història dels criteris de correcció lingüística*. Barcelona: Edicions 62
- STRUBELL, MIQUEL (1999): «Societat i normalització lingüística», in bera eta beste (arg.) *El Català. Un debat a finals del segle XX. De la normalització a la normalitat*. Barcelona: La Busca
- VALLVERDÚ, FRANCESC (1995): «Linguistic Normalization and the Extension of the Use of Catalan», in Azevedo, Bastardas, Boix eta O'Donell (arg.) 61-76.

Recuperación del Euskera en Navarra:
EUSKARAREN BERRESKURATZE ITXAROPENTSUA
NAFARROAN

Andres Iñigo,
Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria

Euskaltzaindiaren *Jagon* Bilduma berrituaren lehendabiziko zenbakia da eta eskaintzen den lana Miquel Gros i Lladós jaunaren eskutik datorkigu. Gros jauna abokatua da ogibidez eta katalana sortzez eta bizilekuz. Gaztaroan, ordea, zenbait urtez Iruñean bizitzea tokatu zitzaion eta, liburu horretan ikusten den bezala, ez zuen alferrik galdu Nafarroa ezagutzeko izan zuen aukera. Ondotik, Kataluniara itzuli aurretik, unibertsitateko ikasketak zirela eta, Andaluzian pasatu zituen urte gutxi batzuk aski izan zituen konturatzeko berak ezagutu zuen Nafarroa ez zettorrela bat Estatuko bertze zenbait herrialdetako jendeak Foru Komunitateaz zuen informazioarekin. Izan ere, Nafarroaz gutxi jakiteaz gain, hemengo errealitatea desitxuratzen duten zenbait estereotipotan oinarritutako aurreiritziak zituztela ikusi zuen, eta, bertzeak bertze, nafarrak ez direla euskaldunak edota euskara ez dela Nafarroako hizkuntza.

Orduan gogoratu zitzaion hain hedatuak dauden ezjakin, aurreiritzi eta interpretazio interesatu haiei aurre egiteko modurik egokiena datu objektibotatik oinarritutako errealitatea ezagutzera ematea zela, eta xede hori lortzeko biderik zuzenena eta baliagarriena nafarrek diotena azalaraztea. Bide horri ekin zion eta nafarrek udal erroldetan euskararen ezagueraz ematen dituzten erantzunak banan-banan aztertzea erabaki zuen. Dakigun bezala, Nafarroan 1986ko erroldan egin ziren lehenbiziko aldiz euskararen ezaguerari buruzko galderak eta gauza bera egin da hurrengoetan, 1991, 1996 eta 2001ekoetan, alegia.

Azterketa horien emaitza da Gros jaunak liburu horretan eskaintzen diguna. Aipatzekoa da egileak lan hori burutzeko aplikatu duen metodologia. Alde batetik, lau errolda horiek udalez udal eta banan-banan aztertu ditu; hortaz, oinarri sendoko lana da, Nafarroako biztanle guztien datuak –ehuneko ehunenak– jaso eta aztertu baititu. Bertzetik, emaitzak eskualdeka, azpi-eskualdeka eta udalez udal aurkeztu ditu eta Nafarroa osoako ere bai. Emaitza horiek koadro eta mapetan irudikatu ditu eta islatzen duten errealitate sozio-linguistikoa koloreen arabera mailakatu, ahalik eta ulerterrazena izan dadin. Azkenik, euskara jakiteari dagozkion emaitzak modurik zehatzenean azaltze-

MIQUEL GROS I LLADÓS

Recuperación del Euskera en Navarra



Jagon  *Saila*

EUSKALTZAINDIA

arren, egileak bi kategoriatan sailkatu ditu nafarrak: *vascofonoak* –euskara ulertzeko gai direnak– eta *euskaldunak* –euskaraz aritzeko ere gai direnak–.

Euskarak Nafarroan azkeneko hogeita bost urteetan, irakaskuntzaren bitartez batik bat, izan duen bilakaeraren erakusleia da liburua. Bertan ikus daitezke emandako urratsak, oro har, handiak izan direla, euskararen lege murriztailetik espero zitekeen baino anitzez hobeak. Hori egiaztatu ahal izateko aski da 1986 eta 2001 bitartean, Nafarroako gizarteak emandako erantzunari esker, izan den datuen bilakaerari erreparatzea. Erraterako, Nafarroa osoan euskaldunen (euskaraz aritzeko gai direnen) kopurua 2 puntu igo da (%10'1etik %12'1era). Zenbait eskualdetan, ordea, igoera puntu horiek nabarmenki altuagoak dira, hala nola, Burundan 7'5, Bortzirietan 7'7, Baztanen 4'8, Iruñerrian 3'2, Etxauribarren 7'7, Estellerrian 2'7, Ameskoa-Allin ibarretan 8'3, Zaraitzun 5'4, Erronkaribarren 7'7, eta oraindik gehiago eskualde horietako zein bertze batzuetako herrietan, Ziordian 16'3, Altsasun 10'2, Beran 9'3, Urdazubin 18'2, Atarrabian 8'2, Barañainen 4'7, Etxaurin 9'2, Agoitzen 9'6, Irunberrin 4'6, Zangozan 3'7, Tafallan 2'8, Otsagabian 5'3, Izaban 12'9, Sartagudan 3'9, Vianan 4'6.

Biziki interesgarria da egileak 2001eko erroldako datuekin egin duen 25 urtetik beherakoen azpi-sailkapena, eta interesgarriagoa oraindik egiaztatu ahal izatea zein den leku bakoitzean 15 urtetik beherakoen artean euskara dakitenen ehuneko kopurua. Nafarroako kopuru orokorra, 1986 eta 2001 bitartean 2 puntu igo ondotik, ehuneko 12'1ekoa baldin bada, 15 urtetik beherakoena 21'3ekoa da. Begi bistakoa da igoera nabari hori D ereduko irakaskuntza publikoari eta ikastolei zor zaiela. Ehuneko horiek izugarri nabarmendu dira zenbait eskualdetan, bertzeak bertze, Burundan 63'1, Iruñerrian 19'9, Etxauribarren 58, Estellerrian 24'1, Zaraitzun 36'6, Erronkaribarren 36'6, Ameskoa-Allin ibarretan, 28'3, eta gauza bera begiztatzen ahal da eskualde horietako herri nagusienetan eta bertze zenbaitetan, erraterako Ziordian 83'3, Altsasun 57'1, Iruñean 18'3, Etxaurin 56'4, Lizarran 30'3, Otsagabian 38'5, Erronkarin 36'7, Agoitzen 53'3, Irunberrin 31'7, Zangozan 16'7, Tafallan 12'2, Sartagudan 22'7, Vianan 21'7.

Euskararen biziraupenerako lehen eta oinarritzko urratsa den aldetik, orain dela hogeita bost urteko errealitatearekin konparatuz, egoera berri eta itxaropentsu baten aitzinean gaudela egiaztatzen digu lan honek. Hori ukazina da, baina, aldi berean, argi izan behar da datu hauek euskararen jakitera mugatzen direla. Bertze kontu bat da –lan honetatik kanpo geratzen dena–, euskararen erabileraren garapena Nafarroako gizartean, euskararen benetako biziraupenerako jakitetik erabiltzera eman beharko baita urratsa, eta hizkuntzaren presentzia familia, lagunarte, karrika, kultura gunee, aisialdi, administrazio zerbitzu, lantegi, komunikabide eta abarretan bermatu eta harremanetarako tresna izatera iritsi. Eskolara soilik mugatuz eta bertze eremu horietara hedatzen ez bada, bistan da euskararen iraupenak jai daukala.

Dena dela, Gros jaunak eskaini digun lana planteamendu berriak egin ahal izateko oinarri sendoa eta abiapuntu justifikatua da. Egun indarrean dagoen

euskararen eremuen mapa, behinik behin, erabat zalantzan jartzen du, begi bistakoa baita orain dela 21 urte onartu zen mapak, gaur eguneko datuekin egin izan balitz, bertze banaketa bat izanen zuela, lan honen egileak aditzera eman eta proposatzen duen bezala.

Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak, argitalpen honen bitartez, denek eskura jarri nahi izan ditu Miquel Grosen eskutik jaso dituen Nafarroako euskararen berreskuratze prozesuaren emaitza zehatz eta interesgarriak. Aldi berean, espero du euskararen errekupeazioaren egungo egoera hau kontuan hartu eta abiapuntu izatea hemendik aitzina eratu beharko lirakekeen hizkuntza plangintzetako hausnarketetan, eta bereziki sortu berri den Euskararen Nafar Institutuaren eskutik abian jarri nahi diren ekimenetan.

EUSKARAREN BERRESKURATZEA NAFARROAN

*Patxi Juaristi,
soziologoa*

Uka ezina da euskararen inguruan aldaketa garrantzitsuak gertatzen ari direla. Euskaldun kopuruaren hazkundea, D ereduaren hedakuntza, hiriburuetako euskaldunen ugaritzea, euskaldun berrien fenomenoa... Franco hil ostean euskararen mundua eraldatzen hasi zen, eta, nire ustez, oraindik eraldaketa prozesu horretan guztiz murgildurik gaude, etorkizuna nolakoa izango den zehatz-mehatz ez dakigularik.

Testuinguru honetan, garrantzitsua da non gauden eta nora goazen ezagutzea, iparra non dagoen ez ahazteko. Euskararen inguruko azterketak, gogoetak edota iritzi trukaketak ezinbestekoak dira, datorkiguna aurreikusteko, behar bezalako erabakiak hartzeko eta euskara eta euskal kultura aro postmodernoa inolako trauma eta konplexurik gabe sartzeko.

Horregatik iruditzen zait interesgarria Miquel Gros i Lladós-en liburua: *Recuperación del Euskera en Navarra*. Izan ere, 1986tik Nafarroan euskarak izan duen bilakaera, gaur egun duen egoera eta aurreikusi daitekeen etorkizuna zehatz-mehatz aztertzen ditu, eta gai honen inguruan gogoeta sakona egitera bultzatzen gaitu; eta, bide batez, euskararen inguruan Nafarroan gertatzen ari denari buruzko hainbat mito apurtzen dizkigu.

Miquel Gros i Lladós-ek 1986, 1991, 1996 eta 2001eko erroldetako datu soziolinguistikoa aztertu ditu, eskualdez eskualde. Alegia, nafar guztiek euskaraz hitz egiteko duten gaitasuna ikertu du, bi urtetik beherakoak kenduta. Beraz, agertzen dituen ondorioak populazioaren datuetan oinarrituta daude, eta ez dute laginketa errorerik. Beste hitz batzuekin esanda, Nafarroako eskualdeetan euskararen inguruan gertatzen ari denaren argazki fidagarria eta osoa eskaintzen digu.

Aurkezten dituen datu eta ondorioen arabera, ez dago zalantzarik euskara berreskuratzen ari dela Nafarroan. Franco hil osteko urteak izan ziren txarrenak euskararen osasunari dagokionez, baina 1985. urtetik aurrera gauzak aldatzen hasi ziren, eta euskaraz hitz egiteko edonolako gaitasuna dutenak (Miquel Gros i Lladós-en hitzetan «vascofonos») zein euskaraz ondo hitz egiteko gai direnak (euskaldunak) ugaritzen joan dira. Eskualde ia guztietan, euskarak progresio geometrikoa erakusten du.

1986an, Nafarroako 16 eskualdetako biztanleriaren %10ak euskararen edonolako ezagutza zuela adierazten zuen (Gros-en hitzetan «vascofonos» ziren), eta, gaur egun, 32 eskualde dira egoera horretan daudenak.

Euskaldunen edo euskaraz ondo hitz egiteko gai direnen kopuruak ere gora egin du 1986tik. Bereziki azpimarragarriak dira Burundako datuak, Agoitzaldekoak, Erronkarikoak, Ameskoa-Allin ibarretakoak, eta Etxauribarrekoak, inguru horietan hamar puntu inguru igo delako euskaldunen kopurua, eta eskualde gehienetan igoera %5ekoa izan delako. Hala ere, lanak argi uzten du euskaldunen kopurua «vascofonoena» baino gutxiago hazi dela. Miquel Gros i Lladós-en ustez, horren arrazoia da hainbat eskualdetan euskararen familia arteko transmisioa etenda zegoela, eta azken hamabost urteetan hil diren belaunaldiak zirela euskaldunenak.

Euskararen indartze hau azaltzerakoan, Miquel Gros i Lladós-ek dio «Vascofonoen» zein euskaldunen kopuruaren hazkundea eskolari esker gertatu dela nagusiki, baina baita hainbat nafarren borondate eta euskararekiko duten jarrera baikorrari esker ere. Bere ustez,

...las comarcas que fueron total o parcialmente euskaldunes hasta los siglos XVI y XVII muestran un porcentaje, en la vascofonía infantil, que se sitúa entre el 50 y el 30% de vascófonos. Son datos concluyentes. Dichas comarcas presentaban en 1986 unos porcentajes de vascofonía pirricos, y al estar situadas en zona no vascófona, no ha habido ninguna promoción social de carácter significativo, ni del euskera ni de su aprendizaje. Cabe atribuir, por tanto, solamente a la voluntad de su tejido social, el considerable nivel de revasquización producido, y, sin duda, la herencia histórica que el euskera dejó en aquellas tierras ha debido jugar un papel en dicha recuperación.

Arestian esan bezala, liburuak hainbat mito ere apurtzen dizkigu. Izan ere, oso ohikoa da pentsatzea Nafarroako euskaldun gehienak Gipuzkoatik hurbil dauden eskualdetan bizi direla. Alegia, askotan pentsatzen da euskararen presentzia Nafarroan Gipuzkoaren eraginaren ondorioa dela. Miquel Gros i Lladós-ek argi erakusten du euskara nafar guztien ondarea dela eta euskaldunak Nafarroa osoan daudela barreiatuta. Modu berean, liburuak frogatzen du askok pentsatzen dutena baino egoera hobeagoa duela, gaur egun, euskarak Nafarroan. Izan ere, oraingo haur eta gazteak aurreko belaunaldietakoak baino euskaldunagoak dira. Gainera, euskaldunen ugaritzea eskualde ia guztietan gertatu da. Zentzu honetan, liburu honen ondorio garrantzitsuenetarikoa da, nire ustez, Euskararen Legeak Nafarroan ezarri zuen eremuen araberako banaketa ez datorrela bat gaur egungo egoera soziolinguistikoarekin.

Gaur egun bizirik dauden hizkuntzen kopurua 5.000 eta 6.000 bitartekoa dela uste da. Hala eta guztiz ere, badirudi hauetariko asko hil egingo direla hurrengo urteetan. Ikerlari asko dira esaten dutenak hizkuntza desagertzea izango dela XXI. mendeko arazorik larrienetakoa.

Miquel Gros i Lladós-ek egin duen ikerketa honen arabera, ez dirudi hori gertatuko zaionik euskarari Nafarroan. Arazoak eta ahultasunak ukatu gabe, euskara aurrera ateratzen ari da Nafarroako eskualdeetan, eta etorkizuna baikorki ikusteko arrazoiak badaude. Lan zehatz eta ondo egindako batek adierazten digu hori.

IV

***EUSKERA* AGERKARIAREN
EDUKIAK**

EUSKERA AGERKARIAREN EDUKIAK

Euskaltzaindiaren Argitalpen Batzordearen erabakiz, 2007-XI-29an, *Euskera* Agerkari ofizialaren berregituratzea dagokio batzorde bati, Euskaltzainburuak, Argitalpen eragileak, Akademiaren Idazkariak eta Adolfo Arejita euskaltzain osoak osatutako batzordeari, alegia. Batzorde berean erabakitako berregituratze horren arabera, *Euskera* Agerkariaren hiru zenbaki argitaratuko dira, urtero-urtero, aurrerantzean. Horietatik lehena eta hirugarrena izango dira Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa bilduko dituztenak; bigarrenak, aldiz, ikerketa-lanak eta bestelakoak jasoko ditu beren beregi.

Jarraiko orrialdeotan zehazten da zein izango diren gai lehenetsiak eta irizpideak urteroko bigarren zenbaki hori osatzeko. Esan gabe doa urrats esanguratsua izan daitekeela honako hau, *Euskera* agerkaria eraberritzeko prozesuan, Akademia osatzen dugun guztion parte-hartze zabala tartean dela. Horrexegatik, hain zuzen ere, dei berezia egiten diet euskaltzain guztiei eta euskalgintzaren munduan ari direnei, zeinek bere esparruan lantzen dituen gaien emaitzak Euskaltzaindira bidal ditzan, aintzakotzat hartuak izango baitira horiek, gerora datozen irizpideak betez gero.

Joan bitez, aldez aurretik, bide berri honetan parte hartuko duten guzti-ontzat, nire eskerrik zinezkoenak.

Bilbo, 2008-III-11

*Andres Urrutia,
Argitalpen burua*

* * *

TESTUAK AURKEZTEKO ETA ARGITARATZEKO IRIZPIDEAK

1. *Euskera* Agerkariaren esparruak

Euskera Euskaltzaindiaren Agerkari ofiziala da. Bi motako zenbakiak argitaratzen ditu: lehenik eta behin, Instituzioaren kide berrien sarrera-hitzaldiak, erakundearen lanak, agiriak, Hizkuntza-ARAUAK, *Iker* edo *Jagon* Saileko Jardunaldiak eta antzekoak jasotzen dituztenak, eta, bigarrenik, Euskaltzaindi-

aren intereseko jakintza esparruetako ikerketa-artikuluak, liburu-aipamenak eta antzekoak. Ondoren zehazten diren irizpideak soilik bigarren motako zenbaki-etako ikerketa-artikulu eta liburu-aipamenei dagozkie, eta bete beharrekoak dira ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak aintzat har daitezzen argitaratze-bidean. Gainerakoetan, bete beharrekoak dira Euskaltzaindiak ezarritako baldintzak; ikus «Euskaltzaindiaren argitalpen eremua», *Euskera*, 48 (2003) 1115-1124.

Hauxek dira *Euskera* Agerkarian jorra daitezkeen zenbait gai:

- Euskal Filologia
- Hizkuntzalaritza orokorra
- Gramatika
- Dialektologia
- Lexikografia / Lexikologia
- Literatura
- Toponimia / Onomastika
- Fonetika eta Fonologia
- Semantika eta Pragmatika
- Hizkuntzaren historia
- Hizkuntzaren normatibizazioa
- Hizkuntzaren normalizazioa
- Soziolinguistika
- Teknologia berriak eta hizkuntza
- Iurilinguistika eta hizkuntza-zuzenbidea
- Itzulpengintza
- Zientzia-arlo desberdinetako euskara teknikoak.

Orobat, aintzat hartuko dira beste hainbat esparrutako diziplinak, euskarekin zerikusirik duten neurrian.

Ikerketa-artikulu, liburu-aipamen eta antzekoen proposamenak Argitalpen Buruari zuzenduko zaizkio, ondoko helbidera:

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.
Argitalpen Burua
Plaza Barria, 15
48005 BILBO

2. Hizkuntzak

Ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak Euskal Herriko mundu akademikoan erabiltzen den edozein hizkuntzatan idatzita izan daitezke, baina, ge-

hienbat, euskaraz idatzitakoak hobetsiko dira. Orobat, egilea edozein izan daiteke, baina euskaltzainen (oso, ohorezko, urgazle) eta Euskaltzaindiko batzordekideen ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak hobetsiko dira.

3. Luzera

Bi motako testuak argitaratuko dira: ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak. Lehenek ez dute luzera jakinik, baina oro har ez dute izango 30.000 karaktere baino gutxiago eta 60.000 baino gehiago (15-30 orrialde). Erreseinak bi motakoak izango dira: 3 orrialdekoak (6.000 karaktere) edo 5 orrialdekoak (10.000 karaktere), salbuespenak baztertzeke.

4. Laburpenak

Ikerketa-artikuluarekin batera haren laburpena eta artikuluaren hitz-gakoa (gehienez ere, sei) entregatuko dira, artikulua idatzia den hizkuntzan.

5. Onarpena

Ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak onartzea *Euskera* Agerkariarekiko azpibatzordeari edo kasuan kasu honek izendatzen duenari dagokio. Artikulua onartzerakoan egileari oztopo, akats edo aldabeharren zerrenda emango zaio. Egileak bere adostasuna jasotzen duen agiria sinatuko du. Hortik aurrera ez da muntazko aldaketa edo zuzenketarik onartuko ez egilearen aldetik ez argitaratzailearen aldetik.

6. Epeak eta baldintzak

Ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak urtean zehar aurkeztuko dira, urtea bukatu arte eta hurrengo urteko lehen seihilekoan argitaratzekotan.

Ikerketa-artikuluek eta liburu-aipamenek bete beharko dituzte irizpide hauek eta aurretiaz Euskaltzaindiak ezarritako baldintzak; ikus «Euskaltzaindiaren argitalpen eremua», *Euskera*, 48 (2003) 1115-1124.

Ezarritako epeak eta aipatu baldintzak ez betetzeak artikuluaren argitalpena bertan behera uztea ekar liezaioke autoreari, argitaratzailearen erabakiz.

7. Artikuluaren euskarriak

Artikuluak ordenagailu formatuan aurkeztuko dira, bertsio inprimatu bat erantsiz. Euskal Herrian arruntak diren testu-prozesadoreak erabiliko dira.

8. Erreferentziak eta oharrak

Ohar gehiegikeriak mugatzeko ahaleginak hobetsiko dira. Erreferentzia guztiak, ahalaz, testu barnean txertatuko dira, artikuluaren bukaeran erantsi ohi den bibliografiarekin lotuz, honela: (Larramendi, 1729) edo Mitxelena (1961, 123). Edozein arrazoiengatik mota horretakoak erabiltzea baztertzan denean ere, eman bitez erreferentzia zehatzak, *op. cit.* edo *ibidem* bezalakoak saihestuz eta erreferentzia osoak bibliografian eskainirik.

9. Bibliografia

Bibliografia artikuluaren bukaeran emango da, oinarritzko eredu honi segituz:

Larramendi, M. 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*, Antonio Joseph Villargordo Alcaráz, Salamanca.

Mitxelena, K. 1959, «Euskal-itzak zein diren», *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J. 1967, «De paremiologia vasca: Oihenart conoció los “Refranes y sentencias en vascuence” de 1596», *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R. 1975, «Indices personnels n’exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*, Société de linguistique de Paris, Paris, 331-337.

Egileak artikuluaren bibliografia oinarritzko eredu horren arabera antolatuko du. Kasuan kasu izan daitezkeen zehaztapenak edota berezitasunak argitaratzaile-arduradunarekin batera konpondu behar ditu.

10. Ordainketak

Agindu-onartu ikerketa-artikulu edota liburu-aipamen guztiak ordainduko dira, Argitalpen Batzordeak, kasuan kasu, erabakitzen dituen tarifen arabera, behin ikerketa-artikulu horren argitalpenerako eskubideak Euskaltzaindiari lagatzen dizkiola adierazten duen agiria sinatu ondoren.